



2023ko

MEMORIA

EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE
JURIDIKOA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<https://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia

Urriak 2024

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Euskadiko Aholku batzorde Juridikoa

Internet

<https://www.comisionjuridica.euskadi.eus>

Argitaratzailea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 · 01010 - Vitoria-Gasteiz

Diseinua

ekipoPO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Maketazioa

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Kabinete Teknikoa

Vitoria-Gasteiz, 2024

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	10
LABURDURAK.....	11
LEHENENGO ZATIA:2023.URTEKO JARDUERA	16
1. Kapitulua. OSAERA	18
2. Kapitulua. BATZORDEAREN DOKTRINA ZABALTZEA	19
3. Kapitulua. KONTSULTA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK.....	20
I. Sarrera	20
II. Hartutako kontsultei buruzko datuak	20
III. Emandako irizpen buruzko datuak.....	23
IV. Irizpideen eta erabakien zerrenda	28
A) Lege-aurreproiektuak (9)	28
B) Legegintzako dekretuen proiektuak (7).....	29
C) Erregelamenduzko xedapenen proiektuak (34).....	29
D) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioak (122)	32
E) Ofiziozko berrikuspena (14)	40
F) Administrazioaren kontratuak (14)	41
G) Berrikusteko Errekurtso Berezia (3)	42
H) Itzultzeko erabakiak (11)	43
Batzordearen eskumenekoa ez izateagatik:	43
Instrukzioari jarraipena eman diezaioten:	43
Irizpen berri bat igortzea beharrezkoa ez izateagatik:.....	44
BIGARREN ZATIA:DOKTRINAREN LABURPENA.....	46
1. Kapitulua.KONTSULTA-EGINKIZUNA	48
I. Jarduera-esparrua.....	48
II. Parametroak	61
A) Administrazio-egintzak	61
Ondare-erantzukizuna	61

B) Xedapen orokorrak.....	68
Erregelamenduzko xedapenen proiektuak	68
2. Kapitulua.ZUZENBIDE-ITURRIAK.....	69
I. Iturri-sistemaren interpretazio klausulak.....	69
II. Legegintzarako eskuordetza.....	70
III. Legea.....	74
A) Maila izoztea	74
B) Deslegalizazioa.....	75
C) Lex repetitae	76
IV. Erregelamenduak.....	81
A) Erregelamenduak egiteko ahala erabiltzea.....	81
B) Erregelamenduak egiteko ahalaren titulartasuna	82
3. Kapitulua.ARAUGINTZA-TEKNIKA	88
I. Erregulazio-estiloa.....	88
II. Gaikuntzak edo habilitazioak.....	93
III. Aldatzeko arauak.....	94
IV. Xedapenak kopiatzea.....	96
4. Kapitulua.ESKUMEN-BANAKETA	100
I. Gizarte-laguntza (EAEAE, 10.12. artikulua).....	100
II. Zibersegurtasuna.....	105
III. Garapenerako lankidetz.....	111
IV. Irakaskuntza (EAEAE, 16. artikulua).....	118
V. Ingurumena (EAEAE, 11.1. artikulua).....	124
VI. Gizarte Segurantzaz sartzeko ez diren mutualitateak (EAEAE, 10.23 artikulua) ...	132
VII. Bere autogobernu-erakundearen antolaketa, araubidea eta jardura (EAEAE, 10.2. art.)	134
5. Kapitulua.ARLOAK	139
I. Administrazio Publikoa	139
A) Administrazio independentea	139
B) Kargu publikodunak.....	143
C) Kide anitzeko organoak.....	144

D) Administrazio publikoen ondarea.....	146
E) Zehatzeko ahala.....	150
II. Kooperatibak	150
III. Hezkuntza	152
IV. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.....	159
V. Finantza-erakundeak	165
VI. Administrazio publikoetako langileak.....	168
A) Sartzea.....	168
Ekintza positiboko neurriak.	168
B) Izendapen askeko langileak	175
VII. Datu pertsonalen babesa	176
VIII. Erregistroak.....	178
IX. Gizarte-zerbitzuak	180
A) Ekintza itunduaren araubidea	180
6. Kapituluua.PROZEDURA.....	186
I. Xedapen orokorrak egiteko prozedura	186
A) Aurretiazko kontsulta.....	186
B) Txostenak.....	188
C) Hasiera ematea	189
D) Organoek nahitaez esku hartu beharra.....	190
E) Memoriak.....	190
Memoria ekonomikoa	190
F) Langileen ordezkarietikiko negoziazioa edo kontsulta.....	192
G) Izapideak errepikatzea funtsezko aldaketengatik	193
II. Administrazio-egintzen administrazio-prozedura erkidea	195
A) Abiaraztea	195
Legitimazioa	195
B) Instrukzioa	200
Interesdunei entzutea	200
Txostenak	201
Froga	202
Zioak edo arrazoiak.....	206

III. Administrazio-prozeduraren berezitasunak	207
A) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioak	207
Abiaraztea	207
Erreklamatzeko epea	214
7. Kapituluak ADMINISTRAZIOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNA	218
I. Antijuridikotasuna.....	218
A) Zama edo karga jasan beharra.....	218
II. Kalte-ordaina	220
A) Lortu gabeko irabazia	220
III. Kausalitate-harremana	222
A) Biktimaren edo beste pertsona batzuen jokabidea.....	222
B) Funtzionamendu-estandarrik	229
C) Egozpen-titulua	236
IV. Ondare-erantzukizuna sektoreka.....	240
A) Funtzio publikoa	240
B) Osasun-zerbitzuak	246
Baimenik ez izateagatik	246
Aukera galtzeagatik	248
Hirigintza.....	252
V. Erantzukizunaren araubidea administrazio-kontratu eta -emakidetan	258
8. Kapituluak.OFIZIOZKO BERRIKUSPENA.....	264
I. Berrikusteko ahalaren eremua	264
II. Deuseztasun-arrazoien azterketa	269
A) Erabateko deuseztasuna, Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunak urratzen dituzten egintzena	269
B) Erabateko deuseztasuna, lege ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik emandako egintzena	275
C) Erabateko deuseztasuna, ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adierazi nahiz presuntziozkoena, baldin eta egintza horiek ahalmen edo eskubideak eskuratzeko bide ematen badiete horretarako funtsezko betekizunak ez dituztenei	281
III. Hirigintza-tresnak.....	293
IV. Ofiziozko berrikuspenaren mugak	296

9. Kapitulua. APARTEKO BERRIKUSPEN-ERREKURTSOA.....	299
I. Egintzak ematerakoan egitatezko errakuntzaren bat izan, eta espedienteari erant- sitako agiriak ikusita jabetzea.....	299
II. Gaia ebazteko funtsezko balioa duten dokumentuak agertzea, ebazpen errekurri- tuaren okerra agerian uzten dutenak, geroago bada ere.....	302
10. Kapitulua. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN KONTRATUAK	308
I. Kontratua azkentzea	308
A) Kontratua suntsiarazteko arrazoiak	308
Kontratuko gainerako funtsezko obligazioak ez betetzea	308

AURKEZPENA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak bere 3.3 artikuluan ezarri duenez, “Batzordeak urtero gertatu eta argitaratuko du memoria bat, non bere jardueren berri eta emandako irizpenetan jasotako doktrinaren berri emango baitu”. Memoria horrek, irailaren 12ko 167/2006 Dekretuz onetsitako Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduaren 7. artikulua arabera, eman diren erabaki eta irizpenetan jasotako doktrinaren laburpen bat bildu beharko du.

Agindu hori betez, Batzordeak, 2024ko Maiatzaren 23an egindako osoko bilkuran, 2023. urteari dagokion memoria hau onartu du. Bereizitako bi zatitan egituratuta dago memoria. Lehenak Batzordearen osaera jasotzen du, baita organo horri eman zaion kontsulta-eginkizunari dagokion jardueraren daturik esanguratsuenak ere.

Bigarren zatiak, berriz, Batzordeak 2023. urtean emandako doktrinaren laburpena hartu du. Laburpen hori egiteko, ohi bezala, aldi horretan emandako irizpen eta erabakietatik atera dira zatirik esanguratsu eta adierazgarrienak, bere horretan eta hitzez hitz atera ere, eta gaien eta hitzen arabera sailkatu, Batzordeak kontsultarako aurkeztu zaizkion gaiei buruz duen iritzia argitze aldera. Zati horiek aukeratzekoan, arreta berezia eman zaio aurreko memorietan jasotako doktrinaren errepikapenak saihesteari, salbu eta aurreko urteetako irizpenetan emandako azalpenari ñabardurak edo zabalkundea erantsi zaizkionetan. Era berean, zati guztiei jarri zaie zer irizpen edo erabakitik dauden hartuta, interesa dutenek testu osoa kontsultatzeko modua izan dezaten dokumentuzko datu-basean, interneteko helbide honetan agertzen baita: <https://www.comisionjuridica.euskadi.eus>.

Memoriaren edizio hau ateratzeko, Batzordeko idazkariak koordinatuta, arduraz aritu dira Batzordeko legelari Deiane Agirrebaltzategi Sánchez eta Yolanda Ganuza Arizmendi, doktrina aztertutako eta ateratzeko lantegian, eta Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala euskaratze-lanetan; konposizio- eta maketazio-lanetan, berriz, Aitor González Cañadas administrari informatikariak jardun du.

Azkenik, ohi dugun bezala, eskerrak eman nahi dizkiegu ardura politikoko postuetatik edota eguneroko administrazio-kudeaketatik kontsulta-organo honen jarduna posible egiten jarraitzen dutenei.

LABURDURAK

AAJL	29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzkoa
ABEE	Aldi baterako enpresa-elkartea
ABJI	Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena
AKPA	Administrazio-klausula partikularren agiria
APEL	39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
APSL	33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa
DBEO	2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.
DCE	Estatu Kontseiluaren irizpena
DLO	14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, osasunari buruzkoa
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa
EABJL	9/2004 Legea, azaroaren 24koa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarena

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAEAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia
EAEF	Euskal Herriko Autonomia Estatutua
EAELTB	1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena
EAESL	3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoari buruzkoa
EASL	8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena
EBFT	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua
EBJA	Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
EBJA/EBJA	Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia/epaiak
EFPL	4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketarena
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa
EGAB	Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EK	Espainiako Konstituzioa

EKL	11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena
ELHL	11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena
EONAL/EO-NALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena
EPMMLTB	2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena
EPOELTB	5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena
ETEL	2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
ETGB	Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea
EAESL	3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, euskal sektore publikoari buruzkoa
GDSBES	Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema
GSIN	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala
GZES	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema
GZL	12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
HAPO	Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra
HNL	2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, haur eta nerabeei buruzkoa

KAE/KAE	Konstituzio Auzitegiaren epaia/epaiak
KEB	Kontrol ekonomikoko bulegoa
LAPL	31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa
LEL	44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratzeko enpresen erregimena arautzen duena
LG	7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Jaurlaritzari buruzkoa
LHL	2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa
LHL	27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzkoa
LOE	2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa
LOMESP	3/1986 Lege Organikoa, apirilaren 14koa, osasun publikoaren arloko neurri bereziei buruzkoa
par.:	Paragrafoa
PPT	Baldintza teknikoen agiria
PZL	1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilari buruzkoa
SPAJL	40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora

STS/SSTS	Auzitegi Gorenaren epaia/epaiak
TAOL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak
XOEPL	6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena
ZAL	1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa

LEHENENGO ZATIA:
2023. URTEKO JARDUERA



1. Kapituluua. OSAERA

Urte honetan ez da aldaketarik izan Batzordearen osaeran, eta hauxe zen Batzordearen osae-
ra 2023ko abenduaren 31n:

Lehendakaria:

Sabino Torre Díez jauna.

Lehendakariordea:

Xabier Unanue Ortega jauna.

Bokalak:

M^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea.

Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.

Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea.

Iñaki Calonge Crespo jauna.

M^a Jesús Urkiola Mendibil andrea.

M^a Lourdes Pérez Ovejero andrea.

Mirari Erdaide Gabiola andrea.

Jaione Juaristi Sánchez andrea.

Idazkaria:

Jesús M^a Alonso Quilchano jauna.

2. Kapituluia. BATZORDEAREN DOKTRINA ZABALTZEA

Azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.3 artikulua dakarren agindua betez, 2022. urteari dago-kion memoria editatu eta argitaratu du Batzordeak, formatu elektronikoan.

3. Kapitulua. KONTSULTA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

I. Sarrera

2023. urtean kontsulta-eskaera berrien kopuruak % 21eko beherakada izan du aurreko urtearekin alderatuta.

Era berean, urte honetan emandako irizpenen kopurua ehuneko 15 puntu txikiagoa izan da 2022an onartutakoekin alderatuta.

Gaien tipologiari dagokionez, ekitaldi honetan xedapen orokorreari buruzko kontsultei buruz emandako irizpenen ehunekoa (guztizkoaren % 25) pixka bat handitu da, administrazio-egintzei buruzko kontsultei buruzkoekin alderatuta (guztizkoaren % 75era jaitsi dira). Hartara, arau gehiagori eman zaie irizpena (50), eta administrazio-egintzei buruzko irizpenek eutsi diote hegemoniari (153). Ondare-erantzukizuneko erreklamazioekin lotutako irizpenek ehuneko handiena izaten jarraitzen dute emandako guztien aldean (% 60), baina 8 puntu jaitsi dira aurreko urtekoekin alderatuta. Horien artean, bide publikoan izandako istripuen ondoriozko erreklamazioak gehienak izan dira aurten, guztizkoaren % 39 izanik, eta, horien ondoren, Eusko Jaurlaritzak COVID-19k eragindako pandemiaren esparruan hartutako neurrien ondorioz jasandako kalteen ondoriozko erreklamazioak (% 32) eta osasun-eremuko erreklamazioak (% 17) egon dira.

Kontsulten jatorriari dagokionez, aurreko ekitaldian erregistratutakoekin alderatuta, kontsulta-eskaeren banaketa-ehunekoek bere horretan jarraitu dute, aldaketa txiki batzuekin; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkionak ehuneko hiru puntu jaitsi dira (% 59), toki-administrazioak % 40raino igo dira eta Euskal Herriko Unibertsitatekoak % 1ean mantendu dira.

Aurten garatutako kontsulta-eginkizunari buruzko ondorio nagusiak labur-labur azalduta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, garatutako jardueraren datu kuantitatiboak aurkeztuko ditugu jarraian.

II. Hartutako kontsultei buruzko datuak


2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, 221 kontsulta-eskabide sartu ziren kontsulta-organo honen idazkaritzan.

Horietatik 5 ez ziren izapidetzeko onartu, a limine, eskabideak akats formalak zituelako edo Batzordearen ageriko eskumenik ezagatik.


2023. urtean izapidetzeko onartu ziren 216 eskari horietatik:

- 8 erretiratu zituzten kontsulta egin zuten organoek eurek, garrantziko hutsuneak ikusi zirelako espedienteen izapideetan.
- 7 itzuli zituen Batzordeko lehendakariak, izapidetze-akatsak zirela eta.
- 11 kontsulta itzuli ziren osoko bilkuraren erabakiz, kontsulta onartu ez zelako Batzordearen eskumenik ezagatik, espedientearen instrukzioa osatzeko, edo, aurretik ebatzitako gai bati buruzko irizpen berri bat igortzea beharrezkoa ez izateagatik, funtsezko aldaketarik sartu ez dela kontuan hartuta.
- 171 kontsultari egin zitzairen irizpena.


Urtearen amaieran, beraz, 19 kontsulta geratzen ziren erabakitzeke.



Hona hemen kontsulta-eskarien bilakaera, hilez hil:



Beheko koadroan agertzen da, aurreko 10 urteekin alderatuta, izapidetzeko onartu diren kontsulta-eskarien kopuruaren bilakaera:



Izapidetzeko onartu diren kontsulten tramitazioari dagokionez, azpimarratzekoa da horietako hamahiru bideratu direla urgentziatzeko prozeduraz, 9/2004 Legeak 26. artikulua 2. eta 3. zenbakietan aurreikusi duenaren arabera.

Espedientea aztertzeko prozesuan, lehendakariak, txostengileen eskari arrazoituari erantzunez, zazpi kontsultetan eskaria egin dio organo kontsultagileari informazioa zabaltzeko.


Hauk ere jaso ditu Batzordeak:

- 118 idazki, kontsulta egin zuten organoek bidaliak, norberaren ekimenez, beste dokumentu batzuk sartzeko espedienteetan.
- 3 idazki, Batzordearen informazio-eskaerari erantzuna emateko.
- 7 idazki, kontsulta-eskariak erretiratzea eskatuz.
- 62 idazki, kontsulta egin zuten organoek bidaliak, Batzordeak irizpena egin zien gaiei buruzko azken ebazpena edo xedapena jakinarazteko.



Azkenik, honako hau adierazi behar: Aholku Batzorde Juridikoak 38 ohiko bilera egin dituela, eta ez duela inongo agerraldirik gauzatu, kontsulta egin duten organoetako agintari edo funtzionariok bertara zedin.

III. Emandako irizpen buruzko datuak

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, guztira, 203 irizpen onartu ditu aldi honetan —kontuan har bedi Batzordeari 2022. urtean bidalitako espedientei dagozkiela irizpen horietatik 32—. Kontsulten lehen sailkapen orokorra eginenez gero, honela banatu daitezke:




Ondorengo koadroetan ikus daiteke azken hamar urteekiko konparazioa, emandako irizpen guztien kopuruari dagokionez, eta sailkapen orokorraren arabera banaketari dagokionez:




Irizpen guztiak sailkatuz gero, 9/2004 Legearen 3. artikulua ezarritako tipologiaren arabera emanda, hurrengo datuak aterako ditugu:

TIPOLOGÍA	Nº
Lege-aurreproiektuak	9
Legegintzako dekretuen proiektuak	7
Erregelamenduak	34
Administrazioaren egintzen eta xedapenen ofiziozko berrikuspena	14
Administrazio-kontratuen eta -emakiden deuseztasuna, interpretazioa eta suntsiarazpena	14
Ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazioak	122
Berrikusteko errekurtsio berezia	3
Total	203

Beheko grafikoan islatu dira irizpenek aurreko tipologiaren arabera dituzten ehunekoak:



Azkenik, hona datuak, organo kontsulta-egilea kontuan hartuta:




a) **Autonomia Erkidegoko Administrazioa**, 120 irizpen, honela banatuta:

KONTSULTA EGILEA	ZK.
Lehendakaritza	23
Segurtasun Saila	8
Lan eta Enplegu Saila	6
Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	12
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	8
Ekonomia eta Ogasun Saila	4
Hezkuntza Saila	12
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	2
Osasun Saila	16
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	7
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	20
Euskal Trenbide Sarea	2
Total	120

b) Toki Administrazioa, 82 irizpen, honela banatuta:

TOKI ERAKUNDEA	ZK.
Aguraingo Udala	1
Alonsotegiko Udala	1
Amorebieta-Etxanoko Udala	1
Artziniegako Udala	1
Ataungo Udala	1
Basauriko Udala	4
Berrizko Udala	2
Bilboko Udala	11
Donostiako Udala	8
Eibarko Udala	2
Errenteriako Udala	1
Galdakaoko Udala	3
Gasteizko Udala	15
Gatikako Udala	1
Gernika-Lumoko Udala	1
Getxoko Udala	3
Gorlizko Udala	1
Irungo Udala	3
Kanpezuko Udala	2
Lazkaoko Udala	1
Loiuko Udala	1
Mungiako Udala	1
Munitibar-Arbatzegiko Udala	1
Oñatiko Udala	1
Plentziako Udala	1
Santurtziko Udala	3
Tolosako Udala	3
Trapagarango Udala	1
Villabonako Udala	1
Zaldibarko Udala	1
Zarauzko Udala	1
Zumarragako Udala	1
Ibargurengo Administrazio Batzarra	1
Debagoieneko Mankomunitatea	1
Begoñako Andre Maria Egoitza Erakunde Autonomoa	1
Total	82

Hona, azken hamar urteetako datuak erkatzen dituen grafikoa:



Emandako irizpenak onartzeari dagokionez, osoko bilkurako kideek 197 irizpen aho batez onartu zituzten eta 6 gehiengoz. Era berean, aipatu behar da ez dela boto partikularrik eman.

IV. Irizpideen eta erabakien zerrenda

A) Lege-aurreproiektuak (9)

018/2023 irizpena: Lege-aurreproiektua, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuena.

043/2023 irizpena: Euskal lege-aurreproiektua, enpleguari buruzkoa.

056/2023 irizpena: Lege-aurreproiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.

061/2023 irizpena: Lege-aurreproiektua, haur eta nerabeena.

067/2023 irizpena: Lege aurreproiektua, trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzkoa.

085/2023 irizpena: Lege-aurreproiektua, Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia sortzekoa.

092/2023 irizpena: Lege-aurreproiektua, Finantzen Euskal Institutuarena.

117/2023 irizpena: Euskal Lege-aurreproiektua, lankidetzeta eta elkartasunekoa.

179/2023 irizpena: Lege-aurreproiektua, Euskadiko Gardentasunarena.

B) Legegintzako dekretuen proiektuak (7)

032/2023 irizpena: Legegintzako Dekretuaren proiektua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.

110/2023 irizpena: Legegintzako dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen egoitzari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

111/2023 irizpena: Legegintzako dekretu-proiektua, Euskadiko ereserki ofizialari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

112/2023 irizpena: Legegintzako dekretu-proiektua, Mondragon Unibertsitatea aitortzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

122/2023 irizpena: Legegintzako dekretu-proiektua, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren araubide juridikoari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

123/2023 irizpena: Legegintzako dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

124/2023 irizpena: Legegintzako dekretu-proiektua, Euskal Eskola Publikoaren Legearen testu bategina onartzen duena.

C) Erregelamenduzko xedapenen proiektuak (34)

009/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboaren ustategiak antolatzeke oinarritzko arauak garatzen dituen.

013/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez kanpoko ikastetxeen sarea antolatzeke eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen dekretua aldatzeke.

014/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeen Errolda sortzeke eta haren funtzionamendua arautzeke dena.

027/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza-funtziorako sarbidea, haren jardunaren presakuntza, ebaluazioa eta aitortpena, eta hura osatzen duten karguen kargu-uztea arautzeke dena.

031/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzkoa.

033/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko 7 eta 15 urte bitarteko herritarren aho-hortzetako osasun-prestazioa arautzeari buruzkoa.

036/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duena.

037/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakundearteko Batzordea arautzen duena.

042/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartua, garatzeko erregelamendua onartzen duena.

046/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari itun sozialaren eta hitzarmenen araubidea arautzen duena.

054/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Ertzaintzaren espezialitateei buruzkoa.

055/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, euskal sektore publikoko enplegatu publikoentzako telelanari buruzkoa.

062/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

068/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

069/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

070/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituena.

073/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Zibersegurtasuna Informazio-Teknologien inguruneetan, Artisau-Okintza eta –Opilgintza, Zibersegurtasuna Eragiketa-Teknologien inguruneetan, Fabrikazio Adimenduna, Zelula-Kultiboak, Euskal Autonomia Erkidegoan bost espezializazio-ikastaroren curriculumak ezartzen dituena.

074/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Fabrikazio Gehigarria, Bideojokoen eta Errealitate Birtualaren Garapena, eta Ibilgailu Hibrido eta Elektrikoen Mantentzea, Euskal Autonomia Erkidegoan Irakasteko hiru espezializazio-ikastaroren curriculumak ezartzen dituena.

079/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioak, eta trazabilitate, etiketatze eta publizitateari buruzkoak ezartzekoak.

080/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-sistemaren barruan laneko medikuntzaren prebentzio-diziplinaren kanpo-auditoretza edo -ebaluazioa egiteko baimena du-

ten prebentzio-zerbitzuen eta pertsonen edo erakunde espezializatuen jarduera sanitarioak arautzen dituena.

091/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko.

106/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duena.

114/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.

115/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatu eta gainbegiratzeari buruzkoa.

121/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak finantzatuta duten eskola-garraioari buruzkoa.

127/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen Erakunde Ordaintzailearen antolamendua eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen dituen dekretua aldatzen duena; eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako laguntzei buruzko azaroaren 15eko 233/2011 Dekretua (Elkarteak programa) indargabetzen duena.

145/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzeari buruzkoa.

156/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautu, eta enpresa horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituena.

157/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, 15/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez (energia-trantsizioa egiteko eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzkoa) sortutako gizarte-bonu terminoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen dituena.

160/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena.

163/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa arautzeari buruzkoa.

178/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, kooperatiben arloko zehapen-prozeduraren Erregelamendua onartzeko dena.

192/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko zenbait dekretu aldatzekoa.

198/2023 irizpena: Dekretu-proiektua, Inklusiorako Erakundearteko Batzordea arautzen duena.

D) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioak (122)

001/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Vertiz Motor, S.L. enpresak jasandako kalteengatikoa lursailaren desjabetzearen ondorioz.

002/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Susuru Noodle Bar S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

003/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Tarresbell 2019 S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

004/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, QSR North Spain Company S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

005/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, EEE andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

006/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

007/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa

008/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, FFF andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

010/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, CIMB jabekideen erkidegoak jasandako kalteengatikoa; izan ere, udalak ez ditu beharreko udal zerbitzu publikoak bere gain hartu 2020ko abenduaren 15etik 2021eko abenduaren 14ra bitartean.

012/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, VVV jaunak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

015/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, EEE andreak jasandako kalteengatikoa; izan ere, udaletxeko bulegoetako lanpostura sartzeko erori egin zen.

017/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, LLL andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

020/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Gestión y Desarrollo Bilbaína de Hoteles S.L. (Hotel Mercure Bilbao Jardines Albia) enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

021/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Cuor Hostelería S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

022/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Capagrana 10, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

023/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, GGG jaunak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

024/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Egunsenti Soluciones, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

025/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, AAA andreak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

026/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, GABUTOA, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

028/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak jasandako kalteei buruzkoa, bizikletan zihoala bide publikoan izandako istripuaren ondorioz.

038/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

039/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Comess Group de Restauración S.L. (Hostinter) enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

040/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Pomodoro Franquicia S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

041/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, AAA andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

044/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, AAA jaunak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

047/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

049/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

050/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Felesa S.A. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

051/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Cadena de Bingos S.A. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

052/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Lar Galiza S.A. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

053/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Uhagon 10 S.A. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

057/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Residencial Arangoiti Buena Vista, S.L. enpresak jasandako kalteengatikoa; izan ere, bi aparkaleku eraiki ziren Buena Vista hirigintza-sektorean eta Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lurzoru hori urbanizaezintzat jo zuen.

058/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ jaunak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

059/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Bingos del Norte, S.A. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

060/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Zubingora, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

063/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, RRR andreak udal igogailu batetik ateratzean erorita jasandako kalteengatikoa.

064/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, TTT jaunak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

065/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

066/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

071/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, FFF andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

072/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM jaunak jasandako kalteei buruzkoa, Berrizko Udalaren ur-hornidurako sareek ... baserrian eta lursailean eragindako kalteengatikoa.

076/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, RRR adingabeak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

077/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

081/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, El Embarcadero de Getxo S.L.U. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

082/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, El Gran Hotel Ercilla S.A. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

084/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

086/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, III andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

087/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, TTT andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

088/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ eta OOO jaunek jasandako kalteengatikoa; izan ere, haien emaztea eta ama izan zena, PPP Andrea, hil zen bide publikoa erorita.

089/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa ikuskatzeko eta kontrolatzeko zerbitzuen funtzionamendu txarraren ondorioz YYY jaunak jasandako kalteengatikoa.

093/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, GGG jaunak jasandako kalteengatikoa, udal kiroldegi bateko dutxetan jasandako erreduren ondorioz.

096/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, DDD andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

099/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ jaunak jasandako kalteei buruzkoa, patinetean zihoala bide publikoan izandako istripuaren ondorioz.

100/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ jaunak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

101/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, BBB andreak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Lehendakariak hartutako neurrien ondorioz.

102/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, SSS andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

103/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

104/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, VVV andreak eta JJJ, AAA eta PPP adingabeek jasandako kalteengatikoa; izan ere, haien bikotekidea eta aita izan zena, GGG jauna, hil zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

105/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, III andreak jasandako kalteengatikoa, Gorlizko udal kiroldegiko rokodromoan erori baitzen.

107/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Gasteiz, S.C.-ak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

108/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

109/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, FFF jaunak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

113/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Arcelormittal Distribuciones Norte SL enpresak jasandako kalteengatikoa; izan ere, energia-horniduraren etenak instalazioak geldiarazi zitkion.

116/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

118/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, bide publikoan erorita MMM andreak jasandako kalteengatikoa.

120/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

125/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

126/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ eta FFF jaunek jasandako kalteengatikoa; izan ere, haien ama izan zena, FFF andrea, hil zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

128/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, AAA andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

129/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, SSS jaunak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

130/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, EEE andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

131/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

134/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Sucesores de Urbistondo, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

135/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, bide publikoan erorita MMM andreak jasandako kalteengatikoa.

136/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, bide publikoan erorita EEE jaunak jasandako kalteengatikoa.

137/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, bide publikoan erorita MMM andreak jasandako kalteengatikoa.

140/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, RRR, MM eta BBB anai-arrebek eta AAA jaunak jasandako kalteengatikoa. Izan ere, ama eta amaginarreba izan zena, JJJ andrea, hil zen eguneko zentro batetik etxera bidean garraio-ibilgailu egokitu batean izandako erorikoaren ondorioz.

141/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, bide publikoan erorita AAA jaunak jasandako kalteengatikoa.

142/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, III andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

143/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, AAA jaunak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

144/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, III jaunak bide publikoan izandako istripuaren ondorioz jasandako kalteengatikoa.

146/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Diseño y Valoraciones, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

147/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, ATJ GAMES, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

148/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MALAU JOKOAK, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

149/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Melia Hotels International, S.A. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

150/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, FFF andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

151/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Bai Trapaga, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

152/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, RRR - EEE - III, C.B.-ak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

153/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz EEE andreak eta bere semeak, AAA adingabeak, jasandako kalteengatikoa.

154/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, III jaunak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

155/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, LLL andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

161/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, LLL jaunak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

162/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Eibarko ... erregistro-finkaren lotura beziaren ondorioz EEE jaunak eta gainerako jabekideek jasandako kalteengatikoa.

165/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, RRR andreak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

166/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, CCC andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

167/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ jaunak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

168/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ jaunak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

169/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, SSS andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

171/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, EL GYM IBERIA, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

172/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ jaunak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

173/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, DDD andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

174/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, PPP jaunak jasandako kalteengatikoa, erretiro aurreratua atzeratzearen ondorioz.

175/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

176/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Txintxilik II, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, 18-Astiko kirol gunearen aisialdirako gunearen Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartzearen ondorioz.

177/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, SSS andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

180/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Diseño y Valoraciones, S.L. enpresak 2021. urtean jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

181/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Mugaburu, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

182/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, CCC andreak jasandako kalteengatikoa; izan ere, Berrizko Udalak ez du esku hartu Berrizko 19-EBko Hitzarmen Batzordeak hirigintza-betebeharrak bete ez dituenen.

184/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, ERKI Construcción Sostenible, S.L. enpresak jasandako kalteengatik, Kanpezuko Udalaren osoko bilkuraren 2019ko martxoaren 12ko erabakia, "III. faseko aterpetxearen barnealdea birgaitzeko obrak» kontratua esleitzekoa, epaitegian deuseztatu zelako.

185/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, McFIT ESPAÑA, S.L.U. enpresak (egun, RSG GROUP ESPAÑA, S.L.) jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

186/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, BILBAO WELLNESS MANAGERS, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

187/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, EEE andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

188/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, JJJ jaunak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

189/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, VVV andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

190/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, BBB andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

191/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, III jaunak jasandako kalteengatikoa, us-tez ukatu egin ziotelako Geografia eta Historia irakasgaia emateko gaitasuna unibertsitateaz kanpoko ikastetxe pribatuetan.

194/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

195/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, CCC andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

199/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Orbela Taberna, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

200/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Hotel Larrañaga, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

201/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Ifitness Instalaciones Deportivas, S.L., Art Fit Siluet, S.L., Easy Sport Logroño, S.L., JVN Health Beauty 2012, S.L. eta Easy Sport Pamplona, S.L. enpresek jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

202/2023 irizpena: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Metropolitan Spain, S.L. enpresak jasandako kalteei buruzkoa, COVID-19ak eragindako pandemiaren esparruan Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien ondorioz.

E) Ofiziozko berrikuspena (14)

016/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: ... (e)an emandako zerbitzuak AAA andreari administrazio publikoan alde zuzeneko zerbitzuak aitortzekoa.

030/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Akordioa, Tokiko Gobernu Batzordearena, 2020ko urriaren 20koa, Administrazio Orokorreko lau administrari plaza barne-sustapenaren bidez hautatzeari dagokionez 2020ko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena, eta organo beraren Akordioa, 2022ko apirilaren 12koa, hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu eta deialdia egiten duena.

035/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Akordioa, 2022ko azaroaren 30ekoa, Osoko Bilkurarena. Akordio horren bidez 28/2022ko udal-aurrekontuaren aldaketa onartzen da.

045/2023 irizpena: Ofiziozko berrikustea. Xedea: Artziniegako Udalaren titulartasuneko kale, landa-bide, baso-pista, lursail eta mendien aprobetxamendu berezia arautzen duen Ordenantza.

083/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Gernikako Udal Merkatua eta bere sarbideak berri-

tu, birgaitu eta hobetzeko proiektua idazteko, bai eta zuzendaritza fakultatiboa eta gainerako lan teknikoak egiteko zerbitzuen kontratua aldatzea. Horrez gain, kontratu hori suntsiarazi nahi dute.

097/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Iburgurengo Administrazio Kontseiluak txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza.

119/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Ataungo Udalaren Osoko Bilkuraren 2017ko irailaren 7ko Akordioaren 3. puntua eta 2018ko otsailaren 8ko Akordioaren 5. puntua, udaleko langileen lanpostuen balorazioari buruzkoak.

133/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena, Alkatetzaren 172/2023 Dekretua, apirilaren 11koa, Ogasun eta Ondarerako aldi baterako programa egikaritzeko bitarteko izendapena ematen diona.

138/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Ascender SL enpresarekin 2023ko ekainaren 15ean sinatutako administrazio-kontratua formalizatzeko egintza, CBA kultura-guneko areto eszenikorako harmaila teleskopikoak, besaulki mugikorak eta besaulki ateragarriak hornitu eta instalatzeari buruzkoa.

159/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena, LLL andreak eskatuta. Xedea: Ebazpena, 2022ko ekainaren 8koa, Hezkuntzako Bizkaiko lurralde-ordezkarirena, seme-alaba adingabea zaintzeagatik lanaldia murrizteko eskaera ezestea ebazten duena.

164/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena, MMM andreak eta OOO jaunak eskatuta. Xedea: Akordioa, 1999ko ekainaren 11koa, Munitibarko Udalaren Osoko Bilkurarena. Akordio horren bidez Planeamenduko Arau Subsidiarioetako M2 egikaritze-unitatea antolatzeko hirigintza-hitzarmena onartzen da. Planeamenduko Arau Subsidiarioetako M2 egikaritze-unitatea antolatzeko hirigintza-hitzarmena 28/2022ko udal-aurrekontuaren aldaketa onartzen da.

170/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Ebazpena, 2023ko otsailaren 13koa, Eusko Jaurlaritzako ... Sailarenarena, OOO andrea bitarteko funtzionario izendatzen duena.

193/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena. Xedea: Gobernu Batzordearen erabakiak, Debagoieneko Mankomunitateko 2015, 2016. eta 2019. urteetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzen dituztenak.

197/2023 irizpena: Ofiziozko berrikuspena, RRR jaunak eskatuta. Xedea: Plentziako Udalaren uztailaren 5eko 261/2022 Dekretua, alkatearena. Dekretu horren arabera, ezetsi egiten da erreklamanteak alkatearen maiatzaren 5eko 171/2022 Dekretuaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa.

F) Administrazioaren kontratuak (14)

019/2023 irizpena: Obra kontratu baten aldaketa. Kontratua: "Euskadiko tren sare berriaren plataforma eraikitze proiektua. Zatia: Hernani-Astigarraga. 2. fasea".

029/2023 irizpena: Kontratu baten suntsiarazpena. Kontratuaren xedea: ehuneko ehun elektrikoko teknologiako hiru plazako ibilgailua hornitzeko, Toyota Autocentro Armentia, S.A. enpresari esleitura.

034/2023 irizpena: Kontratu baten suntsiarazpena. Kontratuaren xedea: "Ikastola eta Lazkaoko eli-

zaren artean Agauntza ibaiaren gaineko pasabide-proiektua” egiteko obrak, Díez y Compañía, S.A. enpresari esleituta.

048/2023 irizpena: Kontratu administratibo baten suntsiarazpena. Kontratua: 2020. eta 2021. urteetarako gas naturala hornitzeko esparru-akordioaren ondoriozkoa, Zaldibarko Udalak Multienergía Verde S.L. enpresarekin sinatuta.

075/2023 irizpena: Kontratu baten suntsiarazpena. Kontratuaren xedea: Alonsotegiko “Zaindariaren Etxea” aterpetxearen kudeaketa osoaren behin-behineko ustiapena.

078/2023 irizpena: Kontratu baten suntsiarazpena. Kontratuaren xedea: Villa Salian etxerik gabeko pertsonentzako eguneko zentro bat gaitzeko egikaritze-proiektuari dagozkion obrak, Construcciones Murias, S.A. enpresari esleituta.

090/2023 irizpena: Kontratu-erantzukizuneko erreklamazioa, Hondarribiko portuko kanpoko babes-dikea sendotzeko kontratuaren xede den obra aldi baterako etetearen ondorioz Construcciones Aménabar, S.A. enpresak jasandako kalteengatikoa.

094/2023 irizpena: Kontratu-erantzukizuneko erreklamazioa, Altuna y Uria SA enpresak “La Esperanza frontoiaren obra” xede duen kontratua gauzatzearen ondorioz jasandako kalteengatikoa.

095/2023 irizpena: Kontratu-erantzukizuneko erreklamazioa, Ondarroako aldi baterako enpresa-elkar-teak (ABEE) jasandako kalteengatikoa; izan ere, Ondarroako portuan arrain-lonja berria eraikitzeko lanen azken ziurtagirian jaso ez ziren lanak egin ziren.

098/2023 irizpena: Kontratu baten suntsiarazpena. Kontratua: 2020. eta 2021. urteetarako gas naturala hornitzeko esparru-akordioaren ondoriozkoa, Begoñako Ama Egoitza Erakunde Autonomiadunak (Santurtziko udal egoitzak) Multienergía Verde S.L. enpresarekin sinatuta.

132/2023 irizpena: Kontratu baten suntsiarazpena. Kontratuaren xedea: Unbeko biltegitara sartzeko bidea leheneratzeko obrak, Asfaltados y Construcciones Morga, S.L. enpresari esleitua.

139/2023 irizpena: Esparru-akordio baten suntsiarazpena. Esparru-akordioa: jatorriz % 100 berriztagarria den hornidura elektrikoa kontratazioa, Aguraingo Udalak zenbait enpresarekin sinatuta.

158/2023 irizpena: Kontratu-erantzukizuneko erreklamazioa, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuaren Zuhaitziko kiroldegia kudeatzeko zerbitzu-emakidako kontratua egikaritzearen ondorioz BPXPORT XXI S.L.U. enpresak jasandako kalteengatikoa.

203/2023 irizpena: Kontratu baten suntsiarazpena. Kontratuaren xedea: Loiuko Zabaloetxe frontoiaren eraikinean gimnasio eta aldagela bat eraberritu eta egokitzeko proiektuari dagozkion obrak, E3D 2008 S.L. enpresari esleituta.

G) Berrikusteko Errekurtso Berezia (3)

011/2023 irizpena: Berrikusteko errekurtso berezia, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariaren 2018ko azaroaren 15eko Ebazpenaren aurkakoa; izan ere, ebazpen horrek GGG eta

MMM aurka bideratutako EB1-315/18-DL zehapen-espedientea ebazten du.

183/2023 irizpena: Berrikusteko errekurtsu berezia, AAA andreak aurkeztua 2023ko uztailaren 24ko Alkatetzaren Ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, 2023ko maiatzaren 30ekoaren Epaimahai Kalifikatzailearen Erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ezetsi egin zen, garaiz kanpoko izateagatik. Erabaki horrek ... Zuzendaritzako dotazio bat betetzeko hautaketa-prozesuaren barruan bigarren fasearen behin betiko kalifikazioa, azken kalifikazioa eta izendapen-proposamena onartu zituen .

196/2023 irizpena: Berrikusteko errekurtsu berezia, Administrazio eta zerbitzuen sailburuordearen 2023ko otsailaren 23ko Ebazpenaren aurkakoa; izan ere, ebazpen horrek ezetsi egiten du KKK jaunaren erreklamazioa Bigarren Hezkuntzako ordezkari irakasleen zerrendan sartzeko, ... espezialitatean.

H) Itzultzeko erabakiak (11)

Batzordearen eskumenekoa ez izateagatik:

001/2023 akordioa: Kontratu baten interpretazioa. Kontratuaren xedea: Tolosako Paper kalea berrurbanizatzeko obra-kontratua.

003/2023 akordioa: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, Pasaiako Udalak Ciriza eraikina okupatzearen ondorioz Pasaiako Portuko Agintaritzak jasandako kalteengatikoa.

005/2023 akordioa: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, hilerrien zerbitzu publikoaren ondorioz MMM, CCC eta SSS Anai-arrebek jasandako kalteengatikoa.

007/2023 akordioa: Dekretu-proiektua, garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak arautzen dituenak.

009/2023 akordioa: Ofiziotzko berrikuspenera. Xedea: 2023ko urtarrilaren 25eko Dekretua, Zamudioko alkatearena. Dekretu horren bidez, ... baserrira iristeko bidea ixteko lizentzia ematen da.

011/2023 akordioa: Dekretu-proiektua, gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programarako laguntzak arautzen duena.

Instrukzioari jarraipena eman diezaioten:

004/2023 akordioa: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak bide publikoan erorita jasandako kalteengatikoa.

008/2023 akordioa: Ofiziotzko berrikuspenera. Xedea: Alkatetzaren 191/2022 Dekretua, uztailaren 11koa, 316/2022 Dekretua, azaroaren 4koa, eta Zuiako Udalaren Osoko Bilkurak hartutako zenbait erabaki, behin-behineko idazkari-kontuhartzailearen izendapena dela eta.

010/2023 akordioa: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM andreak jasandako kalteei

buruzkoa, bizikletan zihoala bide publikoan izandako istripuaren ondorioz.

012/2023 akordioa: Ondare-erantzukizunaren erreklamazioa, MMM jaunak jasandako kalteengatikoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandako osasun-sorospenaren ondorioz.

Irizpen berri bat igortzea beharrezkoa ez izateagatik:

002/2023 akordioa: 51/2016 Irizpenaren ondoren lege-aurreproiektu bati egindako aldaketak. Lege-aurreproiektua, diru-laguntzen araubidea arautzen duena.

BIGARREN ZATIA:
DOKTRINAREN LABURPENA



1. Kapitulua. KONTSULTA-EGINKIZUNA

I. Jarduera-esparrua

SPKLren 191.3.a) artikulua araberan, nahitaezkoa izango da Estatuko Kontseiluaren irizpenean, edo autonomia-erkidego bakoitzean baliokidea den aholku-organoarena, kontratuen interpretazio, deuseztatze eta suntsiarazte kasuetan, kontratista aurka jartzen denean.

Administrazioaren eta kontratistaren arteko eztabaida osatzen duten oinarriak eta jarrerak argi eta garbi zehaztuta daude espedientera ekarritako txosten eta alegazioetan, kontratistak 2022ko maiatzaren 22an egindako eskariaren ondorengoetan. Izan ere, kontratistak eskatu zuen salbuespenezko prezioen berrikuspena aplikatzea, 3/2022 Errege Lege Dekretuaren bidez onartu eta 2022ko martxoaren 2an indarrean jarri zena.

Desadostasun horren aurrean, udal administrazio kontratatzaileak **kontratua alde bakarretik interpretatzeko prozedura** bat abiarazi du, berekin daramatzen funtsezko izapideak betez.

Hala ere, **Batzordeak zera ikusi du: kontratuaren alderdien arteko eztabaida horren nondik norakoak osatzen duten elementuak ez datozela agirien klausuletatik, ezta kontratutik ere, eta ez diotela prestazioak gauzatzeko moduari eragiten**; dena den, zalantzarik gabeko ondorioak sortzen zaizkio prezioaren azken likidazioari, kontratua adjudikatu ondoren onetsitako arau bat aplikatzearen ondorioz.

Gauzak horrela, kontratazio-arloko **administrazio-prerrogatiba hori**, ex lege esleitua, **behar bezala erabiltzea planteatu daiteke, eta haren aplikazioa zehazten duten mugak zein diren jakin**. Kontuan izan behar da eskubide hori gauzatzeko desoreka nabarmena sortzen duela alderdien artean, eta Administrazio Publikoari mesede egiten zaiola kontratuari buruzko erabakiak hartzerakoan.

Horrenbestez, esan dezakegu desadostasun bat prerrogatiba bidezko administrazio-prozeduraren mende jartzeko arrazoiak direla Administrazioa izatea kontratuko klausulen eta agirien edukia eta irismena hobekien ezagutzen dituenak, klausula horiek idazteko arduradun gisa, eta, ondorioz, interes orokorraren alde balorazio onena egin dezakeena.

Estatu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 29ko 993/2014 Irizpenak hau dio prerrogatiba zehatz horren xedeari buruz:

Kasu honetan, kontratua gauzatu dagoenean erabili nahi da interpretazio-ahala, kontratuaren klausulen arabera egin zitekeen luzapen bakarra lehenago azkendu baitzen Mankomunitateak ahal hori baliatzea planteatzea baino (2013ko uztaila). Mankomunitateak iritzi dio azken likidazioa egin behar zaiola kontratuari, baina ezin bat etorri iritzi

horrekin, kontratuaren izaeragatik, konfigurazioagatik eta emandako zerbitzuak ordaintzeko moduagatik (benetan emandako zerbitzuei buruzko hileko faktura). Azken likidazio orokorra aurreikusiko zuen kontratu-klausula espresu batek bakarrik ahalbidetuko luke tesi horri eustea. Eta klausula hori ez da existitzen kontratu honetan. Beraz, ez gara kontratua interpretatzeko ahala erabiltzeaz ari, baizik eta egoera honetaz: Administrazio kontratatzaileak uste izateaz, kontratistak emandako azken hiru fakturak ikusita, litekeena dela kontratu-klausuletan sartuta ez dauden zenbatekoak ordaindu izana kontratistari.

Mankomunitatearen jarrera horren sendotasuna baloratzen sartu gabe, kontua da **kontratua interpretatzeko prerrogatiba baliatu behar dela kontratua gauzatzen edo egikaritzen den bitartean, desadostasunak konpontzeko**, kontratugilearen eta kontratistaren artean halakorik sortuz gero kontratu-klausularen baten edo batzuen aplikazioari, zentzuari edo irismenari buruz. Hala ere, ez da desadostasunik gertatu kontratua gauzatu bitartean, baizik eta geroago, kontratua osorik exekutatu denean eta gehieneko irau-naldia amaitu denean, eta Mankomunitatea, espedientean dagoen dokumentazioaren arabera, kontratistaren zordun dagoenean.

Mankomunitateak kontratistari egindako ordainketak berrikusteko erabakia, zenbait prestazio ustez behar ez bezala ordaintzeagatik, prozedura espezifiko baten bidez bideratu behar da, ikusteko ea kontratistak bidegabeko fakturaziorik egin zuen, eta prozedura berri horretan eskatu ahal izango dira, hala badagokio, kasuari dagozkion txostenak edo irizpenak, dagozkion organoek ebatz dezaten ondorioak izan behar dituzten testuinguruan eta eremuan. Azaldutakoagatik, eta hori alde batera utzi gabe, bidezko irizten zaio kontratua interpretatzeko prozedura hau artxibatzeari.

Ildo horretatik, esan behar da **proposatzen den interpretazioak ez dituela guztiz errespetatzen premisa horiek, eztabaidagaia prestazioa gauzatzeko oinarri gisa erabili diren estipulazioetatik kanpo baitago; izan ere, kontsulta lege-arau batean zentratzen da, eta arau horren aginduak gerora aplikatzen zaizkio kontratuari.**

Hain zuzen ere, **3/2022 Errege Lege Dekretua** lege-arau bat da, eta hura onartzeko, zioen azalpenean adierazten den bezala, hau hartu da kontuan: “SARS-CoV-2 birusak eragindako pandemiak ekarri dituen aparteko inguruabar sozial eta ekonomikoak, kontratu publiko jakin batzuen exekuzioan zuzenean eta ezin aurreikusizko moduan eragin dutenak, batez ere obra-kontratuenean, zenbait obra egiteko beharrezkoak diren lehengai jakin batzuen kostuaren ezo-hiko eta ustekabeko igoeraren ondorioz. Aparteko, salbuespenezko eta aurreikusi ezinezko inguruabar horren ondorioz, nabarmen zaildu da kontratu publikoen kopuru handi bat gauzatzea; izan ere, kontratistek ikusi dute nola asko eta ezustean aldatu den kontratu horien ekonomia, kostu jakin batzuk ohiz kanpo igo zirelako; igoera hori ezin zen aurreikusi lizitazioaren unean, eta gainditu egingo luke kontratistak kontratu publiko orotan hartu behar duen arrisku eta menturan sar daitekeena”.

Guztiarekin ere, eta edozein ararekin gertatzen den bezala, interpretazio-arazoak sor ditzake, eta, horiek ebazteko, ordenamendu juridikoak eskuarki eskaintzen dituen mekanismo erkideetara jo beharko da.

Kasu honetan, eztabaidak, funtsean, bidezko prezio-igoera kalkulatzeko oinarria osatzen duten elementuei eragiten die, eta berekin dakar bereiztea ea 3/2022 Errege Lege Dekretua –6/2022 Errege Lege Dekretuak aldatua– arau berezi bat den, esparru material bereko arau orokorrak baztertzen dituen —hala nola SPKLren 103.2 artikulua eta Espainiako Ekonomia-aren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea—, ala haren interpretazioak barnean hartu behar dituen.

Ikus daitekeenez, beraz, debatearen erdigunean dagoen eztabaidaren ebazpenak orokortasun-bokazioa du, 3/2022 Errege Lege Dekretuaren bitartez prezioak berrius dakizkiokeen edozein obra-kontraturari aplikatu dakiokeena, eta horretarako ez da beharrezkoa obra zehatz hori arautzen duten kontratu-baldintzetara jotzea.

Batzordearen ustez, **interpretazio-ahala baliatzeak, kasu honetan, prerrogatiba horren mugak gainditzen ditu**; izan ere, **Administrazio kontratatzailea operadore juridiko bat gehiago da hemen, eta legezko kontsulta bat ebatziko luke, zeina, kontratuaren azken prezioan eragina izango badu ere, ez baita sortzen kontratua arautzen duten baldintzetatik abiatuta.**

Testuinguru horretan, **ezin da onartu Tolosako udalaren kontsulta**, EABJLren 2. eta 3. artikuluetatik ondorioztatzen baita **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren esku-hartzeak legez finkatuta daudela, eta ezin dela egin hautazko kontsultarik** —ezta, hortaz, halako esku-hartzerik ere—.

1/2023 ABJE, par.: 11-25

Batzordearen ustez, **ondare-erantzukizunaren institutua erabili behar da berariazko prozedurarik ez dagoenean auzigai jakin bat ebazteko**, baldin eta hala eragiteko baldintzak betetzen badira —ofizioz edo alderdi batek eskatuta—.

Lehenik eta behin, **aztertzen ari garen kasuan ikusten denez, udalak titulurik gabe okupatzen du herri-jabariko ondasun bat** —Ciriza eraikina, jabari publikokoa—, **eta horrek erregulazio sektorial espezifiko baten eremuan kokatzen gaitu**. Eta, bigarrenik, **PPAren [Paisaiako Portu Agintaritz] borondatea da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea udalaren kontra**, eta, horretarako, AAJLren 44. artikuluan aurreikusitako hautazko errekerimendua egiten du, **eta ez du, inola ere, kalte-galeren ordainketarik nahi ondare-erantzukizunaren institutuari lotuta**, alegazioen azken idazkian berretsi duen bezala.

Lehenengoari dagokionez, hau da, **auzitan dagoen gaiaren ebazpena bideratzeko araudia egoteari dagokionez, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea aipatuko dugu** (aurrerantzean, **APOL**) **zeinaren 84. artikulua, jabari publikoko eskubideak eta ondasunak erabiltzeko, horretarako gaitzen duen tituluren bat eskatzen baitu**. Lehenengo paragrafoan ezarri duenez, “aginte eskumendunak emandako titulu baimentzailerik gabe, inork ere ezingo du jabari publikoko ondasunik okupatu edo, hala bada, denei dagokien erabilera-eskubidea gainditzeko moduan erabili”. Bigarren paragrafoak 41. artikulura jotzen du, oro har, ondasun horiek titulurik gabe okupatzea edo behar ez bezala aprobetxatzea galarazteko ahalmenak eta prerrogatibak zehazteko.

Baina 84. artikuluko horren 3. paragrafoak zedarritzen du jabari publikoko ondasunen gaineko baimen eta emakiden arau-esparru zuzentzailea: lehenik, baimen-emakida horiek arautzeko legeria berezia bete beharko da, eta arau bereizirik ez badago edo nahikoa ez badira, APOLen xedapenak bete beharko dira.

Aztertutako eremuan, gainera, bereziki aplikatzekoak dira lehen aipatutako irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina (EPMOLTB) onartzen duena, bai eta Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea eta, hala badagokio, Kode Zibila ere (1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua).

22/1988 Legearen 64.1 artikulua araberan, Estatuaren itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak okupatzeko desmuntagarriak ez diren obra edo instalazioekin, Estatuko Administrazioak emakida eman beharko du alde aurretik.

Zehatzago, EPMOLTBren 73. artikulua portuko jabari publikoaren erabilera-araubidea jasotzen du. 1. paragrafoan honako hau xedatu du: “Portuko jabari publikoaren erabilera lege honetan, Ustiatze eta Polizia Erregelamenduan eta kasuan kasuko portu-ordenantzetan ezarritakoaren arabera arautuko da; ordenantza horiek ezarriko dituzte erabilera orokorrari irekitako gunek eta, hala denean, doakoak. Aurreko xedapenetan ezarri ez denerako, kostaldee buruzko legeria aplikatuko da”. Eta, 2. paragrafoaren arabera, “eskusibotasun-, intentsitate-, arrisku- edo errentagarritasun-baldintzak dituzten erabilerek eta jarduerak dagokion baimena edo emakida eskatuko dute, lege honetan eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren baldintza orokorren agerian aurreikusitakoaren arabera (...)”.

73. artikuluko horren 3. paragrafoak zehazten du zer baldintza bete behar duten beste administrazio batzuek portuko jabari publikoa erabiltzeko, beharrezkoa denean, barnean hartuta autonomia-erkidegoetako administrazioak, Toki Administrazioa osatzen duten erakundeak —kasu honetan bezala Pasaiaiko Udalaz ari baikara— edo haien mendeko beste edozein erakunde edo entitate.

Toki Administrazioak portuko jabari publikoa erabiltzeari dagokionez, 73.3 artikuluan bi kasu aurreikusten dira: (I) araudi autonomikoak aurreikustea araubide berezi bat, Estatuko Administrazio Orokorrak edo bere organismo publikoek titulartasun autonomikoko jabari publikoko

ondasunak erabiltzeko, Estatuaren eskumeneko erabilera edo zerbitzu baterako. Kasu horretan, erabiltzeko interesa duen erakundeak behar dituen jabari publikoko ondasunak eskatuko dizkio kasuan kasuko portu-agintaritzari, eta hark erabilera hori baimenduko du, portuaren ustiapen normalarekin bateragarria bada, beharrezkoa den denboraz; horretarako, dagokion hitzarmena sinatuko da, eta bertan ezarriko dira haren baldintzak, hala badagokio bidezkoak diren tasak eta erakunde horrek bere gain hartu behar dituen kostuak; (II) autonomia-erkidegoko araudian aurreikuspen hori ez dagoenean, erakunde interesdunak kasuan kasuko emakida edo baimena eskatuko du, EPMOLTBn ezarritakoarekin bat etorritz.

Jabari publikoa erabiltzeko eta portu-zerbitzuak emateko araubide ekonomikoa EPMOLTBren VII. tituluko II. kapituluaren arautzen da, eta okupazio-tasa kapitulu horretako 2. atalean jasotzen da —irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 173. artikulutik 182. artikulura (1. atalean portuko tasen xedapen orokorrak arautzen dira, 161. artikulutik 172. artikulura)—. 169.a) artikuluan zehazten dira okupazio-tasatik salbuesteko kasuak.

Beraz, portuko jabari publikoko ondasunak okupatzeko eta erabiltzeko araubide sektorial espezifiko bat aurreikusi da. Pasaiaiko Udalak araubide horretara jo beharko luke, lehen fasean, PPAren errekerimenduari erantzuteko, eta, ondoren, hala badagokio, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan ebatzi auzia, halakorik bada.

Hori dela eta, **ez dago justifikatuta udalaren jarduteko modua, alde bakarretik hasi baitu**—PPAk aukeratutako prozeduraz kanpo— **ondare-erantzukizuneko prozedura bat, zeinarekin ebazpena saihestu baitio PPArekin bide judizialek duen gatazkari, PPAk bide judizial hori hobetsi baitu, eta, horretarako, aurreiazko errekerimendua egin baitu.**

Batzordearen ustez, udalak bere erabakia justifikatzeko erabilitako argudioek —ia ofiziozko prozedura gisa— ez dute balio, eztabaidatutako gaiaren funtsa aztertu ondoren lortu baitira, errekerimendua ez dela ondorioztatzeko. Eta hori guztia, PPAk abiarazi nahi duen auzi judiziala zehatz-mehatz ezagutu gabe.

Batzordearen ustez, **ez da onargarria, ezta ere**, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen **urriaren 1eko 39/2015 Legearen 115.2 artikulua**ren aplikazio analitiko, udalak eskatzen duena. Berariazko aurreikuspena da, oinarri berezia duena, administrazio-errekurtsoetarako, errekurtsogileak errekurtsoren kalifikazioan akatsen bat egin duenean edo kalifikaziorik jarri ez dionean, errekurtsoren izapidetzea oztopatzea saihesteko, “betiere errekurtsoren benetako izaera ondorioztatzen bada”.

APELen aurreikuspen hori ezin da kasu honetara estrapolatu. Gainera, ez dago zalantzarik PPAk egikaritu nahi duen akzio-motari buruz, ez baita Administrazioaren ondare-erantzukizunarena; izan ere, berariaz adierazten du hori, eta, gainera, bestela, entzunaldi-izapidean ez zukeen atzera botako izapidetzea mota horretako prozedura gisa, eta ez zukeen errepikatuko bere borondatea, hasieran egindako errekerimenduari erantzun ziezaioten.

Ezin da ziurtatu, ezta ere, ondare-erantzukizuneko prozeduraren aldeko hautua justifikatzeko, udalak prozedura judizialek kanpo egiten duen bezala, argudiatze juridiko sakon batekin eta aurreko ebazpen judizialekin oinarrituta, PPAk jar lezakeen administrazioarekiko auzi-errekurtso bat porrotera behartuta egongo litzatekeela ezinbestean, epaitzea organo judizialei esleitutako ahalmena delako.

Amaitzeko, **PPAk organismo publikoak Pasaiaiko Udalarari egindako erreklamazio bat dugu, jabari publikoko ondasun bat (Ciriza eraikina) titulurik gabe eta konpentsazio ekonomikorik gabe erabiltzeagatik. Udalak, gure ustez, oker izapidetu du, ondare-erantzukizuneko erreklamazio gisa.**

3/2023 ABJE, par.: 49-65

Gauzak horrela, Batzordeak planteatu diguten kontsultan zer esku-hartze izan behar duen analitzatzeko, kontuan hartu behar da aztertzen ari garen proiektuaren oinarria dela, edukia deskribatzerakoan aurreratu dugunez, GLLren 25. artikulua [1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa], "laguntzak eta dirulaguntzak" izenburupean, honako hau baitio 1. paragrafoan:

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio orokorrak, laguntzen eta dirulaguntzen bitartez, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen garapen-proiektu eta -programak finantzatu ahal izango ditu, bai eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuenak ere. Erakunde horiek, betiere lege honen 10. artikuluan ezarritakoa betez (Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa), urte anitzetako gida-planean eta urteko planetan ezarritako aurreikuspenekin bat etorrira aurkeztu beharko dituzte beren proiektuak eta programak.

Eta 3. paragrafoak, bere aldetik, erregelamendu-bidea aipatzen du hori zehazteko:

3. Garapenerako lankidetzaren arloan laguntzak emateko egiten diren deialdietan aurkeztutako programek eta proiektuek finantzaketa publikoa lortzeko bete behar dituzten eskakizunak, erregelamendu bidez arautuko dira.

Horretarako, 4. eta 5. apartatuen arabera, beharrezkoa da:

4. Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatzen diren programa eta proiektuetan, finantzaketa publikoa jasoko duen entitateak bazkide bat eduki beharko du proiektu edo programa hori gauzatzeko den tokian bertan. Tokian tokiko bazkide horrek nortasun juridikoa eduki beharko du, dena delako herrialde horretan aplikatzekoa den legeriaren arabera, non eta ez den gertatzen horretarako ezintasun ageriko bat.

5. Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatzen diren entitateek egoitza edo ordezkari eta administrazio-egitura egonkorra eduki beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetatik jasotako funtsen bidez finantzatzeko programak eta proiektuak Euskaditik bertatik zehaztu eta kudeatzeko bestekoa izan beharko du egoitza edo ordezkari eta administrazio-egitura egonkor horrek.

Aurrekotik argi eta garbi ondorioztatzen da hau dela erabakigarria: **proiektatutako dekretuak xedetzat duela, emandako baimenaren ondorioz, etorkizuneko deialdiak arautuko dituzten dirulaguntzen oinarriak ezartzea.** Eta bertan zehazten da zer baldintza bete behar dituzten programek dirulaguntza jaso ahal izateko, dirulaguntza hori jasotzeko aukera izango baitute GLLren 10. eta 25.4 eta 5 artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeek.

Kontua ez da, beraz, GLL garatzea, baizik eta lege-agindua dirulaguntzei buruzko araudiaren edukietara egokitzea. Eduki horiek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren IV. tituluan eta dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren manu oinarrizkotzat jotakoe-tan daude jasota (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu du 38/2003 Lege Orokorra).

Ildo horretatik, **garapenerako lankidetzarako laguntzak arautzen dituen dekretua ez litza-teke betearazlea izango, lege sektorialaren garapen edo osagarri ez bada.**

Horri dagokionez, proiektuaren edukia azaldu dugu, eta ez zaio ikusten lege sektorialaren inongo arau-garapenik duenik. Jasotako edukia deialdiekin eta haien gorabeherekin lotutako antolaketa-alderdiak ezartzera mugatzen dira.

Are gehiago, indarreko 57/2007 Dekretua, apirilaren 3koa, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituena, **proiektuak indargabetu nahi duena, ez zen Batzorde honen nahitaezko txostenaren xede izan, ez baikenion iritzi erregelamendu betearazle edo exekutibo.** Hori guztia, GLL indarrean jarri ondoren aldarrikatu zuten arren, eta, beraz, hura aplikatuz. Ildo beretik, 90/2019 Dekretua, ekainaren 18koa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituena, GLLren 35. Artikulu berean oinarrituta. Dekretu horrek laguntza horien oinarriak ezartzen ditu, eta batzorde

honek ez zion txostenik egin, erregelamendu betearazlearen izaera ez zuela iritzita.

Aurreko guztiak horrela, **Batzordearen ustez, nahiz eta dekretu-proiektua lege-mailako arauen xedapenetako aurreikuspenen ondorio izan, ezin da esan lege-mailakoaren erregelamendu-arau denik, organo honek nahitaez esku hartu dezan, esku-hartze hori ez baita hedatzen aplikazio hutsezko edukia duten erregelamendu-xedapenetara, hau da, materialki oinarrizko arauaren garapen ez direnetara, eta berdin dio izaera orokorreko xedapen forma hartzen badute ere.**

Ondorioz, proiektua ez denez sartzen Batzordeak nahitaez irizpena eman behar dien erregelamendu-xedapenen artean, EABJLren 3.1 artikulua zedarritu baitu eremu hori, hau aplikatu behar da: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamenduak, irailaren 12ko 167/2006 Dekretuak onetsiak, 21. eta 28.2.a) artikuluetan xedatu duena.

7/2023 ABJE, par.: 55-68

Kontsulta aurkeztu duen administrazioak, legezketasuna berrezartze aldera lizentzia ematearekin sortutako egoeraren ondoren, ofiziozko berrikuspenera jotzea hobetsi du, AJAPELen 106. artikulua aurreikusi baitu. Batzorde honek, ordea, egintzaren inguruabarrak ikusita, ez du zilegitzat jotzen bide hori.

Hasieratik gogoratu behar da, Batzorde honek azpimarratu duenaren ildotik, administrazioaren jardueraren berrikuspenaren eremuan, **printzipio nagusi edo orokorra dela administrazio-egintzak administrazio-errekurtsoen bitartez inpugnatu edo aurkaratzearena, ofiziozko berrikuspenerako prozedurak ez bezala.**

Nolanahi ere, bigarren bidearen aparteko eta berariazko izaerak markatzen du bien arteko diferentzia; izan ere, interpretazio murriztailea zor zaie bigarren bide horren arauari, segurtasun juridikoaren printzipioa baitago jokoan, administrazio-egintzei buruzko beste eztabaida bat irekitzen delako, egintzok irmo bihurtzen dituzten epe preklusibo arruntetatik kanpo. Hain zuzen ere, testuinguru horretan kokatzen eta justifikatzen da kontsulta-organoen esku hartze bermatzailea, administrazio-errekurtso arruntetan ez bezala, azken horien tramitazioan ez delako parte-hartze hori exijitzen.

Hori dela eta, egindako eskaria baloratzeko, lehenik eta behin aztertu behar dugu ea bidezko den **ofizioz berrikustea** zalantzan jarritako dekretua, hots, ea, APELen 106.1 artikulua eskatzen duen bezala, hauen artean sartzen den: **“administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak”**.

KONTSULTA EGINKIZUNA57

Legeak nahi du administrazio-bidean behin betiko egintzak izatea, bai bide hori amaitzeagatik (APELen 114. artikulua eta 7/1985 Legearen 52.2 artikulua), bai ez direlako aurkaratu, administrazio-errekurtsoa jartzeko aukera izanagatik ere (APELen 112. artikulua). Kontua da egintza ohiko bidetik berrikusi ezina izatea, hau da, administrazio-errekurtsoaren bidetik.

Aztertzen ari garen kasuan, ez dago zalantzarik ... auzoko ... zenbakiko **bizilagunek, haien jabetzak muga baitu lizentziak baimendutako itxiturarekin, epearen barruan aurkeztu zutela errekurtsua, nahiz eta inongo jakinarazpenik jaso ez** lizentzia horri buruz.

Hiru idazki aurkeztu zizkioten udalari —hietetako bat“gora jotzeko errekurtsu”tzat jo zuten—, eta bi idazkitan egindako planteamenduak laburrak izan arren, argi eta garbi erakusten dute lizentzia ematearekin egin omen zuten “ilegaltasuna”, eta emandako egintza berriz aztertzeko eskaria ere egin zuten.

Horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar **administrazio-prozedura zuzentzen duen irizpide antiformalista** —APELen 115.2 artikulua beren-beregi jasotzen duena errekurtsoei buruz —, jurisprudentziak defendatzen duena — besteak beste, Auzitegi Gorenaren epai hauek: otsailaren 21ekoa, 1995eko maiatzaren 12koa eta 1999ko uztailaren 15ekoa—.

Ilido horretatik, 1995eko maiatzaren 12ko AGEk (RJ\3799) argi eta garbi argudiatzen du:

... egia da 1988ko martxoaren 16ko idazki horrek, alde batetik, lurzoru urbanizaezinean egindako obra batzuk legez kontrakoak direla salatzen duela, Lurzoruari buruzko Legearen 43.2 artikulua —85.1.2. artikulurako erremisioa eginda— aurreikusitako prozedurari jarraitu ez zaiolako, eta, bestetik, iragartzen duela «hemendik aurrera —eta lanek jarraitzen badute— administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko dutela»; horrenbestez, apelatutako epaiak emandako tratamendua baino ezin du izan, azken finean, obra horiek babesten zituen lizentzia ondorioz gabe uztea nahi baitzuen, nahiz eta «errekurtsoa» esamoldea erabili ez, edo hura «birjarpentzat» jo ez; izan ere, Sala honen 1991ko urriaren 28ko epaiak (RJ 1991\8889) adierazten duenez, idazkiak —administratuaren egintzak— edukiaren arabekoak dira diren heinekoak, ematen zaien kalifikazioa gorabehera. Beste alde batetik, gogoratzekoa da berraztertze errekurtsuaren helburu bakarra dela Administrazioari bere erabakia zuzentzeko aukera ematea, eta, hartara, erabaki kaltegarririk ez hartzea. Helburu hori, egin-eginean ere, sobera betetzen da behin eta berriz aipatu dugun idazkian, udal administrazioari erakusten baitio legez kontra jokatu dutela auzitan diren obrak babesten zituen lizentzia ematean, egintza hori zuzendu eta legearen arabera jardutea ahalbidetuz...

Ez dago zalantzarik, beraz, Geldo auzoko 59. zenbakiko bizilagunek 2013ko otsailaren 20an eta 24an udalean aurkeztutako **idazkiak berraztertze errekurtsotzat hartu behar direla, eta halakotzat izapidetu behar direla.**

Hala ulerturik, APELen 21.1 artikulua errekurtsu horiek berariaz ebazteko eskatzen du, eta,

espedientean horri buruzko aipamenik ez badago, ulertu behar dugu udalak ez duela ebazpenik eman.

Ez dakigu APELen 124.2 artikuluan ezarritakoak, lege beraren 24.1 artikuluari dagokionez –berraztertzeko errekurtsoren ebazpena emateko eta jakinarazteko hilabeteko gehieneko epea, eta epe hori igarotakoan errekurtsoa ezetsizat jo daiteke–, **eraman ote duen kontsulta egin duen udala hau ulertzera: egintza irmo bihurtu dela, administrazio-bidean behintzat.**

Baina interpretazio horrekin, udalak ez du kontuan hartzen **artikulu horretan ezarritakoak partikularrari soilik uzten diola errekurtsoren ustezko ezespeneren aurka erreakzionatzea, baina ez diola eragiten APELen 21.1 artikulua ezartzen duen betebeharrari, hots, berariaz ebazteari –kasu honetan, errekurtsoa–.**

Eta Auzitegi Gorenak 2012ko urriaren 22ko epaian (RJ 2012\9921) planteatu duenez:

(...) Sala honek behin baino gehiagotan onartu duenez, isiltasun ezeslea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak egin zion aldaketaz geroztik, eta isiltasun baieslea ez bezala, ez da benetako administrazio-egintza bat, baizik eta legezko fikzio hutsa, administratuak, behin dagozkion errekurtsoak baliatuta, aukera izan dezan bide judizialera iritsi eta Administrazioaren geldotasunaren ondorioak gainditzeko.

Beraz, prozesurako fikzio horrek, ebazteko legezko epeak igarotakoan gertatzen baita, ez du esan nahi Administrazioari kendu zaionik beren-beregi edo espresuki ebatzi beharra, 30/1992 Legearen 42. eta 43.4.b) ezarri baitiote: betebeharrak ez du denbora-mugarik, eta, isiltasunaren bidezko ezesteari bagagozkio, ez du inola ere isiltasunaren edukia lotesten.

Konstituzio Auzitegiak erabakitakoaren ildotik esan behar da **Administrazioak ezin diola onurarik atera bere betebeharra ez betetzeari –herritarren eskariak epearen barruan ebatzi behar baititu–**, Zuzenbide Estatuarekin lotuta baitago (EKren 1.1 artikulua), bai eta Konstituzioaren 24.1, 103.1 eta 106.1 artikuluek aldarrikatu balioekin ere (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 86/1998, apirilaren 21ekoa; 71/2001, martxoaren 26koa, eta 188/2003, urriaren 27koa).

Auzitegi horrek ildo beretik adierazi duenez, Administrazioak beren-beregi ebatzi behar ditu aurkezten edo helarazten zaizkion prozedurak, eta betebeharrak horrek errekurtsoren ebazpena ere hartzen du, betebeharrak instituzional bihurtzeraino, Administrazioa komunitateari zerbitzuak ematen dizkion erakunde den aldetik (Konstituzio Auzitegiaren autoa, 1982ko urriaren 27koa).

Aurkeztutako administrazio-errekurtsoak ebazteke daudenez, ez gaude administrazio-bideko behin betiko egintza baten aurrean, eta, beraz, ez dira betetzen APELen 106.1

artikuluak ofiziozko berrikuspen-prozedura hasteko eskatzen dituen baldintzak.

Izan ere, aurreratu dugu, EABJLren arabera, **Aholku Batzorde Juridikoak ezin du bere gogara erabaki noiz irizpena eman eta noiz ez**, eta administrazio-errekurtso arrunten bidezko berrikuspena egiteko (AJAPELen 112. artikulua eta hurrengo batzuk) ez dago kontsulta-organismoek aldeaz aurreko eta aldeko irizpena emateko betebeharririk.

9/2023 ABJE, par.: 18-35

Batzordearen iritzia emateko, gogoratzekoa da, lehenik eta behin, Batzordea sortzeko arauaren arabera, **tasatua dela Batzordearen esku-hartzea**, eta, beraz, legez aurreikusitako kasuetara mugatuta dagoela, eta ez dagoela hautazko kontsultarik.

Bigarrenik, kontuan hartu behar da EABJLren 3.1.c) artikuluan aurreikusitako esku-hartzearen legezko kasuari dagokionez, Batzordeak zenbait erabakitan (besteak beste, 7/2023, 11/2021, 4/2019, 6/2019 eta 3/2013 erabakiak) zehaztu duela bere eremua, eta “Legebiltzarreko legeak garatuz edo betez” esamoldea erregelamendu exekutibo edo betearazlearen kategoriarik dagoela.

Erregelamendu exekutiboak, azaldu dugun bezala, “..., Estatu Kontseiluak prestatutako formulazio klasikoan (1962ko mozioa), erreserbatuta dago erregelamendu batzuentzat; **hain zuzen ere, lege bati, lege baten artikulua bati edo batzuei, edo lege-multzotzat bati zuzenean eta zehazki lotutako erregelamenduentzat, halako moldean non erregelamenduak osatzen, garatzen, zehazten, aplikatzen, konplitzen edo exekutitzen dituen legeak**. Erregelamendu exekutiboak, hartara, aurreko lege baten garapenari ekiten dio, nahitaezko osagarri gisa, eta lege hori da erregelamenduaren premisa, eta aurreko legerik ezak edo legearen edukitik behar ez bezala aldentzeak erregelamendua legez kontrakoa izatea dakar (horra, beraz, arau-hierarkiaren printzipioaren garrantzia)”.

Aztertutako kasuan, ordea, dekretu-proiektua, zalantzarik gabe, GLren esparruan kokatzen bada ere [2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena] —bat egiten du haren helburu, printzipio gidari eta inspiratzaileekin—, ez da —adierazitako zentzu teknikoan— lege-arau horren erregelamendu exekutibo bat.

Azalpen-zatiak dioenez, laguntza ekonomikoei buruzko Emantzipa Programa Gazteen Emantzipazioa bultzatzeko 2030 Euskal Estrategiaren ondoriozko jarduketaren planaren “errenta” ardatzari dagokion trakzio-proiektu bat da.

Izan ere, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (KEB) txostenak nabarmentzen duen bezala, “2022ko maiatzaren 18an, Eusko Legebiltzarrak Erronka Demografikoari buruzko osoko bilkura monografi-

koa egin zuen. Onartutako 72 ebazpenak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren azken dokumentuan sartu ziren, zeina ekainaren 21ean onartu baitzuen Gobernu Kontseiluak. Estrategia hark lau ardatz eta 36 jarduera definitu zituen. Lehenengo ardatza da “Gazteen emantzipazioa”. 2023ko martxoaren 21eko Gobernu Kontseiluak Gazteen Emantzipazioa Laguntzeko 2030 Euskal Estrategia onartu zuen. Haren jarduera-planak bost ardatz ditu: enplegua (eta enplegurako prestakuntza), etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia. Estrategia horren misioa da batez besteko adina murrizten eta emantzipazio-tasak handitzen laguntzea, jatorrizko etxetik irteteko prozesuak sostengatuz, bizkortuz eta hauei eusten lagunduz. Helburutzat du 2030erako gazteen emantzipazio-tasa egungo % 32,9tik % 50era hurbiltzen laguntzea, maila horretan kokatzen baita EB-27ko batez bestekoa (% 50,6), 28 urtetik behera”.

Laburbilduz, arau-proiektuak, deskribatutako plangintza-esparruan, **zuzeneko laguntzen le-
rro bat ezartzen du**, 300 euro hilean bi urtez, Euskadin erroldatuta dauden 25 eta 29 urte bitarteko gazteentzat, emantzipazio-prozesu bat hasi dutenentzat edo hasiko dutenentzat, baldin eta haien urteko errentak ez badu gainditzen programak finkatzen duen diru-sarrereren maila.

GLren esparruan, ikusten da lege horrek hainbat tresna eta neurri aurreikusten dituela gazteriaren arloko zeharkako politika bultzatzeko. Hala, 19. artikuluan, Gazteriaren arloko Euskal Estrategia aurreikusi du: “non bilduko baitira, koordinatuta eta globalki, EAEko administrazio publikoek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduera gidatuko duten esku-hartze ildoak eta gidalerroak, izaera orokorrekoak eta administrazio bakoitzaren eskumen-esparrua errespetatuko dutenak” (1. apartatua).

Estrategia horrek “gazteen emantzipazioa eta autonomia bultzatuko duten neurri eta helburu zehatz batzuk izango ditu, bat etorriko direnak esku-hartze ildoekin”. Ildo horiek GLren 20. artikuluan zerrendatzen dira, guztiak jasotzeko asmorik gabe. Nolanahi ere, ildo hauek izango dute lehentasuna beti: aldi bakoitzeko diagnostikoak azaleratzen dituen eskari eta premien bilakaerari ondoen erantzuten diotenenek.

Estrategiarekin batera, GLren 23. artikulua Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarea aipatzen du, eta “gazte guztiei emantzipazio-prozesua errazteko bide” gisa definitzen du, eta sare hori osatzen dute 9.1. i) artikuluan aipatutako Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko jarduera eta zerbitzuek, eta EAEko gainerako administrazio publikoek gazteen emantzipazioa laguntzera zuzendutakoek.

Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearen eduki kontingente gisa, 23. artikulua horrek 3. paragrafoan *in fine* adierazten du Eusko Jaurlaritzak gazteen emantzipaziorako laguntzak ezar ditzakeela —“Halaber, izapidetu eta kudeatuko ditu hala badagokio Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen gazteen emantzipaziorako laguntzak edo beste organismo edo erakunde batzuekin erabaki daitezkeenak”—.

GLren aurreikuspen horri lotzen zaio kontsultarako aurkeztu den dekretu-proiektua; izan ere, azaldutakoaren arabera, xede horretarako laguntza batzuk ezartzen ditu, egindako diagnostikoaren arabera.

Laguntzak kontingenteak direnez —eta inguruabar aldakorren arabera muda daitezkeenez—, berretsi egiten da kasu bakoitzean ezartzen duen araua ez dela GLren erregelamendu exekutibo edo betearazlea.

Sustapen-neurrien izaerak berak —gobernuaren ekintzaren eremu naturala den aldetik— legeekiko lotura nagusi edo finalistikora jotzen du. Helburu orokorrak lortzeko tresnak diren aldetik, lege-arauak ez die diseinu zehatzik aurreikusten; aitzitik, lotura finalista horrek tarte zabala uzten du Jaurilaritzak neurriaren edukia une bakoitzean moldatu dezan hobeto egokitzen denaren arabera.

Oraintsu hartu dugun 7/2023 Erabakian, printzipio gisa —eta **salbuespenak salbuespen**—, adierazi dugu ezen **dirulaguntzak bideratzen dituzten arauak ez direla erregelamendu exekutiboak.**

Han adierazi dugun bezala, hala ulertzen du Auzitegi Gorenak —besteak beste, 1034/2020 Epaia, uztailaren 17koa (errek. 247/2019) edo 1069/2020 epaia, uztailaren 21ekoa (errek. 39/2019)—.

Azken erabaki horretan, auzitegiak honako hau adierazi du: “Auzi honen xedeko xedapena ez da lege-mailako arau bat garatu, osatu edo betearazten duen erregelamendu-mailako arau bat, baizik eta xedapen bat, zeinaren bidez Administrazioak lege-mailako arau batek espresuki ematen dion ahalmena baliatzen baitu laguntza ekonomikoak edo pizgarriak ezartzeko, sustapen-neurri gisa, ordainsaria beharrezkoa ez den ordainketa finalista izanik, eta hurbilago dago tarifa-ahaletik (sistema elektrikoaren diru-sarrerak eta kostuak zehaztea) Legean jasotako erregulazioa garatzeko erregelamendu-ahala erabiltzetik baino. Hori dela eta, egokia da Administrazioaren ordezkari prozesalak adibide gisa eskaintzen duen paralelismoa, zeinaren arabera, aztertzen ari garen ondorioetarako, hemen aurkaratzen den xedapenaren moduko batek dirulaguntzen formako laguntza publikoak arautzeko oinarrien antzeko izaera juridikoa duen, eta oinarri horiek, erregelamenduzko izaera izan arren, ez dira legeak garatzeko edo betearazteko ematen diren xedapen orokorrak.”.

Aztertzen ari garen gaiarekiko paralelismoa argia da, eta hala berresten du Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txosten osatuak, zeinak, laguntza-lerroaren legezkotasuna aztertzeko parametro gisa, honako hauetara jotzen baitu: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretura, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Laburbilduz, Emantzipa Programarako laguntzak arautzen dituen proiektua ez da Eusko Jaurlaritzak GL garatzeko edo betearazteko emandako erregelamendu-xedapen bat, eta ezin da sartu EABJLren 3.1 artikulua araberako Batzordeak nahitaez txostena eman behar dien xedapen-proiektuen artean.

11/2023 ABJE, par.: 16-34

II. Parametroak

A) Administrazio-egintzak

Ondare-erantzukizuna

Hainbatetan adierazi dugun bezala, oro har, **ondare-erantzukizuna ez da bide egokia desjabetze-jarduketa baten ondoriozko kalteen ordaina eskatzeko.**

Doktrina finkatu horren arrazoia azaltzen da, adibidez, Auzitegi Gorenaren 1990eko apirilaren 28ko epaian (RJ 1990/3359), zeinaren arabera nahitaezko desjabetzea:

“... ondaregabetzera zuzenean bideratutako administrazio-egintza bat da, eta kalte-ordainaren eginkizuna da desjabetutako ondasunaren ondare-balioa ordezkatzeko, eta ondasunak kentzeak zuzenean dakartzan nahitaezko ondorio ekonomikoak estaltzea. Administrazioaren erantzukizunean, berriz, ondorio lesibo bat dugu, administrazioaren jarduketa batek eragina, bai, baina ez zuzenean helburu horrekin, baizik eta beste batekin. Instituzio-diferentzia horrek dakar bi erregimen desberdinen existentzia.” Eta desjabetzearen institutuaren xedarengatik beragatik, hura erregulatzen duten arauak ondo aurreikusi dute hark eragindako ondare-menostea berdintzea horretarako propio araututako prozedura baten bidez.

Beste alde batetik, Auzitegi Gorenaren 2001eko apirilaren 19ko epaiak (RJ 2001/3158), besteak beste, jarraibideak ezarri ditu kasu bakoitzean bi erakundeetako zein aplikatu behar den aztertzeko:

...desjabetze-jarduketari zuzenean lotutako galerak balio justuaren espedientean baloratu behar dira; aldiz, desjabetze-jarduketari lotzen ez zaizkionak ondare-erantzukizunaren bidetik ordaindu beharko dira, hala badagokio. Hau da, desjabetze-jarduketa kenduz gero galera desagertzen bada, desjabetze-espedientean eman behar zaio balio justua galera horri.

Gure kasuan, azpimarratzekoa da alegatutako kalte gehienak bat datozela desjabetze-prozeduraren barruan baloratu behar diren kontzeptuekin —eta hala izan da, erreklamazioa aurkeztu duen merkataritza-sozietatea emaitzarekin ados ez badago ere—.

Hala gertatzen da erreklamatzeko den kaltearekin, kontzeptu hauek direla eta: (I) lortu gabeko irabaziak, jarduera eteteagatik eta jarduera murrizteagatik, jarduerarik gabeko aldiaren ondorioz; (II) instalazio berriak lekuz aldatu eta egokitzearen kostua; eta (III) desjabetutako instalazioetatik erretiratu gabeko altzariak.

Lehen aipatutako jurisprudentziaren arabera, **desjabetze-prozesuaren ondorioz sortzen diren auzi guztiak, batez ere ordain daitezkeen kontzeptuei eta haien balorazioari buruzkoak, prozesu horretakoak dira, eta prozesu horretan baliarazi behar dira, barenan hartuta**, beharrezkoa balitz, **epaitegietako erreakzioa**, kasu honetan gertatu den bezala; izan ere, gertaerek erakusten dutenez, desjabetutako finken jabeak eta merkataritza-sozietate erreklamatzailleak auzi-jurisdikziora jo zuten, eta azaldutako emaitza izan zuten.

Gauzak horrela, **ondare-erantzukizunaren bidetik ezin da berriro ireki jabetzak eta VMk administrazioarekiko auzibidean izan duten balio justuari buruzko eztabaida**, honako hauek ekarri baititu, egintzek erakusten dutenez:

- a) EAEANren 382/2021 Epaia, 2021eko azaroaren 10ekoa, zeinean zati batean baietsi baitzen RRR jaunak eta III andreak Gipuzkoako NDLEren erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa. Erabaki horretan, 22. finkari (6110 erregistro-finka) zegokion balio justua zehaztu zen, proiektu honek eragiten baitzion: Urumea ibaian obra hidraulikoak egiteko desjabetze-proiektua, Donostiako udalerrian.
- b) EAEANren 68/2022 Epaia, 2022ko otsailaren 16koa, zeinean zati batean baietsi baitzen RRR jaunak eta III andreak Gipuzkoako NDLEren erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa. Erabaki horretan, 21. finkari (15144 erregistro-finka) zegokion balio justua zehaztu zen, proiektu honek eragiten baitzion: Urumea ibaian obra hidraulikoak egiteko desjabetze-proiektua, Donostiako udalerrian.

Orain kalte-ordain autonomo bat lortzeko uzia —ustezko legez kanpoko sarrera bat dela eta—, desjabetze-prozeduran finkatutako balio justuei gehitu beharko litzaiekeena, **gutziz bidegabea da**, desjabetzeari lotutako kalteak direlako, argi eta garbi, eta han baloratu direlako —aipatu epaietan sartutako zuzenketekin—.

1/2023 ABJI, par.: 101-108

Gogoratzekoa da **zerbitzu publikoaren funtzionamenduak ustez eragindako kaltearen zuzeneko biktima ez dela partikular bat**, Administrazioaren aurreko hirugarrena, **baizik eta, hain zuzen ere, langile bat, Administrazioarekin lotura bereziko harreman bat duena, berezko estatus juridikoduna**. EEE andrea bere lanpostura zihoala erori zen, eta erreklamatazaileak uste du lan-arriskuen prebentziorako neurriak ez betetzeagatik gertatu zela erorikoa.

Halakoetan, batzorde honen irizpide finkatua da (besteak beste, 116/2007, 76/2008, 221/2012, 61/2017, 143/2017, 14/2018 eta 133/2019 irizpenak), jurisprudenzian oinarrituta, erreklamazioaren oinarri diren egitateak lan-jardueran gertatzen direnean, lan-jarduera dela kausa, erreklamazioak enplegatua Administrazioarekin lotzen duen harreman juridikoaren barruan gauzatu behar direla., salbuespen hauekin: bide espezifikoa ez baldin badago, edo, eragindako kaltea oso handia izanik, legegileak objektibatu dituen sistemak —adibidez, gizarte-babeseko sistemak, pentsioak, eta abar— kalte-ordainaren azken helburua betetzeko nahikoak ez baldin badira —hori kasu bakoitzean aztertu beharko da—.

Berriazko erreparazio-biderik izanez gero, kaltetuek ez dute aukera egiteko eskubiderik, berriazko bide horren edo ondare-erantzukizunaren institutu juridikoaren alde; izan ere, behin baino gehiagotan esan dugunez, eta Estatu Kontseiluaren doktrinari jarraikiz, **harreman juridiko zehatzen garapenean sortutako kalte-galerak harreman horien barruan ordaindu behar dira, ahal den guztietan**. Doktrina horren muga da kasuan kasuko harreman juridikoak ez aurreikustea kaltea ordaindu behar denik, kaltetun batzuk kanpo uztea, edo kalte-ordain nabarmen eskasa ematea.

Doktrina horren arabera, **kasu bakoitzeko inguruabar zehatzak hartu behar dira kontuan, eta eskatzen den ordainaren oinarria aztertu, baita erreklamazioak erreklamatazailea eta Administrazioa lotzen dituen harreman juridikoan izan dezakeen babesa ere**. Ez da ahaztu behar ezen, askotariko kasuak gerta daitezkeenez, **azterketa horrek, batzuetan, kontratuz kanpoko erantzukizunaren existentzia baloratzea ekar dezakeela**.

Baina, planteatu diguten kasuan, “zerbitzuaren funtzionamendu ustez txarra” zera da, udal administrazioak langileen segurtasuna bermatzeko duen betebeharra ez betetzea, ez baititu beharrezko neurriak hartu bulegoetarako sarbidearen arrapalan erorikorik gerta ez dadin, “ahozko salaketa ugari egon arren”. Eta argudio hori alegazioen idazkian zehazten da esanez ez direla bete arriskuak ebaluatzeko udal-txostenean ezarritako neurriak.

Illo beretik, erreklamazioan jasotako egintzekin eta oinarriarekin bat etorriz, egindako instrukzioak hau hartu du ardatz: erorikoa gertatu zen udal bulegoei dagokien laneko arriskuen identifikazio- eta ebaluazio-txostena betetzen ote den.

Laburbilduz, ez dago zalantzarik erreklamazioa lotuta dagoela Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuak, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen bidez onetsiak (14.l artikulua), enplegatu publikoei aitortu dien eskubidearekin, laneko segurtasun eta osasunaren alorrean babes eraginkorra jasotzeari dagokionez. Eta horrek Administrazioak enplegatzaitzat duen lege-esp-

rik esleitzen dira, funtzionarioak edo estatutupeko langileak barne hartuta, eta, hala badagokio, lan-arloko jurisdikzioaren aurrean aurkeztu beharko dituzte beren erreklamazioak, inoren konturako langileen baldintza berberetan, funtzionarioen edo estatutupeko langileen edo lan-kontratudunen harremanaren parte den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia ez betetzearen ondorioz jasandako kalteen ondoriozko erantzukizuna barne.

Epai hori bera aipatzen du Auzitegi Gorenaren Eskumen Gatazken Salaren maiatzaren 6ko 12/2019 Autoak, eta ideia bera azpimarratuta: “LAJLk sartutako ikuspegi berriak, lan-harremanen arloko eskumena arrazoizkotzen baitu, bide ematen du baieztatzeko lan-arloko jurisdikzioari dagokiola administrazio publikoek lan-arriskuen prebentzioaren arloan egiten dituzten jarduketan kontrako edozein aurkaratze, eragindako pertsona funtzionario publikoa izanda ere, LAJLren 2.e) artikulua araberan”.

Eta gaineratu duenez —Auzitegi Gorenaren Laugarren Salaren 2018ko martxoaren 1eko epaia (DBKE, 1422/2016) aipatuta—, “onargarria da lan-arloko organoak arduratzea karrerako funtzionario batek jasandako lan-istripuaren edo lanbide-gaixotasunaren ondoriozko kalte-galerak erreklamatzeko demandez, baldin eta haien oinarria lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia urratzea bada”.

Gauza bera dio, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren maiatzaren 5eko 1675/2022 Epaiak (669/2022 apelazio-errekurtsoa), bere lanpostuan erorikoa izan zuen enplegatu publikoak jarritako ondare-erantzukizuneko erreklamazioaren ustezko ezespenez aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ez onartzeko kasu batean:

Beraz, argi eta garbi, auzi-jartzaileak ondare-erantzukizuneko akzioa egikaritu du Administrazio Publikoaren aurrean, oinarritzat hartuta administrazio horrek enplegatzaile den aldetik bete ez izana bere enplegatuekiko duen segurtasun-zorra (kasu honetan, auzi-jartzailea administrazio horretako funtzionarioa da), betebeharrak hori estatutu-harremanaren barrukoa baita, eta iritzi dio Administrazioaren zabarkeriazko omisioa izan dela auzi-jartzaileak zerbitzuak ematen dituen instalazioetako segurtasun-betebeharrak betetzean.

(....)

Ez gari ari, beraz, administrazio publikoek partikular batekiko duten ondare-erantzukizunaz, zeinaren eskumena, oro har, administrazioarekiko auzien jurisdikzioari esleitzen baita AAJLren 2. artikuluko e) apartatuan, baizik eta arau horren 3. artikulua ezarritako salbuespenaz, a) puntuan kanpo uzten ditu-eta lan-arloko jurisdikzio-ordenari berriaz esleitutako gaiak, nahiz eta administrazio publikoaren jarduerarekin lotuta egon.

Ezin da ukatu kasu batzuetan zaila dela kontratu-erantzukizuna eta kontratuz kanpoko zedarritzea, baina **Batzordeak uste du planteatutakoa**, transkribatutako azken epaian ebatzitakoa bezala, **Administrazioak, enplegatzaile gisa, bere langileekiko duen segurtasun-zorra ez betetzeari buruzkoa dela.**

Ondorio hori argi eta garbi ikusten da; izan ere, **azterketak abiapuntu hartu behar du EEE andrea Administrazioarekin lotzen duen estatutu-harremana, hortxe kokatzen baita oso-osorik alegaturiko kaltea, enpresariaren prebentzio-betebeharrak ustez ez betetzearen ondoriozko lan-istripuak ekarria.**

Horiek horrela, deskribatu dugun lege-esparrua indarrean egonda, Donostiako Udalak kon-tuan hartu behar zituen, erreklamazioa aurkeztu ziotenetik, kasuaren inguruabarrak, eta es-katu ziotenaren izaerari begiratu: estatutu-harremanaren barruko segurtasun-zorra ustez ez betetzeak eragindako kaltea konpontzea, laneko arriskuen prebentziorako araudiaren argitan baloratu behar baita.

Azterketa hori ez dagokio administrazio publikoen ondare-erantzukizunari, eta Adminis-trazioak ebatzitakoa berrikustea ez dagokio administrazioarekiko auzien jurisdikzioari, baizik eta lan-arloko jurisdikzioari —adierazitako moduan—.

15/2023 ABJI, par.: 34-53

Ondare-erantzukizunaren institutua ez da bide egokia era abstraktuan eta egintza ze-hatz batzuk aipatu gabe ebaluatzeko nola egikaritzen den administrazio-kontrola ... joko-aretoek aplikatu beharreko araudia betetzeari dagokionez. Ondare-erantzukizuna-ren eremuan, dagokion zerbitzu publikoaren funtzionamendua aztertu behar da, erreklamatu-tako kaltea egintza jakin batzuen arabera eragin duen egiaztatzeke.

89/2023 ABJI, par.: 41-41

Batzorde honek behin baino gehiagotan aztertu ditu mediku-gastuen itzulketarekin zerikusia duten ondare-erantzukizuneko erreklamazioak —denen erakusgarri, 212/2019 eta 29/2018 irizpenak—, eta bereizi egiten ditu, jurisprudentziak bezala, batetik, **gastu medikoak berdint-**

zea edo itzultzea, aipatu errege-dekretuak xedatu duenaren arabera baloratzen baita hura bidezko den ala ez, **eta, bestetik, Administrazioaren ondare-erantzukizuna, osasun-zerbitzuen funtzionamendu okerreko kasuan gertatzen dena**, baldin eta egiaztatzen bada Administrazioak eragin dituela konpondu nahi diren kalteak (**nahiz eta**, batzuetan, **kalteak berdintzea bat etortzen den kaltetuak izan dituen gastu medikoen ordainketarekin**).

Era berean, Batzordeak bere irizpenetan adierazi duenez —Aragoiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko urtarrilaren 19ko epaia aipatuta, JUR 2008\54219—, jurisprudentziak onartu izan du lan-arloko gastuen itzulketa eskatzeak ez duela baztertzen Administrazioaren balizko ondare-erantzukizuna, osasun-zerbitzuen funtzionamendu akastunean oinarrituta, baldin eta egiaztatzen bada hori gertatu dela eta konpondu nahi diren kalteen eragilea izan dela.

Hala ere, **Batzordeak irizpena eman duen kasuetan**, aurkeztutako **erreklamazioek, gastu medikoak ordaintzeko eskariak gain, beste erreklamazio mota batzuk ere planteatzen zituzten**, kalte moralengatik —kasu gehienetan— edo praxi txarrarengatik.

Ez dirudi hori denik aztertzen ari garen erreklamazioaren planteamendua; izan ere, espedienteetan jaso den bezala, argi dago **erreklamatzailearen asmo bakarra dela** osasun-administrazioak **itzultzea** osasun-zentroan jasotako osasun-laguntzaren ondorioz **izandako gastuak**, hau da, osasun-zentro horretan **egin zioten ebakuntza kirurgikoa ordaintzea**.

Ez dugu ahaztu behar erreklamatzaileak hasierako idazki bat aurkeztu zuela ... ESIko Pazientearen Arreta Zerbitzuan, egindako ebakuntza kirurgikoari dagozkion gastuak itzul ziezazkio-tela eskatuz, eta espedienteak ez duela inongo inguruabarririk aipatzen eskaria ez izapidetzeko justifikatzeko, gastu medikoak itzultzeko espediente gisa.

Alegazio-idazkian eskaera hori berretsi du, eta Ikuskaritza Medikoen bigarren txostenak ere aipatzen du aurkeztutako erreklamazioa bide horretatik izapidetzeko aukera.

Aurrekari horiekin, Batzorde honek uste du ezen, MMM andreak **aurkeztutako erreklamazioa izapidetzeko, irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak aurreikusitako prozedura espezifikoa baliatu behar zela, gastu medikoak itzultzekoa**.

Prozedura horretan, batzorde honek ez du zertan esku hartu, eta, beraz, ez litzateke bidezkoa izango Osakidetza egindako kontsulta; izan ere, EABJLren 2. eta 3. artikuluetatik ondorioztatzen baita **Batzordearen esku-hartzeak legez finkatuta daudela, eta ezin dela egin hautazko kontsultarik** —ezta, hortaz, esku-hartzerik ere—.

116/2023 ABJI, par.: 22-29

KONTSULTA EGINKIZUNA69

B) Xedapen orokorrak

Erregelamenduzko xedapenen proiektuak

Aztertzeko aurkeztu diguten proiektuaren zati bat otsailaren 20ko 87/1984, maiatzaren 29ko 92/2007 eta urriaren 27ko 203/2015 **dekretuak aldatzeko da, eta arazorik gabe sartzen da Batzordearen esku-hartzearen eremuan.**

Gaiari buruzko legeria autonomikoa garatzeko dekretuak izaki, nahitaezkoa da Batzordearen txostena, azaroaren 24ko 9/2004 Legeak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarenak (EAB-JL), 3.1 artikulua c) apartatua ezarri duenaren arabera.

Bestalde, agindu hauek aldatu nahi dira: Agindua, 2009ko apirilaren 29koa, Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuarena. Horren bidez, BGAEen hainbat jardura egitea arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren zenbait manu garatzen dira; eta Agindua, 2016ko uztailaren 19koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, BGAEetako Bazkideen Fitxategi Orokorraren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena, urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren 91. artikulua garatzeko emana.

Beraz, aginduak **ez dira eman gaiari buruzko lege-mailako araudia zuzenean garatzeko; aitzitik, bigarren mailako erregelamendu-garapenak dira, eta ezin dira sartu EABJLren 3.1 artikulua c) apartatuaren arabera irizpena zor diegun erregelamendu-xedapenen artean.**

Kontsulta-kasu berezi baten aurrean gaude horrekin; izan ere, EABJLk ez du beren-beregi aurreikusi **irizpen partzial** bat ematea, kontsultarako aurkeztu dioten arau-xedapen baten eduki jakin batzuei buruzkoa.

Baina, aldi berean, **Batzorde honen doktrina errepikatua da legez finkatuta daudela esku hartzeko kasuak, eta ezinezkoak direla hautazko kontsultak** —ezta, ondorioz, halako esku hartzeak ere—.

Hori dela eta, **irizpenak** otsailaren 20ko 87/1984, maiatzaren 29ko 92/2007 eta urriaren 27ko 203/2015 **dekretuen aldaketak baino ez ditu aztertuko, eta ez du baloratuko dekretu-proiektuaren eduki hau: BGAEen arloan eskumena duen sailburuaren aginduak aldatzean datzana.**

192/2023 ABJI, par.: 23-29

2. Kapituluia. ZUZENBIDE-ITURRIAK

I. Iturri-sistemaren interpretazio klausulak

Informazio publikoa eskuratzeko prozedura berezizat jotzen da aurreproiektuaren 33.1 artikuluan, eta eta lege honetan –eta, osagarri gisa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearen araudian– xedatutakoak arautzen du.

Operadore juridikoek jarraitu beharreko interpretazio-arau zuzena izan arren, ez da aipatu behar, arau juridiko gisa, Estatuako arauak ordeztzeko balioa duela, ez baitago legegile autonomikoaren esku ordezkagarritasun hori deklaratzeari (EKren 149.3 artikulua orokorrean ezartzen du hori).

Ordezko izaera interpreteak ondorioztatu behar du (ezin du araugileak ezarri), eta hori Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketa arautzen duten arauen arabera izango da (aztergai dugun kasuan *ratione materiae* prozedura berezien arloan) eta, bereziki, APELen 1.2 artikuluan eta 129.4 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, artikulua horiek aukera ematen baitute administrazio-egintzak sortzeko izapide gehigarriak edo APELen jasotakoez bestelakoak sartzeko, kondizio jakin batzuei jarraituz betiere.

Hau da, APEL zuzenean aplikatzekoa da, baina alboratuta gera daiteke autonomia-erkidegoak *ratione materiae* ezarritako araudiarekin bateraezina den guztian.

Gogoan izan behar da maiatzaren 24ko 55/2018 KAEk hau deklaratu zuela:

1.2. artikulua tarteki eztabaidagarriak ezartzen dute autonomia-erkidegoek eta Estatuak berak, oro har, lege-mailako tresnak erabili behar izango dituztela administrazio-prozedura bereziak arautzen dituztenean beren eskumen-tituluen esparruan. Hain zuzen, legearen eta, hala dagokionean, lege-mailako gobernuko arauen menpe jartzen dituzte prozeduraren erregulazioak. Horrek, jakina, autonomia-erkidegoek beren burua antolatzeke duten gaitasuna mugatzen du. Dena den, erkidegoek legezko edo errege-lamenduzko tresnak aukeratzeko ahalmena dute hainbat alderditan: organo eskudunak, epeak, hasteko eta bukatzeko moduak, argitaratzeak eta bildu beharreko txostenak. Era berean, tarteki eztabaidagarriak dagoeneko Konstituzioaren bitartez indarrean dagoen lege-erreserba bat garatzera mugatzen dira kasu honetan.

EKren 105. c) artikulua ezarri bezala, legeak arautuko du «administrazio-egintzak sortzeko prozedura». Horrenbestez, «lege-erreserba» bat gauzatzen du, autentikoa edo berezkoa [ekainaren 8ko 18/1981 KAE, 5. OJ, EKren 105.c) artikulua buruz], printzipio demokratikoaren «berme instrumental» gisa (maiatzaren 28ko 107/2015 KAE, 2. eta 3. OJ, Konstituzioan ezarritako beste lege-erreserba bati buruz). Helburua zera da,

administrazio publikoek eskumenak gauzatzea ganbera legegileek funtsez zehaztutako prozeduren arabera edo, behintzat, lege-mailako gobernuko arauen bitartez (lege-dekretua eta legegintzako dekretua).

Hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatzekoa da 39/2015 Legearen 1.2. artikulua tarteki eztabaidagarriek era legitimoan eragiten diotela autonomia-erkidegoaren antolakuntza-gaitasunari, bigarren mailako legezko tasun demokratikoa duten gobernuko erregulazioak ugaritzea saihesteko eta administrazio-prozedurei araudi egonkorragoa eta gardenagoa emateko; betiere, Konstituzioaren berme baten garapenean [EKren 105. c) artikulua]. Beraz, badaude ezarritako lege-erreserba justifikatzen duten «arrazoi konstituzionalak» [41/2016 KAE, 7. c) OJ],

179/2023 ABJI, par.: 330-334

II. Legegintzarako eskuordetza

Legegintza-dekretuaren proiektuaren edukia aztertu baino lehen, kera egin behar dugu **Hezkuntza Sailak adierazi duen desadostasunean**, sail horrek baitu legegintza-dekretuaren gaiaren gaineko eskumena —prestatzeko prozedurari dagokion irizpen-atalean azaldu dugunaren ildotik—; hau da: **ea komeni ote den testu bateratuaren arau-tresna erabilteza**, zeinak, nolana ere, haren ustez, otsailaren 19ko 2/1993 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa, aldatu edo eduki berriak sartu beharko lizkiokeen, “zaharkituzat” jo baitu, zehazten dituen arrazoiak direla eta.

Gai horri dagokionez, abiapuntutzat hartzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuaren proiektua, orain txostena egiten ari gatzaizkiona, Legebiltzarrak XOEPLren azken xedapenetako bigarrenaren bitartez Eusko Jaurlaritzari egindako legegintza-eskuordetza espresuaren ondorio dela. Honela dio, hitzez hitz:

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– “Oinarri-legea, eta Gobernuari eskuordetza ematea lege jakinen euskarazko bertsioa eguneratu eta harmonizatzeke”.

1.– Eskuordetza ematen zaio Gobernuari ondoren aipatzen diren legeen euskarazko bertsioa eguneratu, erregularizatu, argitu eta harmonizatzen dituzten legezko testuak onar ditzan lege hau indarrean jarri eta urtebete baino gehiagokoa ez den epe batean eta ekainaren 30eko 7/1981 Gobernu Legearen 52.3 artikulua arabera:

– 1/1980 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Egoitzari buruzkoa.

- 16/1983 Legea, uztailaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen araubide juridikoari buruzkoa.

- 8/1983 Legea, apirilaren 14koa, Euskadiren Ereserki Ofizialari buruzkoa.

- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.

– 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.

– 4/1997 Legea, maiatzaren 30ekoa, Mondragon Unibertsitatea aitortzen duena.

2.– Kasu honetan, erregularizate- eta harmonizatze-lanak lege horien euskarazko bertsioak erabiltzen dituen terminologia eta hizkera teknikoa eguneratzera eta egokitzera mugatuko dira, gaztelaniazko bertsioaren letra eta edukia modu osoan errespetatuz, eta halako moldez, non egingo den testu elebiduna xedapenaren jatorrizko zentzuari modu hertsian lotuko baitzaio, hura aldatu gabe, hizkuntz bertsio bien arteko baliokidetasun zorrotzena osoki errespetatuta.

3.– Erregularizate- eta harmonizatze-lanak euskara tekniko-juridikoaren arloan ohikoak diren printzipio eta irizpenei jarraituz egikaritzeko dira, eta testu juridikoen hizkuntz bertsio bien baliokidetasun zorrotzena bermatzea ahalbideratzen dutenekin bat, dagokion aholkularitza espezializatuaren bidez; eta, horretarako, testu bateginaren gaineko iritzia eskatuko zaio Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari.

4.– Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak, hitzarmen bidez, legeak eta testu kont-solidatuak argitaratzeko gune digital partekatu bat ezarri ahal izango dute, non legearen aldaketen bertsio guztien berri emango den, bi hizkuntza ofizialetan, eta indargabetua dagoen ala ez adieraziko den. Halaber, egoki deritzoten gainerako informazio juridiko guztia adierazi ahal izango da.

Horrela egindako **eskuordetze espresu** horri esker, **Jaurlaritzak erregularizazio- eta harmonizazio-lana egin dezake, zorrotz mugatuta adierazitako legeek** —zeinen artean baitaigo aztertzen ari garen proiektuaren xedea— **euskarazko bertsioan erabilitako terminologia eta hizkuntza teknikoa** eguneratu eta homogeneizatzen. Eta gaztelaniazko bertsioaren edukia eta literaltasuna oso-osorik errespetatzera behartzen du, eta testu elebiduna xedapenaren jatorrizko zentzuari zorrotz egokitzera, aldaketarik sartu gabe.

Ikuspegi horretatik, ez zaio arrazoirik falta ekimena sustatu duen organoari; izan ere, Hezkuntza Sailaren alegazioak baloratzerakoan adierazi duenez, proiektu honetan Jaurlaritzak ezin dio erregulazio berririk eman aipatu 2/1993 Legeari. Izan ere, debekatuta dauka arau horren eduki substantiboa aldatzea.

Hala ere, zehaztu behar da **Legebiltzarrak Jaurlaritzari gaikuntza eman izanak**, zehaztutako lana egin dezan, Legebiltzarrak ezarritako epeari eta baldintzei egokituta, **ez dakarrela Jaurlaritzak nahitaez eta ezinbestean bete behar duen jarduteko agindurik**.

Hau da, gaikuntza horrek ez dio Gobernuari kentzen erabakitzeko ahalmena, egokitasunaren eta segurtasun juridikoaren irizpideen arabera, ahalmen hori gauzatzeari uko egiteko, hala badagokio. Legebiltzarrak ezarritako baldintzen eta epeen mende baino ez da jartzen egikaritzea hori, eta, horietatik kanpo, Jaurlaritzak ez luke legitimaziorik izango arlo horretan jarduteko.

Aurrekoa kontuan hartuta, **Batzordearen ustez arrazoizkoa da aztertzea ea egokia den orain onartzea testu bategin bat 2/1993 Legeari** (otsailaren 19ko 2/1993 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa), **XOEPLren azken xedapenetako bigarrean emandako gaikuntza epearen barruan betetzeko**; izan ere, **Hezkuntza Sailaren arabera, arrazoi sendoak daude lege horren edukia aldatzeko, gaur egun indarrean dagoen araudira egokitze aldera** —eta hori, alde batera itxita 2023ko arau-egutegian ez agertze, prozeduraren instrukzio-organoak ohartarazi duenez—.

Kontuan hartuta 2/1993 Legea gaur egungo arau-esparrura egokitu behar dela substantiboki —gaiaren gaineko eskumena duen sailak ohartarazi duenez—, **egokiago ematen du, printzipioz, segurtasun juridikoaren mesedetan, plangintza egin eta lege hori aldatzea, XOEPLren azken xedapenetako bigarrena alde batera utzita**; hartara, **arau oso eta eguneratu bat sartu ahal izango da ordenamendu juridikoan, hizkuntza bietako edukiei eta terminologiari dagokienez**. Ondorioz, ekimena sustatu duen organoari eskatzen diogu aukera hori azter dezala.

123/2023 ABJI, par.: 41-48

Legegintza-dekretuaren proiektuaren edukia aztertu baino lehen, kera egin behar dugu **Hezkuntza Sailak adierazi duen desadostasunean**, sail horrek baitu legegintza-dekretuaren gaiaren gaineko eskumena —prestatzeko prozedurari dagokion irizpen-atalean azaldu dugunaren ildotik—; hau da: **ea egokia ote den legegintzako dekretua orain izapidetzea, Hezkuntzaren Euskal Legearen proiektua Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari den honetan. Proiektu horrek otsailaren 19ko 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, indargabetzea aurreikusi du**, eta hilabete gutxiren buruan onartzea aurreikusita dago.

Gai horri dagokionez, abiapuntutzat hartzen dugu Euskal Eskola Publikoaren Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuaren proiektua, orain txostena egiten ari gatzai-zkiona, Legebiltzarrak XOEPLren azken xedapenetako bigarrenaren bitartez Eusko Jaurlaritzari egindako legegintza-eskuordetza espresuaren ondorio dela. Honela dio, hitzez hitz:

ZUZENBIDEAREN ITURRIAK 74

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– “Oinarri-legea, eta Gobernuari eskuordetza ematea lege jakinen euskarazko bertsioa eguneratu eta harmonizatzeke”.

1.– Eskuordetza ematen zaio Gobernuari ondoren aipatzen diren legeen euskarazko bertsioa eguneratu, erregularizatu, argitu eta harmonizatzen dituzten legezko testuak onar ditzan lege hau indarrean jarri eta urtebete baino gehiagokoa ez den epe batean eta ekainaren 30eko 7/1981 Gobernu Legearen 52.3 artikulua arabera:

– 1/1980 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen Egoitzari buruzkoa.

- 16/1983 Legea, uztailaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen araubide juridikoari buruzkoa.

- 8/1983 Legea, apirilaren 14koa, Euskadiren Ereserki Ofizialari buruzkoa.

- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.

– 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.

– 4/1997 Legea, maiatzaren 30koa, Mondragon Unibertsitatea aitortzen duena.

2.– Kasu honetan, erregularizate- eta harmonizatze-lanak lege horien euskarazko bertsioak erabiltzen dituen terminologia eta hizkera teknikoa eguneratzera eta egokitzea mugatuko dira, gaztelaniazko bertsioaren letra eta edukia modu osoan errespetatuz, eta halako moldez, non egingo den testu elebiduna xedapenaren jatorrizko zentzuari modu hertsian lotuko baitzaio, hura aldatu gabe, hizkuntz bertsio bien arteko baliokidetasun zorrotzena osoki errespetatuta.

3.– Erregularizate- eta harmonizatze-lanak euskara tekniko-juridikoaren arloan ohikoak diren printzipio eta irizpenei jarraituz egikaritu dira, eta testu juridikoen hizkuntz bertsio bien baliokidetasun zorrotzena bermatzea ahalbideratzen dutenekin bat, dagokion aholkularitza espezializatuaren bidez; eta, horretarako, testu bateginaren gaineko iritzia eskatuko zaio Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari.

4.– Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak, hitzarmen bidez, legeak eta testu kontsolidatuak argitaratzeko gune digital partekatu bat ezarri ahal izango dute, non legearen aldaketen bertsio guztien berri emango den, bi hizkuntza ofizialetan, eta indargabetua dagoen ala ez adieraziko den. Halaber, egoki deritzoten gainerako informazio juridiko guztia adierazi ahal izango da.

Horrela egindako eskuordetze espresu horri esker, Jaurlaritzak arauaren erregularizazio- eta harmonizazio-lana egin dezake, zorrotz mugatuta adierazitako legeek —zeinen artean baitago aztertzen ari garen proiektuaren xedea— euskarazko bertsioan erabilitako terminologia eta hizkuntza teknikoa eguneratu eta homogeneousatuz. Eta gaztelaniazko bertsioaren edukia eta literaltasuna oso-osorik errespetatzera behartzen du, eta testu elebiduna xedapenaren jatorrizko zentzuari zorrotz egokitzera, aldaketarik sartu gabe.

Aurrekoa esanda, ekimena **sustatu duen organoak** Hezkuntza Sailak planteatu dion gaiari —**nahitaez bete beharreko Legebiltzarraren agindua izatea**— emandako erantzunari **dagokionez**, honako hau zehaztu behar da: **Legebiltzarrak Jaurlaritzari gaikuntza eman dio zehaztutako lana egin dezan**, Legebiltzarrak ezarritako epeari eta baldintzei egokitu, **baina, gaikuntzaren formulazioa ikusita, ezin da ondorioztatu Jaurlaritzak nahitaez eta ezinbestean bete behar duen jarduteko agindurik.**

Hau da, **gaikuntza horrek**, kasu honetan, **ahalmena ematen dio Gobernuari bertan adierazitako moduan jarduteko, baina ez dio kentzen uko egiteko ahalmena, aukera eta segurtasun juridikoko irizpideen arabera**. Legebiltzarrak ezarritako baldintzen eta epeen mende baino ez da jartzen egikaritzea hori, eta, horietatik kanpo, Jaurlaritzak ez luke legitimaziorik izango arlo horretan jarduteko.

Kontuan hartuta ezin direla nahastu Legebiltzarraren agindua eta Legebiltzarrak Jaurlaritzari emandako **legegintza-gaikuntza edo -eskuordetza, bai eta Hezkuntzaren Euskal Legearen proiektua Legebiltzarrean izapidetzen ari direla ere, Gobernu Kontseiluak aztertu beharko ditu ekimenari buruz deskribatutako inguruabarrak.**

124/2023 ABJI, par.: 35-41

III. Legea

A) Maila izoztea

Artikulu ugari dagoenez, ekimenaren sustatzaileak uztartu egiten ditu manu argi eta garbi printzipialistak edo programatikoak birtualtasun juridiko nabarmena duten beste batzuekin. Azken horiek, batzuetan, arreta merezi duen xehetasun maila dute.

Gauza jakina denez, gure ordenamenduan badira gai batzuk legeak bakarrik arautu ditzakeenak —"legearen erreserba materiala" deritzonaren babesean—, baina ez dago, ordea, legeari debekatutako gai edo objekturik. Hala ere, horrek ez du eragozten eremu batzuk egotea, zeinen erregulazioa hobeto egokitzen zaion erregelamenduari, maiz egokitu eta doitu beharreko alderdiak direlako —adibidez, antolamendu- eta prozedura-kontuak, sustapen-jarduera

jakin batzuk, eta abar—, eta botere betearazlearen esku uztea komeni delako, botere horrek azkarrago edo arinago sortzen dituelako arauak, oro har.

Artikuluak aztertzean, **maila igotzeko kasurik deigarrienak identifikatu dira, eta ez da erraza erabaki horren arrazoa aurkitzea, eta ondoriorik nabarmena aldatu nahi direnean agertuko da, lege-maila bereko arau bat beharko baita horretarako.**

Ikuspegi horretatik, **komenigarria litzateke haztatzea zer irizpide erabili den** legearen maila hedatzeko gaur egun erregelamendu-mailako arauak erregulatutako edukietara, eta, horretarako pisuzko arrazoirik ezean, eduki horiek aurreproiektuan sartzea galaraztea.

Hiru onura aterako dira proposatzen den arazketatik. Alde batetik, irabaziak izango dira ikuspegi sistematikotik; bestetik, testua argiagoa eta zehatzagoa izango da, eta errazago ulertu eta aplikatuko da. Azkenik, maila izozteak dakarren zurruntasuna saihestuko da, aldaketetara egokitzeko normalean malgutasun handiagoa behar duten alderdiei dagokionez, haien berezko lekua erregelamendu-arauetan baitago.

61/2023 ABJI, par.: 188-192

B) Deslegalizazioa

III. tituluaren edukari dagokionez, arreta berezia eskainiko diogu Erregelamendu-proiektuaren 35. artikuluan jorratutako **indize zuzentzailearen erregulazioari**, zeinak legezko erreferentzia nahitaezko baititu IDSBESLren 36. artikulua eta azken xedapenetako hirugarrena.1.c) [14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena].

Alde batetik, Erregelamenduaren 35. artikulua IDSBESLk ematen dion deslegeztatzeko ahalmena aplikatzen du, transkribatutako terminoetan, eta aplikatu beharreko ehunekoa beherantz murrizten du, % 15etik % 12ra, hau da, memoria ekonomikoan, arau-eraginaren memorian eta alegazioei erantzuteko azken memorian behar bezala azaldu eta landutako erabaki bat, bereziki KEBek planteatutako eragozpenei erantzunez.

Lehen aipatutako 51/2022 Irizpenean esan bezala, “... **zehaztasunez eta berariaz mugatu behar da deslegalizazioak zabalduko erregelamendu-ahalaren eremua, muga zehatzen bidez, legezkotasun-printzipioa babesteko**”. Jarraibide hori agerian geratzen da IDSBESLren azken xedapenetako hirugarrenean,1.c), deslegalizazioa mugatuta legeak ezartzen zuen indize zuzentzailearen ehunekoaren zenbatekora.

Hala ere, organo sustatzaileak arrazoitzen du deslegalizazioari ongi egokitzen zaiola, halaber, kalkulu-oinarria modulatzeari, zeina IDSBESLren 36. artikulua taxutzen baitu erreferentzia bakartzat hartuta lege beraren 35. artikulua, zenbatekoaren zehaztapena arautzen duena; egin-eginean ere, haren arauak aldatzen ditu, zenbaketatik kanpo utzita bizikidetzaren unitatearen ezaugarriari lotutako osagarriak.

Espedientean emandako azalpenen egokitasuna alde aurretik juzgatu gabe, **ez dugu onargarria ikusten halako interpretazio bat, ez baitator bat teknika horren erabilerak hitzez ezartzen duenarekin, ez eta teknika horren mugekin ere. Egindako aldaketa ez doa erregelamendu-garapenaren arrazoizko bideetatik; aitzitik, lege-aurreikuspena aldatzen du, haren alderdi itxi eta funtsezko bat aldatuz.**

160/2023 ABJI, par.: 181-185

C) Lex repetitae

Konstituzio Auzitegiak hasiera-hasieratik ekin dio arazo honi: **ordenamenduko arau batzuk partzialki kopiatu edo jasotzea maila apalagoko beste arau batzuetan edo beste azpisis-tema bateko arauetan.** Auzitegiaren beraren hitzetan (51/2019 KAE), “araugintza-teknika hori egokia da arau-xedapenak emateko zentro ugari dituen estatu baten esparruan, baina baditu arrisku batzuk, garrantzi konstituzionalekoak”.

Labur bada ere, interesgarria da, irizpen honen ondorioetarako, **Konstituzio Auzitegiak** gai zehatz horri buruz **duen doktrina** erreparasatzea.

Hasiera-hasieratik, Konstituzio Auzitegiak (40/1981 KAE, abenduaren 18koa, 1.c OJ) teknika hori aipatu zuen, eta hura erabiltzeak zituen eragozpenez ohartarazi.

Ondoren, Konstituzio Auzitegiak bere doktrinaren azalpen sintetikoa joratu zuen abenduaren 21eko 341/2005 KAEn, kopiatze-kasuak sistematizatzeko ahalegina egin baitzuen.

Urriaren 17ko 162/1996 KAE (3. OJ) eta uztailaren 2ko 150/1998 KAE (4. OJ) aipatuta, Konstituzio Auzitegiak esan zuen “...ez dela Legeen kalitate teknikoaren epaile (341/1993 eta 164/1995 KAE)”, baina hori ez da eragozpen konstituzioaren kontrakoak izan daitezkeen legegintza-jardunbide jakin batzuen arriskuei buruz oharrak egin ditzan, Konstituzioan jasotako iturri-sistemeekin bat ez badatoz edo arauen nahasmendua eragin badezakete, konstituzio-kontrakotasuneko egoerak eraginez, jatorrizko manua indargabetu edo aldatu, baina haren kopiak indarrean jarraitzen duenean gertatzen den bezala.

Legegintza-jardunbide horien artean hauek daude: konstituzio-manuak legearen bidez kopiat-

zea (76/1983 KAE, 23. OJ); oinarrizko arauak lege autonomikoaren bidez kopiatzea (40/1981 eta 26/1982 KAE, beste askoren artean); edo manu organikoak lege arrunten bidez kopiatzea.

Denboran askoz hurbilago, 51/2019 KAEk, 2019ko apirilaren 11koak, gogorarazten du teknika hori erabiltzean egiaztatutako zailtasunak gertatu direla legegile arruntak Konstituzioaren hitzez hitzeko preskripzioak errepikatzean, baina, batez ere, Estatuko araudiaren eta araudi autonomikoaren arteko harremanetan sortu direla, zeinak Auzitegiak eskumenen ikuspegitik aztertu baititu, eta ez arauen kalitate teknikoaren ikuspegitik, azken hori bere jurisdikziotik kanpo geratu delako.

Honela dio Konstituzio Auzitegiak:

Esparru horretan, arau-edukiak errepikatzearen eskumen-arazoak agertu dira, bai Estatuaren eskumen eskusiboek dagokienez, bai oinarrizko eskumenei dagokienez. Kasu horretan, lehenengo barruan, legeria penala eta prozesala, EKren 149.1.6 artikulua kontuan hartuta (162/1996 KAE, urriaren 17koa, 3. eta 4. OJ, eta 47/2004 KAE, martxoaren 25ekoa, 8. OJ, hurrenez hurren), lan-arloko legeria, EKren 149.1.7 artikulua kontuan hartuta (159/2016 KAE, irailaren 22koa, 3. eta 4. OJ), edo legeria zibila, EKren 149.1.8 artikulua kontuan hartuta (62/1991 KAE, martxoaren 22koa, 4. OJ, eta 150/1998 KAE, uztailaren 2koa, 4. OJ). Araugintza-eskumen eskusibo horietan irmotasunez defendatu dugu «lege autonomikoek Estatuko arauak kopiatzea, legegintza-teknika eskasa izateaz gain, konstituzio-kontrakotasunean erortzen dela arauen kopia hori autonomia-erkidegoak eskumenik ez duen gaiei buruzko arauetan gauzatzen denean» (159/2016 KAE, 3. OJ). Hala, «arau prozesal orokorrak legeria autonomikoan errepikatze hutsak ez du, besterik gabe, aurreikuspen hori ontzat ematen» (121/1992 epaia KAE, irailaren 28koa, 4. OJ, gero behin baino gehiagotan errepikatu den formula), salbu eta egiaz ainguratuta badaude zuzenbide substantibo autonomikoko berezitasunetan, zeinak berariaz aipatzen baitira EKren 149.1.6 artikuluan. Irizpide horren ondorioz, behin baino gehiagotan deklaratu izan ditugu Konstituzioaren kontrako arau autonomiko batzuk, arau prozesalak errepikatu besterik egiten ez zutenak (horien erakusgarri dira 71/1982 KAE, azaroaren 30ekoa, 20. OJ; 173/1998 KAE, uztailaren 23koa, 16. OJ; 47/2004 KAE, martxoaren 25ekoa, 8. OJ, edo 2/2018 KAE, urtarrilaren 11koa, 4. OJ; dagoeneko aipatua dugun 121/1992 KAEz gain); hala ere, salbuespen hau ezarri genuen: «errepikatzearen xedea izatea, besterik gabe, arau autonomikoetan sartzeari ordenamendu prozesal orokorraren xedapen jakin batzuk, parlamentu autonomikoak onartutako arau-testuari zentzua edo ulergarritasuna emateko helburu bakarrarekin» (47/2004 KAE, 8. OJ). 173.

(...)

(...) gaiari buruzko jurisprudentzia sistematizatuz, esan dezakegu, gaur egun, *leges repetitae* doktrina alegatzeko kasuetan, lehenik eta behin, eta oro har bitartezko konstituzio-kontrakotasuneko kasuetan gertatzen den bezala, beharrezkoa dela berrestea kopiatu nahi den araudia benetan eman dela Estatuaren eskumen bat egikarituta, dela eskusibo—eta horrek kanon zorrotzagoa ekarriko du erregulazio autonomiko errepikakorra epaitzeko—, dela autonomia-erkidegoekin partekatua baina Estuari dagokiona.

Egiaztapen hori egin ondoren, baieztatu beharko da legegile autonomikoak estatuko araudia errepikatzeak bi baldintza betetzen dituela, konstituzio-ikuspegitik onargarria izateko beharrezkoak direnak. Alde batetik, erreproduzio horren beharra justifikatzen duen elementu finalista bat egon behar da, zentzu instrumentala bakarrik izango duena: ulergarriagoa egitea autonomia-erkidegoak bere eskumen propioak baliatuz egiten duen arau-garapena. 47/2004 KAEk 8. OJn baieztatzen duen bezala (geroko beste batzuek ere jaso dute: 341/2005 KAE, 9. OJ, edo 201/2013 KAE, abenduaren 5ekoa, 11. OJ), errepikapena onartu behar da «parlamentu autonomikoak onartutako arau-testuari zentzua edo ulergarritasuna emateko helburu bakarrarekin». Hartara, 73/2016 KAEn, 10. OJ, adierazi genuen bezala, «legeria autonomikoa oinarritzkoa denaren eremuan sar daiteke, baina salbuespen gisa bakarrik, oinarriak errepikatzen mugatzen denean, eta horrela garapenerako araubide autonomikoa ulertzen laguntzekotan bakarrik». Beraz, ez litzateke onargarria izango Estatuko oinarriak errepikatzearen helburu bakarra izatea arau-testu bakar batean biltzea gai batean aplikatu daitekeen erregulazio guztia (oinarriak eta garapena), nahiz eta zuzenbidearen aplikatzaileari horren erabilera errazteko asmoz bildu; izan ere, okerreko ustea sortuko luke: legegile autonomikoak erregulazio osoaren gaineko eskumena bereganatu duela, arau-sistema oso baten egile izango balitz bezala, nahiz eta, egia esan, Estatuko ordenamenduaren esparru zabalagoarekin lotuta dagoen, horren osagarri baita. Egin-eginean ere, Estatuko araudia tresna gisa jasotzea posible den kasuetan, ezin izango da ulertu txertatutako manuak berezko eskumen bat egikaritzuz emandako legeria autonomiko bihurtzen direnik –eskumen-bereganatze ezin onartuzkoa litzateke hori–, baizik eta legeria horretan dauden Estatuko oinarritzko xedapenak, eta, beraz, Estatuak dagokion oinarritzko araudia aldatzearen edo indargabetzearen mende egongo da haiek aldatzea edo ezabatzea. Beraz, errepikatzen edo kopiatzen diren oinarriak lotutako araudia da, zeina ez baita formalki aldatzen oinarri horiek aldatzen direnean, baina bai materialki, eta gerora sortutako konstituzio-kontrakotasunean eroriko da, legegile autonomikoak oinarrien eduki berrira egokitzen ez badu, oinarriak aldatu ostean.

Beste alde batetik, beharrezkoa izango da, baldintza material gisa, oinarritzko araudiaren kopia zehatza izatea eta aldaketa gutxi-asko ezkurturik ez izatea; izan ere, ondorio hori gerta daiteke, alde batetik, oinarritzko araudia partzialki bakarrik jasotzeagatik (adibidez, 154/1989 KAE, urriaren 5ekoa, 6. OJ; 62/1993 KAE, 4. OJ, zeinetan «kopia partzial bat, omisio oso esanguratsuekin» ikusita, kontraesan bat ikusi zen Estatuko oinarritzko arauarekin, txikiagora jota, eta ez gehiegizkora, aurrezki-kutxetako kargu jakin batzuen bateraezintasun-arrazoiei dagokienez; 18/2011 epaia, 18. OJ, edo 62/2017 epaia, maiatzaren 25ekoa, 7. OJ), edo, bestetik, Estatuko erregulazioa parafraseatzeagatik nahastea sortzeko moduan (aipatu 62/2017 KAEn 7. oinarri juridikoan aztertutako manuetako lehenengoan gertatu zen bezala). Zehazki, ohartarazi dugu ezen «[oinarritzko baldintza bat] alde batera uztea, batzuetan, kontraesana bezalakoa izan daitekeela» (172/1996 KAE, 2. OJ), batez ere «omisio bat dela eta, partziala edo osoa izan, arau autonomikoak berez eta ondorioz Estatuko oinarritzko legearen aurkako erregulazio bat duenean» (73/1997 KAE, 4. OJ). Azken batean, legegile autonomikoak, Estatuko oinarriak garatzean, ezin ditu birformulatu, bere lurraldean duten eraginkortasunari eragiteko asmoz [73/2016 KAE, 9. OJ, eta 8/2018 KAE, 3.f) OJ]; aitzitik, oinarri horiek zehatz jaso behar ditu, era instrumentalean edo lagungarrian.

Lege-aurreproiektuari buruz egiten dugun azterketaren ondorioetarako, **zenbait konklusio atera daitezke Konstituzio Auzitegiaren doktrinarako hurbilketatik, *lex repetitaren* teknika**

erabiltzeari buruzko epai horien eta beste batzuen arabera.

Lehenengoa: **Konstituzioaren manuak legean kopiatzea, autonomia-erkidegoek onetsitako legeek Estatuaren oinarrizko legeria transkribatzea edo lege organiko batean jasotako manuak lege arrunt bidez errepikatzea Konstituzioaren aurkakoak izan daitezkeen legegintzako jardunbideak direla, Konstituzioan eraturako iturri-sistemara ez egokitzeagatik.**

El Konstituzio Auzitegiak, beraz, akastun eta arriskutsutzat jotzen du teknika hori, eta Estatuako legera jotzea hobesten du.

Bigarren ondorioa: **teknika horrek segurtasun juridikorik eza eta arau-nahasmendua eragiten ditu, argi eta garbi.**

Hirugarrenik, eta jada adierazi dugun arren, kasu jakin batzuetan **konstituzio-kontrakotasuneko akatsa** eragin dezakeen teknika baten aurrean gaude.

Eta akats hori gertatzen da arauak errepikatzeak **eskumen-inbasioa dakarrenean Estatuarentzat gordetako gaietan**, baina azpimarratu behar da, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, salbuespenik badela. Salbuespen dira, hain zuzen, kasu hauek: errepikapenaren xede bakarra denean Estatuako ordenamenduko manu jakin batzuk sartzeari autonomia-erkidegoko araudian —dagokion eskumen-esparruan egikarituia—, autonomia-erkidegoko erakunde parlamentarioak onartutako arau-testuari zentzua edo ulergarritasuna emateko helburu bakarrarekin.

Lege autonomikoak eragiten badio bai Estatuak bai autonomia-erkidegoak eskumenak dituzten gai bati, legegintza-teknikako gaitzespenak alde batera utzita, errepikapen horrek kasu zehatzean sor ditzakeen ondorioei erreparatu beharko zaie.

Illo horretatik, ***lex repetita delakoa* onartu ahal izateko, Konstituzio Auzitegiak bi baldintza hauek betetzea eskatzen du (51/2019 KAE): Estatuako oinarriak kopiatzearen “helburua izatea ulergarriagoa egitea autonomia-erkidegoak bere eskumen propioak baliatuz egiten duen arau-garapena”;** eta **“oinarrizko araudiaren kopia zehatza izatea eta aldaketa gutxi-asko ezkurturik ez izatea”.**

Eta, azkenik, konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioa gerta daiteke, baldin eta Estatuako arau baten manu bat partzialki aipatzen ez bada edo osorik kopiatzen ez bada lege autonomikoan, eta horrek nahasmena sor badezake aplikatu beharreko araudi zehatzari buruz.

Omisioak konstituzio-esanahia hartzen du ezabatutakoa oinarrizkoa denean, eta hortik ondorioztatzen denean kontraesana dagoela Estatuako oinarrizko arauarekin.

Bada, *lex repetitari* buruzko doktrina konstituzionala berrikusita, egoki da gogoratzea zer jarrera hartu zuen Batzordeak HNLren azterketari [Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea] ekin zionean 9/2004 irizpenean.

Kasu hartan, Batzordeak ondorioztatu zuenez, “Estatuko ordenamendu juridikoari edo, are, ordenamendu autonomikoari berari dagozkion xedapenak kopiatzeko teknika erabiltzeak zentzua hartzen du baldin eta beharrezkoa bada araua hobeto ulertzeko, arauaren eduki arauemaitetik bertatik abiatuta, eta hobe da teknika hori ez erabiltzea errepikapenaren arrazoi bakarra denean ‘bilketa’ dei dakiokiena egitea –tresna arauemaile bakar batean biltzea legegile desberdinei dagozkien aginduak, legegile horien arteko harremanak eskumen-printzipioak gidatzen dituenen–, zeina aurreproiektuaren azalpen-zatian aipatzen baitzen, eta gure ustez ez baita oso egokia gure ordenamendu juridikoa eratzeko”.

Illo horretatik, orduan jorratu genuen arau-testua aztertuta, eta egiaztatu ondoren erruz erabiltzen zela manu organikoak eta Estatuaren eskumeneko lege arruntetan jasotako manuak –Kode Zibilaren hainbat artikulua– kopiatzeko teknika, eta azpimarratuta estatu-xedapenen erreproduzioak izan lezakeen helburu didaktiko edo konpilatorio hutsak ez duela oinarririk gure sistema juridikoan, orain laburbilduko dugun bezala mintzatu zen Batzordea.

Lehenengo kasuari dagokionez, **iritzi zion aurreproiektutik kendu behar zirela xedapen organikoak kopiatu besterik egiten ez zuten artikulua, non eta errepikatze hori beharrezkoa ez zen legearen edukia hobeto ulertzeko.**

Bigarren kasuari dagokionez, **Batzordeak iritzi zion proiektua ongi ulertzeko eta proiektuaren koherentziarako ezinbesteko ziren arau-aginduak kopiatzera mugatu behar zela estatuko arauetara jotzea; legegintza-teknika hori, hain zuzen ere, bi modutara egin zitekeen eta: edo arau-mezua errepikatuz –zehatz-mehatz eta osorik errepikatu ere–, edota estatuko xedapenera joz, besterik gabe.**

Egia bada ere gaia ez dela beti konpontzen erraza, Batzordeak egiaztatu besterik ezin du egin indarrean daudela orain hogeitazero urte adierazitako batzuk eta, halaber, haietara itzuli behar duela artikuluen azterketari buruzko atalean, oraingoan ere erabat justifikatuta daudelako.

Izan ere, **aurreproiektuak**, iraganen bezala, **baina, oraingo honetan, askoz ere ugariago eta nabarmenago, kopiatu egiten ditu** –baina ez beti zehatz eta osorik– **izaera organikoko manuak eta Estatuaren eskumeneko lege arruntetan jasotako beste batzuk. Oro har, ez dago horretarako justifikaziorik.**

61/2023 ABJI, par.: 193-217

IV. Erregelamenduak

A) Erregelamenduak egiteko ahala erabiltzea

Printzipioen ildotik, eta erregulazioari ekitean —bereziki, I. eta II. eranskinak— ez direnez erabili Europako araudiaren eta oinarrizko araudiaren kontzeptuak —kopuru txikiak zuzenean hornitzea— eta araudi horien sistematikari jarraitu ez zaionez —eskakizun bereziak, normalean bigunagoak, dituen araubidea ezartzeko babes bereizten dute kasu bakoitzean—, **konpontzen zailak diren arazoak sortzen dira segurtasun juridikoaren printzipioaren ikuspegitik** (EKren 9.3 artikulua).

Gogoratu behar da **printzipio horrek, erregelamenduak egiteko ahalari aplikatuta** “**arauketa onaren**” **printzipiotzat hartuta, argi eskatzen duela ahal hori gainerako ordenamendu juridikoarekin koherentea izanik egin dadila**, esparru arautzaile egonkorra, aurreikus daitezkeena, integratua, argia eta ziurtasunezkoa eratzeko, berori ezagutzea eta ulertzea erraztuko duena eta, ondorioz, pertsonak eta enpresek jardutea eta erabakiak hartzea erraztuko duena.

Ildo horretatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APEL) 129. artikulua xedatzen duenez, erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, “...premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia” baliatuko dira, eta arauaren azalpen-zatian “...behar bezala justifikatu behar da printzipio horiei lotzen zaiela”. Printzipio horiek ordenamendu autonomikoan txertatzera etorri da 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, xedapen orokorrak egiteko egiteko prozedurarena.

Azaldutakoa ikusita, ohartarazi behar da, “**erregulazio onaren printzipioak**” **betetzearen ondorioetarako, ez dela nahikoa arauaren azalpen-zatian horri buruzko aipamen bat egitea** —proiektuak egiten duen bezala —, **baizik eta betetze horrek materiala izan behar duela**, eta, beraz, **printzipio horren benetako aplikazioaren ondorio izan behar duela arauak**.

Gure kasuan, prozeduraren azterketatik aurreikus zitekeenez, **zer hautaketa-irizpide aplikatu den jakin gabe —ez sartutako produktuei dagokienez, elikagai gehiago baitaude zuzenean hornitu daitezkeenak, ez eta ezarritako betekizun eta baldintzen jatorriari dagokionez ere**, hainbat arautatik ekarriak (ez daude ondo identifikatuta)— **ezin da ziurtasunez baieztatu ekimena bateragarria dela Europar Batasuneko araudiarekin, ez eta aplikatu beharreko Estatuko oinarrizko araudiarekin ere**.

79/2023 ABJI, par.: 128-132

B) Erregelamenduak egiteko ahalaren titulartasuna

35. artikulua 1. apartatua adierazten duenaren arabera, EAEko hezkuntza-sistema egituratzen duen gobernantza-esparruan erakunde hauek sartzen dira: Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloko eskumena duen saila, Euskadiko Eskola Kontseilua, Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua, EAEko udalak —ikastetxeetatik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik—, udal hezkuntza-kontseiluak eta eskola-kontseiluak.

2. apartatua adierazten denez, Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren eginkizuna da EAEko hezkuntza-sistemaren definizio estrategikoa, sustapen-eginkizuna eta, hala badagokio, arau-onarpena, eta plangintza eta kudeaketa, lege honetan jasotako printzipio, arau eta jarraibideen arabera eta kasuan kasuko erregelamendu-arauetan ezarritakoari jarraituz.

Azkenik, 3. apartatua xedatutakoaren arabera, Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak legeek eta erregelamenduek hezkuntza-administrazioari aitortzen dizkioten eskumenak baliatzen ditu, eta, EAEko hezkuntza-sistemaren kudeaketari dagokionez, hezkuntza-sailaren jardun-ildoak finkatuko dituen plangintza estrategikoa onartuko du, eta ikastetxeek garatu beharreko jarraibideak ezarriko ditu.

Hezkuntza-sistemaren gobernantzan inplikaturako organoak zehaztean, Eusko Jaurlaritzak aitatu beharko litzateke.

Autonomia-erkidegoak irizpidezkotatasun osoa dauka zehazteko hezkuntzaren arloko araudia nola gauzatu den erakunde-barruan; izan ere, eskumen-euskarriaren azterketan azaldutakoaren arabera, EAEAREN 10.2 artikuluan adierazitako eskumenen titulua sartzen baita jokoan, hots, erakundeek euren burua antolatzeko duten ahalmena.

Baina **erakundeek euren burua antolatzeko askatasuna badute ere, kontuan hartu behar da** EKren 152.1 artikulua eta EAEAREN 29. artikulua jasotako **antolamendu instituzional autonomikoan Eusko Jaurlaritzak gauzatu dituela EAEko funtzio betearazleak eta administratiboak.** Jaurlaritzaren Legearen 16. artikulua arabera, horrek esan nahi du **xede politiko orokorrak zehazten eta EAEko Administrazioa zuzentzen duen kide anitzeko organoa dela; horretarako, legegintza-ekimena, funtzio betearazlea eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzen ditu.**

Joera politikoko funtzio horien esparruan, hari dagokio gobernu-xede garrantzitsuenak jarduerara publikoko sektore batean ezartzea, eta helburu, lehentasun, eta jarraibide programatikoak ezartzea ere bai, horien bitartez diseinatuko baitira jardueraren-estrategiak.

Bestalde, sailburuek, Jaurlaritzaren Legearen 26.4 artikulua arabera, euren saileko gaiei buruzko administrazio-xedapen orokorrak ematen dituzte —«etxerako» alegia, *ad extra* ondorioz gabe—, erregelamenduak gai horietan garatzeko Jaurlaritzak duen aukera alde batera utzi gabe.

Onartuta dago sail bateko titularrek lege-erregelamendu betearazlea emateko eskumena dutela, betiere legeak berariaz gaitzen baditu erregelamendu-xedapen zehatzak emateko. Baina horrek ez du esan nahi legegileak askatasun osoa duenik Jaurlaritza alde batera utzi eta Jaurlaritzari aitortu zaion eskumen-esparrua murrizteko.

Erabaki hori hartzeko arrazoiak ulertzeko, argigarria da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APEL) 129.4 artikulua; izan ere «Estatuko legegile arruntak ez du eskumenik araugintza-ahalak autonomia-erkidegoko erakundeen artean banatzeko, oro har, eta erregelamendu-ahala autonomia-erkidegoetan esleitzeko, kentzeko, mugatzeko edo banatzeko, bereziki» (55/2018 KAE), horregatik ezin daiteke zuzenean aplikatu, baina arauak artikulatzeko printzipio bat adierazten du, EAEko iturri-sistamarako baliagarria dena eta errespetatu beharrekoa: Jaurlaritzak du erregelamenduak egiteko jatorrizko ahala eta lege autonomikoak erregelamendu-garapen espezifikoetarako gaikuntzak eman ahal izango dizkie beste administrazio-organo batzuei, baina horiek salbuespenezkoak izango dira eta behar bezala justifikatu beharko dira.

Aurreproiektuan, **egia da 35.2 artikulua baldintzatu egiten duela sailaren lidergoa “kasuan kasuko erregelamendu-arauetan ezarritakoaren arabera” eta azken xedapenetako lehenengoak Eusko Jaurlaritzari esleitzen diola lege hau garatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapen guztiak emateko ahalmena**, bai eta arau-testu honetan jasotako xedapenak erabat aplikatuko direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzekoa ere. **Baina jarraian baztertu egiten ditu hezkuntzaren alorrean eskumena duen sailaren titularrak gai jakin batzuk arautzeko duen erregelamendugintza-ahalari lege honetan berariaz ematen zaizkion gaikuntzak.**

Gainera, **gai horiek gaur egun Jaurlaritzaren erregelamenduek arautuko balituzte, lege hau indarrean jarri ondoren, hezkuntzaren arloan eskumena duen saileko titularraren erregelamendu bidez arautuko lirateke** —eta, beraz, aldatu edo indargabetu—, **eta horrek arau-degradazio moduko bat eragingo luke.**

Aurreproiektuak erregelamendua egiteko emandako berariazko gaikuntzen berrikuspenera eginez gero, ikusten da nolabaiteko lehentasuna ematen zaiela hezkuntza-arloan eskumena duen saileko titularrari emandako gaikuntzei.

Beraz, gaikuntza horiek oso ugariak dira. Okerrik edo omisiorik ezean, honako hauek jasotzen dira:

- Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozedura bakarrari dagokionez (26.3 eta 27.6 artikulua).
- Zaurgarritasun-indizea aplikatzeko eragin-eremuak eta horien mugakideak zehaztea (28.6 artikulua).

- Finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxeek bete beharreko irizpideak (29.1 artikulua).
- Jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta ematen diren zerbitzuak (29.4 eta 29.5. artikulua).
- Aniztasunaren gaineko neurriei buruzko gaikuntza orokorrak (34. artikulua).
- Plangintza estrategikoa eta programa-kontratua, plan estrategikoaren eta aipatutako programa-kontratuaren artean erregelamendu bat ematea aipatzen bada ere, ez da adierazten zein organok eman behar duen (36. eta 83.5 artikulua).
- Ikastetxeetako zuzendaritza-organoetako kideei aplikatu beharreko etika- edo jokabide-kodea (38.5 artikulua).
- Administrazio-egiturak eta kudeaketa partekatuko egiturak (39.1 artikulua).
- Koordinazio didaktikoko eta tutoretzako organoak (45. artikulua).
- Ikastetxe publikoko Eskola Kontseiluko kideen kopurua eta hautatzeko prozedura (46.1 artikulua).
- Zuzendaritza-kompetentziei buruzko gutxieneko prestakuntza (48.4 artikulua).
- Ebaluazio-tresnak (68.5 artikulua).
- Hezkuntza-sistema osoaren ebaluazio orokorrak (81. artikulua).
- Ebaluaziorako plan espezifikoak (81.6 artikulua).
- Jokabide profesionalaren kodea (87. artikulua).
- Hezkuntzako ikuskaritza (88.3 artikulua).
- Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen oinarritzko egiturak eta funtzionamendua (89.4 artikulua).
- Irakaskuntza-eginkizunean laguntzeko langileak (95.1 artikulua).

- Ikastetxeko langileen plantilla (102.4 artikulua).
- Ikastetxeak sare publikoan sartzea (hirugarren xedapen gehigarria).

Aurreproiektuak, berriz, Eusko Jaurlaritza aipatzen du, gutxiago bada ere, honako gai hauek jorratzen dituenen:

- Curriculumaren arauketa (9.4 artikulua), nahiz eta gero partzialki gaikuntza kendu (16.2 eta 18.4 artikulua).
- Haur-hezkuntzan doakotasuna zabaltzea (10.5 artikulua).
- Euskadiko Eskola Kontseilua, Eusko Jaurlaritzak proposatutako edo emandako arau-dokumentuei buruzko kontsulta- eta aholkularitza-organoa eratzea (57.1 artikulua).
- Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluaren osaera, egitura eta eskuduntza lantzea (60.3 artikulua eta bigarren xedapen iragankorra).
- Euskararen Ikaskuntzarako Institutuaren osaera eta eginkizunak aipatzean (91.3 artikulua).
- Jaurlaritzaren funtzio klasikoetatik urrun samar dagoen eremu bat aipatzean, ikastetxeekin elkarlanean jardutea kulturaren eta hizkuntzaren nazioarteko proiektzioaren esparru zabalenean, bereziki EA Erekin lotura historiko, linguistiko eta kulturalak dituzten lurraldeetan (75.5 artikulua).

Banaketa horren egokitasuna zalantzan jarri gabe, **banaketa egiteko erabilitako irizpidea zein den adierazi ez denez, eta, printzipioz, Eusko Jaurlaritzak ez duenez ahalmenik gai ugaritan** —edo, nahiago izanez gero, erregelamenduak egiteko ahala baliatzeko arau orokorraren salbuespen ugari daude—, **Batzorde honi beharrezkoa iruditzen zaio ekimenaren alderdi hori azpimarratzea** —kasu bakoitza berriaz justifikatu beharko baita—, **bai eta sailak Jaurlaritza zein eremutan ordezkatzeko duen juridikoki modu seguruan argitzeko beharra ere**. Azkenean hartzen den erabakia xehetasun osoz jaso beharko litzateke testuan, eta, horretarako, sailen gaikuntzak jasotzen dituzten manuek zehatz eta zorrotz mugatu beharko dute gaikuntzen norainokoa.

Testuaren eduki askoren formulazioa programa, plan edo estrategien formulazioaren antzekoa da, eta arau-xedapenen berezko formulaziotik urruntzen dira. Testuaren sorrerak eta hura egiteko oinarri izan den adostasun-borondateak azal lezakete ekimenaren ezaugarri hori; izan ere, mezu batzuk programatikoagoak edo funtsezkoagoak direnez, ez dute arazorik sortzen, baina beste mezu batzuetarako —aginduzkoak—, zehaztasun-maila handiagoa behar da.

Bigarren kasu horretan sartzen dira hezkuntzaren arloan eskumena duen sailari emandako gaikuntzak, zentzu jakin batean jardun dezan. Batzordearen ustez, kasu batzuetan, beharrezkoa da gutxieneko diziiplina bat eratzea, erregelamendu bidez osatu ahal izateko.

Adierazi dugun bezala, komeniko litzateke testua irizpide horren arabera berrikustea, eta, edonola ere, aurreko gogoetek aukera ematen dute iradokitzeko Eusko Jaurlaritzak berriaz aipa dadila aurreproiektuaren 35.1 artikuluan, zalantzarik gabe eragile gaitua izan behar baitu Euskal Hezkuntza Sistemaren gobernantzan. Era berean, aurreproiektuaren 35.2 artikuluari gatzelaniaz beste idazkera bat ematea iradokitzen da, adibidez: “Lege honen eta lege hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak ematen dituen erregelamendu-arauen esparruan, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren eginkizunak dira Euskal Hezkuntza Sistemaren definizio estrategikoa, sustapen-eginkizuna eta, hala badagokio, arau-onarpena eta plangintza eta kudeaketa.

56/2023 ABJI, par.: 390-408

11 octies artikuluari dagokionez, gogoeta gehigarria egin behar zaio bertan jasotzen den **gaikuntza** bati, hots, **dekretuan bertan jasotzen ez diren aktiboetako inbertsioen araubidea eta baldintzak ezartzeko gaikuntzari, gizarte-aurreikuspen osagarriaren arloan eskumena duen zuzendaritzari eman zaio-eta.**

Horri buruz esan behar da ezen, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen (JL) III. kapituluaren arabera, **Jaurlaritzak eta sailburu titularrek bakarrik dutela erregelamenduak egiteko ahala**, ez beste inork.

JLren 16. artikuluko eskemaren arabera, Jaurlaritzak du erregelamenduak egiteko ahal orokorra, eta sailburuek ere, JLren 26.4 artikuluan arabera, eskumena dute euren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak emateko, baina ez beheagoko mailako kargudunek, JLren 59. artikuluan arabera debekatuta baitute erregelamendu-ahala egikaritzea.

Eskema horren arabera, **beharrezkoa da dekretuan bertan jasotzen ez diren aktiboetako inbertsioen araubidea eta baldintzak gizarte-aurreikuspen osagarriaren arloan eskumena duen saileko titularraren agindu bidez ezartzea.**

3. Kapituluia. ARAUGINTZA-TEKNIKA

I. Erregulazio-estiloa

Aurreproiektuaren deskribapenean azpimarratu den bezala, aurreproiektu **integrala da, eta, dioenez, gaiaren antolamendu oso eta sistematikoaren alde egiten du, ikuspegi orokor, diziplina anitzeko eta zeharkako batetik, prebentzio-ekintza lehenetsita.**

Hitzez hitz dioenaren ildotik, “testu artikulatu bakar batean arautzen eta garatzen ditu, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsitako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak Autonomia Erkidegoari esleitutako eskumenen barruan, haurrei eta nerabeei buruzko gai guztiak, eta, batez ere, haien eskubideen egikaritzea ziurtatzera eta babestera bideratutakoak”.

Horretarako, zioen azalpenak dioenaren ildotik oraingoan ere, “arau juridiko berean biltzen dira haurrei eta nerabeei buruzko Estatuko oinarritzko legeria, hainbat lege-gorputzetan sakabanatutakoa, bai eta lege sektorial autonomikoetan jasotako arauzko xedapenak ere (osasunaren, hezkuntzaren edo etxebizitzaren arlokoak, esate baterako), haur eta nerabeengan eragina zutenak, eta, kasu askotan, zuzenean eragiten zietenak haien eskubideak egikaritzeari”.

Adierazitako borondatearen arabera, eta berriz ere lege-testuaren beraren hitzetan, kontua da “gainerako ordenamendu juridikoarekin (Estatukoa, Europar Batasunekoa eta nazioartekoa) koherentea den erreferentzia-esparrua ematea, errazago ezagutu eta uler dadin. Eta, horren ondorioz, arauaren aplikazioak barne hartzen dituen EAEko administrazio publikoen jarduna errazten du, eta araua betetzera behartuta dauden pertsona, eragile eta profesionalek erabakiak hartzeko modua argitzen du, baina baita gizarte osoak ere, bereziki, xede duen populazioak eta nerabeek”. Orobat, “gainditu egiten da arautzean zegoen prekaritatea, beti elkarren artean koherenteak ez diren araubide juridiko desberdinak gainjartzeak eragindakoa, bai eta aplikatzekoak ziren arauen sakabanaketak eragindakoa ere, zeinak Konstituzioak bermatutako segurtasun juridikoaren printzipioaren kalterako jarduten baitzuen”.

Batzordeak onartu baino ezin du egin irizpenerako aurkeztu testua lan eta ahalegin zinez bikain baten emaitza dela; izan ere, berezko zailtasuna du antolamendu sistematiko bat lortzeak, organo sustatzaileak onartu duen ikuspegi globaletik abiatuta; baina, hala ere, mugak badira, izan, eta ezin dira alde batera utzi.

Ezin da zalantzan jarri ekimenaren sustatzailearen asmoa, guztiz laudagarria: adingabeen eta nerabeen araubide juridikoa bateratzea eta argitzea, aplikazioa optimizatzeke eta, horrela, haurren eta nerabeen babes onena lortzeko, alderdi guztietan. Asmo hori erabat txertatzen da “adingabeen interes gorenaren” printzipioan, egungo ordenamendu juridikoaren funtsezko printzipio juridikoa baita, eta, horrenbestez, botere publikoen jarduketa guztietan eragin behar du, bai eta sektore material desberdinetako legegileenetan ere.

Hala ere, proposatutako helburua lortzeko aukeratu diren bide batzuk alden du egiten dute aurreproiektua bere helburu argitzailetik.

Gauzak horrela, **biltzeko asmo horrek**, eragile juridikoak testu bakarrean —aurreproiektuan— aurki dezan adingabeei eta nerabeei eragin diezaiekeen erregulazio guztia, **nahi gabeko ondorioztat ekar lezake indarrean dagoen araudiari buruzko nahasketa, eta, beraz, segurtasun juridikoaren printzipioa (EKren 9.3 artikulua) sendotu ordez, ahultzea** —neurri handiagoan edo txikiagoan, aurkezten diren kasuen arabera—.

Ordenamendu juridikoak bere osoan adingabeei buruz jasotzen dituen aurreikuspen guzti-guztiak lege-testu bakar batera biltzea, gure azterketa gidatzen duen ikuspegi juridikotik, ez zaigu posible iruditzen.

Ordenamendu juridikoetan (Europar, Estatuan eta autonomia-erkidegoan) **lege-testu bat baino gehiago egotea ez da segurtasun juridikoaren printzipioa edo** ordenamendu juridiko orotan nagusi izan behar duten **koherentzia- eta sistematizazio-printzipioak gaizki ulertzearen ondorio, baizik eta erregulazioaren xedearen konplexutasunaren ondorio** —"adingabekoen eta nerabeen araubide juridikoa" (definizioz, ikuspegi ugari biltzen ditu, eta ezinezkoa da batera biltzea)—, bai eta araugintza-iturriak errespetatzeko betebeharraren ondorio ere; hain zuzen ere, araubide juridiko horren erregulazioari dagokionez, iturri horiek nazioartean, Europar, Estatuan eta autonomia-erkidegoan kokatzen dira.

Errealitate juridiko horretan, **Haurren eta Nerabeen Kode bakar moduko bat onartzeko ideia**, haurren eta nerabeen araubideari buruzko eskuliburu halako bat, erabakiak hartzea erraztuko liekeena operadore juridikoei eta lanbide-jardueran —medikuntza, irakaskuntza, segurtasun publikoa, etab.— haur eta nerabeekin jardun behar duten pertsona guztiei, **nahiz eta teoriarik positiboa iruditu, praktikan agerian geratzen da ez dela tresna juridiko egoki bat emateko modukoa, eta, gainera, batzuetan kontrako emaitza sor dezakeela** —dagokion erabakia hartzeko kontuan hartu behar den araua nahastea—.

Artikuluen geroko azterketan ikusten denez, **biltzen diren xedapen gehienak iturri desberdinetatik datoz** —batez ere, Estatuko legeriatik—, **eta horien indarraldia Estatuko legegileak hartzen dituen arau-erabakien mende dago.**

Aurreproiektuak aurreproiektua egin zen unean indarrean zegoena jasotzen duen neurrian —jatorria identifikatu gabe, askotan—, **alde batera uzten du biltzen diren xedapenak ez daudela harrian zizelkatuta.**

Adibide huts gisa, bai biltzeko erabakiak sor ditzakeen bihurritze edo itxuraldatzeei dagokienez, bai operadore juridikoei corpus osoa eta eguneratua eskaintzeko helburuaren esku-erantzitasunari dagokionez, nahikoa da aipatzea aurreproiektua egiteko prozesuan Estatuko ordenamenduan gertatu diren aldaketa garrantzitsu batzuk.

Otsailaren 28ko 1/2023 Lege Organikoak aldatu egin du martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa, Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldia Borondatez Eteteari buruzkoa, eta azken xedapenetako hamabigarrenaren bitartez aldatu du emakume adingabeek beren haurdunaldia borondatez eteteko baimena emateko lege-araubidea —horrek bete-betean eragiten dio aurreproiektuaren 29.2 artikuluari—.

Otsailaren 28ko 4/2023 Legeak (transexualen berdintasun erreal eta eragingarrirakoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa) aurreikuspen berriak eta espezifikoak jasotzen ditu adingabeentzat, genero-identitaterako eskubideari dagokionez —aurreproiektuaren 26.c) eta 50. artikuluei eragiten die horrek—.

Era berean, aurreratu daiteke familiei buruzko lege-proiektu onartu berriak eragina izango duela adingabeen estatutu juridikoan; izan ere, lege-proiektu horren helburu esplizituetako bat da haur eta nerabeek babes bera izango dutela ziurtatzea, hazten diren familia-mota edozein dela ere.

Testu bakarra utopia bat da adingabeen eta nerabeen araubide juridikoa osatzen duten lege-arau ugari izatearen aurreko konponbide gisa, eta aurreproiektuak EAEko ordenamendu juridikoan duen eragina aztertzen denean ere ikusten da hori.

Etorkizuneko arauak, era berean, eduki ugari biltzen ditu, zuzen edo zeharka eragiten diotenak ordenamendu autonomikoko lege-arauetan —eta, kasu batzuetan, erregelamenduzkoe-tan— ezarritako araubide juridiko horri, hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren, diru-sar-reen bermearen eta halakoen alorretan.

Artikuluak aztertzean, xehetasun handiagoz azalduko dira teknika horrek arlo sektorial bakoitzean sortzen dituen arazoak, baina, oro har, orain esan daiteke jokabide horrek nahi ez diren gainjartze edo teilakatzeak eragiten dituela —are kontraesanak ere—, ordenamendu autonomikoaren egitura egokiari mesede egiten ez diotenak, ordenamendu hori segurtasun juridikoaren printzipiotik aldentuta.

Estatuaren eremuan gertatu den bezala, ordenamendu autonomikoan ere gertatu dira —edo gerta daitezke— lege-aldaketak, eta badirudi aurreproiektuak ez dituela aintzat hartu. Horren adibide dira 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena, eta Hezkuntzaren Legearen aurreproiektua.

Ordenamendu guztietan, modu esponentzian hazi da arauen ugaritzea, eta horrek ez du laguntzen segurtasun juridikoaren indarraldiari eusten, **baina badirudi arau-sakabanatzearen konponbidea ez dela** —sortzen dituen arazoak ikusita— **irizpide sektoriala alde batera utzi, eta haren ordeztu beste bat hartzea** —noranzko bakarrekoa—. **Testu bakarra laster geratuko da zaharkituta, eta operadore juridikoei ez die erabakiak hartzeko oinarri juridiko segurua izateko aukerarik emango.**

Irtenbidea ez da erraza, ezta unibokoa ere, eta kasu bakoitzean aurkitu behar da, erregulazioaren xede zehatzari begiratuta, ikusteko zer eskumen-arau dagoen, eta, arau horiek gogoan, erregulazio-formula egokiena aukeratzeko, zeina, kasu askotan —aurreproiektuak jasotakoak baino gehiagotan—, **lex repetita baino gehiago, erremisio- edo bidaltze-teknika erabiltzea izango litzatekeen**; izan ere, teknika horren bitartez, operadore juridikoari adierazten zaio —ahalik eta argien, errazen eta zuzenen— zer legeriara jo behar duen kasu bakoitzean.

Era berean, **lege autonomiko sektorialen manu jakin batzuk aldatzeko edo egokitze-ko beharra ikusiz gero, aldaketa horiek berariaz egin beharko dira, aurreproiektuaren azken zatian.**

Xedapen horiek aurreproiektuan sartu behar direla erabakiz gero, leku natural eta egokiena delako ordenamendu autonomikoaren koherentziarako, **etorkizuneko lege-testuan sartu beharko dira, eta, ondorioz, erabaki arauemaile berriak eragindako lege-araua berariaz indargabetu beharko da.**

Antzeko gaiak azaldu zituen Batzordeak bere 9/2004 irizpenean, eta orduan aztertutako aurreproiektua bere muga naturaletara bideratzearen alde egin zuen, hau da, EAEren eskumenen esparruan ordenamendu juridikoa materialki berritzen duten alderdiak arautzearen alde. Ondorioak baliozkoa izaten jarraitzen du, eta are zentzuzkoagoa da kontuan hartzen bada proiektatutako testua luzeagoa dela eta bilketa-ondorioetarako soilik sartzen dela eremu edo alor berrietan.

Aurreproiektuaren luze-zabalari buruz

Aurreproiektuak 339 artikulua ditu guztira. Aurrekariak, indarrean dagoen HNL, 119.

Batzordeak HNLren aurreproiektua aztertzean nabarmendu zuenez, aurreproiektu hori luzea zen eta sinplifikatu beharra zegoen. Bada, erraz ulertuko da mezu horren egokitasuna eta indarra, luzeran HNL ia halako hiru den testu bati dagokionez, ez baitago luze-zabalera hori azaltzen duen inguruabar objektiborik.

Ekimenaren sustatzaileak beren-beregi **adierazitako biltze-asmoak** badu zerikusirik testuaren luzerarekin. Hala ere, **ez da arrazoi bakarra. Estatuko eta autonomia-erkidegoetako xedapenak errepikatzeaz gain, aurreproiektuaren beraren edukiak errepikatzen dira artikuluetan.**

Ondorengo azterketan errepikapen horri erreparatzea alde batera utzi gabe, lehen hurbilketa honetan komeni da azpimarratzea zuzeneko eragina duela testuari emandako hedaduran; izan ere, erregulazio-behar substantiboetara erantzuten ez dienez, saihestu egin beharko litzateke ezaugarri hori.

Egin-eginean ere, aurreproiektua behin eta berriz itzultzen da administrazioaren jardunaren inspirazio-iturri izan behar duten printzipio orokorretara, eta printzipio horiek adieraziz gero atariko tituluan, adibidez, ez dira errepikatu behar arauaren zati desberdinetan —aitzitik, praktika horrek hutsaldu egiten du, nolabait ere, funtzio informatzailea eta proiektaturiko erregulazioan duen eginkizun nagusia—.

Errepikakorrak dira, era berean, sustapen-helburuei lotutako alderdiak, zeinak, hasiera batean aurreproiektuaren III. tituluan kokatzen badira ere, aldaketa gutxirekin ekartzen baitira artikuluen beste zati batzuetara, aplikazioa errazten ez duen estiloarekin.

Beste alde batetik, manu askok eta askok bere xedearen azalpena sartzan dute erredakzioan. Azalpen horrek, beharrezkoa ez izateaz gain —araugintza-teknika onak xedapenetan motibazioa ez sartzearen alde egiten du—, nabarmen eragiten dio artikuluen hedadurari.

Horregatik, alde batera utzita testuaren xedapen-zatia aztertzean alderdi horri buruz egiten diren iruzkin zehatzak, **ohar orokor gisa, egoki dirudi gomendatzea testua** —eta testuko artikulua bakoitza— **murrizteko ahalegin guztiak azken arau-produktuaren onerako izango direla**. Helburu horretarako, beste neurri batzuk baztertu gabe, erabaki ona izango litzateke mezu arauemaileak testuaren hainbat tokitan errepikatzea saihestea, bai eta manuen idazketa-arrazoia ezabatzea ere. Gainera, ez lioke kalterik egingo proiektatutako araudiaren ulermenari eta aplikazioari.

Aurreproiektuaren izaera programatikoari buruz

Programatikotzat jo genitzakeen xedapen gehiegi ditu aurreproiektuak. III. titulua da —haur eta nerabeen ongizatearen eta haien eskubideen egikaritzearen sustapenari buruzkoa bera— izaera programatiko horren adibiderik behinena. Baina ez da bakarra.

Testuak, batzuetan, sustapen-ekintzan garatu beharreko neurri zehatzak finkatzen ditu, baina ez da beti horrela izaten, eta **aurreproiektuaren aurreikuspenek, azkenik, birtualtasun juridikorik gabeko edukiak jasotzen dituzte, eta, kasu batzuetan, argi eta garbi tautologikoak**.

Estilo horrek, lehen ere aipatu dugun mezu-errepikapenarekin batera, astundu egiten du azken emaitza, halako moldez non II., III. eta IV. tituluetan —105 artikulua, guztira— ia ez den preskripzio-araurik ageri.

Indar loteslerik gabeko printzipio, helburu eta enuntziatu programatiko ugari sartzan dira —besteak beste, “sustatu, bultzatu, zaindu” eta halakoak erabiltzen dira—. **Horiek, egia esateko, ez datoz guztiz bat legeen berezko antolamendu-funtzioarekin, eta aldendu egiten dira arau juridikoen bidez adierazitako zuzenbidearen kontzeptutik**, jarduera-ildoak edo orientabideak formulatzera mugatzen baitira, zeinak, ondoren, beste xedapen batzuk be-

harko dituzten eraginkorrak izateko, xedapen horiek gabe ez baitute inolako funtziorik izango.

Administrazioaren jarduna zuzentzeko printzipio gidariak adieraztea lege-testu ororen parte izan badaiteke ere, ez da beharrezkoa –ez eta gomendagarria ere– printzipioen gehiegizko inflazioa. Are gutxiago, beren lege bereziek edo sektorialek arautzen dituzten eremuetan proiektatzen direnean, eta, aldi berean, beren printzipio gidariak dituztenean – orain sartu nahi direnekin uztartzeak ekar dezakeen zailtasunarekin–, baita printzipio horien aplikazioari lotutako preskripzio-arauak ere.

Hori dela eta, egoki irizten zaio gehiegizko eduki programatikoak saihesteari, aurreproiektuko edukietara mugatu beharko lirateke eta. Hartara, gainera, laburrago izango litzateke testua, eta hori positiboa izango litzateke beti, baldin eta, aurreko kasuan bezala, erregulazio substantiboaren kalterako ez bada.

61/2023 ABJI, par.: 148-170

Testuaren azterketa zehatzari ekinda, lehenik eta behin adierazi behar da **proiektuaren antolamenduak –artikulu bakarreko dekretu bat baitu, zehapen-prozeduraren erregelamendua dakarren eranskinera jotzen duena– erregelamendu beregain bat onartzea iradokitzen duela, erregulazio oso bat barnean hartuta**. Planteamendu hori **ez dator bat ZALen** araudi komunaren aplikazioari buruz adierazitako **borondatearekin**; izan ere, horrek ekarri beharko luke proiektatutako erregulazioa **araudi horrekiko espezialitateak edo espezifikotasunak definitzera mugatu beharko litzatekeela**.

Hori dela eta, egokiagoztat jotzen da ohiko dekretu baten forma, eranskinik gabe, dagozkion aurreikuspenak jasoko dituen xedapen-zatiarekin.

178/2023 ABJI, par.: 136-137

II. Gaikuntzak edo habilitazioak

Are **problematikoagoa da ahalmen hau aipatzeko modua: “dekretu honetan jasotako prestazioen edukia eta irismena eguneratzeko.....”**. Ez dago oso zehatz emana, ez baita argi geratzen zer hedadura duen jasotako gaikuntzak: xehetasunen balizko aldaketetara mugatzen den, prestazioaren alderdi tekniko edo medikoei lotuago, edo, aitzitik, aho-hortzen prestazioaren edukia eta irismena zabaltzeko balizko gaikuntza babesten duen; hala, zehaztaper hori Go-

bernuak onartu beharreko erregelamenduari erreserbatzen zaio (EASLren 4.4 artikulua eta azken xedapenetako lehena). Ildo horretatik, **idazkera orokorregia da, eta argiago definitu behar dira bigarren mailako erregelamendu-garapenaren esku geratzen diren dekretuaren alderdiak**, hala nola alderdi teknikoak edo medikoak zeinak, alde zuzeneko gogoeta batean iradoki dugunez, II. kapitulutik eranskinera eraman litezkeen.

Antzeko ohar bat egin daiteke tarifak eguneratzeko duen ahalmenari buruz, azken xedapenetako lehenaren 2. paragrafoak jaso baitu; izan ere, **arazoak sortzen ditu baldin eta “tarifa berriak sortzea” aipatzeak hasieran aurreikusitako gabeko eta dekretu bidez onartzeko erreserbatutako prestazioak onartzea badakar.**

33/2023 ABJI, par.: 189-190

III. Aldatzeko arauak

Bestalde, **aipatu aginduak dekretu-proiektu honen bidez aldatzeari dagokionez**, komeni da hona ekartzea 27/2018 Irizpenaren 199. eta 200. epigrafeetan esan genuena, eta ondorioztatzea **ez dela egokitzat jotzen dekretu-maila duten xedapenen bidez maila apalagoko beste erregelamendu-xedapen batzuk aldatzeko teknika, eragina izan baitezake iturrien sistemaren argitasunik ezean eta segurtasun juridikoan:**

199. Arauaren maila edo lerruna aldatu nahi ez dela ematen duenez, iturrien sistemak, segurtasun juridikoak eta teknika juridiko onak gomendatzen dute Osasuneko sailburuaren (...) Aginduaren aldaketa bereiztea, eta beste agindu baten bidez egitea.

200. Nolanahi ere, Batzordeak antzeko kasu batean (64/2007 Irizpena) adierazi zuenez, nahiz eta erregelamendu bat lege baten bidez aldatzeari buruzkoa izan, iradokizuna onartzen ez bada, testuan zehaztu beharko da ezen aginduaren aldaketa dekretu bidez egiteak ez duela esan nahi etorkizuneko aldaketak maila horretako arauen bidez egin behar direnik, baizik eta ondorengo aldaketak sail eskuduneko titularraren agindu bidez egin ahal izango direla.

Aztertzen ari garen proiektu honetan, **gainera**, aurreratu dugunez, **aginduetako bat guztiz aldatzen da**, halako moldez non proiektuaren laugarren artikulua barne hartzen baitu honen idazketa osoa, azalpen-zatia barne: Agindua, 2009ko apirilaren 29koa, Ogasun eta Herri Administrazioeko sailburuarena. Horren bidez, BGAEen hainbat jardura egitea arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren zenbait manu garatzen dira. Gainera, **jatorrizko azken xedapena kopiatu dute, indarrean sartzeari buruzkoa**, 92/2007 Dekretuaren 11. artikulua garatzen duten aurreikuspenak salbuesten dituen, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Begien bistakoa da **jarduteko modu hori nabarmen aldentzen dela Jarraibideetatik, horien arabera, aldaketa zabalak direnean, xedapen guztiz berria eman behar baita**, eta Jarraibideetan berriaz adierazten ez bada ere, ulertu behar da nahitaez modu independentean onartu behar dela, eta ez arau aldatzaile baten barruan. Horrela, arau homogeneoa eta koherentea lortzen da.

Proposamena egin duen sailak uler dezake beharrezkotzat jotzen diren arau-aldaketa guztiak testu bakar batean biltzea erabilgarria dela, arauen hartzaile zuzena den sektoreak erraz eskuratu ahal izan ditzan egiten den aldaketaren ondoriozko arau-egokitzapen guztiak.

Aplikatzekoa den araudia erraz eta eguneratuta eskuratu ahal izateko bermea, garrantasun-printzipioaren arabera eska daitekeena –XOEPLk ere aipatzen du 4. artikuluan–, **dauden tresnak behar bezala erabiliz eta garrantzi juridikoa duen informazioaren arloko publizitate aktiboaren betebeharrak betez lortzen da**. Egiazkotasunaren eta antolamendu egituratuaren printzipioak errespetatu behar dira, informazioa errazago identifikatu eta bilatu ahal izateko, indarrean dagoen araudia argitaratuta.

Baina aplikatzeko erregulazioa irisgarri egiteko ahalegin hori ezin da lortu arau-esparru integratua, argia eta ziurtasunezkoa lortu behar duten arau juridikoak aizunduta; izan ere, halako arau-esparru bat eskatzen dute “erregulazio onaren printzipioek”, erregelamenduak egiteko ahalaren egikaritzari ere aplikatzen zaizkio-eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APEL) 129. artikuluaaren arabera.

Azken batean, eta azaldutakoa kontuan hartuta, egokiena izango litzateke BGAEen erregulazio integratua, eguneratua, modu independentean formulatua eta aldaketa-arau batean txertatu gabea.

Aipatu **aginduen aldaketa proiektuan sartzeari dagokionez**, araugintza-teknikaren ikuspegitik, **komeni da proiektutik bereiztea, baina horrek ez du eragozten aurreikusitako aldaketak beste testu batean sartzea, orain laugarren eta bosgarren artikuluetan jasotako arau-eduki berberarekin, agindu independente gisa onartzeko**.

Onargarri litzateke, beraz, dekretu-proiektuaren laugarren artikuluaaren edukia izango lukeen agindu bat onartzea, azken xedapen gisa hartuko lukeena Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2016ko uztailaren 19ko Aginduaren aldaketa, bosgarren artikuluaaren edukiarekin (BGAEen Bazkideen Fitxategi Orokorraren antolaketa eta funtzionamendua arautzen ditu azken agindu horrek). Xedapen indargabetzailea ere sartu beharko litzateke agindu horretan.

Horretarako, espedientean dauden dokumentuetatik abiatuta, **esan daiteke materialki egin da daudela onarpen horren aurretik egin beharreko izapide guztiak, eta ez dela beharrezkoa beste izapidetze bat.**

192/2023 ABJI, par.: 239-248

Beste alde batetik, eta ohar orokor gisa ere, Batzordeak uste du, **1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onetsitako jarraibideen arabera alde aurretik egin dako beste arau batzuk aldatzeko araua denez, justifikatuta dagoela, salbuespen gisa, proiektuaren testua idaztea jarraibide horiek egiten duten artikuluz-azpibanaketaren konfigurazioaren arabera**; izan ere, paragrafoak lehenengo banaketa-egituratzat jotzen ditu, eta apartatuak, berriz, hurrengo zatiketatzat. Bestela, aldatutako arau-testuak ez lirateke homogeneoak izango.

Hala ere, aldatutako dekretuetan sartzen ez diren xedapen-zatietan, indarrean dauden jarraibideek egiten duten artikuluz-banaketaren aipamena erabiltzea gomendatzen da. Hala gertatzen da “paragrafoen” aldaketei buruzko aipamenetan, bigarren.bi eta hirugarren.hiru artikuluetan jasoak: “apartatuak” aipatzeko gomendioa egiten dugu.

192/2023 ABJI, par.: 259-260

IV. Xedapenak kopiatzea

Batzordearen ustez, ez da beharrezkoa ekimenaren alderdi berritzaileak errepikatzea, Euskadiko Eskola Kontseiluak sakon jorratu baitu hori, eta haren ekarpenak zabal samar jaso ditugu, baina onartu behar da gehienak Estatuak LOMLOEn eta 242/2022 Errege Dekretuan sartutako erreformaren isla direla.

Hala ere, euskal curriculumean txertatze horrek zera ere gomendatzen du: eduki horiek proiektuan sartzeko moduari buruzko iritzia ematea.

Horretarako, kontuan hartu behar dugu, lehenik eta behin, **Estatu-erregulazioa ezin dela arauketa oso eta itxi gisa ulertu; izan ere**, orain arte adierazi dugun bezala, titulu akademiko eta profesionalen kasuan izan ezik, **eskumen partekatua da**, eta autonomia-erkidegoek aukera izan behar dute Estatuak arauak osatu eta garatzeko, eta LOEk beren-beregi aitortzen du hori curriculumari dagokionez.

Bigarrenik, ezin dugu alde batera utzi, **Estatuak eta autonomia-erkidegoak gai berari buruzko legegintzako eskumenak dituztenez, arau autonomikoaren bitartez konstituzio-kontrakotasuna sor daitekeela Estatuko oinarrizko arauak errepikatzen dituztenean, hau da, *lex repetita* jazotzean.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Legearen aurreproiektua dela-eta emandako 53/2023 Irizpenean esan dugun bezala, apirilaren 1eko 51/2019 KAEk ezarritako kanona hartu behar dugu kontuan.

Bada, horrelako irizpen bati datzekion zuhurtziaz esan dezakegu **proiektuak, kopia hori egiten duenean, ezarritako bi baldintzak betetzen dituela: (I) zentzu instrumentala du, Baxilergoko curriculumak ulergarri eta garapen-araubide autonomikoa ulergarri egitea; (II) erreproduzioa leiala izatea, hau da, oinarrizko araudia ez birformulatzea, baizik eta hura errespetatzea, eta horrek ez du eragozten araugile autonomikoaren aukerei erantzuten dieten eduki berriak gehitzea.**

Fideltasun horrek **leialtasuna eskatzen du eduki materialari dagokionez, eta ez Estatuko legegileak hobetsitako termino zehatzei dagokienez;** izan ere, Konstituzio Auzitegiaren doktrina onenaren arabera, urriaren 31ko 172/1996 KAEk esan zuenez (gero apirilaren 20ko 87/2009 KAEn errepikatu zuten):

garatzeak berez dakar generikoaren osagarri zehatzagoa ez ezik, espezifikoarena ere, sektore bakoitzaren edo administrazio bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Eta legegile autonomikoak zorrotz errespetatu behar ditu Estatuko emandako oinarrizko arauak:

oinarrien artikulazioan eta horien garapenean, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumenak banatzeko eskema gisa, hemen eta beste toki batzuetan, oinarrien zentzua eta irismena logika juridikoak berezko dituen irizpide edo teknika hermeneutikoen bidez lortu behar da, jakina, haien funtzioari eta xedeari erreparatuz, testuaren azalera literalean geratu gabe.

... errespetu horrek ez du esan nahi hitzez hitzekoarekiko erreberentzia; izan ere, oinarrizko arauen kasuan ere, testuinguru sistematikotik eta helburutik atera behar dira haien zentzua eta irismena. Eta horrek berdin balio du epailearentzat zein legegilearentzat.

Kasu honetan, gainera, lege organikoetan jasotako formulazio desberdinetatik atera daiteke tarte handiagoa dagoela arautzaile autonomikoarentzat.

Abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoak (indargabetuta dago jada), 8.3 artikuluan xedatu zuenez, "hezkuntza-administrazio eskudunek hezkuntza-siste-

maren maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate guztien curriculuma ezarriko dute, eta irakaskuntza komunak beren baldintzetan sartu beharko dira”.

Azaroaren 14ko 212/2012 KAEk, ez zion eragozpenik jarri autonomia-erkidegoek, curriculuma erregulatzerakoan, Gobernuak irakaskuntza erkideei buruz erabaki zuenaren kopia hutsa egiteari; hala ere, LOMLOEk ez du aurreikusi irakaskuntza erkideen txertatze hori “bere horretan” egitea; aitzitik, Gobernuak finkatutako curriculumaren oinarrizko alderdiak onartu beharreko curriculumaren barruan sartu behar dira.

Hau da, alde batetik, ezin da kopia saihestu, neurri batean, Estatuak hala eskatzen duelako, eta, bestetik, osagarrirako tartea ere badago, betiere gutxieneko irakaskuntzak osatzen dituzten curriculumaren oinarrizko alderdiak desitxuratzen edo alde batera uzten ez badira.

62/2023 ABJI, par.: 93-104

Gogoeta horiek bereziki lotzen zaizkio, artikuluko zehatzen azterketan aipatuko denez eta alde aurreko ohar gisa aurreratu dugunez, **proiektuak ZALen xedapen ugari kopiatu izanari** —kasuren batean EKLrenak ere bai—.

Hori dela eta, testua berriki dezatela eskatzen dugu, proposatutako artikuluetako asko ezabatuz; izan ere, hori bat etorriko litzateke sustatzaileak berak proiektuaren hitzaurrean adierazitako helburuarekin, behin eta berriz aipatzen baitu ez dagoela zertan kopiatu ZALen alderdi batzuk, ez litzatekeelako egokia izango.

Horri dagokionez, ez dago sobera aipatzea **zer muga eta helburu dagoen teknika horri zuzentasunez heltzeko, Gobernu Kontseiluaren 2023ko uztailaren 11ko Erabakian sartu baitira, horren bidez onartu dira-eta lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak** (erabaki hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenaren bidez argitaratu zen) —zehazki, 29. jarraibidean, bosgarren kapituluaren barruan, “xedapen-zatia: irizpide orokorrak eta testu artikulatua”—.

Jarraibide horien arabera, **erreproduktzioa saihestu egin behar da, bereziki, aplikatutako arauaren iturriari buruzko nahasmendua sor badezake, edota lege-manu horiek aldaketa batzuekin sartzeari, eta horrekin esanahia edo irismena alda badaiteke**. Saihestekoa da, era berean, lege-aginduak sartzeari, araua hobeto ulertzeko lagungarri ez bada.

Nolanahi ere, “kopiak **kopiak esanahi zehatza izan beharko du, ulergarria izan beharko du eta ez du segurtasun juridikorik eza ekarriko**”.

Bada, aurretiazko juzgu bat eginez gero teknika hori erabiltzean helburu horiek betetzeari buruz, hau aurreratu dezakegu: oro har, **ez direla betetzen ezarritako bi baldintza nagusiak: ez da hori justifikatzen duen arrazoi sistematikorik ikusten, eta, bestalde, erreprodukzioa ez da beti fidela izaten.**

178/2023 ABJI, par.: 129-134

4. Kapituluua. ESKUMEN-BANAKETA

I. Gizarte-laguntza (EAEAE, 10.12. artikulua)

Laneratzeko enpresen araubideari dagokionez, gure 111/2000 eta 196/2008 irizpenetan adierazi genuenez, **nahiz eta gizarte-inklusioaren alorreko legeria autonomikoan beren-beregi aurreikusita ez egon**, beharrezkotzat jotzen ziren lege horietan aurreikusitako gizarte-inklusioko helburuak erdiesteko, eta, beraz, **lege horren babesean eta hura garrantuz arautu zirela ulertu zen** —bere garaian, 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkakoa, gerora 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, ordezkatu zuena, eta, gaur egun, IDSBLk—.

Planteamendu horren arabera, **ekimen hau emateko gaikuntza generikoa**, eskumenen ikuspegitik, alor horretako legeriaren euskarria **izango litzateke** —gaur egun IDSBLn jaso—, hau da, **alor honetako eskumen eskusiboa: “gizarte-laguntza”**, Autonomia Estatutuaren (EAEAE) 10.12 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) esleitzen diona.

Hala ere, gure 196/2008 Irizpenean planteatu genituen jada **planteamendu horren pitzadurak, Estatuak LEL delakoa onartu ondorengoak** [44/2007 Legea, abenduaren 13koa, Laneratzeko Enpresei buruzkoa]:

20. Hala ere, eta aurreko baieztapena alde batera utzi gabe, eskumenen formulazio simple horrek eguneratzea behar du gaur, Estatuan LEL onartu izanaren ondorioz. Proiektuak berak zioen azalpenean adierazi duenez, LEL onartu izana da proiektua prestatu eta izapidetzea ekarri duten mugarrietako bat, eta, gainera, proiektuak behin baino gehiagotan jotzen du ber artikuluetan lege horretara.

21. LELek, Konstituzioaren 149.1.7 artikulua Estatuari lan-legeriaren alorrean esleitutako eskumen eskusiboaren babesean, zenbait gai arautzen ditu, hala nola IV. kapitulu osoan jasotakoak (Gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen lan-harremanak laneratzeko enpresetan) edo 16.3.a) artikuluan aurreikusitako Gizarte Segurantzako kuartetako hobariak, ukazina baita Estatuak eskumen eskusiboa duela horien gainean.

22. Zalantza gehiago sor baditzake ere, gaur egun ez dirudi zuhurra denik zalantzan jartzea gizarte-bazterketako egoeraren barrukotzat jotako kolektiboen kalifikazioan sartzeari —aurreko kontratu eta hobariei dagokienez behintzat—; izan ere, LELek puntu horretan egin duen gauza bakarra da aldaketa txikiren batekin sartzeari gizarte-bazterketako kolektibo batzuk, hots, Hazkundera eta enplegua hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legean aurreikusitako Enplegua Sustatzeko Programaren onurak jaso behar dituztenak, arau horren bigarren xedapen gehigarrian jasotakoak.

23. Hala ere, LELek beste gai batzuk ere arautzen ditu, hala nola laneratzeko enpresen xedea eta helburuak (1. artikulua), laneratzeko enpresen kontzeptua bera (4. artikulua), halakotzat kalifikatzeko betekizunak (5. artikulua) edo kalifikazio bera (7. artikulua), eta horiek ere lotura ukalezina dute gizarte-zerbitzuen eremuarekin, zeina autonomia-erkidegoen eskumen eskusiboa baita.

24. Izan ere, LEL aldarrikatu arte, alderdi horiek aipatutako 305/2000 Dekretuak soilik arautzen zituen, gure autonomia-erkidegoari dagokionez, gizarte-laguntzaren arloko eskumenaren babespean. Egoera hori, gainera, ezin zen salbuespenekotzat jo; izan ere, autonomia-erkidego batzuek, gizarte-zerbitzuen arloko eskumenetik abiatuta, legez edo erregelamenduz arautu dituzte laneratzeko enpresak.

25. Beste alde batetik, egia da LELen azken xedapenetako bosgarrenak berak aitortzen duela autonomia-erkidegoek gizarte-laguntzaren alorrean duten eskumena, baina horrek ez du deskribatutako panorama argitzen; izan ere, gogoratzekoa da Konstituzio Auzitegiak adierazi duela, lan-legeriaren inguruan, Estatuak gai horretan duen eskumena osoa dela, eta exekutibo deritzen erregelamenduak ere barruan hartzen dituela, halako moldez non garrantzi hori ez duten erregelamenduak bakarrik geratuko lirakeen kanpoan, antolamendu-alderdiei buruzkoak direlako (denen erakusgarri, 360/1993 KAE, abenduaren 3koa, 4. OJ).

26. Testuinguru horretan, aldez aurreko kritika bat egin dakioke LELen planteamenduari, eskumen-titulu bakarra hartu baitu babes —lan-legeria—, zeinari buruz pentsa liteke eragozten duela, eskusiboa eta baztertzaila izateagatik, autonomia-erkidegoek antolamendu-esparrutik harago esku hartzea laneratzeko enpresen alorrean, orain dela gutxi arte erregulazio autonomikoa bakarrik izan baitu, bakez emana eta onartua. Bestalde, badirudi LELek berak leundu egin nahi duela, esan dugun bezala, interpretazio baztertzaila hori, eta onartu egiten duela autonomia-erkidegoek parte hartzea bere eskumenen esparruan, eta, zehatzago, gizarte-zerbitzuen alorreko eskumen eskusiboaren bitartez...

Valentziako Generalitateko Kontseiluak LELen aurkako errekurtsua aurkeztu zuen, iritzi ziolako, “nahiz eta «enpleguaren arloarekin harreman ukalezina izan», hobeto egokitzen dela «gizarte-laguntza» eskumen-tituluarekin, haren xedea kontuan hartuta”.

Konstituzio Auzitegiaren 228/2012 Epaiak (KAE), azaroaren 29koak, errekurtsu hori ebatzi, Valentziako Generalitatearen uziak ezetsi, eta hau defendatu zuen: errekurritutako manuak “lan-legeriari” buruzko arloan kokatzea. Auzitegiaren ustez, laneratzeko enpresek kontratatu ditzaketen pertsonen mugaketak eta enpresa horien ezaugarri eta eskakizunen ezarpenak eragina dute lan-harremana osatzen duten elementu subjektiboetan, eta, halakotzat hartuta, “lan-legeriaren” esparruan sartzan dira:

7. Laburbilduz, errekurtsio honetan aurkaratutako araudiak laneratzeko enpresen araubide juridikoa jasotzen du, eta arautzen den lan-harremanaren elementu subjektiboak zehazten ditu, kontrata daitezkeen langileak eta enpresek laneratzeko gisa kalifikatzeko bete behar dituzten baldintzak barne hartzen baititu.

Lege-erregulazioak, halaber, honako hauek definitzen ditu: lan-ingurune espezifiko horretan egindako lanaren bereizgarriak, gizarte- eta lan-integrazioarako ibilbidearen existentzia, eta administrazio publikoak laneratze-prozesuetan laguntzea.

Horrenbestez, ezinezkoa da aurkaratutako erregulazioa «gizarte-laguntzaren» eremuan sartzea, errekurtsio horren aldekoa bada ere (EAEAREN 49.1.24 artikulua, EKREN 148.1.20 artikuluekin lotuta); izan ere, azaldu den bezala, lan-alorreko antolamendua da, nabarmendutako berezitasunak dituen eragiten dien subjektuak kontuan hartuta, eta ez «Gizarte Segurantzaren sistema iristen ez zaien biztanle-taldeek sentitutako premia espezifiko egoeren babes-mekanismo bat, Gizarte Segurantzaren berezko teknikez bestelakoen bitartez jarduten duena» (36/2012 KAE, martxoaren 15ekoa, 4. OJ).

8. Valentziako Erkidegoko Generalitateak jarritako konstituziokontarakotasun-errekurtsioan esandakoaren aurka, nahiz eta kasu honetan lan-kontratuaren helburua egoera bereziki ahulean dauden kolektibo jakin batzuen gizarte-inklusioa izan, kontuan hartu behar da botere publikoek era askotara erantzun diezaioketela helburu horri, hau da, gizarte-laguntzako tekniken bidez ez ezik, lan-arloko neurriak hartuz ere, kasu honetan bezala. Bestela esanda, Legearen helburua kontratatua lan-merkatuan eta, oro har, gizartearen integrazterako asmoa izateak ez du adierazitako errealitatea ezabatzen, hau da, «lan-legeriaren» barruan kokatzen den legea dela, lan-harremanari dagokion gai baten erregulazioa eskaintzen baitu, laneratzeko enpresetan garatzen den lanaren araubide juridikoa emanda.

Laneratzeko enpresen erregistroari buruzko erregulazioari dagokionez, honako hau dio: “ez die eragiten autonomia-erkidegoei dagokien lan-arloko legeria betearazteko eskumenei”:

Auzitegi honek, maiatzaren 4ko 18/1982 KAEn, 9. eta 13. oinarri juridikoetan, azpimarratzen du kasu horietan kontuan hartu behar dela arauak erregistroaren «antolaketari» buruzko alderdiak arautzen dituen, hala nola erregistroaren sorrerari, egoitzaren zehaztapenari, mendekotasun organikoari, buruzagitzari eta eskumenei buruzkoak, edo idazpenen alderdi formalari buruzkoak, kasu horretan Autonomia Erkidegoaren antolamendu-eskumenei erabileraren aurrean egongo ginatekelako; edo, aitzitik, aztertutako arauak «erregulazioari» buruzko alderdiak jorratzen dituen, hala nola inskriba daitezkeen egintzen zehaztapena, idazpenen edukia, edo aurkeztu beharreko dokumentazioa, horrek «lan-legeriaren» arloko eskumena baliatzea ekarriko bailuke.

Bada, azken irizpide hori aplikatuta, 9.3 artikulua ez da erregistroaren bar-

ne-antolamenduaren alderdiak arautzea, baizik eta, lege horren 4. eta 5. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, enpresaburuari betebeharrak ezartzen dio: dokumentu jakin batzuk aurkeztu behar ditu, erregistroan jasota geratu behar direnak, laneratzeko enpresaren kalifikazioa ez galtzeko baldintzak betetzen dituen egiaztatzeko. Horrek esan nahi du lan-arloko araugintza-ahalmena baliatzen dela, aipatutako jurisprudentzia-irizpidearekin bat etorritik (18/1982 KAE, maiatzaren 4koa, 13. OJ); izan ere, jarraian aipatuko ditugun apartatueta jasotako balorazio-azterketak kanpoko garrantzia duten alderdiei egiten die erreferentzia, erregistroan sartzeari edo erregistroaren ondorio juridikoei dagokienez. Hain zuzen ere, a) apartatua, estatutu-aldaketak egiaztatzeko dokumentazioa, b) jarduera-plana eta c) urteko kontuak.

Epaia boto partikularra izan zuen, lehen aipatutako 196/2008 Irizpenean planteatu genuen LELen eskumen-kokapenarekiko ildo kritikotik. Adela Asua magistratuaren boto partikularrak kritikatu egiten ditu epaiaren ondorioak, epaiak honako hau egiten duela iritzita: “EKren 149.1.7 artikuluan aurreikusitako estatu-titulua neurritz kanpo zabaltzen du, aurkaratutako legearen eduki osoa bertan sartzeko, eta, horrela, *stricto sensu* lan-harremanaren esparrukoak ez diren alderdiak biltzen ditu, eta, horren ondorioz, autonomia-erkidegoek, beren estatutu-eskumen legitimoen arabera, lege horren berezko arloan esku hartzeko aukera ezabatzen da; bereziki, «gizarte-zerbitzuei» dagozkien eskumenez ari gara, Valentziako Generalitateak bere errekurtsioan baliatu nahi izan dituenak.”

Magistratuak, laburbilduz, LELen testuaren beraren kontraesanetan oinarritzen du bere desadostasuna, autonomia-erkidegoen erregulazioari buruzko zenbait aipamen egiten baititu —zaila baita uztartzen arau horren eduki osoa “lan-legeria”tzat kalifikatu izanarekin—; kontraesan horren adierazpenik handiena azken xedapenetako bigarrenean dago, 3. zenbakian, zeinaren arabera autonomia-erkidegoek “lege hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ahal izango dituzte, beren eskumenen esparruan”.

Magistratuaren ustez, arauaren helburua da erabakigarria —“... gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen integrazioa erraztea, aldi berean enplegu-politika bat garatuz pertsona horiekin”—. Integrazio hori laneratzeko enpresen bidez antolatzea instrumentala da, eta ez du funtsezko helburu hura xurgatzen edo aldatzen. Uste du merkataritza- edo lan-zuzenbidera jo daitekeela lortu nahi den helbururako, arauketa bihurtu gabe “... oso-osorik merkataritza- edo lan-legeria”. LELen eskumen-kokapen zuzena, beraz, “gizarte-laguntza” da, eta autonomia-erkidegoek eskumen legegile eta betearazleak dituzte alor horretan, eta, kasu honetan, enpleguaren sustapenarekin lotzen da —gai hori lotuta dago, baina ezin da lan-eremuan sartu—.

Hori guztia dela eta, magistratuak uste du Estatuaren eskumen-titulua Espainiako Konstituzioaren (EK) 149.1.13 artikuluko dela —jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa—, eta ez duela lan-arloko legeriak bezain legegintza-irismen handia; beraz, autonomia-erkidegoek erregulazioak onar ditzakete, beren politika sozial eta ekonomikoak aplikatuz.

Nahiz eta Batzordea bat etorri boto partikularrak ematen duen eskumen-kokapenarekin, ezin da ahaztu Konstituzio Auzitegiak 228/2012 Epaietan izan duen jarrera mantendu egin dela orain

aztertzen ari garenaren antzeko beste gai batzuetan.

lido horretatik, Konstituzio Auzitegiak honako hauek jo ditu “lan-legeriatzat”: lan-kontratuak azkentzeko arrazoen erregulazioa, nahiz eta horrekin toxikomano eta drogazale ohien errehabilitazioa sustatu (360/1993 KAE, 3. OJ); enplegua sustatzeko laguntzak eta lan-kontratazioa sustatzeko ekintzak, modalitate guztietan (360/1993 KAE, 4. OJ; 195/1996 KAE, 5. OJ; eta 95/2002 KAE, 8. OJ); eta langile desgaituentzako erreserba-kuotaren ordezkotzako neurriak zehaztea (194/2011 KAE, 4. OJ).

Konstituzio Auzitegiaren doktrinan, Estatuak eskumen osoa du “lan-legeria” emateko, halako moldez non “kanpo-erregulaziorako espaziorik ez zaie geratzen autonomia-erkidegoei, Estatuako araudia betearazteko eskumen hutsa baino ezin baitute izan” (KAE: 195/1996, azaroaren 28koa, 11. OJ; 51/2006, 4. OJ; 111/2012, 7. OJ; eta 244/2012, 4. OJ). Eta, ondorioz, **eremu horretan, autonomia-erkidegoek ahalmen betearazleak dituzte** —ikuskatze- eta zehatze-ahalmenak barne—, **baina ez erregelamenduak egiteko ahala, salbu eta antolamendu-erregelamenduak emateko,** hau da, zerbitzuak antolatzeko erregelamenduak, **administrazio-antolamenduaren barne-egituraketari eragiten diotenak** (denen erakusgarri, KAE: 18/1982, 5. OJ; 249/1988, 2. OJ; 360/1993, 4. OJ; 31/2010, ekainaren 28koa, 61. OJ eta 106; eta 22/2014, otsailaren 13koa, 4. OJ; eta 159/2016, irailaren 22koa, 2. OJ).

Alderdi horri buruz, Konstituzio Auzitegiak zehaztu duenez, “ez dira nahitaez legegintza-kontzeptuaren barruan sartzen ikuspuntu horretatik garrantzirik ez duten erregelamenduak, antolamendu-alderdiei buruzkoak direlako”, eta haien barruan “sartu behar dira administrazio-antolamenduaren barne-egituraketari eragiten diotenak” (KAE: 18/1982, 5. OJ, eta 360/1993, 4. OJ), “autonomia-erkidegoek bakarrik eman ditzakete zerbitzuak antolatzeko erregelamenduak” (KAE: 249/1988, 2. OJ).

Guztiarekin ere, eta ezertan galarazi gabe proiektaturiko erregulazioaren edukietako batzuk aztertzerakoan gero esango duguna, **Batzordeak uste du LEL bera abiapuntutzat hartuta esan daitekeela EAEn erregulazio-eremu zabalagoa dagoela doktrina konstituzionaletik lehen begiratuan ondoriozta daitekeena baino; izan ere,** behin eta berriz aipatu dugun 196/2008 irizpenean azaldu genuenez, **zalantzan jar daiteke LEL osoaren babes eskusibo eta baztertzalea eskumen-tituluan** —lan-legeria—, **LELek berak onartu baitu autonomia-erkidegoek parte hartzea bere eskumenen eremuan** —gizarte-laguntzaren alorreko eskumen eskusiboan oinarrituta, zehazki—.

Beraz, **lehenik eta behin** zera ulertuko genuke: **irizpena egiten ari gatazkion proiektuaren eskumen-oinarria dela “gizarte-laguntza”ren alorreko eskumen eskusiboa,** EAEn 10.12 artikulua autonomia-erkidegoari aitortu diona; hala ere, gure 196/2008 irizpenean esan genuenaren ildotik, **“laneratzeko enpresen alorreko eskumen hori, gaur egun, baldintzatuta dago, lan-alorreko estatu-legeriaren bitartez, eta, zehatzago, LELen bitartez,** enpresa horien funtsezko alderdiak erregulatzen baititu, hala nola enpresa horien xedea eta helburuak, kontzeptua eta erakunde sustatzaileena, baita kalifikatzeko gutxieneko baldintzak ere”.

Beste alde batetik, eta LELen erregulazioari berari begiratuz gero, Estatuak lan-legeriaren alorrean duen legeria betearazteko eskumenaren barruan kokatuko litzateke ekimena (EAEAEren 12.2 artikulua).

Eskumen-esparru horretan, ordea, ez dugu ahaztu behar laneratzeko enpresen jarduna lotuta dagoela enplegu-politikekin eta enplegua hobetzeko eta lan-merkatuaren disfunczioak ezabatzeke neurriekin.

Illo horretatik, Batzorde honek bere irizpenetan adierazi izan duenez (230/2010 eta 213/2008, besteak beste), lanerako eskubideari dagokionez —EKren 35. artikuluan baitago jasota—, orobat politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariei dagokienez —EKren 40. eta 41. artikuluek erregulatzen dituzte—, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren (EAEAE) 9.2 artikulua hau xedatu du: EAEko botere publikoek, euren eskumenen esparruan, bizi- eta lan-baldintzak hobetzera bideratutako politika bultzatuko dute, eta enplegua gehitzea eta ekonomia-egonkortasuna sustatzeko neurriak hartuko dituzte. Hori dela eta, **gai hori ez da agortzen** EAEAEren 12.2 artikulutik ondorioztatzen den **lan-legeriaren betearazpen-eremuan; aitzitik, zeharka eragiten die EAEk era askotako eskumenak dituen beste eremu sektorial batzuei.**

156/2023 ABJI, par.: 22-41

II. Zibersegurtasuna

Aurreproiektuak, Agentzia EAEAEren 10.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sortu izana justifikatzeaz gain, **EAEAEren 17. artikulua segurtasun publikoaren, poliziaren eta herritarren segurtasunaren arloan aitortutako eskumena aipatzen du.** Eskumen hori ulertu behar da beste eskumen batzuekin integratuta dagoela, hala nola **larrialdien eta babes zibilarren arloko eskumenekin.** Eskumen horiek guztiek **segurtasun-sistema orokor propioa osatzen dute, nahiz eta gai horien gaineko eskumenak dituzten beste administrazio batzuek ere parte hartzen duten.**

Memoriak eta zioen azalpenak alegatu dutenez, Euskal Autonomia Erkidegoak segurtasun publikoaren alorrean duen eskumenaren barruan sartzen dira EAEko segurtasun publikoaren sistemaren plangintza- eta koordinazio-gaiak. Eskumen-antolaketa horren helburua da **herritarrei era guztietako arriskuen aurrean babesa ematea eta eskubideak eta askatasunak modu askean eta baketsuan balia ditzaten bermatzea.** Antolaketa horren agintaritzak eta organo autonomiko eskudunak Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legean arautzen dira.

Batzordearen ustez ikuspegi hori berrikusi behar da; izan ere, aipatutako 142/2018 KAE-

ren arabera, eskumen autonomikoa gainditzen du zibersegurtasuna eremu horretan txertatzeak, administrazioekin eta haien informazio- eta komunikazio-sistemekin lotutako jardueretara mugatu baitu.

Zibersegurtasunari dagokionez, aipatutako epaiak eskumena zehazteko definizio teknikoa jasotzen du: «ingurune zibernetikoan erakundearen aktiboak eta erabiltzaileak babesteko tresnen, politiken, segurtasun-kontzeptuen, segurtasun-babesen, jarraibideen, arriskuak kudeatzeko metodoen, ekintzen, prestakuntzen, jardunbide egokien, aseguruaren eta teknologien multzoa» (UIT-T X.1205 Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunaren Gomendia). Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 6ko 2016/1148 (EB) Zuzentarauaren definizioa jasotzen du. Zuzentarau horrek honela definitzen du «informazio-sareen eta -sistemen segurtasuna»: «informazio-sareek eta -sistemek duten gaitasuna da, biltegitratutako, transmititutako edo tratatutako datuen edo horien bitartez irisgarriak diren informazio-sareek eta -sistemek eskaintzen dituzten zerbitzuen eskuragarritasuna, benetakotasuna, osotasuna edo konfidentzialtasuna arriskuan jartzen duen ekintza orori aurre egiteko, fidagarritasun-maila jakin batekin» (4.2 artikulua). Helburu horrekin, zuzentarau horren arabera, estatu kideek «informazio-sareei eta -sistemei eragiten dieten gertakariak eta arriskuak prebenitu, hauteman, erantzun eta arintzeko» neurriak har ditzakete (34. kontuan hartuzkoa).

Hortik **lehenengo ondorio** bat ateratzen da: “zibersegurtasunaren kontzeptua osatzen duten alderdien edukia kontuan hartuta, esan daiteke zibersegurtasunak hainbat adiera izan ditzakeela eta hainbat jardura barne har ditzakeela” (4. OJ).

Eta, ondorioz, “**ez da eskumen-titulu bakar batean bildu daitekeen kontzeptu edo gaia**. Han azpimarratzen den bezala, **segurtasun nazionalarekin edo segurtasun publikoarekin identifika daiteke** telekomunikazio-sareen eta -azpiegituren babes arruntari dagokionez. **Baina** beste alderdi batzuetan ere eman daiteke, hala nola **administrazio elektronikoa**. **Horrek barne hartzen ditu bitartekoak antolatzea eta administrazioa babesteko neurriak aurreikustea, bai eta herritarren eskubideak babestea, administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidezkoak direnean**” (5. OJ).

Bereziki aitortu da administrazioarako autoantolakuntza eskumenen funtsezko osagitzat autobabesari lotutako adiera hori. Horren xedea da bere mendeko sareei eta informazio-azpiegiturei datxekien mehatxuak eta ahuleziak prebenitzea, bai barnean, bai herritarrekin eta beste administrazio edo erakunde publiko batzuekin dituzten harremanetan.

Izan ere, «administrazio elektronikoko zerbitzuak» diseinatu, sortu eta mantentzea autonomiari datxekion «autoantolaketarako ahalaren» funtsezko alderdia da (111/2016 KAE, ekainaren 9koa, 11. OJ).

Konstituzio-ordena urratutzat jo da agentzia autonomikoari esleitutako eskumenak honako informazio-sare eta -sistema hauek babestera mugatu ez direnean: Generalitateko Administrazioarenak eta haren sektore publikoarenak, eta administrazio horrekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez dituzten partikularrenak eta beste administrazio publiko batzuenak. Izan ere, zibersegurtasuna Estatuaren eskumena da, segurtasun publikoaren arlokoa (EKren

149.1.29 artikulua) eta telekomunikazioen eta komunikazioen araubide orokorraren arlokoa (EKren 149.1.21 artikulua). Beraz, ezin zaizkio agentziari esleitu sektore pribatuan esku hartzeko edo arautzeko ahalak.

Bestela esanda, **zibersegurtasunak lotura zuzena du, nola edo hala, herritarren lasaitasunari edo ordenari eustearekin, eta horretan datza segurtasun publikoa** (KAE: 33/1982, 3. OJ; 117/1984, 4. OJ; 104/1989, 3. OJ; 148/2000, besteak beste). **Baina, Auzitegi Gorenaren arabera, zibersegurtasuna Estatuaren eskumeneko gaia da**; izan ere, jazarpen ziber-netikoari aurre egiteko prebentzio-, detekzio- eta erantzun-ekintzak barne hartzen ditueneguz, **eragina du segurtasun publikoarekin eta defentsarekin, azpiegiturekin, sare eta sistekin eta telekomunikazioen araubide orokorrarekin lotutako gaietan**.

Alde batetik, **segurtasun publikoaren gaiari** dagokionez:

printzipioz, **Estatuaren eskumen eksklusiboa da, EKren 149.1.29 artikulua arabera**, baina konstituzio-manu horrek berak agerian uzten du **salbuespenak** ezartzen direla («kalterik egin gabe»), eta horiek, nolabait, EKren 149. artikulua hasierako paragrafoan aldarrikatutako Estatuaren eskumen-esklusibotasuna modulatzeko dute. Salbuespen horietatik, hala badagokio, mugak erator daitezke, autonomia-erkidegoetako estatutuen edukia arabera, bai eta lege organikoaren arabera ere; izan ere, konstituzio-arauak lege organiko horren esku utzi du autonomia-erkidegoek polizia sortzeko bete behar duten erregulazioa. Hala, honako hau adierazi da: **«segurtasun publikoaren arloan Estatuak duen eskumen eksklusiboak salbuespen bakarra onartzen du: polizia autonomikoak sortzearen ondoriozkoa»** (104/1989 KAE, ekainaren 8koa, 3. OJ).

(...)

Hala ere, segurtasun publikoa ez da polizia-jarduerara mugatzen (86/2014 KAE, 4. OJ); beraz, segurtasun publikoaren arloa polizia-zerbitzuen berezko eremuarekin erabat ez identifikatzeak ondorioak ditu arlo horretako eskumenak zedarritzeari dagokionez; hala, eskumenak bereganatuta dituzten autonomia-erkidegoei dagokie beren polizia-zerbitzuak antolatzea eta estatuari ez dagozkion polizia-funtzio edo -zerbitzuak gauzatzea, bai eta poliziarekin hertsiki lotuta ez dauden eginkizun edo ahalmen batzuk atxikitzea edo osatzea ere (104/1989 KAE, 6. OJ eta 175/1999 KAE, 5. OJ).

Horrela, bada, doktrinaren arabera, funtzio jakin batek segurtasun publikoaren alorrekin duen lotura ez da aski funtzio hori Estatuaren erantzukizun-eremuaren barruan jartzeko eskumenean aldetik; aitzitik, horrez gain, beharrezkoa da balizko lotura egoteaz gain (polizia-funtzio guztien kasua), loturarik ez izatea polizia autonomikoa «sortzetik» eratorritako eskumenarekin, haren eskumen-eremuak erreferentzia organikoa ez ezik, funtzionala ere barne hartzen duelako. Eskumen autonomiko hori polizia autonomiko horrek betetzen duen polizia-eginkizunari dagokio, hau da, botere autonomikoen funtzio hori antolatzeko eta Estatuak ez diren polizia-funtzio edo -zerbitzuak gauzatzeko duten gaitasunari, bai eta delitu-egitateak prebenitzeko eta ikertzeko eta errudunak jazartzeko zereginei datzekien edo osagarritzat har daitezkeen

administrazio-ahalei, herritarren ordena mantentzeari eta segurtasun-kidego eta -indarrei esleitzen zaizkien antzeko beste batzuei ere (104/1989 KAE, 4. OJ).

Horrela ulertuta (poliziaren beraren gaineko eskumen organiko eta funtzionalak, eta hertsiki polizia-jarduera horri datzekion edo haren osagarriak diren administrazio-ahalak), segurtasun-polizia propioa sortzearen ondoriozko eskumen autonomikoa da EKren 149.1.29 artikulua segurtasun publikoaren gaineko Estatuaren eskumen eskusiboari aurreikusten dion salbuespen bakarra.

Doktrina hori bat dator Konstituzio Auzitegiaren 2014ko maiatzaren 29ko 86/2014 Epaian adierazitakoarekin, konstituzio-kontraktasuneko errekurtsua ebatzi baitzuen, Eusko Legebiltzarraren ekainaren 28ko 15/2012 Legearen (Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa) zenbait manuren harira. Horrenbestez, Estuari dagozkio, "Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoentzat erabat erreserbatuta geratu diren polizia-zerbitzuez gain, segurtasun publikorako garrantzitsuak izan arren polizia-eginkizunei ez dagozkien gainerako ahal edo eskumenak, Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoak eta EKren 104.2 artikulua aipatzen duen Lege Organikoak definitutakoaren arabera".

Hau ondorioztatzen du: «ez da nahastu behar EAEAREN 17. artikuluan aurreikusitako eskumen espezifikoa, Autonomia Erkidegoko poliziaren erregimenari buruzkoa, pertsonak eta ondasunak babestekoa eta lurralde autonomikoaren barruan ordena publikoa mantentzekoa; izan ere, lurralde-agintaritzen eta polizia-zerbitzu propioen sistemari dagokio, jada adierazitako moduan, eta, beraz, eduki zabalagoa du —administrazio-jarduketa ugari hartzen baititu (104/2005 KAE, 5. OJ)— EKren 149.1.29 artikulua Estatuarentzat gordetzen duen segurtasun publikoaren arloan, jada aztertutako mugekin".

Bestetik, EKren 149.1.21 artikulua telekomunikazioen eta komunikazioen araubide orokorraren arloan Estuari esleitzen dion eskumen eskusiboari dagokionez:

Lehenengoa emisioaren alderdi teknikoekin lotzen da, uhin erradioelektrikoen edo elektromagnetikoen erabilerari dagozkionekin (jabari publiko erradioelektrikoa), eta horrek justifikatzen du «telekomunikazioaren eta irati-komunikazioaren aldaera guztien antolamendu bateratua» egitea [78/2017 KAE, ekainaren 22koa, 4. a) OJ, 168/1993 KAE, maiatzaren 27koa, 4. OJ aipatuz]. Bestalde, Estuak «komunikazioen araubide orokorrari» dagokionez duen eskumen eskusiboak «barnean hartzen ditu, zalantzarik gabe, horri buruzko araugintza-eskumen guztiak (84/1982 KAE, 4. OJ, eta 38/1983 KAE, 3. OJ)». Baina, gainera, «sistema bateratu bat eratzeko beharrezkoak diren betearazte-eskumenak har ditzake» (195/1996 KAE, azaroaren 28koa, 6. OJ).

Urtarrilaren 21eko 8/2016 KAEk (3. OJ) hau gogorarazten du: «Azken ikuspegi globalago batetik, telekomunikazioen eta komunikazioen araubide orokorraren arloan ere sartzen da (eta, beraz, Estuari dagokio eskumen eskusiboa, EKren 149.1.21 artikulua arabera) telekomunikazioen sektorea (komunikazio elektronikoak) eratzea, arautzea edo konfiguratzea, konbergentzia teknologikoari (eta zerbitzuen konbergentziari) eta Europar Batasuneko komunikazio elektronikoaren esparru arautzaileari erreparatuta, Espainiako lurralde osoan erregulazio homo-

geneoa bermatzeko. Homogeneotasun hori beharrezkoa da, ez bakarrik sektorea garatzeko eta berritzeko, baita informazioaren gizartearen (edo ezagutzaren gizartearen) esparruan herritarren eskubideak bermatzeko ere, kontuan hartuta komunikazioen eta informazioaren teknologia berrien garapena funtsezko faktorea dela gizartearen, ekonomiaren eta lurraldearen kohesioa lortzeko, haustura digital deritzona saihesteko edo, gutxienez, murrizteko».

lido horretan, 12/2018 Errege Lege Dekretuaren 3.b) artikulua, Estatuak telekomunikazioen eta komunikazioen araubide orokorraren (EKren 149.1.21 artikulua) eta segurtasun publikoaren (EKren 149.1.29 artikulua) arloan dituen eskumen eskusiboen babesean emanak, honela definitzen du informazio-sareen eta -sistemen segurtasuna: «informazio-sareek eta -sistemek duten gaitasuna da, biltegitutako, transmititutako edo tratatutako datuen edo horien bitartez irisgarriak diren informazio-sareek eta -sistemek eskaintzen dituzten zerbitzuen eskuragarritasuna, benetakotasuna, osotasuna edo konfidentzialtasuna arriskuan jartzen duen ekintza orori aurre egiteko, fidagarritasun-maila jakin batekin».

Kataluniako Autonomia Estatutuaren 140. artikulua 7. apartatuak Generalitateari esleitzen dio «Estatuko araudiaren arabera, komunikazio elektronikoen arloko eskumen betearazlea», eta jarraian aipatzen ditu barnean hartzen dituen ahalak, konstituzio-doktrinak lehentasunez gizarte-komunikabideen gaiarekin lotu dituenak. Eskumen horrek ezin dio kalterik edo nahasterik ekarri Estatuak komunikazioen araubide orokorraren arloan duen eskumenari (arauen bidez antolatzea eta komunikazioen eraginkortasuna ziurtatzea xede duena), ez eta Estatuaren esku dagoen jabari publiko erradioelektrikoaren erabilerari lotutako dimentsio teknikoari ere, haren titularra Estatua baita (EKren 149.1.21 artikulua; 31/2010 KAE, ekainaren 28koa, 85. OJ).

Laburbilduz, **Agentziari esleitutako eginkizunek ezin diote eragin segurtasun publikoaren zerikusia duen zibersegurtasunaren dimentsioari** —polizia-zerbitzu propioa ez bada— **sare eta azpiegitura informatikoen eremu materialean** —**Administrazioaren autobabesaren kasuan izan ezik**—.

Hala eta guztiz ere, Kataluniako Legeak adierazten duen bezala, **Agentziak laguntza eskain diezaioke, zibersegurtasunaren arloan, bere eginkizun publikoak betetzeko eskumena duen agintaritzari orori eta, bereziki, legez kontrako jokabideen aurka borrokatzeko zereginetan, zuzeneko esku-hartzea eta frogak elektronikokoak lortzea barne. Halaber, polizia-kidegoekin eta agintari judizialekin delitu penalak ikertzen eta zigortzen lagundu ahal izango du**, indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera, aurrez errekerimendua eginda, modu koordinatuan jardunez, eta ikerketarako garrantzitsuak diren elementuak eta frogak izan daitezkeenak zainduz eta haien esku jarritz.

142/2018 KAEk Konstituzioaren arabera dela berresten du arrazoi hauengatik:

Arauek zibersegurtasunaren arloan eskumenak dituzten gainerako agintaritzekin lankidetzan aritzeko agindu bat jasotzen du, zeina estatu autonomikoa gidatzen duen lankidetzaren printzipio orokorraren zehaztapena baino ez baita, bai eta epaile eta auzitegiekin eta Ministerio Fiskalarekin lankidetzan aritzeko betebeharraren zehaztapena ere, indarreko ordenamendu juridikotik

ondorioztatzen dena. Zehatzago, delitu penalak ikertzeari eta zigortzeari dagokionez, nahiz eta, bistan denez, ez dagozkion Agentziari, manuak ez dio zuzeneko eginkizunik esleitzen segurtasun publikoarekin lotutako gai horietan. Agentziak ez du bere ekimenez parte hartzen polizia-kidegoen eta agintari judizialen berezko eginkizunetan, bereziki «zuzeneko esku-hartzeari eta froga elektronikoak lortzeari» lotutakoetan; aitzitik, aurrez errekerimendua jaso behar du, eta indarrean dagoen araudiaren arabera jardun behar du. Arlo horretan, bere jarduna osagarria baino ez da, eta polizia-kidegoek berriaz eskatzea behar du, Generalitateko polizia barne (Kataluniako Autonomia Estatuaren 164.5 artikulua), bai eta agintaritza judizial eskudunek ere, legeria prozesalean aurreikusitako moduan.

Beraz, kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren administrazio elektronikoan eta gainerako EAEko administrazio publikoen komunikazio elektronikoaren sareetan segurtasuna zaintzea da Euskadiko Zibersegurtasun Agentziaren jarduna legitimatzen eta oinarritzen duena; zaintza hori bai barrukoa bai kanpokoa izanik, gainerako erakunde publikoekiko eta herritarrekiko harremanetan.

Dena den, kontuan hartu behar da EKren 149.1.18 artikulua jasotako Estatuaren eskumenak mugatzen duela eskumen hori.

Konstituzio-jurisprudenziak, irailaren 11ko 141/2014 KAEn laburbildutakoak (5.D OJ), autonomia-erkidegoen autoantolamendu-ahala zedarrizten du, Estatuak administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak ezartzeko dituen eskumenen arabera (EKren 149.1.18 artikulua). Hau ekartzen du gogora: «ez du izaera eskusiboa bere Administrazioaren antolaketaren eta funtzionamenduaren araubide juridikoa zehazteko, baizik eta Estatuak ezarritako oinarriak errespetatu eta, hala badagokio, garatu behar ditu» (50/1999 KAE, apirilaren 6koa, 3. OJ).

Hala ere, Estatuak finkatutako oinarri horien intentsitatea askotarikoa da. Konstituzio Auzitegiaren arabera, Estatuak oinarriari ez zaie hedadura eta intentsitate bera esleitu behar barne-antolamenduko alderdietan, Administrazioaren eta herritarren kanpo-jardueran zuzenean eragiten ez dutelako, edo, aitzitik, eragina duten gainerako alderdietan (50/1999 KAE, 3. OJ).

Lehenago azaldu den bezala, Estatuak administrazio publikoen barne-zibersegurtasunaren arlo horretan ere eragin du, hiru eskumen-titulu aipatuz; batez ere, administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak (EKren 149.18 artikulua), baina baita segurtasun publikoa (EKren 149.1.29 artikulua) eta telekomunikazioak eta komunikazioen araubide orokorra (EKren 149.1.21 artikulua) ere.

Esan daiteke zalantzarik gabe EAEko administrazio publikoek eta haien sektore publikoak gaitasuna dutela zibersegurtasunaren ondoriozko mehatxuak prebenitzeko eta horiei erantzuteko, baina, era berean, errespetatu egin behar dituztela Estatuak ezarritako oinarriak, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuan (sektore publikoak bitarteko elektronikoaren bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena) eta, batez ere, maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan (Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena).

III. Garapenerako lankidetzaz

Estatuari dagokionez:

Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuan (EAEAE) ez dago esanbidezko eskumen-eskudantziarik **“garapenerako lankidetzaz”** eremu materialean, bigarren belaunaldiko autonomia-estatutu direlakoetan, ordea, jasotzen da —baina ez modu horretan—; adibidez, uztailaren 19ko 6/2006 Legea, Kataluniako Autonomia Estatutua erreformatzekoa (51. artikulua eta 197. artikulua) eta urtarrilaren 28ko 1/2011 Lege Organikoa, Extremadurako Autonomia Estatutua aldatzeko dena (9.1.6 artikulua). Hala ere, isiltasun horrek ez du ondorio negatiborik aurreproiektuarentzat.

92/2004 Irizpenean adierazi genuenez, geroago otsailaren 27ko 1/2007 Legea, garapenerako lankidetzari buruzkoa (1/2007 Legea), izango zenaren lege-aurreproiektua aztertzean, funtsean Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 20ko **137/1989 Epaiaren** eta maiatzaren 26ko 165/1994 Epaiaren (KAE) konstituzio-doktrinaren oinarria kontuan hartuta, **,”eskumenaren ikuspegitik, botere publikoen jarduketak, garapenerako lankidetzaz bideratuta daudenak, ordenamenduak ematen dizkien eskudantziak gauzatzea dira, baina berezitasun bat dute: dauden muga politikoak gainditzen dituen eremu espazial eta pertsonalera hedatzen dira. Baina kanpo-proiektzio horrek, edo beste era batera esanda, nazioarteko proiektzio horrek ez ditu ‘nazioarteko harreman’ bihurtzen Konstituzioaren (EK) 149.1.3 artikulua ondukoetarako”**.

Hala eta guztiz ere, ondorio hori osatu egin behar dugu konstituzio-doktrina eta 1/2007 Legearen ondoren Estatuak onartu zituen lege-arauak kontuan hartuta.

Konstituzio-doktrinaren eremuan, **Konstituzio Auzitegiak emandako epaiek (31/2010, 118/2011, 138/2011, 46/2015, 85/2016, 228/2016 eta 135/2020 KAEak) egiaztatu dute autonomia-erkidegoek eskumena dutela kanpo-ekintzaren arloan**. Estatuko beste lege-arau batzuek ere onartu dute eskumen hori dutela. Zalantza, beraz, ez da eskumenik duten ala ez, baizik eta **zer muga ezartzen diren eskumen hori betetzeko**.

Gure azterketa egiten hasteko, eskumen horri buruzko konstituzio-doktrina ondo laburbilduta dago 46/2015 KAEren 4. oinarri juridikoan (OJ):

- a) Autonomia-erkidegoek, dituzten eskumenak gauzatzearen zati gisa, kanpo-proiektzioa duten jarduerak egin ditzakete, baina Konstituzioak Estatuaren alde egiten dituen erreserben muga izango dute, eta, bereziki EKren 149.1.3 artikuluan aurreikusitako erreser-

ba, nazioarteko harremanen arloan eskumen eskusiboa ematen diona.

b) Estatuaren eskumen eskusibo horren irismena ezartzeko, “kontuan izan behar da nazioarteko harremanen gaia ezin dela kanpo-irismena edo -proiektzioa duen edozein motatako jarduerarekin identifikatu; izan ere, horrela izango balitz, eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko konstituzio-ordena berrantolatuko litzateke; nolana ere, autonomia-erkidegoen kanpo-proiektzioa duen jardueratik at geratu behar dute arestian aipatutako eskumenei buruzko tituluan biltzen diren jarduketek.

c) EKren 149.1.3 artikulua Estatuaren alde egiten duen erreserbari buruzko deskribapen zehatza egiteko asmorik izan gabe, auzitegi honek identifikatu du bere edukia osatzen duten funtsezko elementuetako batzuk direla tratatuak egiteari buruzkoak (*ius contrahendi*), Estatuaren kanpo-ordezkaritzari buruzkoak (*ius legationis*), baita nazioarteko betebeharrak sortzeari buruzkoa eta Estatuak duen nazioarteko erantzukizunari buruzkoa ere; beste era batera esanda, EKren 149.1.3 artikuluan jasotzen den erreserbaren xede diren nazioarteko harremanak nazioarteko subjektuen arteko harremanak dira eta nazioarteko zuzenbideak arautzen ditu; horren ondorioz, ulertu behar da autonomia-erkidegoek gauza ditzaketan kanpo-proiektzioa duten jarduketak hauek izango direla: *ius contrahendi* bat egikaritzea ez dakartenak, atzerriko botere publikoen aurrean berehalako eta egungo betebeharrak sortzen ez dituztenak, Estatuaren kanpo-politikan eraginik ez dutenak eta Estatuak atzerriko Estatuaren edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundearen aurrean erantzukizuna izatea ez dakartenak”.

d) Estatuaren eskumenaren barnean kokatzen da autonomia-erkidegoen kanpo-proiektzioa duten jarduerak arautuko eta koordinatuko dituzten neurriak ezartzeko aukera, Estatuari soilik dagokion kanpo-politikaren gidaritzaren eta gauzatzearen gaineko balizko kalteak saihesteko edo konpontzeko.

Gerora, apirilaren 28ko 85/2016 KAEk Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legearen (2/2014 Legea) konstituziotasuna aztertu —eta baliozkotu— zuen eta Estatuaren koordinazio-neurriak ezartzeko ahalmen hori azpimarratu zuen, Espainiako Konstituzioaren 97. artikuluari lotu baitzion; izan ere, eskumenak esleitzeko arautzat hartu ezin bada ere, “nazioarteko harremanen” arloan estatu-titulua nontik norakoak mugatzeko balio zuen.

Gai hori bera azpimarratu zuen berriro abenduaren 22ko 228/2016 KAEk, kasu honetan Kataluniako Parlamentuaren 16/2014 Legearen konstituziotasuna aztertzearen harira (Europar Batasunarekin kanpo-ekintza eta harremanak izateari buruzko abenduaren 4ko Legea).

EKren 149.1.3 artikulua arabera Estatuak duen eskumenaren edukia errepikatu zen. Eskumen hori nazioarteko zuzenbideak estatuei zuzenbide horren subjektu diren aldetik onartzen dizkien ohiko ahalmenek osatzen dute, baina baita “kanpo-politika gidatzeko eta gauzatzeko” ahalmen zabalago batek ere, ahalmen horri esker Estatuak kanpo-proiektzioa duten jarduketa autonomikoak koordinatu ahal izango ditu eta harreman-neurriak eta -mekanismoak finkatu ahal

izango ditu, hala nola elkarri informazioa ematea eta baimente-teknikak edo koordinazioa a posteriori egitekoak, prebentziozkoak edo homogeneizaziozkoak. Hain zuzen ere, 2/2014 Legeak biltzen dituenak (adibidez 5.2, 11.4 edo 12.1 artikuluetan).

Aurrerago, epaiak kanpoko ekintzaren unitate-printzipioaren garrantzia nabarmendu zuen [(2/2014 Legearen 3.2.a) artikulua)]; izan ere, artikulua horretan onartzen da kanpo-ekintzaren premisa, bai autonomia-erkidegoena, bai Estatuaren ez diren beste subjektu batzuen, baina modu koordinatuan, Gobernuaren kanpo-politikaren helburuak bermatzeko, "... beraz 'gidalerroak, xedeak eta helburuak' ezartzea", zeinak, horrelakoak diren aldetik, koordinatutako subjektuek jarraitu behar baitituzte, Estatuaren kanpo-politikaren zuzendari gisa gai horretan Gobernuari dagokion antolamendu- eta koordinazio-eskumenaren mende dago". Ondorio honekin: 'kanpoan jarduteko unitate-printzipioak eta eremu horretan gidalerroak, xedeak eta helburuak ezartzeak kanpo-politikaren izaerari eta nazioarteko harremanen izaerari erantzuten diete; izan ere, zatiketarik gabe, denok batera, koordinaturik eta Estatuaren zuzendaritzapean jardun beharra dago, Estatuaren denez gure herrialdea nazioartean ordezkatzeko gaitasunaren titularra".

Doktrina hori bera agertzen da ekainaren 21eko 77/2017 KAEn eta irailaren 23ko 135/2020 KAEn. Azken epai hori Generalitatearen Gobernuaren 2019-2022 aldiko kanpo-ekintzarako eta Europar Batasunarekiko harremanetarako Plan Estrategikoari buruzkoa da. Plan horri azaldutako mugak ezarri zizkion, baita plan horren edukiei dagokienez ere, garapenerako lankidetzaren arloa bidera baitaitezke materialki —adibidez, garapenerako laguntza ofizialean % 0,7 lortzeko konpromisoa edo Saharaz hegoaldeko Afrikarako plan bat aurreikustea—.

Auzitegiak baietsi egin zuen autonomia-erkidegoek garapenerako lankidetzaren arloan kanpo-ekintza garatzeko eskumena dutela, baina auzitegiaren ustez, aipatutako bi alderdiak ez zetozen bat eskumenen banaketarekin, ez zituztelako onartzen kanpo-ekintza autonomikoaren mugak eta kanpo-politikan eragina zutelako eta, horrenbestez, nazioarteko harremanen arloan Estatuaren eskumenean sartzen zirelako.

Aurreproiektuarekin lotura duten Estatuaren lege-arauei dagokienez, lehenik eta behin, 2/2014 Legea aipatu behar da. Lege horren azken xedapenetako laugarrenaren arabera, lege hori "Konstituzioaren 149.1.3, 97. eta 149.1.18 artikuluen babesean emana da. Artikulu horiek eskumen eskusibo ematen diote Estatuari, hurrenez hurren, honako gai hauek: nazioarteko harremanak, kanpo-politikaren gidaritza, eta administrazio publikoen araubide juridikoaren eta haien funtzionarioen estatutu-erregimenaren oinarriak".

Gorago adierazi dugunez, Konstituzio Auzitegiak baliozkotu du 2/2014 Legea, eta, horrela, **kanpo-ekintzaren definizioa sartu da ordenamenduan. Definizio hori kanpo-politikare-**

kin hertsiki lotuta dago, eta, beraz, Estatuaren koordinazio-neurrien mende dago. Neurri horiek —azaldutakoaren arabera— EKren 149.1.3 artikulua arabera har daitezke eta eskumenak banatzeko konstituzio-ordenaren arabera hartu ditu Konstituzio Auzitegiak.

2/2014 Legeak honela definitzen du Estatuaren kanpo-ekintza: “Konstituzio-organoek, administrazio publikoek eta horien mendeko organismo, erakunde eta instituzioek, dagozkien eskumenen jardueran, kanpoan gauzatzen dituzten jardueren multzo ordenatua. Horiek lege honetan ezarritako printzipioen arabera garatzen dira, Gobernuak Kanpo Politikaren gidaritza-eskumena gauzatzean ezarritako gidalerroak eta helburuak jarraituz eta horietara egokituz” (1.2.b artikulua).

Kanpo-ekintzaren eremu propioak 15. artikulutik 33.era bitartekoetan biltzen dira, eta, eremu horien artean, 24. artikuluan **garapenerako lankidetzaren arloko kanpo-ekintza aipatzen da.**

2/2014 Legean, kanpo-ekintza —kanpo-politika gauzatzeko funtsezko elementua— legean arautzen diren plangintza-tresnen esparruan egin behar da, baita lege horren 3.2 artikuluan aipatzen diren printzipioen arabera ere —ekintza-batasuna, leialtasun instituzionala, koordinazioa eta lankidetzaren plangintza, efizientzia, efikazia eta espezializazioa, gardentasuna eta interes orokorraren zerbitzura egotea—.

Estatuaren kanpo-ekintzaren subjektuen artean (5. artikulua) autonomia-erkidegoak daude. Autonomia-erkidegoek, 11. artikuluan espresuki adierazten denaren arabera, kanpoan jarduerak egin ahal izateko eskumena dute; nolahi ere, zehazten da jarduerok “Konstituzioak, autonomia-estatutuek eta legeak emandako eskumenen esparruan gauzatuko dituztela”.

Era berean, muga positiboak aipatzen ditu: legeak ezartzen dituen printzipioak errespetatzea eta kanpo-politikaren gidalerro, xede eta helburuekin bat etortzea, baita Estatuak bere koordinazio-ahalmenak betetzeko kanpo-ekintza planifikatzeko ezartzen dituen tresnekin bat etortzea ere. Eta, ondoren, modu negatiboan mugatzen du kanpo ekintza autonomikoa; izan ere, ezin izango du “inoiz bere gain hartu Estatuaren kanpoko ordezkariak, beste estatu batzuekin zein nazioarteko erakundeekin nazioarteko itunak egitea, Estatuari nazioartean eskatu dakizkiokeen ardurak zuzenean edo zeharka sortzea, edota Gobernuak zuzentzen duen Kanpo Politikari eragitea edo kalte egitea”. Gobernuari dagokio “autonomia-erkidegoen eta hiri autonomoen kanpo-jarduerak arautu eta koordinatuko dituzten neurriak eta gidalerroak ezartzea”.

11. artikulua berean onartzen da autonomia-erkidegoek eta Toki Administrazioa osatzen duten erakundeek badutela gaitasuna nazioarteko akordio administratiboak egiteko, nazioarteko tratatu bat gauzatzeko eta zehazteko, eta, beren eskumenekoak diren gaietan, nazioarteko zuzenbideko beste subjektu batzuen antzeko organoekin nazioarteko akordio ez-arauemai-leak, zeinak ez baitira juridikoki lotesleak izango izenpetzen dituztenentzat —ahalmen horiek tratatuei eta beste nazioarteko akordio batzuei buruzko azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 52.

eta 53. artikuluetan errepikatzen dira—.

Azkenik, aipatzeko modukoa da **1/2023 Legea, otsailaren 20koa, garapen jasangarrirako lankidetzari eta elkartasunari buruzkoa** (aurrerantzean, 1/2023 Legea).

Lege horren azken xedapenetako lehenaren arabera, lege hori “Espainiako Konstituzioaren hitzaurrean aldarrikatutako printzipioa betez eman da, hots, Lurreko herri guztien arteko harreman baketsuak eta lankidetzaren eraginkorrak indartzen laguntzeko printzipioa betez, eta Espainiako Konstituzioaren (EK) 149.1.3 artikuluan ezarritakoaren babesean; izan ere, artikulua horrek nazioarteko harremanen arloko eskumena esleitzen dio Estatuari, eta Espainiako ordenamendu juridikoari jarraikiz, garapen jasangarrirako lankidetzaren eremuan autonomia-erkidegoei aitortzen zaien jarduteko gaitasuna alde batera utzi gabe”.

1/2023 Legea aurreproiektu hau izapidetu bitartean onartu da, baina, prozedurako dokumentu batzuetatik ondorioztatzen denaren arabera, badirudi kontuan izan dela.

Legean jasotzen den zioen azalpen luzetik, azterketa honetarako komeni da nabarmentzea lankidetzaren politika Estatuaren kanpo-ekintzaren elementu integral, nagusi eta definitzaile gisa ulertzen dela, baina zehazten da kanpo-ekintza hori «ez dela nazioarteko harremanen funtsezko elementuetan agortzen, eta, beraz, konstituzio-jurisprudenzia errepikatuaren arabera, autonomia-erkidegoen kanpo-ekintzarako tarte zabala dago, beren eskumenak erabiliz. Horregatik, eta errealitate horretatik, legeak aitortzen du lankidetzaren deszentralizatua Espainiako garapen jasangarrirako lankidetzaren bereizgarrietako eta indarretako bat dela, baita gizarte bakoitzaren adierazpena ere”.

Nahiz eta **legea** ezin daitekeen erraz interpretatu, egitura eta sistema konplexukoa delako eta eduki programatiko eta didaktikoak asko direlako, eta horrek ere ez duelako aginduzko mezu juridikoen mugaketa eta irismena errazten, esan behar da **garapen jasangarrirako lankidetzaren politika honela eratzen duela: kanpo-ekintzaren bidez hedatzen den politika publiko gisa, Nazio Batuek garapen jasangarriaren arloan ezarritako helburu globalak lortzen laguntzeko**. Gaur egun, helburu horiek honako hauek dira: 2030 Agenda, Garapen Jasangarriaren Finantzaketa Agenda, Garapenerako Lankidetzaren Eraginkorraren aldeko Aliantza Globala, Parisko Akordioa klima-eremuan, Europar Batasuna eta beste erakunde multilateral batzuk, eta garapen jasangarrirako Espainiako estrategia, kanpo-dimentsioan (1.2 artikulua). Politika hori garapen jasangarrirako Espainiako lankidetzaren sistemaren bidez hedatzen da. Sistema horrek, beste eragile batzuen artean, autonomia-erkidegoak eta toki-erakundeak barne hartzen ditu (1.3 artikulua).

Adierazpen orokorrak eta programatikoak alde batera utzi gabe, 35. artikuluan (“lankidetzaren deszentralizatua”) biltzen da nola **ikusten duen legeak autonomia-erkidegoen jardueraren autonomia-erkidegoek garapen jasangarrirako lankidetzaren izango duten ekintza dagozkien autonomia-estatutuen, lege autonomikoen eta biltzar legegileek ezarritako ildo orokorren arabera gauzatuko da**.

Ondoren, gehitzen du ekintza hori gauzatzen denean Gorte Nagusiek ezarritako ildo orokorrak eta oinarrizko gidalerroak (lege honen 23.1 artikuluan aipatzen direnak) errespetatu beharko direla, baita 2/2014 Legean ezarritakoa eta administrazio publikoen arteko lankidetzaren printzipioa ere, informazioa eskuratzeari eta parte hartzeari eta baliabide publikoak ahalik eta gehien aprobetxatzeari dagokienez.

Ondoren, 35. artikulua 6. apartatuan "...onartzen da autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek, zuzenean edo beste eragile batzuen bidez, bereziki GGKEen, ikastetxeen eta unibertsitateen bidez, gaitasun berezia dutela garapen jasangarrian hezteko eta herritartasun globalerako zereginak gauzatzeko", eta 36. artikuluan onartzen da, alde batetik, autonomia-erkidegoek garrantzi handia dutela Espainiako lankidetzaren sisteman garapen jasangarria eta elkartasun globala lortzeko, eta, bestetik, autonomia-erkidegoen politikak bereziak, osagarriak eta desberdinak direla Estatuako Administrazio Orokorrak eta lankidetzako beste eragile batzuek gauzatzen dituzten politikekiko. Lankidetzaren hori —adierazten da manuan— "aurrekontu-autonomia izanda gauzatzen da eta dagozkien eskumenen esparruan, eta administrazio autonomikoek zuzenean egiten dituzte, baita beste erakunde batzuekin ere".

Proiektatutako erregulazioa deskribatutako konstituzio-doktrinarekin eta kasu honetan konstituzio-kanona osatzen duten estatuko legeekin alderatu ondoren, **Batzordearen ustez, aurreproiektua EAEk kanpo-ekintzaren arloan duen eskumen-ahalmenaren barruan dago, eta ahalmen horren adierazlerik garrantzitsuenetako bat garapenerako lankidetzaren da.**

Bakar-bakarrik, **ikusten da 3.2.b) artikuluan hitz hauek berrikusi behar direla: "-eta ez, besteak beste, kanpo-politikaren irizpideek baldintzatuta-"; izan ere, adierazitakoaren arabera, bateraezintasun-arazoak sor litezke Estatuaren kanpo-politikak garapenerako lankidetzaren ezar ditzakeen mugekin.**

Azkenik, eskumenen azterketan gogorarazi behar da **eskumen-oinarri nagusiaz gain, aurreproiektuak autoantolaketari buruzko tituluaren babesa duela** (EAEAEren 10.2 artikulua), EAEko lankidetzaren publikoaren erakunde-antolaketari dagokionez, eta bere ogasun publikoari buruzko tituluan (EAEAEren 40. artikulua), **dirulaguntzen azpiarloari aipamen berezia eginez.**

Lurralde historikoei buruzkoak:

Azaroaren 25eko **27/1983 Legeak**, Autonomia-erkidego osorako erakundearen eta bertako lurralde historikoetako foru-erakundearen arteko harremanei buruzkoa bera (LHL), **ez du lankidetzaren eskumen-eremua aipatzen**; beraz, lege horren 6.1 artikulua aplikatuz, **esan behar**ko litzateke **EAE barruan banatu ez den eremu bat dela** eta erakunde erkideei dagokiela.

Lehenengo hurbilketa hori, ordea, ez da egokia, zeren aurreproiektuaren eskumen-oinarri nagusia aztertzeko erabili diren irizpide eta metodo berak aplikatuz, lurralde historikoei gaitasuna baitute beren eskumenak gauzatzearekin lotutako kanpo-ekintza

bat hedatzeko eta beren interesak defendatzeko, arestian deskribatutako mugen barnean —Gorte Nagusien oinarrizko ildoak eta gidalerroak (1/2023 Legearen 23.1 artikulua eta 2/2014 Legetik eratorritakoak)—.

Legea egiteko espedientean argi eta garbi ikusten da organo sustatzailea kezkatuta dagoela EAEko lankidetzaren erakunde-arkitektura berriaren eraketan konponbide egokia lortzeko.

Illo horretan, honako hau aitortzen da azken memorian: “arauaren aplikazio-esparrua zabaldu nahi izateak zailtasunak zekartzala jakinda, aurreproiektu hau egiteko garaian arreta berezia jarri zen eskumenen arloaren azterketan; horretarako, kontsulta eta lan-saio espezifikoak egin ziren adituekin. Egungo aurreproiektuak gainditu egiten du 1/2007 Legearen muga eta onartzen du EAEko hiru administrazio-mailek protagonismo partekatua eta desberdina dutela —nolanahi ere, administrazio bakoitzari aplika dakizkioken eskumen-araudiak errespetatuko dira—. Aurrekoa bat dator EAEko erakunde- eta administrazio-arkitekturarekin, baina baita arau-testu berriaren orientazioarekin ere, garapen-helburuen aldeko aliantzak osatzeko baita testu hori”.

Aurreproiektuak, barne-banaketa antolatzeke garaian, **premisia gisa onartzen du lankidetzaren arloa partekatua dela eta hiru mailek —autonomikoa, forala eta tokikoa— hartzen dutela parte.**

Erabaki horrekin bat etorritik, EAEko lankidetzaren eta elkartasun-politikaren xedeak, ezaugarriak, helburuak, printzipioak eta lehentasunezko ikuspegiak (1.2 eta 1.5, 3., 4., 5. eta 6. artikulua) modu irekian eta erakunde-maila bakoitzaren jarduketara bideratzeko moduan aipatu dira. Horrekin batera, **hiru mailen artean elkarlanean eta lankidetzan jarduteko bideak ezarri dira** (12. eta 13. artikulua). Eta, EAEko sektore publikoaren jarduketan koherentzia gordetzeko berariazko helburuarekin, 14. artikulua (plangintza) bidea irekitzen du autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorrak lankidetzaren eta elkartasun-ekinbide publikorako helburuak eta lehentasunak ezarri ahal izateko.

Era horretan, aurreproiektua bat dator Europako eta Estatuko eskumenen eskemarekin, horiek eragile desberdinek jardun dezaketen eremutat hartzen baitute lankidetzaren eragile publiko guztientzat mugak ezartzea alde batera utzi gabe, aniztasunak —sistemaren indartzat hartzen denak— **bat egin dezan proposatutako helburuak eta xedeak lortzeko.**

Aurreproiektuan proposatutako aukera arautzailea, beraz, EAEko eskumen-banaketa arautzeko izan daitekeen aukeretako bat da.

IV. Irakaskuntza (EAEAE, 16. artikulua)

Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren arteko eskumen-mugaketa aztertuz gero, esan daiteke, EAEAEren 16. artikuluan EAEk eskumen zabalak dituela aipatzen bada ere, eskumen horiek nabarmen birbideratu direla.

Manu horren arabera:

Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa betetze aldera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, EKren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoei kalterik egin gabe, EKren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe.

Eskumenaren foru-erroa aipatzen duen arren, Konstituzio Auzitegiak, gogorarazi ondoren eskubide historikoen eguneratzea EAEAEren bidez gauzatu dela, eta hezkuntzaren gaiak tratamendu berezia eta berezia duela EAEAEren, 10., 11. eta 12. artikuluetan zerrendatzen diren beste gai batzuekin alderatuta, tratamendu berezia eta berezia duela gogorarazi ondoren, **uste du, horrek ez duela esan nahi inolako berezitasunik duenik autonomia-erkidegoaren eskumen-ondarean:**

Aipatutako estatutu-manua aztertuta ikus daitekeenez, Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak jasotzen duen foraltasunaren bermera berariaz jotzen badu ere, eta horrek berez eskubide historiko bat aitortzen badu ere, gai horretan autonomia-erkidegoak dituen eskumenak Espainiako Konstituzioaren esparruaren arabera gainerako autonomia-erkidegoentzat indarrean dauden muga berberen mende jartzen ditu: EKren 27. artikulua edukia eta hura garatzen duten lege organikoak, EKren 149.1.30 artikulua Estuari esleitzen dizkion ahalmenak eta ahalmen horiek betetzeko eta bermatzeko behar den goi-ikuskaritza. Horregatik, otsailaren 22ko 6/1982 KAEn (2. OJ), honako hau baieztatzen dugu: «Euskal Herriko Estatuaren 16. artikulua, 'Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz', Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkio», funtsean, Kataluniako Autonomia Estatuaren 15. artikuluan (68/2018 KAE) zehaztuta zeuden «eskumen berberak eta salbuespen berarekin».

Muga horiei dagokielarik, EKren 27. artikulua edukiari dagokionez, ez zaio ezer erantsi behar artikulua horri buruz adierazitakoari, eta hori garatzen duten lege organikoei dagokienez, berriz, honako hau esan daiteke:

Konstituzio-doktrinaren arabera, **lege organikorako erreserba** (EKren 81.1 artikulua arabera) zentzu murriztailean ulertu behar da: lege organikoak **egin behar duen gauza bakarra oinarrizko eskubidea zuzenean garatzea da, eskubide horren egikaritzaren arauketan sartu gabe, hori lege arruntari dagokion zeregina baita** (besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren epai hauek: 6/1982, 67/1985, 160/1987, 127/1994 eta 173/1998).

Egia da ez dagoela erantzun unibokorik EKren 81.1 artikulua aipatzen dituen “oinarrizko eskubideen garapena” kasu bakoitzean nola zehaztu behar den argitzeko. Eskubide motaren arabera da hori, eta, bereziki, dagokion konstituzio-manuan aitortutako baldintzen arabera. Izan ere, lege organikoak zuzen-zuzenean eta zorrotz garatu behar duena, hain zuzen ere, eskubidea jasotzen duen araua da (6/1981 KAE eta 6/1982 KAE). Kasu honetan, EKren 27. artikulua, artikulua horrek diseinatzen baititu hezkuntzarako eskubidearen eta irakaskuntza-askatasunaren garapena baldintzatzen duten funtsezko elementuak.

Zehazki, **Batzordeak** muga hori aztertzerakoan **adierazia duenez jada** (48/2004, 26/2005 eta 30/2008 irizpenak), **ezin da erabateko oztopo edo eragozpen hartu autonomia-erkidegoak bere araugintza-jarduera gauzatu ahal izan dezan 27. artikulua garatuz Espainiako Konstituzioaren 81.1 artikulua babesean arautu den guztian.**

Hartara, azaroaren 6ko 137/1986 KAEk dioenez, «Euskal Ikastolen Erakundea» sortu eta ikastolen estatutu juridikoa onartu zuen uztailaren 27ko 15/1983 Legearen aurkaratzeari buruzkoa bera, araugile autonomikoak badu bere eremu propioa, Estatuaren arauaren izaera organikoak deuseztatzen ez duena.

Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, oinarrizko eskubideak garatzeko lege organikoaren erreserba ez da bateraezina arauarteko lankidetzarekin; hots, erreserba ezartzen zaion iturria —Estatuko legegilea—, eta EKk onetsitako beste arau-iturriak —oraingo honetan, legegile autonomikoa, Estatuak hezkuntza alorrean emandako oinarrizko legeria garatzeko eskumena duena— arauarteko lankidetzan aritzearekin; horrela, aipatutako eremuaren diziplina integrala eta artikulatua lortzen da.

Hona 137/1986 KAEk dioena, zehazki: “... 149.1.30 artikulua ezarritako eskumen-zedarriketa, alegia, Estatuaren eta xedapen hori jarduteko oinarritzat hartu duten estatutuak dituzten Erkidegoen artekoa, ezin izango da besterik gabe ezarri parametrotzat hartuta EKren 27. artikulua dakartzan eskubideak ‘garatuz’ formalki onartu den testua. Eskumenen zedarritze hori erdietsiko bada, beharrezkoa izango da araketa materiala egitea, honako hau identifikatu ahal izateko: lege organikoak dakartzan xedapenen artean, zeintzuk biltzen dituzten ‘27. artikulua garatzeko oinarrizko arauak’, horiek bakarrik markatzen dutelako, Erkidego horiei begira, xedapen autonomikoek gainditu ezin duten muga. Beraz, lege organikoaren eta lurralde-legearen arteko bat ez etortze oro ez da izango azken horren konstituzio-kontrakotasuneko akatsaren sorburu...”.

Laburbilduz, **EKren 27. artikulua garatzeko oinarrizko arau guztiek ez dute izan behar lege organikoaren edukia**, eta lege organiko batean loturagatik sartzen diren izaera horretako aurreikuspenak behar bezala identifikatu behar dira, **benetan ez baitaio garatzen oinarrizko muina “hezkuntzarako eskubideari”**, nahiz eta lege horren arauketaren ezinbesteko osagarri izan daitezkeen **eta, horregatik, lege arrunt gisa txertatzen dira haren barruan.**

Batez ere, **EKren 149.1.30 artikuluko ahalmenak** aztertu ditu Konstituzio Auzitegiak, eta, doktrina guztiz finkatuaren arabera, Estatuari aitortzen dizkio bi eskumen bereizi, norainoko desberdinekoak.

Lehenik eta behin, eskumen eskusiboa aitortzen dio "titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzeko", eta, bigarrenik, beste eskumen bat, "Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarriko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko".

Eskumen horietan lehenak barne hartzen du (111/2012 KAE eta 184/202 KAE) «hezkuntza-maila eta -ziklo bakoitzari dagozkion tituluak ezartzea, dauden modalitateetan, eta titulu horiek gaikuntza-balioa dute bai ikuspuntu akademikotik, bai lanbide tituludunetan -hau da, horietan aritzeko tituluak behar dutenean- jarduteari begira (adibidez: eskola-graduduna, batxilerra, diplomaduna, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko dagokion espezialitatean, lizentziaduna, arkitektoa, ingeniaria, doktorea); halaber, barnean hartzen du kasu bakoitzeko tituluak luzatzeko eskumena eta Estatuak luzatzen ez dituen homologatzekoa" (42/1981 KAE, abenduaren 22koa, 3. OJ, eta hemen berretsia: 122/1989 KAE, uztailaren 6koa, 3. OJ). Nolanahi ere den, Estatuaren eskumen eskusibo horren hedapenak, sektore horretako araugintza-funtzio guztia Estatuarentzat erreserbatzea baitakar (77/1985 KAE, ekainaren 27koa, 15. OJ), ondorio hau du: autonomia-erkidegoek eskumen exekutiboak bakarrik eskuratu ahal izatea gai hori dela eta (111/2012 KAE, maiatzaren 24koa, 5. OJ)".

Beste alde batetik, era berean, Estuari dagokio, EKren 149.1.30 artikulua onduz, EKren 27. artikulua garatzeko oinarriko arauak emateko eskumena, eta horrek esan nahi du Estuari dagokiola "EKren 27. artikuluan zerrendaturiko gaien ordenaziorako arau-printzipio orokor eta uniformeak definitzea" (77/1985 KAE, ekainaren 27koa, 15. OJ). Egoki da gogoratzea hezkuntzarako eskubideak lehentasunezko edukizat duela askatasun-eskubidearena, zeina abiapuntutzat hartuta ulertu behar baita botere publikoentzako prestazio-agindua, askatasun hori benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzera bideratutakoa (EKren 9.2 artikulua) (86/1985 KAE, uztailaren 10ekoa, 3. OJ, eta 337/1994 KAE, abenduaren 23koa, 9. OJ), eta hezkuntzarako eskubide hori hezkuntza-sistema baten esparruan egikaritu behar dela, eta botere publikoek finkatzen dituztela sistema horren funtsezko elementuak, halako moldez non hezkuntza jarduerara arautua den (337/1994 KAE, abenduaren 23koa, 9. OJ eta 134/1997 KAE, uztailaren 17koa, 4. OJ). Edonola ere, hezkuntza-sistema hori taxutzeko, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako gobernu-mailek hartu behar dute parte, nahitaez, bakoitzak bere eskumenen esparruan» (111/2012 KAE, 5. OJ).

Konstituzio Auzitegiaren 111/2012 eta 25/2013 epailetatik atera daiteke zorrotz interpretatu behar dela eskumen horietatik lehena:

Estatuaren eskumenaren barruan sartzen da hezkuntza-maila eta -ziklo bakoitzari dagozkion tituluak ezartzea, modalitate guztietan, eta titulu horiek balio bera izan behar dute Espainia osoan (42/1981 KAE, abenduaren 22koa, 3. OJ eta 4. OJ). Hori dela eta, Estuari dagokio gutxieneko prestakuntza komuna ziurtatzea, haren edukia eta hari datzekion ezagutzak egiaztatzeko modua ezarriz. Hala ere, horrek ez du esan nahi ebaluazio-eskakizunak eta -prozedurak oso-osorik arautu behar dituenik, nahitaez, ... gutxieneko irakaskuntzen oinarriko eduki eta irizpideak baizik; horrenbestez, autonomia-erkidegoek badute tarte bat, gai horretan dituzten eskumenei datzekien araugintza-ahalmenak garatzeko (10. OJ).

Eskumen autonomikoei dagokienez, 111/2012 KAEk bi ideia azpimarratzen ditu. Lehenengoak honako hau nabarmentzen du:

Herrialdeko hezkuntza-sistemak homologatuta (EKren 27.8 artikulua) behar du Estatuaren lurralde osoan; beraz, eta EKren 139. artikulua espainiar guztiei aitortzen dien eskubide-berdintasunarengatik, logikoa da EKren 149.1.30 artikulua dakarren estatu-eskumena, EKren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak ezartzekoa, eta, era berean, haren izaera dela-eta, Estatuari egokitzea hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorra (5/1981 KAE, otsailaren 13koa, 28. OJ). Onartuta dugu, baita ere, Estatuak EKren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak emateko duen eskumenak irakaskuntzaren programazio orokorra —EKren 27.5 artikulua aipatzen baitu— hartzen duela (47/2005 KAE, martxoaren 3koa, 11. OJ), eta Estatuaren eskumena dela gutxieneko irakaskuntzak ezartzea, haien edukiaren zehaztapenarekin batera, barnean hartuta helburuak multzo tematikoka finkatzea diziplina edo ikasgai bakoitza kontuan hartuta, eta haien irakaskuntza eraginkor eta osorako behar diren gutxieneko ordutegiak finkatzea (88/1983 KAE, urriaren 27koa, 3. OJ).

Aurreproiektuaren azterketarako oso garrantzitsua den bigarren ideiak honako hau nabarmentzen du:

...Estatuaren eskumen horiek guztiak, ..., autonomia-erkidegoek legegintza- eta beteazpen-esparruetan duten eskumen osoarekin bateragarriak diren eskakizunak dira, autonomia-estatuetan adierazitakoaren arabera (6/1982 KAE, otsailaren 22koa, 4. OJ), eta «behar bezain zabal eta malgu erabili behar dira, gai horretan araugintza-eskumenak ditzuten autonomia-erkidegoek aukera politiko propioak beren inguruabar espezifikoaren arabera hartu ahal izan ditzaten» (131/1996 KAE, uztailaren 11koa, 3. OJ).

Hezkuntza-arloko eskumena partekatua izatea eragotzi gabe, Konstituzio Auzitegiak berak adierazten duen bezala, behar besteko irismena izan behar du, EAEk bere “aukera politiko propioak” hartu ahal izan ditzan.

Gure kasuan, **eskumen autonomikoa mugatzeko, gaia arautzen duten bi lege organikoetara jo behar da: Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikora (LODE) eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikora (LOE) —aurreproiektuaren xedea ez denez, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoa aipatu baino ez dugu egingo—.**

Lehenengoak bere azken xedapenetako lehenengoan aurreikusi duenez, Espainiako gobernuak eta autonomia-erkidegoek, euren eskumenen esparruan, lege hori aplikatzeko behar beste xedapen eman ahal izango dituzte.

Bigarrenak, azken xedapenetako bosgarrenean, Estatuari dagozkion bi azpigaiak aipatzen ditu: oinarrizkoa (1. apartatua) eta eskusiboa (2. apartatua). Azken xedapenetako zazpigarrenak, berriz, izaera organikoa duten manuak identifikatzen ditu.

LOEren azken xedapenetako bosgarrenari dagokionez, ez dakigu zein den Estatuari oinarrizko izaeratik salbuetsita dauden manuak ematea ahalbidetzen dion eskumen-oinarrria —hau da, EKren 149.1.1, 149.1.18 eta 149.1.30. artikuluen arabera Estatuari dagokion eskumena-ren babesik ez dutenak—. Horiek 149. artikuluko 1. apartatuan identifikatzen dira, eta pentsatu behar da Hezkuntza Ministerioaren beraren kudeaketa-eremuan eta, bereziki, Ceuta eta Melilla hirietako hezkuntza-sisteman agintzen dutela. Hala ere, neurri batean hala izanik ere, oro har, “hezkuntza-administrazioei” legearen eduki jakin batzuk osatzeko ematen zaizkien gaikuntzei buruzkoak dira, eskumen autonomikoen zentzua bideratu eta orientatzeko.

Tartean, azken xedapenetako seigarrenak dio, lege honen arauak autonomia-erkidegoek garatu ahal izango dituztela, salbuespentzat jarrita legeak agindutakoaren arabera Espainiako gobernuak arautu behar dituen arloei, edo Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoari jarraikiz Estatuari dagozkion arloei lotutakoak.

LOEren 6.bis artikuluari dagokionez, baliogabea da, oro har, Espainiako gobernuak ez duelako 1. apartatuan adierazitako eskumenik, lege organiko edo arruntaren erreserbaren mende daudenean, edo alferrikakoa, Espainiako Konstituzioak eta autonomia-estatutuek ezarritako eskumen-banaketa modu abstraktuan aipatzen duelako.

Aipatutako manuaren edukitik salbuetsi behar dira 1.c) apartatuak aipatzen dituen berariazko gaikuntzak, hots, “aurreko artikuluan aipatzen diren gutxieneko irakaskuntzak finkatzea”, LOEren 6.3 artikulua eta 2. apartatuak xedatzen dutena errepikatu baino ez baitu egiten; izan ere, LOEren azken xedapenetako seigarrenean azaltzen den mezuaren berdina da.

Beste gauza bat da Konstituzio Auzitegiak onartu izana Espainiako gobernuak oinarrizko gaiak erregelamendu bidez arautzea, baina baldintza formal eta material jakin batzuekin: lehenik eta behin, berariazko lege-gaikuntza egotea, eta, bigarrenik, haien erregelamendu-lerruna justifikatuta egotea, gai horien izaerak tratamendu bat eskatzen duelako eta tratamendu horretarako lege-arauak desegokiak direlako beren ezaugarriengatik.

Esan daiteke bi legeek hezkuntzaren eta irakaskuntzaren funtsezko gai guztiak hartzen dituztela barne, hau da, EKren 27. artikuluan aipatutako gaien arau-printzipio orokorrak eta antolamendu-printzipio bateratuak.

Zerrenda horretan sartzen dira, halaber, hezkuntzaren printzipioak eta helburuak, hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorra, gutxieneko irakaskuntzak finkatzea, botere publikoek hezkuntzaren doakotasuna eta ekitatea bermatzeko dituzten betebeharrak, beken eta lagunt-

zen araubidea, eskolatzeko eta onartzeko arauak, ikastetxeak sortzeko askatasuna eta plazen eskaintzaren programazioa, hezkuntza-itunak, hezkuntza-komunitatea, ikastetxeen funtzionamenduan eta gobernuan parte hartzea, gobernu-organoak edo hezkuntzako ikuskaritza.

Hala ere, **azpimarratu behar da ezin dela arauketa oso eta itxi gisa ulertu; izan ere, orain arte adierazi dugun bezala, titulu akademiko eta profesionalen kasuan izan ezik, eskumen partekatua da, eta autonomia-erkidegoek aukera izan behar dute Estatuko arauak osatu eta garatzeko**, hezkuntza sistema definitzen duten elementuen konfigurazioan parte hartu behar baitute.

Funtsezkoa da kontrastatzea proiektatutako lege-xedapena —Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-politikaren arauketa orokorra egiten du, unibertsitate-ikasketak eta lanbide-heziketa alde batera utzita, aurreproiektuaren 1.3 artikulua zehazten duen bezala— **eta bi lege organikoak kontrastatzea, autonomia-erkidegoko araudiak ezin duelako beste modu batean hezkuntza-eskubidearen funtsezko alderdirik urratu edo arautu.**

Hori guztia Estatuak emandako erregelamendu-mailako arauetatik eratorritakoa alde batera utzita; izan ere, horiek ere oinarrizko arauak dira, eta, besteak beste, irakaskuntzen, irakasleen eta zuzendaritza-taldean, ikastetxeen edo beken eta laguntzen gaiak hartu izan dituzte barnean.

56/2023 ABJI, par.: 215-246

Gauzak horrela, **zaila da espezializazio-ikastaroek iraupen luzeagoa izatea oinarrizko izaerarekin ezarritakoa baino, eta ez da behar bezala egokitzen** espezialista- edo master-titulazioa lortzeko espezializazio-ikastaroen oinarrizko curriculumak garatzeko **autonomia-erkidego honi esleitutako eskumenetara.**

Ez dugu ahaztu behar, kasu honetan, Estatu osoan balio duen titulu bat lortzera bideratutako irakaskuntzen garapenari heltzen zaiola, eta espezializazio-ikastaroen edukiak titulu bakoitzari esleiri dakiokkeen gehieneko iraupenera egokitu behar duela, eta autonomia-erkidegoak askatasuna duela, gutxieneko ordutegiak errespetatuz, definitutako lanbide-profila lortzeko eskatzen den lanbide-kualifikazioaren eskakizunak beteko dituzten edukiak sartzeko.

Ildo horretatik, **lanbide-moduluen iraupena kasuan kasuko errege-dekretuetan espezializazio-ikastaroetarako ezarritako gehieneko iraupenera egokitu beharko litzateke.** Izan ere, **garatzeko ahalmena Estatuak finkatutako gutxieneko edukietatik abiatuta gauzatzen da, baina horiek osatzeko asmoz, dagokion titulurako ezarritako guztizko iraupeneren mugaraino.**

Beste aukera bat da, egoki irizten bazaio, **ezarri den gehiegizko prestakuntza EAEko programa propioak baliatuta jorratzea**, hezkuntza-sistema komuneko irakaskuntza ez-arautuaren barruan kokatuko liratekeenak eta, nolana ere, LHAILOn eta 1147/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako espezializazio-ikastaroetatik ondo bereizita eta haiekin ez nahasteko moduan ezarri beharko liratekeenak.

Hau da, **ordutegiaren zati hori prestakuntza-unitate gisa antola liteke lanbide-espezializazioko programen barruan**, eta **hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak egiaztatuko luke**, EAELHLn adierazitakoari jarraikiz.

73/2023 ABJI, par.: 104-108

V. Ingurumena (EAEAE, 11.1. artikulua)

Estatuari dagokionez

(...)

Klima-aldaketaren arloko Estatuko legeria, batez ere 7/2021 Legea eta 1/2005 Legea, Espainiako Konstituzioan ezarritako Estatuaren eskumen eskusibo hauek kontuan hartuta eman da: EKren 149.1.13 artikuluan xedatutako eskumena, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioari buruzkoa; EKren 149.1.23 artikuluan xedatutakoa, ingurumena babesteko oinarritzko legegintzari buruzkoa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erki-degoek babes-arau gehigarriak ezartzeko dituzten ahalmenak, eta EKren 149.1.25 artikuluan xedatutakoa, mea- eta energia-araubidearen oinarri buruzkoa.

EKren 149.1.13 artikuluari dagokionez, konstituzio-jurisprudentziak onartu du eskumen-tituluhorrek babestu ahal izatea ekonomia-sektore jakin batzuk antolatzen dituzten gidaleroak eta irizpide orokorrak ezartzen dituzten Estatu-arauak eta antolamenduan proposatutako helburuak lortzeko ezinbestekoak diren ekintza edo neurri berezien aurreikuspenak (77/2004 KAE).

Duela gutxi, Konstituzio Auzitegiak indar handiagoz onartu du 149.1.13 eta 149.1.25 estatutako eskumen-tituluak ez baztertzeko premia, Klima-aldaketari buruzko Kataluniako Legearen harira, ekainaren 20ko 87/2019 Epaian (KAE) azaltzen denaren arabera:

Auzitegi horren jurisprudentzia errepikatu batek onartu du energia ekoiztea eta banatzea garrantzitsua dela eguneroko bizitzarako nahiz jarduera ekonomikoaren funtzionamen-

durako, jarduera haren erregulazioa babesteko ez bakarrik energia-araubidearen oinarriak ezartzea Estatuari erreserbatzen dion eskumen-titulu espezifikoan (EKren 149.1.25 artikulua), baizik eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehazteari eta haren koordinazioa egiteari buruzko zeharkako tituluan ere (EKren 149.1.13 artikulua) [adibidez, ekainaren 21eko 69/2018 KAE, 6 b) OJ; irailaren 28ko 148/2011 KAE, 6. OJ; martxoaren 3ko 18/2011 KAE, 6. OJ, eta azaroaren 28ko 197/1996 KAE, 4 a) OJ]. Halaber, azken eskumen-titulu honi dagokionez (jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehaztea eta haren koordinazioa), konstituzio-jurisprudentiak adierazi du Estatuak haren babesean «ekonomia-sektore jakin batzuk antolatzen dituzten gidalerroak eta irizpide orokorrak ezar» ditzakeela politika ekonomiko orokorraren edo sektorialaren helburuak lortzeko (denen erakusgarri, uztailaren 8ko 139/2013 KAE, 3. OJ, higiezinaren merkaturak sustatzeko jarduerari dagokienez, «sektore horren eta estatuko ekonomiaren arteko lotura nabaria delako»; edo abenduaren 14ko 143/2017 KAE, 13. OJ, politika publikoak hiriak birgaitzera eta berroneratzera bideratzeari buruzkoa), baina horretaz gain, eta oso nagusiki, «ekonomiaren antolamendu orokorrari» ekin diezaikeela (urtarrilaren 28ko 1/1982 KAE, 5. OJ) eta «politika ekonomiko orokorrari buruzko neurria(k)» har dezakeela/ditzakeela «estatuko politika ekonomikoaren helburuak lortzeko, Estatuko lurralde osoan jarduketa bateratua izatea beharrezkoa» den kasuei erantzuteko (esate baterako, ekainaren 22ko 79/2017 KAE, 6. OJ eta uztailaren 4ko 89/2017 KAE, 8. OJ, biek beste epai batzuen aipuak egiten dituzte).

Espainiako Konstituzioaren 149.1.25 eta 149.1.13 artikuluetako tituluak interpretatzen dituen jurisprudentzia hori eta aurkaratutako legearen edukia eta helburua kontuan hartuta, kasu honetan ezin dira aipatutako tituluak (energia eta ekonomia) baztertu bigarren mailara edo maila osagarrira edo ez-funtsezkoa (15/2018, 62/2018 eta 64/2018 KAEetan hala egin bazuten ere). Kataluniako klima-aldaketari buruzko Legearen helburua ingurumena babestea da, baina baita Kataluniako ekoizpen-jarduera guztietarako energia-eta ekonomia-eredu alternatiboa diseinatzea eta helburu hori lortzeko beharrezkoa den administrazio-jardueraren programazioa edo plangintza egitea ere. Beraz, ezinezkoa da alde batera uztea arlo horietan esku hartzen duten ekonomia- eta energia-interesak eta arlo horretako eskumenak banatzeko arauak, bereziki haien plangintzari dagozkionak, funtsean plangintza baita erabilitako arau-teknika, aurrerago egiaztatuko den bezala. Helburu horretarako, EKren 149.1.13 artikulua Estatuari esleitzen dio «jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehazteari eta horren koordinazio orokorra egiteari» buruzko eskumena; aitzitik, Kataluniako Autonomia Estatutuaren 152.3 artikulua Generalitateari ematen dio «jarduera ekonomikoaren plangintza Estatuaren plangintza orokorrak ezartzen duen gidalerroen esparruan ezartzeko» ahala. Bestalde, EKren 149.1.25 artikulua arabera, Estatuak ezarriko ditu «energia-araubidearen oinarriak» eta ezarpen horren barnean sartzen da sektorearen plangintza orokorra egitea [ekainaren 21eko 69/2018 KAE, 5 d) OJ; urriaren 4ko 170/2012 KAE, 10. OJ; irailaren 21eko 223/2000 KAE, 19. OJ, eta azaroaren 28ko 197/1996 KAE, 4. OJ]; Kataluniako Autonomia Estatutuaren 133. artikulua, aldiz, Generalitateak «energiaren» arloan duen eskumen «partekatua» arautzen du (termino hori ulertuta ekainaren 28ko 31/2010 KAEren arabera, 60. OJ). Eskumen horretan, prozesu honetan interesatzen denari dagokionez, honako hauek sartzen dira: energia «ekoizteko» jardueraren «erregulazioa» [lehen apartatuaren a) letra], «energia berriztagarrien eta energia-efizientziaren sustapena eta kudeaketa» [lehen apartatuaren d) letra] eta Generalitateak «parte hartzea» «Kataluniako lurraldean eragina duen energiaren sektorearen estatu-eremuko erregulazioan eta

plangintzan» (hirugarren apartatua); nolahi ere, ulertu behar da «Estatuari dagokiola parte-hartze horren irismena eta modua zehaztea, Estatua baita eskumenaren titularra» (31/2010 KAE, 79. OJ).

Baina 100/2011 Irizpenean **ingurumenaren arloko eskumena Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean banatzeak duen garrantziari** buruz esandakoari heltzen badiogu, **konstituzio-doktrina hori gehiago zehaztu behar da ekainaren 20ko 87/2019 KAEn ezarritakoarekin:**

Estatuko oinarrizko arau horien eta Kataluniako klima-aldaketari buruzko Legearen 19. artikulua lehena apartatuaren a) eta c) letretan eta bigarren apartatuaren a) letrean aipatzen diren helburu zehatzen artean dagoen benetako kontraesan gaindiezina dela-eta, Kataluniakoak ezin dira ingurumena babesteari arloko eskumenaren baliatze legitimoztat hartu (EKren 149.1.23 artikulua eta Kataluniako Autonomia Estatuaren 144. artikulua). Lehenik eta behin, aipatutako manu autonomikoen kontra egiten dietelako, argi eta garbi, ukatzeraino, Estatuak energia-ereduari buruz ezarritako oinarrizko zehaztapen horiei (erregai fosilen eta energia nuklearraren onargarritasuna). Bigarrenik, aipatutako manuen zehaztasuna kontuan hartuta diseinatu den eta hain garrantzitsua den «trantsizio energetiko» batek askoan gaintzen duelako soilik ingurumenekoa den eta oraindik ere energiarekin zerikusia duen ikuspegia; eta ezin duelako ahaztu indarrean dagoen ereduaren ordezkioak hainbat ondorio eragiten dituela arlo hauetan: ekonomian, industriaren berregituraketan edo birmoldaketan, enpleguan, lurralde-kohesioan, enpresen lehiakortasunean, langileen prestakuntzan, hezkuntzan eta abar. Interes horien guztien babesak Espainiako Konstituzioaren beste eskumen-titulu batzuetan eta autonomia-estatuetan hartzen du oinarri, eta nahitaez ulertu behar da zerikusia dutela erabakian, eta kontuan hartu behar direla. Eta, azkenik, aipatutako helburuak lortu ahal izateko edo helburu horietara hurbildu ahal izateko eskatzen den koordinazio-mailak eta botere publikoek mobilizatu behar dituzten baliabideen mailak eta lortu nahi den eraldaketaren ondorioek nabarmen gaintzen dutelako autonomia-erkidego baten lurralde-eremua eta erabakitze ahala, edo beste era batera esanda, autonomia-erkidegoaren «interes» eskusiboak (EKren 137. artikulua, interesen eta eskumenen arteko «interrelazio» hori konstituzio-manu horretatik atera da espresuki eta konstituzio-doktrinak espresuki onartu du: esate baterako, 31/2010 KAE, 118. OJ).

Aurreko guztia kontuan hartuta, ondorioztatu behar da **autonomia-erkidegoek ezin dutela aske, isolatu eta bakarka erabaki «trantsizio energetiko» horri helduko ote dioten, eta, hala badagokio, nola helduko dioten, ez eta trantsizio energetikoa noiz lortu behar den ere, *dies ad quem* gisa. Estatuak bakarrik erabaki eta planifika dezake eraldaketa hori, estatuak bakarrik baititu horretarako tresnak. Ez bakarrik**

149.1 artikulua 13., 23. eta 25. zenbakietan aipatutako **eskumenak dituelako**, aurreko 4. oinarri juridikoan aipatutako konstituzio-doktrinaren ondoriozko edukiarekin, baita **Europar Batasuneko gainerako estatu kideekin eta Europar Batasunarekin berarekin koordinatu behar duelako ere**, eskumena baitu gai horretan; izan ere, barruko mugarik ez duen eta salgaien, pertsonen zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea dagoen espazio batean (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 26.2 artikulua), elkarrekin jardunez bakarrik egin dakiok aurre eraldaketa horri.

Alabaina, gogoratu behar da, halaber, uztailaren 22ko 100/2020 KAEk dioena Espainiako gobernuko presidentek hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 23. artikuluari dagokionez jarritako konstituzio-kontraktasuneko errekurtsoren ebazpenari buruz:

Ikuspegi materialetik, **ingurumenaren arloan, oinarrizkoa** denak, Estatuak arlo horretan duen eskumenari dagokionaren aldetik, (...) **“kasu guztietan errespetatu behar diren, baina arlo horretan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek babes-maila altuagoak ezartzeko aukera eman dezaketen gutxienekoen bidez antolatzeko eginkizuna”** betetzen du (urriaren 19ko 170/1989 KAE, 2. OJ; apirilaren 20ko 101/2005 KAE, eta otsailaren 22ko 15/2018 KAE, 5. OJ, besteak beste). Horregatik, 293/2018 Errege Dekretuan plastikozko poltsen kontsumoa murrizteko ezarritako neurriak Estatuko lurralde osoan errespetatu behar dira. Autonomia-erkidegoek ezin dute babes-maila hori jaitsi, ez Errege Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen diren debekuak indarrean jartzeko data atzeratuz, ez eta errege-dekretu horrek eragiten dion poltsa motaren bat debeku hori aplikatzetik salbuetsiz. Hori ez da eragozpen izango, ordea, autonomia-erkidegoek babes-maila handiagoak dituzten arau gehigarriak hartu ahal izateko, egutegia aurreratuz edo haien aplikazio-eremua handituz, betiere xedapen horiek ez badaude beste konstituzio-balio batzuen aurka.

Era berean, **uztailaren 27ko 99/2022 KAEk**, Gaztela eta Leongo ehizari eta baliabide zinegetikoen kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 4/2021 Legeari buruzkoa bera, 3. oinarri juridikoan aztertu du zehatzago **oinarrizkoa denaren kontzeptua**:

b) Oinarrizkoa denaren baldintza materialak.

Oinarrizko arauaren kontzeptu materialak, konstituzio-doktrinak sortua, **hau du funtsezko: «ahaleginak egin behar direla oinarrizkoa denaren definizioa Estatuak libre xedatzeko moduan ez geratzeko, autonomia-erkidegoetako eskumenak edukirik gabe edo Konstituzioaren kontrara murriztuta geratzea galarazteko»** (apirilaren 19ko 69/1988 KAE, 5. OJ). Ikuspegi horretatik, behin eta berriz esan dugu arau bat oinarrizkoa dela «Estatu osoan arau-arloko izendatzaile komun bat bermatzen duenean, zertarako eta modu bateratuan eta berdintasunez interes orokorrak ziurtatzeko; izendatzaile hori oinarritzat hartuta, autonomia-erkidego bakoitzak, bere interesen defentsa, aukera izango du egoki eta bidezko irizten dien berezitasunak sartzeko bere estatutuak esleitzen dion alorreko eskumen-esparruan» (urtarrilaren 28ko 1/1982 KAE, 1. OJ, eta beste epai askoz gehiago) Arau-arloko izendatzaile komun hori ezartzen bada, Estatuak

«ezin du hain xehetasun-maila handiz, eta hain modu burutuan edo osoan ezarri, non ia eragotziko duen autonomia-erkidegoek arlo horretako politika propioak hartzea legeria garatzeko dituzten eskumenak erabilia» (adibidez, apirilaren 6ko 50/1999 KAE, 3. OJ).

Ingurumen-eremuan, auzitegi honek, gainera, irizpide espezifiko batzuk nabarmendu ditu, oinarrizko legeria ikuspegi materialetik ezaugarritzen dutenak. Lehenik eta behin, adierazi dugu ezen, testuinguru honetan, oinarrizkoa denak «gehiago betetzen duela gutxienekoen bitartez ordenatzeko funtzioa, eta gutxieneko horiek beti errespetatu behar direla, baina arlo horretan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek babes-maila altuagoak ezartzeko aukera eman dezaketela» (urriaren 19ko 170/1989 KAE, 2. OJ). Bigarrenik, onartu dugu ezen, nahiz eta Estatuko legegilearen betebeharra izan autonomia-erkidegoei lege-garapenerako tarte uztea, betebehara hori beste eremu batzuetan baino txikiagoa dela (102/1995 KAE, 8. OJ). Horrekin bat etorritik, adierazi dugu, halaber, **arlo horretan, oinarrizkoa dena «ez dagoela arau bakoitzaren orokortasunaren edo zehaztasunaren, abstraktutasunaren edo konkretutasunaren arabera; izan ere, ingurumena babesteko araua oinarrizkotzat hartzeko irizpide erabakigarria arauaren helburu babeslea da»** (denen erakusgarri, urriaren 22ko 148/2020 KAE, 3. OJ). Hirugarrenik, adierazi dugu ingurumen-arloko oinarrizko araudiaren ezaugarria dela arau horrek autonomia-erkidegoko eskumenetan eduki dezakeen eragina, bai ingurumen-arloa garatzeari eta betearazteari buruzko eskumenetan, bai ingurumen-arlokoarekin gurutzatzen diren arau sektorialetan (besteak beste, orain interesatzen zaigunerako, ehiza eta arrantza). Arestian esan dugunez, eragin hori eskumenei buruzko konstituzio-ordenarekin bat etorriko da baldin eta «jarduera sektorialeki mugak ezartzea ekartzen badu, dagokion jarduera sektorialaren ohiko erabilerak izan dezakeen eragin negatiboaren ondorioz»; aitzitik, eskumen-ordena hori urratuko du «estatuko araudiak, jarduera sektorialen muga espezifikoak edo zehatzak ezartzea baino gehiago, irismen handiagoko erregulazioa dakarrenean, are erregulazio horrek ingurumena babesteko xedea badu ere» (azaroaren 4ko 194/2004 KAE, 8. eta 9. oinarri juridikoak, eta beste epai askoz gehiago). Azkenik, adierazi dugu ezen **ingurumenaren arloko oinarrizko antolamenduak ez duela eskatzen nahitaez «oinarrizko esparrua guztiz berdina eta era berekoa izatea estatuko lurraldeko eremu geografiko guztietarako;** izan ere, kontrako tesia ez dator bat oinarrizko eskumenaren logikarekin, azpisektorearen eta tokiaren arloko berezitasunak dituen arlo batean gauzatzen denean eta berezitasun horiek oinarrizko antolamendua berezitasun horietara egokitzea eskatzen dutenean» [uztailaren 7ko 147/1991 KAE, 4 D) OJ, eta uztailaren 11ko 146/2013 KAE, 4. OJ].

Lurralde historikoei dagokienez

Egungo araudiaren arabera, eta aurreproiektu honen xedearekin loturarik ez duten zehaztapen jakin batzuk kenduta, ingurumenaren babesa Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eskumena da, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta haren lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen (LHL) 6. artikulua arabera.

Lurralde historikoei, bestalde, eskumen garrantzitsuak dituzte proiektuak eragiten dien sektore batzuetan; esate baterako, EAEAEren 41. artikulua zerga-arlorako ematen dizkienak; mendiak eta nekazaritza- eta baso-lurzoruak kontserbatzea eta hobetzea (LHLren 7. artikulua

tik 9.era); nekazaritzaren eraldaketa eta garapena (LHLren 7.b,1 artikulua); animalia-ekoizpe-
na (LHLren 7.b,2 artikulua); naturagune babestuei buruzko administrazioa (LHLren 7.c,3 arti-
kulua); suteen aurkako babesa (LHLren 7.c,4 artikulua); lurralde-antolamendua eta hirigintza
(LHLren 7.c,5 artikulua); jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak (LHLren
7.c,6 artikulua); eta errepede bidezko garraioak (LHLren 10. artikulua).

**EAEAEren 10.2 artikuluari buruz, eta lurralde historikoek beren erakundeen antola-
menduari, araubideari eta funtzionamenduari buruz dituzten eskumenei dagokienez,
105/2012 Irizpenean adierazi genuen** –baita Batzordearen 120/2014, 128/2015 eta 138/2015
irizpenetan ere– legeak antola dezakeela foru-administrazioen ohikotzat har daitekeen araubi-
de juridikoa ere, arrazoi honengatik:

... **foraltasunaren muin ukiezina** –EKren lehen xedapen gehigarriak aintzatetsia,
EAEAEren 37.3.a) artikulua eguneratua, eta autonomia-erkidegoaren erakunde komu-
nen eta bere lurralde historikoen foru-organoen arteko harremanen gaineko azaroaren
25eko 27/1983 Legeak (LHL) 7.a).1 artikuluan islatzen duena– **lurralde historikoen
diseinu instituzionala da.**

Haren barne-konfigurazioa eta autogobernurako erakundeen arteko harremanak –bat-
zar nagusiak eta foru-aldundiak– antolatzen dituzten arauak Konstituzioan aintzatesten
zaien autonomia instituzionalaren gordeleku xedaezina dira, eta muga hori gaindiezina
da bai estatuko bai autonomia-erkidegoko legegilearentzat.

**Hala ere, administrazio publikoa denez gero, legegile autonomikoak esku-hartze
bat egin dezake** administrazio autonomiko publiko guztiek parte hartuko duten **ideia
komun baten zerbitzura; horrek esan nahi du horiei guztiei aplikatu dakizkiekeen
printzipioak eta oinarritzko arauak bidera daitezkeela, antolamendu- eta funtziona-
mendu-alderdiei buruzkoak.**

EAEAEren 10.2 artikulua ikuspegitik, lurralde historikoetako foru-erakundeak EAEko
aginte edo botereen parte diren aldetik, **foru-organoen antolamendu-autonomia ez da
eremu gotor eta itxi bat, legegile autonomikoaren edozein ukitu edo eraginekiko
iragazgaitza, baldin eta, betiere, haien antolamendu-ezaugarriak zalantzan jartzen
ez badira, foru-erregimen tradizionalaren irudi identifikagarria lausotzen edo desi-
txuratzen ez bada, konstituzio-xedapenetan euskarri egokia badu, eta funtsezkoa
bada.**

Klima-aldaketari buruzko Legearen lehen aurreproiektua **Arbitraje Batzordearen 2011ko
azaroaren 8ko 2/2011 Erabakiaren** xede izan zen. Erabaki hori Araba, Bizkai eta Gipuzkoako

foru-aldundiek planteatutako eskumen-arazoei buruzkoa da, eta erabaki horren ondorioek EAEko erakunde erkideek dituzten arau-eskumenak bermatzen dituzte:

5. ZO: Eskumen-esparruak, ingurumen eta ekologiar dagokionez zeharkakoa baita, EAEAREN 11.1.a) artikulua bidez eta LHLren 6. artikulua bidez, EAEko Administrazio Publikoek –Lurralde Historikoetako Foru-organismoek barne– bete beharreko arau teknikoak jarraituz helburuak, irizpideak, arauak eta jarraibideak finkatuko dituen Klima-aldaketari buruzko Plana taxutzeko eskumena ematen die Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideei, eta hasieran batean, eskumen-esparru hori egokia da EAAREN barneko eskumen-banaketari begira. Beraz, ez da beharrezkoa aipatu LHL, zuzenean edo zeharka, sektoreko legeria baten bidez aldatzea.

Hori horrela izanda ere, ez da gauza bera arau teknikoak bidez klima-aldaketari lotutako helburuak, irizpideak, arauak eta jarraibideak finkatzea, edo basoen kudeaketari, bertako basoa mantendu edo handitzeari, basoaren inguruko teknikei edo Lurralde Historikoetako Foru-organismoek dagozkien bestelako lotutako neurriak erabakitzea. Ikusi den moduan, Lurralde Historikoetako Foru-organismoek antzeko gai horietan dituzten berriazko eskumenak adierazi eta gauzatu dituzte, kasu honetan, basoak (Lurralde Historikoetako mendietan sartuta), ingurumenaren inguruan gainerako Administrazio Publikoekin beharrezko koordinazioa ukatu gabe (Eusko Jaurlaritza, baina baita udalerrak ere). KALPAREN arabera, koordinazio horren baitan KALPAK erregelamendu bidez EAAREN BEGEN inbentarioa murriztearen inguruan ezarritako helburuak, irizpideak, arauak eta jarraibideak errespetatu beharko dira.

Horri dagokionez, garrantzitsua da ingurumenaren gaineko eskumen-tituluaren zeharkakotasunari buruz jada aurreratu dugun konstituzio-doktrina gogora ekartzea, baliabide natural guztien gainean duen proiektzioa kontuan hartuta. Zeharkakotasun hori agerian geratzen da esku artean dugun gaia –alegia, mendiak– jarduera desberdinen zerbitzura egon daitekeen eta eskumen desberdinen xede izan daitekeen euskarri fisikoa dela ikusi eta gero.

(...)

6. OJ: Konstituzioaren zeharkakotasunaren doktrinari jarraituz, argi dago ezin dela Autonomia Erkidegoari dagokion ingurumen eskumena Lurralde Historikoen esku dauden ahalmenei edukia kentzeko erabili. Hala ere, kasu honi irizpide objektiboa eta teleologikoa aplikatuz gero, lehen aurreratu bezala, ingurumena babesteko gune fisiko zehatz bati beharrezko neurriak aplikatu dakizkion ahalbidetzea eskumen-banaketari egokitzen zaiola ondoriozta dezakegu. Hain zuzen ere, klima-aldaketaren balizko eraginaren egokitzapenak -KALPAREN helburua- foru-eskumenak errespetatu behar ditu, baina eskumen horiek gune fisiko zehatz batzuei bakarrik dagozkien arren, mendiak esaterako, ingurumenaren eskumena betetzea ahalbidetu behar dute, helburu diren emaitzak lortze aldera. Ildo horretatik doa, halaber, Arbitraje Batzordearen 3/2003 Ebazpena, 2. Oinarri Juridikoan aipatu duguna.

Batez ere, KALPak bere onespenerari buruz erabilitako adierazpenek, Lurralde Historikoen Foru-organismoek parte hartzen duten erakunde desberdinekiko beharrezko kontsultek eta sektoreko estrategien eta politiken helburuak finkatu eta integratzeko edukiak EAEren eskumen-banaketaren esparruan ezin hobetu egokitzen direla ikusita, EAE barruko legeriaren arabera.

Udalerriei dagokienez

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (TAOL), 25.2 artikuluan ezartzen duenez, udalerriak, **beti, estatuko eta autonomia-erkidegoetako legerian ezarritako moduan**, txosten honen xede den proiektuarekin lotutako ondorioetarako, intereseko gai hauetako **eskumenak izango ditu**: ibilgailuen trafikoa eta bidaiarien garraio publikoa antolatzea; suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea; hirigintzaren antolamendua eta kudeaketa; **ingurumenaren babesa**; eta herriko argiteria eta hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua.

Lege beraren 2. artikuluan xedatzen denez, "Konstituzioak toki-erakundeei bermatzen dien autonomia eraginkorra izan dadin, Konstituzioak ezarritako eskumen-banaketaren arabera herri-ekintzako arloak arautzen dituzten estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriek ziurtatu beharko diete udalerriri, probintzia eta uharterei beren interesen esparruari zuzenean eragiten dioten gai guztietan esku hartzeko eskubidea, eta kasuan kasuko herri-jardueraren ezaugarrien arabera eta toki-erakundearen kudeaketa-gaitasunaren arabera eskumenak eman, deszentralizazioa eta administrazio-kudeaketa herritarrei ahalik eta gehien hurbiltzea printzipiotzat hartuta".

Legeak esleitzen dizkien **behar besteko baliabideak izateari dagokionez** (EKren 142. artikulua), Konstituzio Auzitegiak apirilaren 13ko 104/2000 KAEn adierazten duenaren arabera, "autonomiaren printzipioa («beren interesak kudeatzeko», EKren 137. artikulua arabera), Estatuaren lurralde-antolamenduak buru duena, konstituzio-ordenamenduaren funtsezko oinarrietako bat da (uztailaren 28ko 32/1981 KAE, 3. OJ), eta ikuspegi ekonomiko nabarmena eskaintzen du; izan ere, nahiz eta izaera instrumentala izan, bitarteko asko izateak baldintzatzen du helburuak lortzeko benetako aukera (urriaren 5eko 135/1992 KAE, 8. OJ). **Toki-erakundearen autonomia, beraz, beren finantza-nahikotasunari estuki lotuta dago, finantza-bitartekoen erabateko eskuragarritasuna eskatzen baitu legez, eman zaizkien eginkizunak gauzatu ahal izateko, behar ez bezalako baldintzarik gabe eta bere osoan** (KAE: 179/1985, abenduaren 19koa, 3. OJ; 63/1986, maiatzaren 21ekoa, 11. OJ; 201/1988, urriaren 27koa, 4. OJ; 96/1990, maiatzaren 24koa, 96/1990, 7. OJ eta 14. OJ; 13/1992, otsailaren 6koa, 6. OJ; 132/1992, irailaren 28koa, 8. OJ; 237/1992, abenduaren 15ekoa, 6. OJ; 331/1993, azaroaren 12koa, 2. eta 3. OJ; 68/1996, apirilaren 18koa, 10. OJ; 171/1996, urriaren 30ekoa, 5. OJ; 166/1998, uztailaren 15ekoa, 10. OJ; eta 233/1999, abenduaren 16koa, 22. OJ); hau da, Konstituzioaren artikulua hauetan aitortutako autonomia gauzatzea ahalbidetzeko eta bermatzeko, azken batean: EKren 137., 140. eta 141. artikuluetan (KAE: 96/1990, maiatzaren 24koa, 7. OJ; 331/1993, azaroaren 12koa, 2.B OJ; 233/1999, abenduaren 16koa, 22. OJ; eta 382/1993 KAA, abenduaren 1ekoa, 4. OJ))".

Aurrekoaz gain, kontuan izan behar da **apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko toki-erakundeei buruzkoak (ETEL), eskumenak esleitu dizkiela EAEko toki-erakundeei arlo hauetan: ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea**, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta (ETELen 17.1.8 artikulua).

67/2023 ABJI, par.: 75-88

VI. **Gizarte Segurantzaren sartzeko ez diren mutualitateak (EAEAE, 10.23 artikulua)**

Hasteko, esan dezakegu proiektuak otsailaren 20ko 87/1984 Dekretua, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua eta urriaren 27ko 203/2015 Dekretua babesten dituen eskumen-babes bera duela.

Ilido horretatik, gure 142/2015 Irizpenean esan genuenez, aipatu dekretuetatik azkena aztertuta baikenuen, **aurreproiektuaren funtsezko eskumen-oinarria Autonomia Estatutuaren (EAEAE) 10.23 artikulua da**, eskumen eskusiboa ematen baitio Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) alor honetan: “Kooperatibak, Gizarte-segurantzaren sartu gabeko lagunaroak eta elkarlaguntzako elkarteak, merkataritza-arloko legeria orokorrarekin bat”.

Eskumen horrekin batera, orduan gogoratzen genuenez, **tartean ziren, era berean, EAEEn 11.2.a) artikulua EAERI ematen dion eskumena**, hots, “...Estatuaren oinarritzako legeria lege bidez garatu eta bere lurraldean betearazteko, honako gaietan: a) Kredituaren antolamendua, bankuak eta aseguruak”, **eta EAEEn 10.25 artikulua aitortzen duen eskumen eskusiboa**, hau da, “Euskal Herriko ekonomiaren sustapena, garapena eta plangintza, ekonomiaren antolamenduaren arabera”.

Eta, era berean, aipatu irizpenean –eta, lehenago, 161/2011 Irizpenean, BGAELren aurreproiektuari buruzkoan– **Estatuaren eta EAERen arteko eskumen-mugaketaren konplexutasunari buruz hausnartu genuen, Konstituzio Auzitegiak** “Gizarte Segurantzaren integratu gabeko mutualismoaren” arloko eskumen autonomikoari buruz emandako hainbat erabaki gogora ekarrita.

Ez da egokia orain errepikatzea **Konstituzio Auzitegiaren doktrina bat**, harrezkero aldatu ez dena eta **ekainaren 12ko 97/2014 Epaian (KAE)** laburbildu zena, hain zuzen ere BGAELri buruzkoa.

Baina bidezko da bertatik ateratzen diren ondorio nagusiak gogoraraztea, laburpen gisa:

- a) **EAEko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hala nola gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, aseguru-jarduera bat egiten duten heinean, Konstituzioaren 149.1.11 artikuluan aurreikusitako eskumena egikaritzuz emandako Estatuko araudiaren mende daude**, hau da, “kredituak, bankuak eta aseguruak antolatzeko

oinarriak”.

- b) **Estatuak aseguru-jarduera arautzeko ematen dituen oinarritzko arauak gizarte-aurreikuspeneko mutualismoaren berezitasuna errespetatu beharko dute;** eta, gainera, oinarritzko arau horrek **ezin izango du eraginik izan mutualitate horien egitura eta funtzionamenduari buruzko erregimen juridikoan,** zeina —eskumen eskusiboak bereganatzearen poderioz— autonomia-erkidegoen eskumen-eremuaren barruan geratu baita.
- c) **Aseguru-jarduera egiten duten BGAEak Aseguru Pribatuen Antolamenduari eta Gainbegiratzeari buruzko Legearen testu bateginean ezartzen diren betekizunen mende egon behar dira** —testu bategin horrek oinarri izaera baitu, formalki eta materialki, EKren 149.1.11 artikulua arabera—, izaera juridikoa eta erabateko gaitasun juridikoa zein jardutekoa eskuratu dezaten. Estatuak aseguru pribatuak antolatzeko eta gainbegiratzeko arloan duen oinarritzko araudiari egokitu behar zaizkio kaudimen-tartearen erregulazio autonomikoa, hornidura teknikoak eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen inbertsio-printzipioak.
- d) **Gizarte-aurreikuspeneko planak pentsio-plan eta -funtzen eremu materialean kokatu behar dira,** eta horrek esan nahi du, eskumenen ikuspegitik, **alde batetik, merkataritza-eskumenari eragiten zaiola, eta Estatuak bere legeria ezartzeko eskumena duela arlo horretarako (149.1.6 artikulua),** izaera horretako kontratu baten obligazio-erakunde arautu nahi denean, eta, **bestetik, aseguruaren arloko eskumena, zeinari dagokionez Estatuari esleitzen baitzaio hura antolatzeko oinarriak ezartzeko eskumena (149.1.11) artikulua);** autonomia-erkidegoek, berriz, oinarritzko arau horien lege-garapenerako eta betearazpenerako eskumena dute.

Eta, era berean, jurisprudentzia horren guztiaren azterketatik atera genituen ondorioak errepikatu nahi ditugu, **142/2015 irizpenean** onartu genuelako Gobernu autonomikoak gaitasuna zuela BGAEaren erregelamendu-garapena onartzeko, eta, aldi berean, adierazi genuenez, garapen hori baldintzatuta dago “bereziki EKren 149.1.11 eta 6 artikuluan, eta, neurri txikiagoan, 149.1.13 artikuluan, babesa duten eskumen-tituluak egikaritzuz Estatuak onartutako legeriarekin”.

Halaber, aplikatu beharreko eskumen-esparrua zehazteko, **garrantzitsua da Auzitegi Gorenaren azaroaren 30eko 1880/2017 Epaia (AGE)** aipatzea, zeina Kataluniako Generalitateak aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioan eman baitzuten.

Epaiaren hirugarren oinarri juridikoan, Auzitegi Gorenak honako hau dio:

Generalitateak behin eta berriz argudiatu du gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak ez direla berez merkataritza-arauen bidez arautzen, ez direlako irabazi-asmoa duten erakundeak, eta beren bazkideen arteko elkartasun-sistema bati erantzuten diotela, irabazi-asmo hori alde batera utzita, eta, beraz, ez direla Merkataritza Zuzenbidearen mendeko kapital-sozietate, baizik eta Zuzenbide Zibilaren edo, hala badagokio, Administrazio Zuzenbidearen mendeko elkarte-erakunde. Hala ere, argudio horren aurrean, egia esan, **konfigurazioaren eta araubide juridiko positiboaren ikuspuntutik, orain**

axola zaiguna baita, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak erakunde pribatuek aseguru-jarduera gauzatzeko har dezaketen moduetako bat dira, hain zuzen ere nahitaezko Gizarte Segurantzaren sistemaren osagarri den borondatezko aseguru-modalitate batean, eta, ildo horretatik, zorrotasun osoz kalifikatu daitezke aseguru-enpresa gisa, halakotzat hartuta Merkataritza Zuzenbidearen eremuaren barruan mugitzen direnak, Merkataritza Zuzenbidetzat hartuta merkatuko operadoreen jarduera diziplinatzen duen eremu juridikoa, merkatuko operadoreek edozein jarduera ekonomiko egiten dutenean produkzioarako edo merkaturako ondasunak aldatzeko edo zerbitzuak emateko, eta ez soilik irabazi-asmoaren gidaritzapean dauden enpresaburuen edo merkatarien jarduera.

Ildo horretatik, ezin da alde batera utzi, Auzitegi Gorenaren Lehen Salaren 2007ko azaroaren 8ko epaiak (RC 4341/2000) azaltzen duenez, **gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen jarduketa baldintzatzaera etorri direla bi hauek, elkarri eraginez: bazkideen aseguratu izaeratik datozen eskubideak, eta aldi berean mutualista izatearen ondoriozko eskubideak, mutualista eta aseguratua ezin baitira bereizi.** Mutualista izatearen eta aseguru-hartzaile edo aseguratu izatearen arteko lotura hori dela eta, ulertzen da ezen, deusetan galarazi gabe mutualistari bazkide gisa aplikatzekoak zaizkion arauak, aseguru-kontratua zuzentzen duen araudia aplikatu behar zaiola aseguru-hartzaile edo aseguratu izatearen ondoriozko harreman juridikoari, hargatik eragotzi gabe mutualitatearekin hitzartutako erregelamenduetan edo polizetan adostutako itunak, baldin eta bateragarriak badira aseguramendua kudeatzeko baliatzen den izaera kolektibo eta mutualari datzekion printzipioetatik eratorritako araubide espezifikoarekin. Hain zuzen ere, aseguru-jardueran ari diren erakundeak direlako, datu horretatik ondorioztatzen da Estatuak haien erregulazioari ekiteko aukera, jakina, asegurua antolatzeko oinarriak finkatuta (149.1.11 artikulua), baina baita beste eskumen-titulu batzuen bitartez ere, hala nola merkataritza-legeria edo jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, Konstituzioaren 149.1 artikulua 6. eta 13. paragrafoen arabera ...

192/2023 ABJI, par.: 30-38

VII. Bere autogobernu-erakundearen antolaketa, araubidea eta jarduera (EAEAE, 10.2. art.)

Aurreproiektuaren 8. eta 9. artikuluen edukari helduz eta lurralde historikoen kasura mugatuta, aurreproiektuak irismen desberdina duen erregulazio bat marrazten du.

Gardentasunaren arloan, bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu lurralde historikoak –foru-administrazioak, horiei dagokien erakunde-administrazioa, eta mendeko eta atxikitako gainerako erakunde instrumentalak, bai eta Batzar Nagusiak ere–, eta ez du bermatzen, ezta ere, euskal herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eta publizitate aktiboaren arloko arau-eskakizunak betetzeko duten eskubidea –Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak gauzatzeko duena–, **eta informatzaileentzako babesa –2/2023 Legean aurreikusia eta**

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari ere esleitzen zaiona–, berriz, foru-administrazio horietan (Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikulua) eta lurralde historikoetako Batzar Nagusietan **proiektatzen da**.

Gardentasunari dagokionez, 120/2014 Irizpenean, **Batzordeak onartu zuen posible zela aurreproiektuaren aplikazio partziala foru-administrazioetara ere hedatzea**, “horrek aukera emango lukeelako, agian, euskal botere publikoei eta euskal administrazio guztiei buruzko ikuspegi orokorra goa eta koherenteagoa helarazteko”, baina, era berean, “aukera legegile balioduna zen ikuspegi juridikotik ere, beren-beregi bazterten baitzuen hori foru-administrazioei aplikatzea”.

Legebiltzarrak estandar komun eta homogeen bat ezar dezake EAEko administrazio publiko guztientzat, batez ere erregulazioaren xedea euskal administrazioen eta herritarren arteko harremanetan printzipio komun batzuk nagusi izan daitezzen bermatzea denean. Honako honen bidez bermatu da erregulazio hau: **Arbitraje Batzordearen ekainaren 20ko 1/2019 Erabakia**, 1/2019, 2/2019, 3/2019 eskumen-gaiei buruzkoa; Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu zituzten horiek, hurrenez hurren, EH Bildu legebiltzar-taldeak egindako jardunbide egokien eta ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeko lege-proposamenari dagokionez.

Bestelako irizpidea du, ordea, independentea izan arren efikaza izatea ahalbidetzen dioten ahalak eta gaitasunak dituen eta halako harremanak zuzentzeko araudia betetzen dela bermatzeko jomuga duen erakunde bat diseinatzeari dagokionez.

Hori irakurrita, ondorioztatzekoa da **Arbitraje Batzordearen aburuz**, orokorrean **ez litzatekeela bat etorriko lurralde historikoen eta erakunde erkideen arteko eskumen-banaketa-aren eskemarekin, baldin eta lurralde historikoak izango balira hartzaileak.**

Bestalde, 1/2019 Erabaki horrek esanahi berezia ematen dio foru-lurraldeek jada foru-administrazioarekin lotutako tutoretza-eginkizun hori bera gauzatu dezaketen erakundeez hornitu izanari (baliteke bikoiztasun funtzionaleko kasuak gertatzea hala izanez gero).

Era berean, garrantzitsua da nabarmentzea Arbitraje Batzordeak ez duela uste, kasu hartan, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) diharduten eta euren aplikazio-eremua administrazio eta mendeko erakunde guztietara hedatzen duten beste organo eta egitura publiko batzuen parekoa denik:

ez dira asimilagarriak, eta ez diote eragiten foraltasunaren gune ukiezinari, oinarritzat dituzten estatutu- edo lege-mandatuen arabera eta arestian azaldu dugun moduan; gainera, eskumen-titulu bat dute euskarri.

Arartekoaren instituzioa Euskal Autonomia EAEAEaren 15. artikuluan dago jasoa, zeinak, EKren 54. artikulua bezala, Herritarren Babeslearen antzeko organo bat sortzea

aurreikusten baitu, hark esleituak dituen eginkizunak eta Eusko Legebiltzarrak esleitezazkiekeen beste edozein beteko dituen. Estatutu-mandatu horren babesean sortu zen Arartekoaren figura, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 27ko 3/1985 Legean, zeinak, 9. artikulua araberaz, lurralde historikoetako administrazioa ere hedatzen baitu bere jarduketaren eremua, haren organismo autonomoak, sozietate publikoak eta gainerako ente publikoak barne. Beraz, EAEn eskumen-eremu propio eta espezifikoen barruan sortu zen.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, zeina Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legean arautzen baita –eta hura aldatu du martxoaren 1eko 6/2012 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren gehiengoko partaidetza edo finantzaketa daukaten erakundeak arautze aldera Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzekoak–, EAEn 10. artikulua 24. apartatua eta LHLren 30. artikulua du oinarria –azken horrek euskal sektore publikoko jardura ekonomiko eta finantzarioak fiskalizatzen dituen organo goren gisa konfiguratu du, eta haren jurisdikzioa EAEn lurralde osora zabaltzen du–.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen bidez sortua, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren babesean egin da, zeinak, 95/46/EE Zuzentarauaren 28. artikulua jarraituz, xedatzen baitu agentzia horri esleitutako eginkizun gehienak, baldin eta eginkizun horiek autonomia-erkidegoek eta haien lurralde-eremuko toki-administrazioak sortutako edo kudeatutako datu pertsonalen fitxategiei eragiten badiete, erkidego bakoitzeko organoek beteko dituztela.

Azkenik, Lehiaren Euskal Agintaritza sortu da EAEn 10.27 artikulua barruko merkataritzaren arloan EAEn ematen dion eskumenetik, eta 1999ko azaroaren 11ko Epaia du euskarri, zeinaren bidez barruko merkataritzaren arloan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoei baitagokio lehia askeari lotutako gaitan esku hartzeko, baimena emateko edo zigortzeko eginkizun exekutiboak betetzea, betiere Europar Batasunaren barruko esparruetan egiten diren edo erkidegoaren lurralde-eremuari dagokion merkatura mugatuta dauden jardunbideak badira.

Beraz, ez dago alegatu nahi izan den paralelismoa.

Laburbilduz, horrek guztiak esan nahi du lehen aukerak, gardentasunaren arloan erabateko bazterketa eragiten duenak, ez duela inolako eragozpenik sortzen.

Informatzailea babesteari dagokionez, adierazi dugun bezala, **2/2023 Legearen laugarren xedapen gehigarriak berariaz aurreikusten du, lurralde historikoetako Administrazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan eskumena duten erakundeek gauzatu ahalko dutela kanpoko kanalaren bidezko izapidetzea, autonomia-erkidegoko araudian xedatutakoari jarraikiz.**

GGOLk [19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa] ez du ezer ere adierazten horri buruz, eta hasiera batean Autonomia Erkidegoak zehazten duen organo independenteari buruz ari da, baina hori ez da oztopo izan, Autonomia Erkidegoaren erakunde-arkitektura eta lurralde historikoen eskumenak kontuan hartuta, lurralde historikoek eurek ere antzeko erakundeak ezartzeko.

Hala eta guztiz ere, **informatzailea babestearen arloan, araugile autonomikoari erakunde eskuduna zein den erabakitzeke eskatzen zaio.**

Eta zeregin horretan, esan bezala, **aurreproiektuak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari esleitzen dio** kanpoko kanal gisa jarduteko eginkizuna, bai eta agintaritzaren independenteak informatzailea babesteko neurriak hartzeko, zehapen-prozedurak izapidetzeko eta zehapenak ezartzeko dituen gainerako eskumenak ere.

Aztergai dugun kasuan ere, **Batzordearen aburuz, justifikatuta dago lurralde historikoei aplikatzeko modukoa izatea.**

Lehenik eta behin, ezin da ukatu paralelismo bat dagoela Arbitraje Batzordearen 1/2019 Erabaki partzialki transkribatuan aipatutako organo eta egiturekin, **2/2023 Legearen babesean sortu baita, eta Europako araudiak ezarri baitu haren sorrera [2019/1937 (EB) Zuzentaraua**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko urriaren 23koa, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa].

Bigarrenik, **ez dago bikoiztasun funtzionalerako arriskurik Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren eta lurralde historikoen eremuan eginkizun horiek esleituta dituzten erakundearen artean, azken horiek ez baitira sortu.**

Zuzentarauaren barneko eta kanpoko kanalaren eremuan, foru-administrazioek eta haien sektore publikoak dagokien barneko informazio-sistema diseinatu beharko dute, eta, horri esker, arduradunak haien enplegatu publikoen jardunbide irregularren jakinarazpenak jaso ahalko ditu, baita neurri egokiak hartu ere.

Azkenik, **agintaritza independenteak sektore pribatuaren eremura zabalduko du bere jardun-eremua**, ez-betetzea autonomia-erkidegoaren lurralde-eremura mugatzen den kasuetarako.

Sektore pribatuan gerta litekeen eragin horrek gaintitu egiten du lurralde historikoek euren burua antolatzeko duten eskumena, eta justifikatuta dago, zalantzarik gabe, administrazio independente autonomiko bati esleitzea informatzailea babesteko kanpoko kanalaren izaera.

179/2023 ABJI, par.: 149-168

5. Kapituluia. ARLOAK

I. Administrazio Publikoa

A) Administrazio independentea

Ekimenaren inpaktu ekonomikoaren balorazioari dagokionez (adierazitakoaren arabera, gure azterketaren alderdi garrantzitsuenetako bat da inpaktu ekonomikoa), **Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (KEB) txostenak**, laburbilduz, honako honi buruzko hiru ohar nagusi proposatzen ditu: erakunde berriaren tipologia, prozedura eta kide anitzeko organoak sortzea.

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren tipologiari dagokionez, txostenak dio ez direla kontuan hartzen ESPLk 10. artikuluan «**administrazio independente**» deritzona taxutzeko jasotako erakunde instrumentalen kategoriak.

Espedientean, organo sustatzaileak garrantzizko arrazoiekin azaldu du zergatik deritzon Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza administrazio independente gisa eratu behar dela, ESPLren 10. artikuluan bildutako erakunde-tipologia alde batera utzita.

Geroago testuaren azterketan azalduko dugun bezala, **Batzordeak** –182/2022 Irizpenaren argudio-oinarri berarekin– **uste du aukera hori posible dela, etorkizuneko arauak izango duen lege-maila kontuan izanik.**

Prozedurari dagokionez, KEBek adierazi du kasu honetan jarraitutakoa bereizi egin dela Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak (ESPL) 43. artikuluan ezarritakotik.

Batzordearen aburuz, **tipologiari buruz ateratako ondorioak ez du esan nahi Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraz bestelako erakunde batzuk sortzeko prozesua** –arestian aipatutako ESPLren 43. artikuluan ezarritakoa– betetzetik salbuetsita geratzen dela.

Alabaina, ESPLren 43. artikulua **administrazio independenteak sortzeko kasuetarako duen aplikagarritasunari buruzko eztabaida alde batera utzita**, kontuan hartu behar da bertan ezarritako araubidearen helburua zera dela, **bermatzea erakunde berriak sortzeko erabakia** –eta garrantzi instituzionala handitzeko erabakia– **aldez aurretik hausnartzeko ad hoc prozesu bat egongo dela, antolaketa-aukeraren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatze aldera.**

179/2023 ABJI, par.: 92-98

Beste batzuetan jada adierazi dugun bezala, **botere publikoek beren burua antolatzeke duten ahala antolamendu politiko ororen funtsezko printzipioa da; izan ere, haietako bakoitzari dagokio antolaketa- eta pertsonifikazio-modu zehatzak zehaztu eta hautatzea**, horien bidez interes orokorrak ahalik eta hobekien eta modurik eraginkorrenean lortzen saiatzeko, interes horiek betetzeko ardura baitu.

Antolamendu-aukera horiek, sortzen direnean, arauak horretarako aurreikusten dituzten prozeduretara egokitu behar dute, eta, antolatzeke modu zehatzari eta, hala badagokio, pertsonifikazioari dagokionez, ordenamenduak aurreikusten dituenen artean aukeratu behar da, dagokion organoa edo erakundea sortzearekin lortu nahi den helburua kontuan hartuta.

Aztergai dugun kasuan, hautaketa baldintzatuta dago esleitzen zaizkion eginkizunengatik, (I) batetik, informatzaileak babesteko administrazio-agintaritza independente gisa, otsailaren 20ko 2/2023 Legean –Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzekoa– jasotakoari jarraikiz (izan ere, euskal sektore publikoko administrazio, organismo eta erakunde guztietara eta erakunde pribatuetara hedatzen du lege horrek haren jarduketa-eremu funtzionala), lege honen 9. artikulua arabera betiere; (II) eta bestetik, euskal herritarrei informazio publikoa eskuratzeko eta lege honen 8. artikuluan ezarritako aplikazio-eremuan gardentasunari eta bidezkotasunari buruzko arau-eskakizunak betetzeko duten eskubidea bermatzeko agintaritza publiko gisa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauak –Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoak– eskumena ematen die estatu kideei zehazteko zein agintarik duten eskumena zuzentarau horren aplikazio-eremuaren barneko arau-hausteei buruzko informazioa jasotzeko eta salaketei behar bezala jarraitzeko.

64. kontuan hartuzkoaren arabera, agintari eskudun horiek honako hauek izan litezke: agintari judizialak, kasuan kasuko esparru zehatzetan eskumena duten erregulazio- edo ikuskapen-erakundeak, estatu kide baten barruan eskumen orokorragoa duten agintariak, zuzenbidea betetzeaz arduratzen diren agintariak, ustelkeriaren aurka borrokatzeke erakundeak eta Arartekoak/Herriaren Defendatzaileak.

Zuzentarauaren 11.1 artikulua, kanpoko salaketa-bideei buruzkoak, xedatzen du estatu kideek agintari eskudunak izendatuko dituztela salaketak jasotzeko eta horiei erantzun eta jarraitzeko, eta baliabide egokiak emango dizkietela. Bestalde, 12.1 artikulua ezartzen du kanpoko salaketa-kanalak independenteak eta autonomoak direla, betiere honako irizpide hauek guztiak betetzen badituzte: a) informazioaren zehaztasuna, integritatea eta konfidentziasuna bermatzeko moduan diseinatu, ezarri eta kudeatuko dira eta agintaritza eskuduneko langileei informazio hori eskuratzeko galaraziko zaie baimenik ez badute; b) informazioa iraunkorki gordetzeko aukera emango dute, 18. artikuluari jarraikiz, ikerlan berriak egite aldera.

Zuzentarauaren transposizioan, otsailaren 20ko 2/2023 Legeak –Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzekoak–, Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentea (IBAI) sortu zuen (agintaritza sortu berri bat, ustelkeriaren aurkako borrokaren funtsezko elementu instituzionala dena), eta bermatu egiten du antzeko agintari independente autonomikoek ahala izango dutela kanpo-kanalak eramateko, laguntza-neurriak hartzeko eta zehapen-ahala egikaritzeko.

IBAI [Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentea] estatu-mailako zuzenbide publikoko erakunde bat da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa duena. Gobernuarekiko, sektore publikoa osatzen duten erakundeekiko eta botere publikoekiko autonomia eta independentzia organiko eta funtzional osoz ariko da bere jardunean, bere helburuak betetzeko eta bere eginkizunak gauzatzeko (42. artikulua).

Bigarren eremu funtzionalari dagokionez, gardentasunaren arloko araudia betetzen dela bermatzeko agintaritza publikoa den aldetik, Estatuaren antzeko erakunde bat sortu nahi dela ere sumatzen da: Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseilua, hain zuzen ere.

GGOLren [19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa] 33. artikulua erakunde publiko gisa eratzten du, nortasun juridiko propioaz, eta autonomiaz eta independentzia osoz jarduteko ahalmenez bere helburuak betetzeko. Eta GGOLren laugarren xedapen gehigarriaren arabera, irispidearen esparruko erreklamazioaren ebazpena autonomia-erkidegoetako administrazioek eta haien sektore publikoak eta haien lurralde-eremuko toki-erakundeek emandako ebazpenen kasuan, autonomia-erkidegoek zehaztutako organo “independenteari” egokituko zaio.

Zalantzarik gabe, **aurreproiektuak errespetatu egiten du Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren ezaugarri gisa finkatu behar den independentzia-eskakizun hori**, haren konfigurazioa (aurreproiektuaren 69.1 artikulua) eta izaera (aurreproiektuaren 70. artikulua) kontuan izanik.

Alabaina, Batzordeak berretsi egin behar du 182/2022 Irizpenean adierazitakoa, autonomia-erkidegoko beste agintaritza independente baten kasuari buruzkoa, zeinarekin aztertzen ari garen agintaritzak funtsezko paralelismoa baitu, bereziki jarduera publikoa bera ikuskatzeko eta kontrolatzeko jarduerari dagokionez:

Gure barne-ordenamenduan, administrazio independenteen existentzia ez da oraintsukoa, baina bai horien katalogazioa, dagokion erakunde-sektorearen esparruan.

Hala ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak (109. eta 110. artikulua) administrazio-agintaritza independenteen katalogazioa egiten du, eta hori ez dator bat Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 10. artikulua aurreikusten duenarekin; izan ere, kasu honetan, agintaritza horiek, norta-

sun juridiko propioa badute –Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren kasuan bezala–, “erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen edo partzuergoen figurak” hartu behar dituzte.

Prozeduraren azterketan ikusitakoaren arabera, aurreproiektua arau horretatik bereizten da.

Esan dugun bezala, paradoxiko samarra da Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legea indarrean jarri ondoren erakunde bat sortzeko onartu zen lehen araua lege horretan ezarritako eskematik bereiztea. Bestalde, beste agintaritza independente batzuk ere badaudela egiaztatu da –adibidez, Lehiaren Euskal Agintaritza–, eta horiei ere independentzia-dosi handiak eskatzen zaizkie; hala eta guztiz ere, euskal sektore publikoan ezarritako ereduari jarraitzen diote, eta erakunde autonomo gisa eratuta daude –otsailaren 2ko 1/2012 Legea–.

Independentzia izateko, gainbegiratze- eta kontrol-mekanismoetatik salbuetsita egon behar dute, baldin eta mekanismo horiek eragina izan badezakete funtzioak betetzean bete behar duten **neutraltasunean**. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalarekiko independentzia edo autonomia berezia, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren kasuan, bereziki sendotu behar da agentziaren jarduerara ez denean jarduera publikotik kanpoko jardueretan proiektatzen, baizik ere jarduera hori garatzeko behar diren datuen tratamenduetan.

Baina, lege-eredutik bereizteak organo sustatzaileari ezartzen dizkion justifikazio-eskakizunei kalterik egin gabe, egia esan, proiektaturiko arauaren lege-mailak aukera ematen du aurreproiektuan jasotako konponbidea lortzeko, eta, bestalde, DBEOK agintaritzari datuen babesa kontrolatzeko ematen dizkien funtzio eta ahalmenen garrantzia, zehaztasuna eta zabaltasuna kontuan hartuta, ezin da arrazoiz kanpokotzat jo Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko aurreproiektuaren konponbidea.

Hala ere, Batzorde honen ustez, 3/2022 Legeak sektore publikoarentzat ezartzen duen eskema instituzionalarekin bat ez datorren beste kasu bat gertatuz gero, gomendagarria litzateke arau hori berariaz aldatzea, .

Laburbilduz, **Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren kasuan bezala, Batzordeak posible ikusten du Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza administrazio independente gisa sortzea, nortasun juridiko propioarekin eta erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko edo partzuergo baten forma hartu gabe, baina berriro adierazi behar du komeni dela azaldutako aldaketa-gomendioa aintzat hartzea.**

Horrekin batera, Batzordeak zehaztu egin behar du administrazio independentearen figura adierazitako kondizioetan onartzeak **ezin duela ekarri**, prozeduraren azterketan adierazi den bezala, **ESPLk erakundeak sortzeko ezartzen dituen izapideak betetzetik salbuetsita geratzea**.

179/2023 ABJI, par.: 532-544

B) Kargu publikodunak

45. artikuluan, 2. eta 3. apartatuek ilundu egiten dituzte **erantzulea hautatzeko arauak**.

“EAEko sektore publikoko goi-kargudunak edo zuzendaritza-kideak” esamoldea erabiltzeari dagokionez, gogoeta orokorragoa egin behar da zehapen-araubidearen eremu subjektiboa mugatzeko —eta hori ez da kontu erraza— .

“kargu publikoduna” kontzeptu zabala da eta, besteak beste, goi-kargudunak biltzen ditu —2. artikulua, 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituena—. Lege-arau horrek zehapen-araubide bat biltzen du, zeina, alderdi substantiboetan —ez, ordea, prozedurari dagokionez— aurreproiektuan ezarritako araubideak alde batera utziko baitu.

Izan ere, arau-hauslea goi-karguduna denean, aurreproiektuko 46. eta 47. artikuluetan ezarritako arau-hausteak eta zehapenak aplikatuko zaizkio, baina dagokion zehapena ezartzeko prozedura “Gobernuko kideen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko goi-kargudunen batezintasun-araubidea” izango da (48.2 artikulua). Gaur egunean, araudi hori ekainaren 26ko 1/2014 Legea da, eta lege hori berariaz aipatzeko aukera kontuan hartu beharko litzateke.

Bestalde, **ESPLren 13. artikulua 4. apartatuak zehaztu egiten du nortzuk diren EAEko goi-kargudunak: sailburuordeak, zuzendariak, idazkari nagusiak, Euskadik kanpoan dituen ordezkari edo delegatuak, organismo autonomoetako eta zuzenbide pribatuko ente publikoetako lehendakariak, zuzendariak eta legeren batek zehaztutako beste edozein pertsona.**

Abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, Euskal Enplegu Publikoarenak (LEPV), 26. artikuluan zehaztu ditu enplegatu publikoen motak —funtzionarioak (karrerakoak edo bitartekoak), lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak) eta behin-behinekoak— , eta 31. artikuluan sortu du kategoria hau: “zuzendaritza-kide publiko profesionala”.

Zuzendaritza-kide publiko profesional horiek zuzendaritza-postuak betetzen dituzten pertsonak hartzen dituzte barne (gobernu-maila bakoitzeko zuzendaritza politikoaren azpiko lehen maila izango litzateke).

Aurreproiektuaren ondorioetarako, garrantzitsua da EEPLk, diziplina-araubidearen eremu subjektiboa mugatu duenean (172. artikulua eta hurrengoak), funtzionarioei, lan-kontratudunei (172.2 artikulua araberan) eta zuzendaritza-kide publiko profesionali aplikatzea erabaki duela.

Testuinguru horretan, **aurreproiektuan “goi-kargudunak edo zuzendaritza-kideak” esamoldearen erabilera** (45.2 eta 47.2 artikuluetan) ñabartu egin beharko litzateke.

Zehaztasuna garrantzitsua da, aurreproiektuaren zehapen-araubidea edo EEPLn ezarritakoa aplikatzeko ildo zehazteko aukera ematen baitu: bi eremu subjektibo horiek bat etorri beharko lukete gerora ez dadin arazorik gertatu aplikatzean.

179/2023 ABJI, par.: 391-400

C) Kide anitzeko organoak

Azkenik, Estatutuen 7.2 artikulua aurreikusitako azken araua berriz aztertu behar da. Hauxe dio:

Diputatu nagusi batek bere lurralde historikoko kideak aukeratzen ez baditu, eta eskatu arren ere aukeratzen ez baditu, kopuru hori gainerako lurralde historikoen izendapenei gehituko zaio, betiere haien arteko eta Administrazio Orokorrarekiko parekotasun-arauari eutsiz. Kiderik aukeratu ez duen lurraldeak edozein unetan aukeratu ahal izango du, ordezkapena antolatze behar besteko aurrerapenarekin jakinarazita. Ordezkapena Administrazio Kontseiluaren bilkura bat egin baino hilabete lehenago egin beharko da, gutxienez

Arau hori uler daiteke gizarte-interesak ordezkatzeko dituzten antolakundeek kide anitzeko organoetan parte hartzea arautzen denean; izan ere, parte-hartze hori eskubidetzat hartzen da, ez betebehartzat, eta, beraz, eskubide hori egikaritzeari uko egin diezaiokete, beste erakunde baten mesedetan.

Zenbait administrazioetako ordezkariak eginkizun kolegiatu jakin batzuetan parte hartzeaz ari bagara, ordea, horrek esan nahi du eskumen bat legez edo erregelamenduz esleitzen dela, eta, horregatik, ezin zaiola uko egin eskumen horri, Sektore Publikoaren

Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 8.1 artikulua eta ESPLren 22.1 artikulua araberaz.

Nolanahi ere, **ezin zaio foru-aldundi bati esleitu beste baten ordezkaria, ordezkari moduko batean, ez agertzeagatik.**

145/2023 ABJI, par.: 104-107

Azkenik, KEBen txostenak gogorarazten du, era berean, **ESPLren 18. artikulua ezarritako justifikazioa aurkeztu behar dela kide anitzeko organoak sortzeko** —gardentasunaren arloan sailen arteko koordinaziorako kide anitzeko organoaz ari gara—.

Orain aztertzen ari garen alderdiari dagokionez, hau azpimarratu behar da: lege-arau horren arabera, **premia horren arrazoiak jaso behar dira, esleitutako eginkizunetan bikoiztasunik ez dagoela bermatzeaz gainera.** Horri dagokionez, Batzordeak ikusi du **nolabaiteko bikoiztasuna egoteko arriskua dagoela, batetik, IKTen Batzorde Estrategikoaren eginkizunekin** (honen bidez sortu zen Batzorde hori: 36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredu) **eta, bestetik, Gobernantza Publikoaren Sailarteko Batzordearekin** —honen bidez eratu zen Batzorde hori: 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa (130.1.a artikulua). Izan ere, baliteke organo berriak horien eginkizunei eragitea.

Egitan, ez da ahaztu behar eskakizun horiek ESPLren 20. artikulua 4. paragrafoak administrazio-organok sortzeko ezarritako gutxiengo kondizioak kide anitzeko organoen kasura eramatea esan nahi dutela. Artikulu horren 5. apartatuak aurreikusten du oro har ezingo dela sortu lehendik dagoen organoren bat bikoiztea dakarren organo berririk aldi berean ez bazaie eskumena kentzen edo behar bezala murrizten lehendik zeuden organoei. Hori hala izan dadin, **organo berri bat sortzeko, aurrena egiaztatu egin beharko da euskal sektore publikoan ez dagoela beste organo bat lurralde edo herri berean zeregin berbera betetzen duena.**

179/2023 ABJI, par.: 99-101

D) **Administrazio publikoen ondarea**

Hurrengo gaia aztertzeko, 3. artikuluari erreparatu behar diogu, honela baitio:

1. Ondarearen arloko eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailari dagokio Autonomia Erkidegoko ondareari buruzko politika betetzen dela zaintzea, baita Euskadiko ondarean eragina duten **ondare-jarduketa publikoak koordinatzea** ere; horretarako, **titular horrek beharrezkotzat jotzen dituen jarraibideak eman ahal izango ditu.**
2. 1. artikuluan aipatzen diren gainerako sailek eta entitateek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, gauzatuko dute Autonomia Erkidegoaren ondareari buruzko politika, eta ondarearen arloko eskumena duen sailburuak hala egokituz gero emango dituen jarraibideak beteko dituzte.

Artikuluak **zalantzak** sortu ditu izapidetzean zehar **jarraibideen balizko xedeari eta norainokoari buruz**, eta, hain zuzen ere, horri buruzko alderdi batzuk zehaztu beharra ikusi da.

Ekimena sustatu duen sailak azaldu duenez, ekimenaren funtsa da, alde batetik, Jaurlaritzak eskumena duela ondare-politikako erabakiak hartzeko, eta, bestetik, **EOLTBren 8.1 artikulua** [Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartua] **ondare-arloko eskumena duen sailari esleitzen diola** EOLTB horretan araututako gaiei buruz **Jaurlaritzak hartutako erabakiak betearaztea**.

Oinarri bikoitz horrekin, haren ustez, “koherentea da berariaz aitortzea ondare-arloko jarraibideak emateko ahalmena, Jaurlaritzak eman ditzakeen erabakiak betetze aldera, bai eta ondare-arloko jarduketa koordinatua bermatzeko ahalmena ere, irizpide desberdinak hartzea saihesteko”.

Hala ere, hasiera-hasieratik **ikusten da alde handia dutela proiektuaren xedapenaren eremuak** —jarraibideak, “ondare-politika” betetzekoak, 1. artikuluko erakunde guztiek begiratu beharrekoak— **eta EOLTBren 8.1 artikulua eremuak, beste plano batean mugitzen baita, askoz zehatzagoa.**Hau dio, hitzez hitz:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren titulartasunpekoak diren eta Euskadiko ondare barrukoak diren ondasun eta eskubideen gaineko jabari-ahalmenak erabiltzea, ondasun eta eskubide horiek kudeatzea, administratzea eta ustiatzea, ordezkatzeta eta auzitegietatik kanpora defendatzea, lege honetan araturiko gaiei buruz Gobernuak hartzen dituen erabakiak betearaztea, eta auzitegietan ondasunen eta eskubideen aldeko akzioak baliatzea, horiek guztiak ondareari buruzko eskumenak dituen sailaren ardurak dira, non eta ez zaizkion, berariaz, beste organo edo erakunderen bati agindu, eta atxikitze-egintzak berak berarekin dakartzan ahalmenei ezer kendu gabe.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak (ESL) hau zehazten du 24. artikulua 1. apartatuan: “Goi-organoek eta zuzendaritza-organoek administrazio-jarduera bultzatu eta gidatuko dute jarraibide, zirkular eta zerbitzuko aginduen bidez”. Hori bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 6. artikuluaekin —oinarrizko izaera du—, zeinaren 1. apartatuak honako hau adierazten baitu: “Administrazio-organoek zerbitzu-jarraibide eta -aginduen bidez zuzen ditzakete hierarkian mendeantzen dituzten organoen ekintzak”.

Ilido beretik, **doktrinaren arabera, zerbitzu-jarraibide eta -aginduak tresna egokiak dira jarduteko jarraibideak finkatzeko, administrazio-organo batek emanak, aplikazio eta interpretazio juridikoko barne-irizpideak ezartzeko**, arlo edo gai jakin batean, **mendeko organoek bete ditzaten**. Jarraibideen habitat naturala harreman hierarkikoena bada ere, **onartzen da hierarkikoki mendekoak ez diren baina funtzionalki mendekoak diren organoetara iristen diren jarraibideak daudela, jarduera-sektore edo -eremuei dagokienez** (aurrekontuak, funtzio publikoa, etab.). **Baina administrazio beraren barruko edo *ad intra* esparrua inola ere galdu gabe.**

Azaldutakoaren arabera, **jarraibidea ezin da tresna egokia izan EAEko ondare-politika betetzen dela zaintzeko, ez eta EOLTBren 1. artikuluko erakundeen ondare-jarduketa publikoak**, Euskadiko ondareari eragiten diotenak, **koordinatzen saiatzeko ere.**

Gainerakoan, kontuan hartu behar da xedeak autonomia-erkidegoaren ondare-politika betetzea— gainditu egiten duela ogasunaren alorrean eskumena duen sailari esleitutako eremua (EOLTBren 8.1 artikulua).

Lortu nahi den helburu eta eremu objektiboa duten jarraibideak emateko —benetako arau bat—, proiektuaren 1. artikuluko erakunde guztiei aplikatuko zaizkienak, **berriazko gaikuntza eduki beharko litzateke arlo horretan EOLTBn, eta 8.1 artikulua ez du halako izaerarik.**

Kontuan hartu behar da ezen, sektoreko sailburua **erregelamendu bidez** —proiektua— **gaitzea ere *ad extra* ondorio** eta guztiko xedapen orokorrak emateko, **beren-beregi ezarri behar dela, gaikuntzaren xedea eta norainokoa ongi zehaztuta; izan ere, gure iturri-sisteman** —Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen (JL) 26.4 artikulua—, **sailburuei, oro har, beren saileko gaiei buruzko arauak** (aginduak, JLren 61. artikulua) **emateko eskumena baino ez zaie esleitu.**

42/2023 ABJI, par.: 102-113

Uko egiteari dagokionez, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak uste du aukera hori ez litzatekeela aintzat hartu behar. Ideia horren oinarri, doktrina modernoena, gehiengo duena, zeinaren arabera Estatuak —kasu honetan, EAEko Administrazioak— ezin duen uko egin, ongi ulertuta jaraunse edo abintestato oinordeko deklaratzeko dutelarik, egiaz, eskubide bat baino gehiago, funtzio bat ematen diotela, interes publikoan oinarritua, eta, beraz, uko egin ezinezkoa.

Doktrina-eztabaidan sartu beharrik gabe —irizpen honen xedea mugatuagoa baita—, eta ahaztu gabe, era berean, organo sustatzaileak aukera-arrazoiak argudiatu dituela uko egiteko aukera izateko, interes publikoa zaindu eta altxor publikoari ondorio kaltegarriak saiheste alde-
ra, kontua da **EOLTBk** [Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartua] **ez duela jasotzen EAEko Administrazio Orokor-
rrak uko egitea abintestato oinordetzaren kasuan**, arrazoi sinple batengatik: lege-arau hori onartu zenean, ordenamendu juridikoak ez zuen jasotzen eskuratzeko-mota hori, geroago sartu baitzuen, esandakoaren arabera, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 117. artikulua.

Lege-aurreikuspenik ez horrek, sistemaren itxierako izaera zalantzarik gabea gehituta —funtsean, ondasun higiezin kasurako—, **administrazio publikoen aldeko abintestato oinordetzaren instituzioan gertatzen dena, galarazi egiten dio proiektuari uko egitea aurreikustea lege-babes argirik gabe.**

Gogoeta horren haritik, **komenigarritzat jotzen da EOLTBren erreformari ekitea, interes publikorako erregulazio egokiena ezarri ahal izateko, aukeren ondorioak aztertu ondoren.**

42/2023 ABJI, par.: 129-132

Proiektuaren azterketak beste kontu bat dakar, 46. artikuluan (gaitasun-arauak) zentratzen dena, honako baldintza hau ezarri baitu: proiektuaren aplikazio-eremu subjektiboko erakunderen batekin **ondasunak eta eskubideak eskuratzeko ondare-negozio juridiko bat egin behar duten pertsona guztiak kontratatzeko debekurik edo bateraezintasunik ez izatea.**

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak bere txostenean iradoki duenez, proiektuaren eduki hori haztatu beharko litzateke; izan ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duenak (aurrerantzean, SPKL), 9. eta 26. artikuluetan diotenaren arabera, **kontratatzeko debekuek** (SPKLren 71. artikulutik 73. artikulura) **berezko aplikazio-eremua dute, eta haien erregulazioaren ezau-
garriek aplikazio zorrotza gomendatzen dute.**

Hala, SPKLren arabera, ez zaizkie aplikatuko (I) jabari publikoko ondasunen gaineko baimen eta emakidei; (II) 14. artikuluan – obra-emakidako kontratuari buruzkoa – definitutakoez bestelako ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuei; eta (III) ondasun higiezinak, balore negoziagarriak eta jabetza gorpuzgabeak–ordenagailu-programak izan ezik – xede dituzten salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuei eta antzeko gainerako negozio juridikoei, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratu gisa kalifikatu behar ez badira, ondare-legeriari lotutako kontratu pribatuak izango baitira.

EEEren txostenak, era berean, eragozpenak jartzen dizkio hedadura horri – “batzuetan, ondasunak interes publikoa asetzeko duen egokitasuna titularraren egoeraren gainetik egon daiteke,” eta konkurtso-egoeran dauden sozietateen kasua jarri du adibidetzat—.

Proposamena egin duen organoak koherentzia-arrazoiak argudiatu ditu, eta kontuan hartu du kontratatzeko debekuen aplikazioa EOLTBn aurreikusita dagoela [Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartua] —zehazki, 82.5 artikuluan (jabari publikoko ondasunen eta eskubideen emakidak) eta 100.2 artikuluan (aprobetxamendu errentagarria izan dezaketen ondare-ondasunak eta -eskubideak ustiatzeko kontratuak) —, eta proiektuaren konponbideak egoera paradoxiko bat saihestuko lukeela; egoera horren arabera, ondare-negozio juridikoaren arabera gaitasun-arau batzuk edo besteak aplikatuko lirateke.

Emandako arrazoiaren egokitasuna alde aurretik juzgatu gabe, egia da **debeku horiek EOLTBn aurreikusi gabeko kasuetara hedatzeak gainditu egiten duela erregelamenduari dago-kion garapen-lana: pertsonen kontratatzeko gaitasun orokorraren aurreikuspen murriz-tailea denez, legeak egin behar du murrizketa hori.**

Hain zuzen ere, eskubide eta betebeharren titular izateko gaitasun juridikoa Konstituzioaren testuan —nazionalitatea, EKren 11. eta 13. artikulua; adina, EKren 12. artikulua) — eta le-gean —zuzenbide pribatuko arauak— zehazten da. Era berean, legeak ezartzen ditu Adminis-trazioaren aurrean jarduteko gaitasuna arautzen duten erregelak (APELen 3. artikulua) edo gaitasun orokor hori aldatzen duten baldintzak ezar ditzake, adibidez, kontratazio publikoaren esparruan gertatzen den bezala (SPKL).

Kasu honetan, EOLTBren isiltasuna ez da halakoa —43.5 edo 46. artikuluetatik ondorioztatzen da—. **Edo, nahiago bada, ez du osatzea eskatzen. Berdintasun-arrazoirik ere ez dago baldintza hori hedatzeko, ezin baitira parekatu,** termino juridikoetan, herri-jabariko onda-sun edo eskubide baten titulartasunera iristea —75 urtez luza baitaiteke— edo jabari pribatuko ondasun edo eskubideak ustiatzea aprobetxamendu errentagarriarekin —hogei urtez zabal baitaiteke— eta EOLTBk aurreikusitako gainerako negozio juridikoak, ez baitu gaitasun-arau berezirik aurreikusi haietarako.

46. artikulua, beraz, birformulatu egin behar da: **proiektuak kontratatzeko debekua aurreikusi behar du soilik EOLTBN hala aurreikusita dagoen kasuetan**, hau da, aipatutako 82.5 eta 100.2 artikuluetan.

42/2023 ABJI, par.: 136-144

E) Zehatzeko ahala

Oso komenigarria izango litzateke arreta handiz definitzea ez-zilegi administratiboak, ZALen 4.1 artikulua berariaz xedatzen duen bezala: “zehapen-araubideek ahalik eta zehaztasun handienez tipifikatuko dituzte arau-haustea”.

Doktrina konstituzional jarraituaren arabera, ahalegin hori araugileak egin behar du lehenik eta behin: “Arau-hauste eta zehapen administratiboetarako dagokienez, **zehaztasun-printzipioa, alde batetik, ‘legegileari eta erregelamendu-botereari’ zuzentzen zaie, eta ‘ahalik eta ahalegin handiena’ eskatzen zaie segurtasun juridikoa bermatzeko; horrek ez du inola ere eragozten kontzeptu juridiko zehaztugabeak erabiltzea**, ‘nahiz eta EKren 25.1 artikuluekin duen bateragarritasuna irizpide logiko, tekniko edo eskarmentuzko irizpideen arabera hura zehaztea arrazoizkoa izateko aukeraren mende dagoen’; bestetik, zehapen-zuzenbide administratiboa aplikatzen dutenei eragiten die, eta behartu egiten ditu, ez arbitrariotasunaren, akats nabarmenaren edo zentzugabekeria nabarmenaren debeku-kanona kontuan hartuz (EKren 24. artikulua), baizik eta arrazoizkotasun-kanon zorrotzago bati erreparatzera; hori, izan ere, erabakigarria da zehapen-arauren muga lausoa denean (nola abstraktua delako, hala hizkera lauso edo aldakorra baliatzen duelako” (297/2005 KAE, 8. OJ; 145/2013 KAE, 4. OJ; eta 86/2017 KAE, 5. OJ).

Zehaztasun-printzipioa aplikatuz, zehapen-araubide orok aukera eman behar die haren aplikazioaren eraginpeko pertsonari jakiteko, alde aurretik, ziurtasunez eta interpretazio-ahalegin berezirik egin gabe, debekatuta dagoenaren esparrua eta izandako jokabideen ondorioak. Horretarako, jokabide horien definizio zorrotza (arau-esparru zehatzari dagokionez) ezinbesteko kondizioa da.

179/2023 ABJI, par.: 408-410

II. Kooperatibak

LGSiri [Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza] ikuskatze-funtzioa esleitzea:

EKLk [11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena] **158. artikuluan** dioenez, **Eusko Jaurlaritzan lan-eskumena duen sailari dagokio ikuskaritza-funtzioak egikaritzea** lege hau betetzen dela ikuskatzeko.

Proiektuak, 2.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzan kokatzen du eginkizun hori.

Esleipen hori bat dator Estatuan indarrean dagoen ereduarekin [LIGSLren 12.1.f) artikulua], eta esplizituki jasota dago, era berean, lege autonomiko askotan.

Horren adibide dira, batzuk aipatzearen: 2/2023 Legea, otsailaren 24koa, Madrilgo Erkidegoko kooperatibei buruzkoa (140. artikulua); 5/2023 Legea, martxoaren 8koa, Balear Uharteetako kooperatiba-sozietateei buruzkoa (170. artikulua); 4/2022 Legea, urriaren 31koa, Kanarietako kooperatibei buruzkoa (142. artikulua); 9/2018 Legea, urriaren 30ekoa, Extremadurako kooperatiba-sozietateei buruzkoa (184. artikulua); 12/2015 Legea, uztailaren 9koa, Kataluniako kooperatibei buruzkoa (149. artikulua); 4/2002 Legea, apirilaren 11koa, Gaztela eta Leongo kooperatibei buruzkoa (136. artikulua).

Lege horietan, halaber, ohikoa da lan-arloko zehapen-prozeduraren aplikazioa aurreikustea arlo horretarako.

Beste eredu bati erantzuten dio Andaluziako kooperatiba-sozietateei buruzko abenduaren 23ko 14/2011 Legearen 120. artikulua —lege hori garatzera etorri da Andaluziako kooperatiba-sozietateen Erregelamendua, irailaren 2ko 123/2014 Dekretuaren bidez onartua—, kooperatiba-sektorerako ikuskapen espezifiko arautzen du eta.

EKLren 158. artikulua ez du eredu baten edo bestearen alde egiten. Eginkizuna lan-sailan kokatzeak bi ikuskapen-sistemak ahalbidetzen ditu, eta, orain interesatzen zaigunerako, zilegi egiten du LGSIn esleitzea, funtzionalki sail horren mendeko funtzionarioek osatzen baitute.

Ez dira gutxi ikuskaritza LGSIn bitartez egitea arautzen duten lege autonomikoak; horrenbestez, **EAEko legeak alderdi hori zehaztu ez izanak agerian uzten du ezarri beharreko eredia geroko garapenari uzteko borondatea**. Legegileak badaki ikuskapenaren antolaketa definitzeak LGSIn bete beharreko eginkizunari buruzko iritzia ematea eskatuko duela, kontuan hartuta LGSIn estatu-erregulazioak LGSIn eskumena jasotzen duela kooperatiben arloko araudia betetzen dela zaintzeari dagokionez, “salbu eta dagokion autonomia-legeriak kontrakoa xedatzen badu bere aplikazio-eremuan”.

Diogunez, beraz, proiektuak arautzen du LGSiren aldeko atribuzioa, eta, hortaz, proiektuaren azalpen-zatiak beren-beregi adierazi duenez, “horrenbestez, arlo horretako Estatuko arau-aukerari jarraitzen dio, eta hori, gainera, justifikatuagoa dago Euskal Autonomia Erkidegoan, gurean lan elkartuko kooperatibismoa nagusi delako”.

178/2023 ABJI, par.: 91-99

III. Hezkuntza

Aurreproiektuaren 58. artikulua **Euskadiko Eskola Kontseiluaren osaerari** buruzkoa da. Kontseilua kontseiluburuak, kontseiluburuordeak eta bokalek eta idazkari-lanak egiten dituenak osatuko dute. Nolanahi ere, ikastetxeen, udal hezkuntza-kontseiluen eta gizarte-eragileen ordezkariak izango du (1. apartatua), eta hezkuntzaren arloan eskumena duen saileko titularrak izendatuko ditu Euskadiko Eskola Kontseiluko kideak, erregelamendu bidez xedatzen denaren arabera (2. apartatua).

Arauketa hori gaur egungoarekin alderatzen badugu (EEKLren 8., 9. eta 10. artikuluetan jasota dago), ondorioztatzen da orain legearen xede den osaera **Jaurlaritzaren erregelamendu bidezko garapenera bideratzen dela**.

Batzordearen ustez, deslegalizazio hori ezinezkoa da, irakaskuntzaren programazio orokorrean eragindako sektore guztien parte-hartzea gauzatzen den eremu batean, EKren 27.7 artikuluko aginduarekin zuzenean lotzen baita, hezkuntzarako guztiok dugun eskubidearen eduki gisa, EKren 53.1 artikulua eskubide horren erabilera arautzeko ezarritako lege-erreserbak eragiten diolako.

Illo horretan, gogorarazi behar da **LODEren 34. artikulua berariaz jasotzen duela lege-erreserba**, honela: “Autonomia-erkidego bakoitzaren lurralde-esparrurako eskola-kontseilu bat izango da. Kontseilu horren osaera eta eginkizunak arautuko ditu kasuan kasuko autonomia-erkidegoko biltzarreko legeak. Irakaskuntza-programazioaren ondoretarako, lege horrek bermatuko du, edozein kasutan, ukitutako sektoreen partaidetza egokia”.

56/2023 ABJI, par.: 451-454

Laburbilduz, hauek dira aurreproiektuak ezarritako **hizkuntza-araubidearen ezaugarri orokorrak**; izan ere, **ikasleak ez dira hizkuntza-eredu baten arabera ikastetxeka edo taldeka bereiziko**:

- a) Euskal Hezkuntza Sistema eleaniztuna da, euskararen inguruan artikulatua, eta bi hizkuntza ofizial eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ditu hezurdukatat.
- b) curriculum-dekretuek hizkuntza horien ezagutza praktikoa eta nahikoa finkatu beharko dute, bai eta haien irakaskuntza eraginkorra ere; horretarako, gutxienezko helburu gisa, kompetentzia-maila jakin batzuk ezarriko dituzte lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzean, Europako erreferentzia-esparru bate-ratuko mailak erreferentziatatzat hartuta;
- c) ikastetxeek, hezkuntza-proiektuaren osagai gisa, beren hizkuntza-proiektua egin behar dute, hizkuntzak ikastetxean nola tratatu behar diren zehazteko, euskara ar-datz nagusi izango duen sistema eleaniztuna bultzatzeko xedez eta bi hizkuntza ofizialak eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza bat ikaskuntza-hizkuntzatzat hartuko dira, eta
- d) hezkuntza-administrazioak, dagokion ikastetxearekin lankidetzan, ikastetxearen hi-zkuntza-proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu, hobekuntza-prozesuak gauzatzeko.

Ezaugarri bereizgarri horiek ez dute konstituzio-izaerari buruzko zalantzarik sortzen. **Konstituzio Auzitegiak onartu egin du konstituzio-legezketasuna duela irakaskuntza batek, non komunikazio-bidea Autonomia Erkidegoko hizkuntza propioa eta lurraldeko hi-zkuntza koofiziala den, gaztelaniarekin batera** (137/1986 KAE, 1. oinarri juridikoa), eta ere-du bat, non hezkuntza-sisteman hizkuntza propioa erdigune eta komunikazio-hizkuntzatzat eta ikaskuntza-hizkuntzatzat aitortzen den, haren erabilerearen normalizazioa eta gizarteratzea ziurtatzeko helburuarekin (denen erakusgarri, 15/2013 KAE, urtarrilaren 31koa, 4. OJ).

Gainera, **Espaniako Konstituzioak ez du ezartzen hizkuntza aukeratzeko eskubiderik**, hau da, gurasoek, tutoreek edo ikasleek berek irakaskuntzako hizkuntza aukeratzeko eskubi-dea, beren autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean bakarrik jaso dezaten, ez gaz-telania Estatuko hizkuntza ofizial deklaratzearen eta erabiltzeko eskubidearen eta jakiteko be-tebeharraren ikuspegitik (EKren 3.1 artikulua), ezta hezkuntzarako eskubidearen ikuspegitik ere (EKren 27. artikulua) (337/1994 KAE).

Bi baldintza orokor ezarri ditu: gaztelania ez dadila irakaskuntza-hizkuntza gisa bazter-tu, ezta dagokion autonomia-erkidegoko hizkuntza koofiziala ere; eta hezkuntza-siste-mak bi hizkuntza ofizialen ezagutza bermatu behar duela, hain zuzen ere ofizialtasuna izatearen berezko ondorio gisa (337/1994 KAE eta 31/2010 KAE).

Estatuak hezkuntzaren arloan duen eskumenari dagokionez, berariaz nabarmendu behar dira LOEren 2.1.j), 6.1 eta 6.3, 17.e) eta 17.f), 23.h) eta 23.i), 30.2.a), 33.e) eta 33.f), 121.2.bis eta hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarrien edukiak, lege organiko horren azken xedape-netako bosgarrenak oinarritzotzat jotzen baititu.

LOEren hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

Gaztelania, hizkuntza koofizialak eta legezko babesa duten hizkuntzak.

1. Hezkuntza-administrazioek bermatuko dute ikasleek irakaskuntza gaztelaniaz eta beren lurraldeetako gainerako hizkuntza koofizialetan jasotzeko duten eskubidea, Espainiako Konstituzioarekin, autonomia-estatutuekin eta aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik.
2. Oinarrizko hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek erabateko eta pareko ezagutza lortu beharko dute gaztelaniaz eta, hala badagokio, dagokion hizkuntza koofizialean.
3. Hezkuntza-administrazioek hezkuntza-sistemaren berezko kontrol-, ebaluazio- eta hobekuntza-tresnak aplikatuko dituzte, eta ikastetxeek azterlanak egin ditzaten sustatuko dute, ikasle guztiek hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia lor dezaten, gaztelaniaz eta, hala badagokio, hizkuntza koofizialetan, eskatutako mailan. Halaber, zeinahi hizkuntzatan egon litezkeen gabeziak konpentsatzeko behar diren neurriak hartzera bultzatuko dituzte ikastetxeak.
4. Gaztelania eta Literatura nahiz Hizkuntza Koofiziala eta Literatura ikasgaiak bakoitzari dagokion hizkuntzan emango dira.
5. Lurralde osoan ofizialak ez diren hizkuntza koofizialak dituzten autonomia-erkidegoek edo lege-babesa duten hizkuntza ez-ofizialak dituztenek beren araudi erregulatzailerak zehazten dituen baldintzetan eskaini ahal izango dituzte ikasgai horiek.

Batzordearen iritziz, baldintzatzailer horiek ikusita, esan daiteke aurreproiektuak gainditu egiten duela bitarteko konstituzionaltasun-judizioa ere, hau da, bat dator oinarrizko araudiarekin.

Zalantzaren bat sortzen duen elementu bakarra da konpetentzia-maila zehatzak ezartzea, Europako Erreferentzia Esparru Bateratua ikusita —haren izen ofiziala Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratua da—, aurreproiektuaren 68.1 eta 68.2 artikuluan.

Bi hizkuntza ofizialei buruz honako hau dio 68.1 artikulua:

- Lehen Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1 azpimaila lortu beharko da bi hizkuntza ofizialetan.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 azpimaila lortu beharko da bi hizkuntza ofizialetan.

Atzerriko hizkuntzari buruz honako hau dio 68.2 artikulua:

- Lehen Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A2 azpimaila lortu beharko da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1 azpimaila lortu beharko da.

Hizkuntzen ikasketak antolatzeko orduan, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailak (azpimailak ez direnak) kontuan hartu dira (LOEren 59.1 artikulua), baina ez da gauza bera gertatzen gaztelaniarekin, hizkuntza koofizialekin eta atzerriko hizkuntzarekin hezkuntza-sistemako irakaskuntza orokorren testuinguruan.

LOEren 17.e) eta 17.f) artikuluek honako hauek ezartzen dituzte Lehen Hezkuntzaren helburutzat:

e) Gaztelania eta autonomia-erkidegoko hizkuntza koofiziala (baldin badago) behar bezala ezagutzea eta erabiltzea, eta irakurtzeko ohiturak garatzea.

f) Gutxienez atzerriko hizkuntza batean mezu sinpleak adierazteko eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko oinarriko komunikazio-konpetentzia eskuratzea.

Bestalde, LOEren 23.h) eta 23.i) artikuluek helburu hauek ezartzen ditu derrigorrezko bigarren hezkuntzarako:

h) Gaztelaniaz eta, baldin badago, autonomia-erkidegoko hizkuntza koofizialean, testu eta mezu konplexuak ahoz eta idatziz behar bezala ulertzea eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea.

i) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan egokiro ulertzea eta hitz egitea.

Era berean, ez dituzte maila horiek aipatzen martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretuak, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituenak, eta martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituenak, biak ere oinarrikoak (azken xedapenetako lehena). Gainera, kontzeptu berri bat txertatzen dute: «oinarriko hezkuntza amaierako ikasleen funtsezko konpetentziak eta ikasleen irteera-profila».

Hala ere, **kontuan hartuta hizkuntza koofiziala behar besteko aprobetxamenduz ikasi behar dutela ikasleek, eta Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboak dituela hizkuntza koofizialaren irakaskuntzan, aurreproiektuak bi hizkuntza koofizialei buruz egiten duen aukerak errespetatu egingo lituzke LOEren eskakizunak, “bi hizkuntza ofiziale-tan hizkuntza-konpetentzia nahikoa izatea bermatzen” baitu.**

Hau da, **autonomia-erkidegoari dagokio** lehen hezkuntzan **Hizkuntza Koofiziala eta Literatura arloaren curriculuma ezartzea**, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan, berriz, Hizkuntza Koofiziala eta Literatura irakasgaiaren curriculuma ezartzea. **Horrek aukera ematen dio ikasleek Markoaren maila bat lortu behar dutela ezartzeko, hizkuntza koofizialean dago-kien konpetentzia lor dezaten. Bi hizkuntzak berdin jakiteko eskakizuna bertan behera geratuko litzateke, beste hizkuntza ofizialerako ere erreferentziatzat hartuko ez balitz.**

Halaber, LOEk mailaketa bat ezartzen du Gaztelania eta Literatura ikasgaiaren ezagut-zan, lehen hezkuntzarako edo derrigorrezko bigarren hezkuntzarako; izan ere, ikasleek modu egokian lortu behar dituzte komunikazio-konpetentziak etapa bakoitzaren arabera, eta oinarrizko hezkuntza amaitzean, LOEren hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuak dioen bezala, «ikasle guztiek erabateko eta pareko ezagutza lortu beharko dute gaztelaniaz eta, hala badagokio, dagokion hizkuntza koofizialean», eta ez da desegokia izango B2 maila gisa identifikatzea, hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz menderatzea bermatzeko, aukera didaktiko edo pedagogiko egokiena den aldetik; baina horrek ez du esan nahi Estatuarentzat gor-detako eskumenak saihestuko direnik, ez baitu beste mailarik finkatu.

Halaber, Kataluniako Hezkuntzari buruzko uztailaren 10eko 12/2009 Legearen 10.1 artikulua-k gatazkarik sortu ez izanak aurreproiektuaren arauketa bermatuko luke. Artikulu horren arabe-ra, derrigorrezko irakaskuntza amaitzean, curriculumek katalana eta gaztelania erabat men-deratzen direla bermatu behar dute, hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebalua-ziorako Europako erreferentzia-marko bateratuaren arabera —nahiz eta ez dagoen maila jakin bati buruzko aipamenik—.

Zailagoa da aurreproiektuaren 68.2 artikulua-ren atzerriko hizkuntzari buruzko arauke-ta onartzea, ez baita LOEren helburuen artean agertzen, eta ez baita aipatzen lehen hezkuntzarako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzarako gutxieneko irakaskuntzetan eta antolamenduan.

Zeharka, hizkuntzen ikasketaren arloan ere eragiten du; izan ere, adierazten da “helburuak bete beharko direla”, eta ikasleen ardura bere gain duten irakasle taldeek ebaluatuko dutela helburu horiek betetzen diren.

Hizkuntzen ikasketak hemen daude araututa: LOE;1041/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Egiaztapenaren ondoreetarako oinarrizko mailaren gutxieneko eskakizunak finkatzen eta Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen araubide bereziko hizkuntza ikasketen B1 (tartekoa), B2 (tartekoa), C1 (aurreratua) eta C2 (aurreratua) mailen

oinarrizko curriculuma eta zenbait ikasketa planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak ezartzen dituena; 1/2019 Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, Araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzako B1 eta B2 tarteko mailak eta C1 eta C2 maila aurreratuak ofizialki egiaztatzeko probei aplikatzen zaizkien oinarrizko ebaluazio-irizpide komunak ezartzen dituena.

Biak ematen dira “Espainiako Konstituzioaren 149.1.30. artikulua babesean; artikulua horrek Estatuari esleitzen dio EKren 27. artikulua garatzeko oinarrizko arauen eskumen eskusiboa, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko”.

Testuinguru horretan, **zaila dirudi aurreproiektuak helburutzat ezartzea ikasleek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A2 edo B1 maila lortzea** —hau da, maila hori lortzea edo edukitzea—; **izan ere, Estatuak oinarrizko mailaren gutxieneko eskakizunak ezarri ditu ziurtapenari dagokionez, eta tarteko B1 mailaren oinarrizko curriculuma ezarri du**, bai eta ziurtapen ofizialeko probei aplikatu dakizkiekeen ebaluaziorako oinarrizko printzipio komunak ere.

Bestela litzateke curriculumetan erreferentziatzat hartu ahal izatea horiek osatzerakoan, LOEren 6.4 artikulua autonomia-erkidegoei curriculumak diseinatzeko aitortzen dien tartearen barruan, gutxieneko irakaskuntzak eskola-ordutegien ehuneko 50 izan behar baitira hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoentzat, eta ehuneko 60 hizkuntza koofizialik ez dutenentzat.

56/2023 ABJI, par.: 466-489

Ikastetxeen autonomia, EKren 27.6 artikulutik ondorioztatzen denez, hezkuntza-sistemaren antolaketaren funtsezko osagaia da.

EEPLk euskal eskola publikoari aitortzen dio bai autonomia pedagogikoa —hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua egitean zehaztutako autonomia (III. kapitulua)—, bai kudeaketa-autonomia —kudeaketa-proiektuan eta urteko kudeaketa-programan zehaztua—, eta, gainera, autonomia ekonomiko eta finantzarioa aitortzen die ikastetxe publikoei (IV. kapitulua).

LOEren 120. artikulua ere ezartzen du ikastetxeek pedagogia-, antolaketa- eta kudeaketa-autonomia izango dutela, indarrean dagoen legediaren esparruan eta lege horretan eta lege hori garatzen duten arauetan jasotako baldintzetan (1. apartatua), bai eta hezkuntza-proiektua eta kudeaketa-proiektua eta ikastetxearen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak lantzeko, onartzeko eta gauzatzeko autonomia ere (2. apartatua).

LOEren 121. artikulua arabera, hezkuntza-proiektua oinarrizko baliabidea da irakaskuntza

eman behar den ikastetxeko baldintza zehatzetara egokitzeko; hezkuntza-proiektuaren barruan jasoko da hezkuntza-administrazioak ezarritako eta klaustroak finkatu eta onartu beharreko curriculumen zehaztasuna.

Bestalde, LOEren 123. artikulua ezartzen duenez, lege horretan araututako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoek autonomia izango dute beren kudeaketa ekonomikoan, lege horretan eta hezkuntza-administrazio bakoitzak finkatzen duen legean ezarritako araudiari jarraikiz.

Gainerakoan, oinarrizko araua izan gabe, adierazten du administrazio publikoek: (I) ikastetxeen gobernu-organoen esku utzi ahal izango dute ondasunen erosketa eta obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioa, SPKLrekin eta, hala badagokio, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeria autonomikoarekin bat etorritik, eta kasuan kasuko araudian ezartzen diren mugekin; ikastetxeek baliabide horiek administratzeko autonomia izan dezaten, administrazio publikoek gastua kontratatzeko, egiteko eta justifikatzeko prozesua arautzeko ezartzen dituzten xedapenak bete beharko dituzte; (II) ikastetxe publikoek lanbide-titulaziorako eta lanbide-trebakuntzarako baldintzak formulatu ahal izango dituzte ikastetxeko lanpostu jakin batzuei dagokienez, betiere hezkuntza-administrazioek ezartzen dituzten baldintzak beteta; (III) ikastetxeek beren kudeaketa-proiektua egiteko izango dituzten baldintzak zehaztu ahal izango dituzte, eta bertan adieraziko da baliabide materialen zein giza baliabideen antolamendua eta erabilera; (IV) ikastetxe publikoetako gobernu-organoen esku utzi ahal izango dituzte zehazten dituzten eskumenak, langileen kudeaketari dagozkionak barne. Ikastetxearen esku jarritako baliabideen kudeaketa zuzendarien erantzukizuna izango da.

Ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako arauari dagokienez, LOEren 124. artikulua bizikidetzara-arauek ditu ardatz, eta zenbait xedapen ezartzen ditu, batzuk oinarrizkoak (neurri zuzentzaileen ezaugarriak), eta beste batzuk oinarrizkoak ez direnak, eta hezkuntza-administrazioei ezartzen die eskola-jazarpenaren, ziberjazarpenaren, sexu-jazarpenaren, genero-indarkeriaren eta beste edozein indarkeria-adierazpenen zantzuen aurrean jarduteko protokoloak onartzea, bai eta ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak bete behar dituen betekizunak eta funtzioak onartzea ere. Koordinatzaileak ikastetxe guztietan izendatu behar dira, haien titulartasuna edozein dela ere. Azkenik, honako hau xedatzen du: ikastetxeetako zuzendariak edo titularrak arduratuko dira hezkuntza-komunitateak egun dauden jardueraproto-koloen berri izateaz, bai eta protokolo horietan aurreikusitako jardueren betearazpenaren eta jarraipenaren berri izateaz ere.

Azken batean, **ikastetxe guztiek onartu behar dituzte hezkuntza-proiektu bat, kudeaketa-proiektu bat eta ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako arauak, baina ikastetxeei ezarritako eskakizunak desberdinak dira ikastetxeen tipologiaren arabera.**

Ikastetxe publikoen kudeaketari, antolaketari eta funtzionamenduari dagokienez, legeak bete-betean eragiten du, zerbitzu publiko den aldetik, LOEk zuzendaritza- edo partaidetza-organoei esleitutako eskumenetatik ondorioztatutako mugekin.

Itunpeko ikastetxe pribatuetan titular bat dagoela ahaztu ezin badugu ere, ikastetxe publikoen kasuan bezala, EKren 27.7 artikulua ondoz, **haien eskumenak mugatuta daude**.

LODEren 55. artikulua arabera, irakasleek, ikasleen gurasoek, eta, hala denean, ikasleek ere esku hartuko dute itunpeko ikastetxeen kontrol eta kudeaketan, ikastetxeko eskola-kontseiluaren bidez. Hala ere, eskola-komunitatearen partaidetzarako beste organo batzuk ezar daitezke ikastetxeen kasuan kasuko barne-araudietan.

Era berean, antolamendurako eta funtzionamendurako arauak onartzean, kontuan hartu beharko ditu ikastetxeko zuzendariaren eta Eskola Kontseiluaren eskumenak (LODEren 54. eta 57. artikulua), kontseilua horrek txostena egin behar die eta arau horiei.

Itundu gabeko ikastetxe pribatuetan, aurrez aipatu dugun bezala, honako hau xedatzen du LODEren 25. artikulua: “Lege honen xedapenekin eta berau garatzen duten arauekin bat etorritik, itundu gabeko zentro pribatuek autonomia izango dute, euren barne-araubidea ezarri, indarreko legeriak agindu titulazioaren arabera irakasleak aukeratu, hezkuntza-proiektua egin, lanaldia euren ikasleen gizarte-eta hezkuntza- beharrezan arabera antolatu, arloen eta jakintzagaien eskola-ordutegia zabaldu, ikasleak onartzeko prozedura finkatu, elkarbizitzarako arauak ezarri edo euren ekonomia-araubidea definitzeko”.

56/2023 ABJI, par.: 558-570

IV. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak

Dekretu honetan egindako aldaketak aztertzen hasiko gara **aldaketa nagusizat** agertzen denetik: **lehentasunezko BGAEen erregulazioarekin eta lehentasunezko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko planekin** du zerikusia.

Erregulazio horretatik bi gai nagusi azpimarratu behar ditugu:

Lehenengoak zerikusia du enpleguko gizarte-aurreikuspeneko plan horiek prestazioen araubideari dagokionez dakarten berezitasunarekin –legezko konfigurazioari erreparatuz gero–.

14.f) artikulua arabera, gizarte-aurreikuspeneko plan bat lehentasunez kotzat jotzeko bete behar diren baldintzen artean dago hau: “erretiroek, heriotzek eta baliaezintasunek edo lan-harremana amaitzea dakarten ezintasun iraunkorrek eragiten dituzten prestazioak estatutuetan edo erregelamenduetan zehaztuta dagoen moduan jasoko dira. Biziaerteko errenta modura aitortu eta ordainduko dira, baina bada finantza-errentak ordaintzeko aukera ere –gutxienez hamabost urtez iraun beharko du–, umezurtz-prestazioetan izan ezik”.

Eta hau ere badio xedapenak: “salbuespen modura, bada beste aukera bat ere, prestazio horiek kapital modura jasotzea. Izan beharko du estatutuetan edo erregelamenduetan jasotako egoeretan, edo errenta ez denean erregelamenduetan zehazturik datozen ehunekoetara edo kopuruetera iristen”.

Hasiera batean, **proiektuak zehatz-mehatz errepikatzen du arau orokorra 203/2015 Dekretuaren 127.2 artikuluan. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen legeak prestazioak kapital eran jasotzeko onartzen dituen bi salbuespenekin.**

Zehazki, honako hau ezartzen du:

Salbuespenez, lehentasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planaren estatutuek edo erregelamenduak aurreikusi ahal izango dute erretiro, heriotza, baliaezintasun edo ezintasun iraunkorren ondoriozko prestazioak kapital moduan jaso ahal izatea, honako kasu hauetan:

a) Enpleguko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planaren estatutuek edo erregelamenduak ezarri ahalko dute ezen, eskubide ekonomikoak zenbateko jakin batera iristen ez direnean, prestazioa kapital gisa jaso ahal izango dela, osorik edo zati batean. Eskubide ekonomikoen zenbatekoa ezingo da izan ezkontidea ardurapean izateagatik Gizarte Segurantzaren kontura jasotzen den gutxieneko urteko erretiro-prestazioaren bikoitza baino handiagoa. Estatutuek edo erregelamenduak zenbateko jakin bat ezar dezakete gehieneko zenbateko gisa, edo hori kalkulatzeko formula, betiere aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoaren muga errespetatzen bada. Ondorio horietarako, eskubide ekonomikoen zenbatekoa zehazteko, ez da kontuan hartuko hurrengo letran aurreikusitako eskubide ekonomikoen zenbatekoaren ehuneko hamarrera arteko kapital-kobrantzak eskubide horietan eragin dezakeen murrizketa.

b) Enpleguko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planaren estatutuek edo erregelamenduak aukera eman ahalko dute kapital gisa jasotzeko eskubide ekonomikoen zenbatekoaren ehuneko hamarrera arte. Gehieneko muga hori errespetatuz, estatutuek edo erregelamenduak ezar dezakete kapital moduan jaso ahal izango diren eskubide ekonomikoen gehieneko ehuneko zehatza.

Irakurtze hutsarekin ondoriozta daiteke **proiektuak ez duela aintzat hartzen lehen salbuespena, ez baitu ezer aipatzen estatutuek edo erregelamenduek prestazioa kapital moduan jasotzea ahalbidetuko duten egoerak ezartzeko aukerari buruz.**

Legeak beren-beregi aipatzen ditu tresna horiek, eta estatutuak dira —BGAELren 33.1 artikulua arabera— erakundearen funtzionamendua eraentzen duen arau juridikoa, eta gutxieneko eduki gisa sartu behar dute “babesa zehaztea, bai eta ekarpenen eta prestazioen araubidea ere” [BGAELren 33.2 c) artikulua], eta gizarte-aurreikuspeneko planaren erregelamendua —BGAELren 43.1 artikulua arabera— plan horren funtzionamendu-araua da, eta honako hauek jaso behar ditu: “ekarpenen eta prestazioen araubidea, bai eta aitortutako kontingentzien zehazta-

pena eta prestazioak jasotzeko formulak ere" [BGAELen 43.1.c) artikulua].

Ezertan eragotzi gabe onartzea egoera horiek "salbuespenezkoak" behar dutelakoa —kontzeptu juridiko zehaztugabe bat interpretatu beharra dakar horrek, eta zorrotz interpretatu ere, arau orokorra desitxuratu gabe—, **erregelamenduak ezin du ezarri legeak erakundeei ematen dien jarduteko tarte hori ezagutzen ez duen erregulaziorik.**

Bigarren parametroari dagokionez, erregelamendu-ahalaren titularrari gaikuntza ematen zaio ezarri beharreko ehunekoak edo zenbatekoak defini ditzan.

Kasu honetan, **Batzordearen ustez, proiektuaren formulazioa egokia da, lehenengo salbuespena kopuruekin lotzen baita;** hartara, prestazioa kapital moduan jaso ahal izango da eskubide ekonomikoak handiagoak ez badira ezkontidea ardurapean izateagatik Gizarte Segurantzaren kontura jasotzen den gutxieneko urteko erretiro-prestazioaren bikoitza baino. Hau da, kapital moduan ordaintzea onartzen da, kasu horietan errenta gisako prestazioaren zenbatekoa ez delako nahikoa, zenbatekoa txikia delako.

Bigarren salbuespenak ehunekoari erantzuten dio, onartzen baitu estatutuek edo gizarte-aurreikuspeneko planaren erregelamenduak aukera hau ezarri ahal izatea: eskubide ekonomikoen zenbatekoaren ehuneko hamarrera artekoa kapital moduan jasotzea. Kasu horretan, prestazioa mistoa izango litzateke, zati bat kapitalean eta beste bat errentan, eta proiektuak zehazten duena da errentaren zatia inoiz ezin izango litzatekeela izan eskubide ekonomikoen zenbatekoaren ehuneko laurogeita hamarra baino txikiagoa, haren ifrentzua ezarrita.

Laburbilduta, **beste era batera idatzi behar da 127.3 artikulua, ez duelako jasotzen legeak estatutuetara edo erregelamenduetara egiten duen igorpena,** eta omisio hori, xedapenaren hitzak eta testuingurua ikusita, legetik aldentzeko borondatearen adierazpentzat baino ezin da ulertu, eta hori debeku zaio erregelamendu-ahalaren titularrari.

192/2023 ABJI, par.: 175-188

Beste alde batetik, hau ere aztertu behar dugu: proiektuak nola arautzen duen **lehentasunezko enplegu-planetarako diskriminaziorik ezaren printzipioa.** Erregulazio horrek **langileei exijitzen die, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planari atxikitzeke eskubidea aitor dakien, enpresan gutxienez urtebeteko antzinasuna izatea,** BGAELek ezartzen duen bezala.

Espedientea izapidetzean, hala LHKn nola EGABn planteatu zuten hilabeteko antzinasuna

aplikatzeko aukera, PPFLTBren 5.1.a) artikuluan ezarritakoa, Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua arabera emana —hain zuzen ere, PPFLTBren artikulua hori aldatzera etorri zen 12/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Enpleguko Pentsio Planak Arautzekoa, Plan horiek Bultzatzeko—.

Ez dute proposamena onartu; izan ere, prozeduraren memorian ematen den azalpenaren arabera, “gogoeta hori ez da aintzat hartu, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 14.a) artikulua ezartzen baitu urtebeteko antzintasuna. Hala ere, azken tarteki bat gehitu zaio 128. artikuluari (dekretu-proiektuaren hirugarren artikulua zazpigarren apartatua), eta urtebetetik beherako antzintasun-epea ezartzeko aukera aurreikusi da, negoziazio kolektiboan edo enpresa-itunean lortutako akordioaren arabera”.

Hala ere, horri buruz, zilegi izan bekigu gogoratzea **97/2014 KAEn aztertu zutela lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planen diskriminaziorik ezaren printzipioa**, [BGAELren 14.a) artikulua], **eta xedapen horren zati bat deuseztatu zutela**.

Deuseztatutako edukia lotuta bazegoen ere negoziazio kolektiboaren ondorioz pentsio-planetan sartzearekin, manuaren konstituzio-kontrakotasunaren adierazpena honela egin zen:

Ondorioz, Pentsio-plan eta -funtsen Legearen testu bateginaren 4.1 a) artikulua **merkataritza-legeriaren izaera duenez —Estatuaren eskumen eskusiboa—**, testu bateginaren azken xedapenetako laugarrenaren arabera, ondorioztatu behar dugu EAEko 5/2012 Legearen 14 a) artikulua Konstituzioaren aurkakoa dela, partaideak integratzeko ezarritako araubideak EKren 149.1.6 artikulua arabera emandako Estatu-erregulazioa urratzen duelako.

Konstituzio Auzitegiak berretsi duenez, merkataritza-erregulazioa da partaideak gizarte-aurreikuspeneko planetan integratzeko araubidea, eta Batzordeak uste du bidezkoa dela Estatuko arauak ezarritako denbora-muga aplikatzea, langileak lehentasunezko enplegu-planetan integratzeko mesedegarriagoa baita, gainera.

192/2023 ABJI, par.: 189-194

Eskubideen enbargaezintasunari buruzko 38. artikuluari **eragiten dion aldaketari dagokionez**, arau-inpaktua aztertzeko memoriak **aldaketa horren jatorriaren berri ematen du**; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren (EAEAN) uztailaren 8ko 291/2021 **Epaiak deuseztatu egin zuen** Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordearen mar txoaren 7ko 1/2018 Jarraibidea, BGAELren 19., 27. eta 29. artikuluen aplikazioari buruzkoa, eta, zehazki, **BGAE baten bazkide arrunten eta, hala badagokio, onuradunen eskubide**

ekonomikoen gaineko enbargoen idatzoharraren uneari eta enbargo hori egikaritzeko uneari buruzkoa.

Sail sustatzaileak 203/2015 Dekretuaren 38. artikulua aldatu du, **jarraibide horren edukia sartzeko eta, horrela, oztopoak gainditzeko, hala arau-mailari** nola araua egiteko prozedurari dagokienez, egokitasun juridikoa behar baitute aipatutako erregelamendu-agindua aldatzeko edo osatzeko.

Hala ere, **erregulazioari jada ekin bazaio ere arau-irismen egokia duen xedapen orokor baten bitartez, Batzordeak ezin du alde batera utzi epai horrek egindako beste gogoeta garrantzitsu bat**, proiektaturiko testuaren interpretazio zuzena sartu behar den esparru juridikoari buruzkoa.

Illo horretatik, erabaki judizialak aurreratu duenez, 38. artikuluan **jasotzen den eskubideen enbargaezintasunaren araubideak ezin ditu gainditu Konstituzio Auzitegiaren 88/2009 Epaiaren terminoak, EAeko Autonomia Estatutuaren 10.23 artikuluan aurreikusitako eskumen eskusiboaren egikaritzea aipatuta**. 142/2015 Irizpenak ere adierazi zuen hori, 203/2015 Dekretuaren proiektuaren barruko 38. artikuluari buruzko iritzia ematean.

Epai horren oinarriak indartu egiten du irizpen horretan ateratako ondorioa, eta txosten honen xede den proiektura ekarri behar da; izan ere, orain berriro baliatu dute azkenean onartutako dekretuan alde batera utzi zuten idazketa, zeinak, orain proposatzen denarekiko alde txikiekin, objektu eta interpretazio berberei erantzuten baitzien. Luze baloratu zen hori aipatu irizpenaren 151.etik 161.era bitarteko epigrafeetan, eta horietara jotzen dugu.

Gaur egun pentsio-planak (gizarte-aurreikuspeneko planek oinarri komuna partekatzen dute) arautzen dituen Estatuko araudiari begiraturaz gero, ezinbestean ondorioztatu behar da ezen, **bai PPFLTBren 8.8 artikulua arabera, bai PFRren 22.7 artikulua eta haren zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, enbargoa, traba judiziala edo administratiboa erabaki daitezkeen unea dela, eta, beraz, haiek erabakita, enbargoa egikaritzeko unea datorrela** “prestaziorako eskubidea sortzen denean edo eskubide kontsolidatuak eskuragarri edo eraginkor izan daitezkeenean, 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera”.

Hortik ondorioztatzen da, 142/2015 Irizpenaren 158. epigrafea errepikatuta: “Hau da, pentsio-plan batean finkatutako eskubideen balizko enbargoak ez duela behar prestazioa kobratzeko eskaririk, eskatzea ahalbidetzen duten baldintzak betetzea baino ez, eta hori oso garrantzizkoa da gaixotasun larriaren eta luzaroko langabeziaren kasuetan, eta, batez ere, gutxienez hamar urteko antzintasuna duten ekarpenekin”.

Eta, amaitzeko, gogora dezagun irizpen horren 161. epigrafean adierazi genuena: “gizarte-aurreikuspeneko planei eta pentsio-planei aplikatu dakiekeen araubide juridikoaren diferentzia onartuta ere, enbargaezintasunaren alorrean oinarri komuna dutela aitortu behar: hortik, beraz, EKren 24.1 artikuluko oinarritzko eskubidearen mugaren ikuspegitik egindako justifikazioa ere aplikagarri izatea. Arrazoibide horren

ifrentzuan, **berdin onartu behar da gai honetan aldenaz gero Estatuko legegileak pentsio-funtsetarako ezarri duenetik gainditu egingo litzatekeela EAEAREN 10.23 artikuluko eskumen autonomiko eskusiboa**”.

192/2023 ABE, par.: 203-210

Xedapen iragankorretatik, bigarren xedapen iragankorraren 3. apartatua baino ez dugu aztertuko, **dekretua indarrean jarri aurretik lehentasunezko zatitako enpleguko BGAEEi buruzkoa**.

Apartatu horrek **bi neurri espezifiko aurreikusten ditu** erakunde horientzat. **Alde batetik, 203/2015 Dekretuaren 127. artikuluan xedatutakora egokitzea bost urteko epean egin behar da, dekretua indarrean jarri eta hurrengo egunetik hasita**.

Horrela, epe luzea ematen zaie egokitzapen hori egiteko, baina ez dute horretarako arrazoirik azaldu.

Bestalde, **egokitzapen horretan onartzen zaie, kapital moduan kobratzeko ehuneko 203/2015 Dekretuaren 127. artikuluen 3. apartatuaren b) letran adierazitakoaz bestelakoa badute**, “**salbuespen gisa mantendu ahal izatea, baina aukera hori erakundeko bazkide diren pertsonetara mugatuta, bai eta egokitzapen-akordioak hartu arte emandako zenbatekoetara ere**, ekarpen horiek prestazioa gauzatu arte sortutako errendimenduak gehituta”.

Esan daiteke proiektuak kontuan hartzen dituela aurreko legeriaren babesean sortutako harreman juridikoak, eta ez diela kalterik egin nahi partikularrentzat onuragarriak diren egoerei; izan ere, partikular horiek eutsi ahal izango diote kapital moduan kobratzeko ehuneko lehenagotik aitortuari.

Neurri horiek bateratzearen ondorioz, datozen bost urteetan, aipatu erakundeetako bazkideek eskubide bat izango dute, zeina ukatzen baitzaie lehentasuneko kalifikazioa izapide egokiak bete ondoren lortu duten lehentasuneko BGAEEtako eta aurreikuspen-planetako bazkideei (203/2015 Dekretuaren 125. artikulua).

Proiektaturiko aldaketaren helburua da gizarte-aurreikuspeneko lehentasuneko planei aplikatu beharreko prestazio-araubidea ezartzea; izan ere, BGAELren 14.f) artikulua xedatu duenarekin bat etorrita, egoki iritzi zaio plan horien izaera berezia gordetzeko.

Salbuespen horrek zuzenean garrantzia EKren 14. artikuluekin alderatzera; izan ere, legea-

ren berdintasun-alderdiaren berdintasun-printzipioari buruz landutako doktrina konstituzionalaren oso adierazpen laburtuan, tratamendu-desberdintasuna objektiboki justifikatzeaz gain, hartutako neurriaren, gertaturiko emaitzaren eta lortu nahi den helburuaren arteko erlazioari buruzko proportzionaltasun-judizioa gainditzea eskatzen du (beste askoren artean, 22/1981 KAE, uztailaren 2koa, 3. OJ; 49/1982 KAE, uztailaren 14koa, 2. OJ; 209/1988 KAE, azaroaren 10ekoa, 6. OJ; 200/2001 KAE, urriaren 4koa).

EKren 14. artikuluari buruzko doktrina konstituzionalak, laburbilduz, aukera ematen du araubide juridiko desberdinak finkatzeko ordenamenduak debekatzen ez dituen faktore edo elementuen arabera, —hala nola enpleguko BGAEak izatea, jada lehentasunezkoztat joak—, baina diferentzia horrek beti gainditu behar du arrazoizkotasun-test edo -judizio deritzona, eta horrek nahitaez dakar beharrezkoa dena baino gehiago salbuetsi behar ez izatea, diferentzia justifikatzen duen arrazoia kontuan hartuta.

Enpleguko lehentasunezko BGAE berriak direnean araubide berria erabat aplikatu behar dela esan liteke, **baina ez dugu jada eratuta dauden BGAEen eta aurreikuspen-planen kasuan bezain argi ikusten lehentasunezko izaera hartzen dutenean bazkideei ez zaiela errespetatu behar, modu parekagarrian, estatutuetan eta erregelamenduetan aitortuta duten kapital gisako kobrantza-ehunekoa**, hori bai, lehentasunezko kalifikazioa eskuratze-ko erabakiak hartu arte emandako zenbatekoetara mugatuta.

Hori dela eta, **komeni da behar bezalako justifikazioa jasotzea jada lehentasunezkoztat jotako enpleguko BGAEetan bazkideei ematen zaien tratamendu bereziari buruz**, bai eta bost urtean beste araubide baten mende egoteko arrazoiak argitzea ere.

192/2023 ABJI, par.: 219-229

V. Finantza-erakundeak

Hori horrela den heinean, eta memoria horien arabera, **FEIri** [Finantzen Euskal Institutua] **dirulaguntzen arloan dagokion funtzio bakarra erakunde laguntzaile gisa duen jarduerarekin lotuta dago, baina dirulaguntzen arloan dagokion funtzio bakarra erakunde laguntzaile gisa duen jarduerarekin lotuta dago, baina jarraian ikusiko dugunez, ez da egokia parte-hartze hori egituratzeko modua.**

Hasteko, izapidetze-memorian jasotako baieztapen argia transkribatzen dugu, **Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostenean** egindako oharren aurrean. Txosten horrek **zalantzan jartzen du FEIren izaera juridikoa, dagozkion eginkizunak kontuan hartuta:**

Alde batetik, ez zaio esleitu nahi izan sustapen-ahalmenik Institutuari; izan ere, susta-

pen-programen instrumentazioan eta finantza-kudeaketan parte hartzeari dagokionez, erakunde laguntzaile hartzen da, eta, beste alde batetik, nahitaezkoak ez diren txostenak egiteak eta ordezkari-eginkizunak betetzeak ez dakar berekin aginpidez baliatzea. Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen Institutuaren lanpostuak funtzionarioentzat gordetzea.

Antzeko ildotik jotzen du sailak memoria ekonomikoan eta lehen aipatutako izapidetze-memorian, nahiz eta, kasu honetan, KEBen [Kontrol Ekonomikoko Bulegoa] oharretan eta 9.4 artikuluan jasotako erregulazioari emandako erantzunean zentratuta egon. Gai horrek **FEIren jarduera erakunde laguntzaile gisa aurreproiektuan nola taxutzen den aztertzea** garatzea.

Gai hori aztertzeko, komenigarria da aipatutako 9.4 artikulua edukia transkribatzea. Artikulu horrek interesik gabeko mailegu hobaridunak ematea arautzen du, honela:

Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe [zeinean jasotzen baita estatu-laguntzen arloko erregulazioaren mende dagoela], Finantzen Euskal Institutuak mailegu hobaridunak eman ahal izango ditu, interesik gabekoak, merkatukoa baino interes txikiagoak edo zati ez-itzulgarri batekoak, baldin eta hobari hori Euskadiko aurrekontu orokorren zuzkiduren kargura finantzatzen bada, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate batek sustaturiko sustapen-programa baten esparruan, institutuaren eta entitate horretako organo eskudunaren artean formalizatutako hitzarmen baten bidez. Horretarako, mailegu horiek emateko araudi erregulatzailerat hartuko dira Institutuaren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiak, eta, nolahi ere, deialdi bat aurrekusi beharko dute onuradunen betekizun eta betebeharrekin eta emateko prozedurarekin, non errespetatu beharko diren publikotasun-, gardentasun-, lehia-, objektibotasun-, berdintasun- eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, bai eta estatu-laguntzen arloko Europako araudia ere, hori guztia formalizatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera. Deialdia eta elkarlanerako hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

Memoria ekonomikoak horri buruz dioenez, “egokitzat jo dute Finantzen Euskal Institutuak mailegu hobaridunak eman ahal izatea, betiere hobari hori Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde baten aurrekontu-zuzkiduren kontura finantzatzen bada. Mailegu horiek ematea, ordea, ez da dirulaguntzen arloko araudiaren mende egongo, nahiz eta bermatu behar den errespetatzen direla publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, bai eta, nolahi ere, estatu-laguntzen arloko Europako araudia ere”.

KEBek xedapena argitzeko beharra **planteatu du** bere txostenean, **FEIren jarduera formulatuta dagoen terminoetan itxuraz kontraesan bat ageri dela uste baitu.**

KEBek horri buruz planteatzen duen objekzioari erantzunez, izapidetze-memoriak honako hau azaltzen du:

Finantzen Euskal Institutuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen artean horrelako sustapen-programak (mailegu hobaridunak) abian jartzeko lankidetzaren formula berritzaile hori sartzeko arrazoiak erabat instrumentalak dira, horiek ezartzeko prozedura arin bat izateko beharretik eratorritakoak. Horretarako, nahikoa da alde aurretik bi alderdien arteko hitzarmen bat formalizatzea eta Institutuaren administrazio-kontseiluak deialdia onartzea (...).

Memoria horiek, beraz, badirudi FEIren konfigurazioari erreparatzen diotela, eta, jardueraren eremu zehatz horretan, dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaile gisa soilik.

Hala ere, ikusi dugu ezen transkribatutako **9.4 artikulua aurreikusi duenez**, sustapen-programaren ardura duen sektore publikoko erakundearekin alde aurretik hitzarmena eginda, **FEIren Administrazio Kontseiluari egokituko zaiola onartzea “araudi erregulatzailerik” bai eta “deialdia ere, onuradunen betekizun eta betebeharrekin eta dirulaguntzak emateko prozedurarekin batera”**.

FEIren jarduera planteatzeko modu hori ez dator bat dirulaguntzen kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jarduteko eskemarekin.

DLOk honela taxutzen du erakunde laguntzaileen figura: “Erakunde kolaboratzaileak izango dira dirulaguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako dirulaguntza eman duten organoaren izenean, eta bere kontura jardunez, onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak, arautzeko oinarrietan halaxe ezartzen bada; edo dirulaguntzaren kudeaketan laguntzen dutenak, jasotako funtsak alde aurretik eman eta banatu gabe » (12. artikulua).

Bestalde, nahiz eta egia izan arau beraren 16. artikulua eskatzen duela “administrazio-organoen emailearen eta erakunde laguntzailearen arteko lankidetzaren hitzarmen bat formalizatzea, zeinaren bidez arautuko baitira hitzarmen horrek bere gain hartutako baldintzak eta betebeharrak”, hitzarmenak jaso behar duen gutxienezko edukaren barruan jasotzen du “erakunde laguntzaileak kudeatuko dituen dirulaguntzen araudi erregulatzailerik bereziaren identifikazioa”.

Biak oinarrizko manuak dira, eta horiek mugatzen dute erakunde horien jarduna dirulaguntzak kudeatzen laguntzera eta, kasuaren arabera, funtsak entregatzera, baina **argi dago dirulaguntzen programari aplikatu beharreko erregulazioa eta haren deialdia onartzea sustapen-programaren ardura duen sektore publikoko erakundeari dagokiola**.

Jarduera-eskema hori bera jasotzen du EONALen 52. artikulua: “Laguntzen edo dirulaguntzen arauetan hala jasotzen bada, erakunde laguntzaile batek kudeatu eta ordaindu ahal izango ditu laguntza edo dirulaguntza publikoak”. Eta, ildo horretan, hauxe gaineratzen du: “Dirulaguntzarekin edo laguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako, erakunde laguntzaileak organo emailearen izenean eta kontura jardungo du”.

Aurreproiektuaren 9.4 artikulua, beraz, berriro planteatzea eskatzen du; izan ere, memoriak dioen bezala, FEIren parte-hartzea erakunde laguntzaile gisa jardutera mugatzen bada, haren zereginen erregulazioa aplikagarri den oinarritzko erregulazioaren arabera dagokion horretara mugatu behar da, eta inola ere ez dagokio oinarriak onartzea eta dirulaguntzen programaren deialdia egitea.

92/2023 ABJI, par.: 197-211

VI. Administrazio publikoetako langileak

A) Sartzea

Ekintza positiboko neurriak.

Orduan adierazi genuen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko (EAEAN) Administrazioarekiko Auzien Salak maiatzaren 12an emandako 335/2010 Epaian eta urtarrilaren 26an emandako 55/2011 Epaian ezarritako doktrinari jarraikiz, **argi dago emakumeentzako lanpostuak gorde behar direla ezartzen bada, legezko gaikuntza behar dela. Horren jatorria da, alde batetik, EKren 103.3 artikuluan ezarritako lege-erreserba, funtzionario publikoen estatutu-arloari dagokiona, eta, bestetik, Konstituzio Auzitegiaren doktrina. Azken horretan, berariazko legezko gaikuntza eskatzen da oinarritzko eskubideetan edozein mugaketa egiteko, eta, zehazki, proba espezifikoak izango dituzten deialdiei dagokienez.**

Horri buruz, egokia dirudi adieraztea ezen, EAEPL onartu ondoren, polizia-kidegoen eremuko hainbat arau aldatu direla, antzeko neurriak txertatu dituztenak. Zehazki, 17/2017 Legea, abenduaren 13koa, Valentziako Erkidegoko udaltzaingoak koordinatzeari buruzkoa; 16/1991 Legea, uztailaren 10ekoa, Kataluniako udaltzaingoei buruzkoa; 4/2013 Legea, uztailaren 17koa, Balear Uharteetako udaltzaingoak koordinatzeari buruzkoa; eta 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Poliziei buruzkoa. Baita uztailaren 11ko 10/1994 Legea, Generalitateko Poliziari («Mossos d'Esquadra») buruzkoa.

Aurrekoaz gain, SPISZen eremu espezifikoan, Kataluniako suteen prebentzio eta itzalke-tako eta salbamenduko zerbitzuen erregulazioari buruzko 5/1994 Legea aldatu zuen abenduaren 29ko 2/2021 Legeak –Kataluniako zergen, finantzen, administrazioen eta sektore publikoaren arloko neurriei buruzkoak– hemen aipatu diren neurrien ia berdinak direnak gehitu zituen. Baita asmo handiagoko helburu bat ere; izan ere, deialdiaren xede den kate-

gorian emakumezko funtzionarioen presentzia % 40 edo handiagoa izatea lortu nahi zen.

Are gehiago, Kataluniako 2/2021 Lege horrek Landa-eremuko Agenteen Kidegoari buruzko 17/2003 Legea aldatu zuen, neurri berak ezartzeko kidegoan sartzeko eremuan, berdintasunerako eskubidea eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea betetzeko mekanismoak eta baliabideak ezartzeko asmoz.

Eremu horretan, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren (EGBELO) edukiak nabarmentzea komeni da; izan ere, lege horren 5. artikulua gizon eta emakumeek lanpostuetara sartzean tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa ezartzen du, profesionalen prestakuntzan eta sustapenean, eta lan-baldintzetan, eta enplegua lortzeari dagokionez, horretara biltzen dela behar besteko prestakuntza lortzea ere, ez da bereizkeria izango, "sexuarekin zerikusia duen ezaugarria, baldin eta, kasuan kasuko lanbide-jardueraren izaera edo jarduera hori gauzatzeko ingurua dela bide, ezaugarri hori oinarritzkoa eta erabakigarria bada lanbide-betekizun gisa. Horrez gain, tratu-berdintasunaren xedea legitimoa izan beharko da, eta lanbide-betekizuna proportzionala". Bestalde, 11. artikulua aurreikusten du botere publikoek emakumeen aldeko ekintzak hartzea, berdintasunaren eskubide konstituzionala eraginkor egiteko, eta gizonei begira egitezko desberdintasun-egoera nabariak zuzentzeko. Neurri horiek egoera horiek iraun bitartean aplikatuko dira eta "zentsuzkoak eta proportzionalak izan beharko dira, kasu bakoitzean lortu nahi den helburuari dagokionez".

Ondo ikus daitekeenez, **argi dago autonomia-erkidegoek ahalmen legegilea dutela horrelako neurriak, aurreproiektuan proposatutakoak, esaterako, ordenamendu autonomikoan sartzeko.** Hau da, funtzio publikoetan berdintasun-baldintzetan sartzeko eskubideak onartzen du legegileak izangaien sexua kontuan hartu ahal izatea, betiere lanbide-jarduera zehatzen izaerarengatik edo jarduera horiek gauzatzen diren testuinguruarengatik egiten bada, EGBELOren 5. artikulua dioen bezala. Era berean, **diskriminazio positiboko neurriak hartzeko aukera ematen du gizon eta emakumeen arteko egitezko desberdintasun-egoera nabariak zuzentzeko balio badute, eta lortu nahi den helburuarekiko zentsuzkoak eta proportzionalak badira,** 11. artikulua ezartzen duen bezala.

Horrenbestez, EKren 9.2 artikuluan aurreikusten den oinarritzko berdintasuna lortzeko balioko bidea denean, **ezin dira *ad limine* baztertu berdintasun-printzipioa,** EKren 14. artikulua aitortua, **eremu horretan ere gauzatzera bideratutako legeko konfigurazioak.**

Martxoaren 14ko 26/2011 KAEren arabera:

sexu-arrazoiengatik diskriminazioa debekatzen da (KEren 14. artikulua), historikoki emakumeak bizitza sozial eta juridikoan izan duen gutxiagotasun-egoerari amaiera emateko asmoz, bereziki enpleguari eta lan-baldintzei dagokienez. Azken batean, emakumeek berariazko zailtasunak dituzte lanera

sartzeko eta lanpostuen barne-sustapenerako (denen erakusgarri, uztailaren 16ko 128/1987 KAE, 5. oinarria; urtarrilaren 31ko 19/1989 KAE, 4. oinarria; azaroaren 28ko 317/1994 KAE, 2. oinarria; urtarrilaren 30eko 17/2003 KAE, 3. oinarria; uztailaren 3ko 214/2006 KAE, 2. oinarria; eta azaroaren 20ko 324/2006 KAE, 4. oinarria).

Hori dela-eta, baieztatu egin dugu sexu-arrazoiengatik egindako diskriminazioak ez dakarrela soilik gutxiespen-tratamendua debekatzea –pertsonek sexuaren arrazoi huts eta soilan oinarrituta daude; hau da, sexuarekin lotura zuzena eta argia duten arrazoiak edo inguruabarrak tartean daudenean, adibidez, haurdunaldietan, begi-bistako arrazoiengatik, elementu edo eragile ezberdina denez, emakumeei soilik eragiten baitie (ekainaren 7ko 173/1994 KAE, 2. oinarria; uztailaren 23ko 136/1996 KAE, 5. oinarria; urtarrilaren 29ko 20/2001 KAE, 4. oinarria; eta otsailaren 25eko 41/2002 KAE, 3. oinarria, besteak beste)–, emakume eta gizonen tratua-eta aukera-berdintasun eraginkorra ezartzeko neurriak hartzea ere bai. Horrenbestez, emakumeek, gizonak ez bezala, laneko sarbiderako edo enplegua mantentzeko dituzten benetako desabantailak konpentsatzea xede duten legezko neurriak ezin dira berdintasun-printzipioaren kontraketat jo, oso bestelaketat baizik; izan ere, gaur egungo diskriminazio-egoerak desagerraraztea dute helburu, KEren 9.2 artikuluan eskatzen diren eskubideak eraginkor egiteko (128/1987 KAE, 7. oinarria eta ondorengoak; 19/1989 KAE, 4. oinarria; martxoaren 9ko 28/1992 KAE, 3. oinarria; abenduaren 14ko 229/1992 KAE, 2. oinarria; urtarrilaren 14ko 3/1993 KAE, 3. oinarria; eta martxoaren 25eko 109/1993 KAE, 5. oinarria, guztien adibide gisa).

Hori bai, oinarrizko eskubide bati eragiten zaionez (KEren 23.2 artikulua), eta ikusita behin eta berriz lotura dagoela aipatutako eskubidearen eta merezimendu- eta gaitasun-printzipioen artean, **tratamendu bereizlea justifikatzeko karga zorrotasun bereziaz zaintzen da baldintza pertsonal bat tartean dagoenean; hots, sexuarena, zeinak, itxura batean, ez baitu lotura zuzenik printzipio horiekin**. Gauza bera esan daiteke desgaitasunaren kasuan (269/1994 KAE) edo adinaren kasuan (75/1983 eta 38/2007 KAE).

Lortu nahi den helburura iristeko neurrien aukeraketara eramaten da kontua, helburuak ez baitu legitimatzen ekintza positiboaren edozein neurri hartzea. Gure ordenamenduan, **lortu nahi den helburu legitimoa erdiesteko modukoa izan behar da –ego-kitasun-juzgua–; beharrezkoa izan behar da, helburu bera eraginkortasun berberarekin lortzeko neurri leunagorik ez izatea alegia –beharrezkotasun-juzgua–; eta, azkenik, ponderatua eta orekatua izan behar da, hots, interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago ateratzea beste ondasun edo balio batzuetarako kaltea baino**.

Lanerako sarbidean emakumeari lehentasuna emateak erraztu egiten du, zalantzarik gabe, emakumea SPISZetan sartzea; horren ondorioz, neurri eraginkorra da, eta, beraz, ezin hobea gizon eta emakumeen artean oreka handiagoa lortzeko.

Testu honetan, hainbat neurri ezarri dira baldintzak egokitzeko, emakumeen ezaugarri fisi-koetara egokitu baitira eta genero-arauaren eragina sartu da berdinketak ebazteko. Hala eta guztiz ere, kidego hauetan metatutako esperientzia kontuan hartzen bada, ikusten da neurri horiek oso eraginkortasun mugatua dutela aurreproiektuak lortu nahi dituen helburuak erdiesteari dagokionez.

Azken batean, epaitzeko azken parametroa da –funtzio publikoetarako sarbidean berdintasunerako oinarrizko eskubideari arrazoizko sakrifizioa ezartzen dion ala, aitzitik, gehiegizkoa den– gairik delikatuena sortzen duena.

Gure 130/2011 Irizpenean aipatu genuen konstituzio-doktrina urria zela eremu honetan. Eta EKren 10.2 artikulua bidez bakarrik jo zitekeela Europako Erkidegoen Justizia Auzitegi Nagusiaren (EEJA) doktrinara, zeinak 76/207/EEE Zuzentarauaren esparruan hartu baitu erabakia.

Eremu horretan, garrantzitsua da Serge Briheche Epaia, guztiak biltzen baititu:

23. Funtzio publikoaren sektoreetan emakumezko hautagaiak lehentasunez sustatzera bideratutako ekintza bat Europako Erkidegoko zuzenbidearekin bateragarritzat jo behar da, baldin eta automatikoki eta baldintzarik gabe lehentasuna ematen ez badie gizonezko lehiakideen kualifikazio bera duten emakumezko hautagaiei, eta hautagaitzak objektiboki balioesten badira, hautagai guztien izaera pertsonaleko egoera partikularrak kontuan hartuta. (ildo horretan, ikusi 2000ko martxoaren 28ko epaia [EEJAN 2000, 56] , Badeck eta beste batzuk C-158/97, Rec. I-1875 or., 23. apartatua).

24. Betekizun horien oinarria da, hain zuzen, oinarrizko eskubide batentzako edozein salbuespenen irismena zehaztean, hala nola, Zuzentarauak ezarritako gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren eskubideari proportzionaltasun-printzipioa errespetatu behar dela; izan ere, printzipio horren arabera, salbuespenek ez dituzte gainditu behar proposatutako helburua lortzeko egokia eta beharrezkoa denaren mugak, eta, ahal den neurrian, tratu-berdintasunaren printzipioa eta lortu nahi den helburuaren eskakizunak bateratu behar dira. (Lommers epaia [EKJAN 2002, 106], lehen aipaturikoa, 39. apartatua).

25. Zuzentarauaren 2. artikulua 4. apartatuak, beraz, enplegua lortzearen arloko neurri nazionalak baimentzen ditu, bereziki emakumei laguntzen dietenak, baldin eta lan-merkatuan lehiatzeko gaitasuna hobetzera eta gizonekin berdintasunean oinarritutako karrera profesionala garatzera bideratuta badaude. Xedapen horren helburua da oinarrizko berdintasuna lortzea, eta ez soilik berdintasun formala, gizarte-bizitzan sor daitezkeen ezberdintasunak murriztean, eta, hala, EKren 141. artikuluaekin bat etorritik (RCL 1999, 1205 ter eta LCEur 1997, 3695), 4. paragrafoan, eragindako pertsonen karrera pro-

fesionalean egon daitezkeen desabantailak saihestea edo konpentsatzea (ikusi, ildo horretan, 1995eko urriaren 17ko epaiak [EKJAN 1995, 172], Kalanke, C-450/93, Rec. I-3051 or., 19 paragrafoa eta 2000ko uztailearen 6koa [EKJAN 2000, 166], Abrahamsson eta Anderson, C-407/98, Rec. I-5539 or., 48. apartatua)”.
fesionalean egon daitezkeen desabantailak saihestea edo konpentsatzea (ikusi, ildo horretan, 1995eko urriaren 17ko epaiak [EKJAN 1995, 172], Kalanke, C-450/93, Rec. I-3051 or., 19 paragrafoa eta 2000ko uztailearen 6koa [EKJAN 2000, 166], Abrahamsson eta Anderson, C-407/98, Rec. I-5539 or., 48. apartatua)”.

Aurreko guztia kontuan hartuta, aztertzen ari garen kasu zehatzari dagokionez, generoaren arabera eraginari buruzko txostenean jasotzen denez, berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko **xedapenak** emakumeek SPISZetan duten **ordezkaritza txikia zuzentzeko asmoz diseinatu dira**. Baita **zerbitzuak emateko garaian eraginkortasuna areagotzeko ere**. Horretarako, neurri batzuk ezarri dira, eta neurri horiek, helburu hori lortzeko egiten diren sustapen-planetan oinarrituta, emakume gehiago sartzeari ahalbidetuko dute.

Txostenak datu adierazgarriak ematen ditu emakumeek kidegoetan duten ordezkaritza txikiari eta presentzia urriari buruz, ia ez baitago emakumerik: % 3, 2020an. Hautaketa-prozesuetan duten partaidetzari buruz, ehunekoak, kasurik hoberenetan, ez du aurkeztutako izangai guztien % 5a gainditzen.

Horrela, bi alderdiri ekin zaio. Alde batetik, 26. artikulua ezartzen du probek bermatu behar dutela hautatutako pertsonak funtzioa betetzeko baldintza fisiko egokienak dituela, baita ezagutza-baldintza eta baldintza psikiko egokienak ere. **Lortu nahi dena da administrazio eskudunek diseinatzen dituzten hautaketa-prozesuen ezaugarria ez izatea izangaiak kanporatzea baldintza fisiko jakin batzuk betetzen ez dituztelako.**

Bestalde, Kataluniako polizia-kidegoetarako eta SPISZetarako diseinatutako ereduari jarraitu zaio eta berezitasun zehatz batzuk gehitu zaizkio.

Emakumeari lehentasuna ematen jarraitzen zaio gizonen aurrean, baina baldintza batzuekin: (I) beste izangaiak ez izatea neurria ez aplikatzea justifikatzen duen arrazoirik (sexu-diskriminaziorik tartean ez badago); adibidez, enplegua sartzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea; (II) baliokidetasuna egotea gaitasunetan, hau da, oposizioko edo lehiaketako probak eta ariketak gainditzea; (III) lortutako puntuazioa, gizonezko izangaiaren aldean, ez izatea gizonak oposizio-fasean edo oposizio-lehiaketaren fasearen lortutako puntuazioaren ehuneko hamabost baino handiagoa.

Lehentasuna ezarrita duten lanpostuen kopurua malgua da. Hala, sustapen-planean lortu nahi diren helburuen proportzio berekoa izan behar du, eta, neurriaren arrazoizkotasuna justifikatzeko, datu estatistiko historikoak hartuko dira kontuan, hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten eta gainditzen dituzten emakumeen ehunekoaren gainekoak.

Lehentasuna aldi baterako izango da, hautaketa-prozesuaren deialdiari dagozkion kidegoan, eskalan eta kategorian emakumeen presentzia % 33 edo gutxiago den bitartean

aplikatuko baita.

Gauzak horrela, lege-mailako tresna bat erabiltzeak jarduteko tarte oso zabala ematen du; izan ere, hainbatetan esan dugun bezala, legegilea ez da EKren eta EAEAREN aurreikuspenen betearazle hutsa, baizik eta egituratzeko askatasuna izango du. Hala, eskubidea izango du aukera politiko zabalaren barruan zuzenbidea sortzeko, baina askatasun horrek zenbait muga izango ditu (kasu honetan, Konstituziokoak eta Europako Erkidegoko zuzenbidekoak).

Era berean, adierazi dugun bezala, **sexua bereizketa juridikoaren beste irizpide baten moduan erabil daiteke, baina konstituzio-zilegitasunaren judizioak kanon zorrotzagoa ezartzen du**; hots, zorrotasun handiagoa proportzionaltasunaren inguruko eskakizun materialetan, baldin eta hirugarrenen eskubide edo askatasunetan eragiten badu, baldin eta, gainera, oinarrikoak badira.

Azkenik, oinarriko eskubideei eragiten zaienean, **arauaren idazkerak segurtasun juridikoa eta eskubidearen ziurtasuna bilatu beharko ditu, eta idazkeraren anbiguotasunak ezingo ditu ekarri interpretazio bat baino gehiago, eta a fortiori, enuntziatuaren aplikazio bidegaberik.**

Erraz ulertzen denez, eta gure irizpenean hainbestetan aipatu den Konstituzio-doktrinatik eta Europar Batasuneko doktrinatik ondorioztatzen denez, sexu-arrazoiengatik diskriminazio positiboa dakarten neurriak ezartzen dituzten legezko neurrien judizioa korapilatsua da, eta proportzionaltasunaren analisiak ezartzen duen kautelaz eta neurritz jokatu behar da.

Xedapenaren analisisan, indarrean dauden araudietan gertatzen den bezala, **hau da neurriaren elementu nagusia, zalantzarik gabe: lehentasuna, baldin eta puntuazioan alde bat baldin badago, kasu honetan % 15etik beherakoa**. Ez da ahaztu behar, hala ere, beste araudi batzuek alde hori % 20an ezartzen dutela; beraz, gure kasuan, aldea berdintasunari dagokionez txikiagoa da.

EEJAK zurruna badirudi ere, **haren epaietan ez da inolako debekurik agertzen ordezkartza urria duen izangaiari lehentasuna emateko beste sexuko lehiakidearen aurrean; garrantzitsuena da zer baldintza bete behar dituen neurriak proportzionaltasun-printzipioarekin bat etortzeko**. Zehazki, **Abrahamsson** epaiak eskatzen du **izangaiek merezimendu baliokideak edo nabarmen baliokideak izatea**. Oharkizun horrek, auzitegiak juntagailu hautakaria erabiltzen baitu –lehentasuna ez da soilik baliokidetasunaren araberakoa–, **babesa emango lioke lehentasuna erabiltzeari ezberdintasun txikia gertatzen denean** –nabarmen baliokideak izatearen kontzeptua betetzeko–.

Testuinguru horretan, % 15, Estatu Kontseiluak esandakoa parafraseatuz, printzipio meri-

tokratikoaren moderazio objektiboaren eta zentzuzkoaren ondorio izan daiteke, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak onartua. Izan ere, beteko den lanposturako egokitasuna edo gaitasuna eskatzen da beti, baina merezimendua erlatibizatuta, nolabait esatearren, kaltetutako talde bateko kide bat tartekatzen denean. Hala, diskriminazioaren aurkako babesaren plangintza indibidual hutsa gainditzen du, eta diskriminazioaren neurri kolektiboa berreskuratzen du (2006ko ekainaren 22ko Irizpena).

Eredu hori hainbat legeriak erabili dute eta ez du eztabaida handirik sortu aplikatu denean. Egia esan, neurriak hartu behar dira, emakumeak irispidea izan dezan haren presentzia beharrezko duten enplegu jakin batzuetara, nahiz eta historikoki gainditu ezinezko zailtasunak izan diren horretarako. Beharrezkoa da, beraz, hori ahalbidetuko duten salbuespe-
nezko neurriak ezartzea.

Gainera, behin eta berriz esan dugun bezala, **% 15etik gorakoa ez den aldea ezartzen denez, desberdintasuna areago ñabartzen da.** Ez da erabateko lehentasuna ezartzen; beraz, oso ondo egokitzen da egokitasunaren, premiaren eta proportzionaltasuna Konstituzio-parametroetara.

Dagoeneko esan dugun bezala, **neurri bat ezarri da, neurri horrek gehieneko bat jartzen du eta gutxienekoa zehaztu gabe uzten du, berdintasun-planen eta estatistika-datu historikoen mende,** eta, horrela, hobeto egokituko da hautaketa-prozesu bakoitzaren benetako errealitatera.

Horrela, baztertu egiten da abstraktuki koherentea baina aplikazio praktikoan kaltegarria den eredu bat definitzeko arriskua, oso errealitate desberdinetan proiektatzen delako. Ekintza positiboaren helburua egiazko berdintasuna lortzea da, eta, beraz, hori lortuko duen neurria behar du.

Azken batean, **legegile autonomikoak badu ahalmena diskriminazio positiboko neurriak hartzeko irispideari dagokionez, SPISZk direla eta. Baina Batzordeak iradokitzen du behar bezala oinarritzea beharrezana, hautaketa-irizpidean emakumearen alde ezartzen den bereizketaren ondorio juridikoak egokiak eta proportzionatuak izan daitezen, nahiz eta sakrifizioa ekarri tratu-berdintasunean, eta, azken batean, bat etor daitezten funtzio publikoan berdintasun-baldintzetan sartzeko askatasunaren printzipio konstituzionalekin, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera.**

18/2023 ABJI, par.: 160-193

B) Izendapen askeko langileak

26. artikulua funtzionarioa **izendapen askeko lanpostutik kentzeko** berezitasunak jasotzen ditu, eta zehazten du ebazpen horren arrazoiak, nolahi ere, ebazpena emateko eskumenari buruzkoak izango direla.

Ulertu izan da kargua uzteko arrazoiak inplizituki zegoela ebazpenean eta hura hartzeko eskumenean, besterik gabe. Ildo beretik arautu dute kontu hori urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 34.1 artikuluan (190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena). Hori, era berean, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuko langileen sarrerari buruzko 1995eko Erregelamendu Orokorraren 58.1 artikuluan ezarritakoaren isla da.

Aurrekoa gorabehera, **jurisprudentziak jada ez du onartzen eskumen-erreferentzia hutsa aski denik eskatzen den arrazoitzerako. Ebazpenean egiaztatuta utzi behar den betekizun formal bat da.** Hala ere, aurrekoarekin batera, **zenbait muga ezarri ditu lanpostutik kentzeko arrazoirik eza edo motibazio urria arintzeko.**

Zehazki, **Auzitegi Gorenak honako adierazi duenez**, “funtzionario publikoak izendapen askeko lanpostuetatik kentzea erabakitzen duten administrazio-ebazpenetan eskatzen den arrazoitzeko betebeharraren edukia hau da: lanposturako aintzat hartutako konfiantzan eta egokitasunean oinarritutako aukera-arrazoiak, izendapena eragin zutenak, ez dira jada betetzen, edo, betetzen badira, **beste inguruabar objektibo batek zehazten du kargutik kentzea egokia den ala ez.** Horretarako, ordea, ez dute balio lanpostuaren errekerimenduekin edo izendapena eragin zuten lanbide-egokitasuneko eskakizunekin zerikusirik ez duten adierazpen ilun edo estandarizatuak”. Guztien erakusgarri, apirilaren 20ko 530/2021 AGE (7137/2018 erre.) eta apirilaren 12ko 499/2021 AGE [ECLI: ES: TSJCLM: 2018:1607].

Beraz, **artikuluak kontuan hartu beharko luke ebazpenak motibazioa jarri beharko diela egokitasunaren geroko galera oinarritzen duten arrazoiari, edo kargua uztearen egokitasuna zehazten duen beste inguruabar objektiboren bat argudiatu, eta ez dela aski eskumen-gaietan soilik oinarritutako motibazioa.**

36/2023 ABJI, par.: 110-11

VII. Datu pertsonalen babesari

Egokitzat jotzen dugu ohartaraztea 29.3 artikuluko a) eta d) letretan “lege honek xedatutakoaren arabera” edo “lege honetan xedatutakoarekin bat etorri” aipatzen badute ere, **aurreproiektuaren 30.1 artikulua** dioena dela zuzenena: “**hirugarrenen datu pertsonalak dauzkan informazio publikora iristeko eskubideak ebazteko, datu pertsonalen babesari buruzko arauetan xedatutakoa bete behar da**”.

Igorpen horrek GGOLren [19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa] 15. artikuluan aurreikusitakora garatzea; artikulua horren 1. apartatua berriaz aldatu zen, hain zuzen ere, honako hauetan xedatutakora egokitzeke: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (pertsona fisikoak babesteari, haien datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da eta 95/46/EE Zuzentaraua [DBEO] indargabetzen du); eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

Gogoan izan behar da datuak babesteko oinarrizko eskubidea pertsona bakoitzari dagokion informazio-fluxuaren kontrol gisa definitu dela 11/1998 KAE, urtarrilaren 13koa), horrek, azken batean, herritar bakoitzak bere datu pertsonalak kontrolatzeko duen eskubidea bermatzen duela (292/2000 KAE, irailaren 30ekoa), eta eskubide horren edukia honela zehazten dela: “datu pertsonalak erabiltzeko eta kontrolatzeko boterea, pertsona horri ahalmena ematen diona erabakitzeke datu horietatik zein eman behar dituen, Estatua edo partikular bat izan, edo hirugarren horrek zein datu bildu ditzakeen, eta, era berean, norbanakoari aukera ematen diola jakiteko nork dituen datu pertsonal horiek eta zertarako, edukitza edo erabilera horren aurka egin dezakeelarik” (76/2019 KAE, maiatzaren 22koa).

Baina oinarrizko eskubide hori ez da baldintzarik gabekoa, eta kasu jakin batzuetan alde batera utzi behar da beste konstituzio-ondasun garrantzitsu batzuk babesteko, hala nola EKren 105.b) artikulua aitortutako informazioa eskuratzeko eskubidea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere txostenean azaltzen duen bezala, DBEOren 156. kontuan hartuzkoak honako hau jasotzen du: “Erregelamendu honek aukera ematen du bera aplikatzeko orduan herritarrak dokumentu ofizialetara iristeko printzipioa kontuan har dadin. Herritarrak dokumentu ofizialetara iristea interes publikokotzat jo daiteke. Agintaritza publiko edo erakunde publiko batek gaitasuna izan behar du bere esku dituen dokumentuetako datu pertsonalak publikoki komunikatzeko, edo agintaritza edo erakunde horri aplikatzeko zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak hala ezartzen badu. Bi zuzenbideek bateragarri egin behar dute herritarrak dokumentu ofizialetara iristea eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzea datu pertsonalen babeserako eskubidearekin; horrenbestez, erregelamendu honen arabera datu pertsonalen babesarekin behar den bateragarritasuna ezar dezakete”.

DBEOren 86. artikulua, berriz, honako hau xedatzen du:

Agintaritza edo erakunde publiko batek, edo interes publikoaren izenean misioa egiten duen erakunde pribatu batek, eskura dituen dokumentu ofizialetako datu pertsonalak jakinarazi ahal izango ditu, aplikagarria den Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideari jarraituz, dokumentu ofizialetarako irispide publikoa eta erregelamendu honetan ezartzen den datu pertsonalen babeserako eskubidea bateratzeko”.

Horretarako, **GGOLren 15. artikulua idazketa berriak bereziki babestutako datu pertsonalen kategoriak eta gainerako datu pertsonalak bereizten ditu, eta eskatutako informazioari aplikatu beharreko araubide desberdin bat ezartzen du, katalogazio horri jarraikiz.**

Nolabait, aurreproiektuaren 30. artikulua eskema horri jarraitzen dio orokorrean; izan ere, bereziki babestutako datuen araubidea ezartzean, ondorioztatzekoa da gainerakoak ez direla babes horretakoak, eta, GGOLren 15.3 artikulua zerrendatutako haztapen-irizpideen berri ematen ez badu ere, horien aplikagarritasuna ez da zalantzarik, 30.1 artikulurako hasierako igorpena dela eta: “datu pertsonalen babesari buruzko arauetan xedatutakoa”.

Alabaina, bereziki babestutako datuen barruan, GGOLren 15.1 artikulua beste dikotomia bat ezartzen du, eta aurreproiektuak diluitu egiten du dikotomia hori, 30.2 artikuluan modu bateratuan jasotzen baititu; horregatik, berriz aztertu behar da alderdi hori.

Maiatzaren 22ko 76/2019 KAEren arabera:

Horrela, ikusten dugu datu pertsonalen kategoria berezien tratamendua DBEOk estatu kideei “beren arauak zehazteko” garaian “malgutasun-tartea” aitortzen dien eremuetako bat dela, erregelamendu horren 10. kontuan hartuzkoan adierazten denez. Legeria konfiguratzekeo tartea hori bereziki babestutako datu pertsonalak tratatzeko gaitzen duten kausak zehaztera zabaltzen da –hau da, funtsezko interes publikoko helburuak identifikatzea eta lortu nahi den helbururako tratamenduaren proportzionaltasuna aintzat hartzea, datuak babesteko eskubidea errespetatuz funtsean–, baita interesdunaren interesak eta oinarrizko eskubideak babesteko neurri egoki eta espezifikoak ezartzera ere [DBEOren 9.2 g) artikulua]. Erregelamenduak, beraz, estatu kideen betebeharrak zehatz bat jasotzen du berme horiek ezartzeko, baldin eta bereziki babestutako datu pertsonalak tratatzeko gaikuntza ematen badute.

Ataza horren parte da GGOLren 15.1 artikulua edukia; izan ere, **oinarrizko eskubide baten lege-garapena da, herritarrei dokumentu ofizialak eskuratzeko duten aukera eta datuak babesteko eskubidea bateratzeko xedea duena.**

Horregatik, inoiz ez da komenigarria izaten oinarrizko araudia partzialki eta modu ez-fidagarrian kopiatzea, eta aztergai dugun kasuan baliteke gai garrantzitsu horretan interesdunei ematen zaien tratamendu komuna desitxuratzea. Hori dela-eta, legegile autonomikoak ez luke konplexutasun handiagorik sartu behar berez dezente konplexua den gai batean, batez ere nola egin bateragarri oinarrizko eskubide bat, datuak babesteko eskubidea, eta demokrazia aurreratu batean gardentasun-eskakizun saihetsezina.

Bestalde, ohartaraztekoa da aurreproiektuaren 30.2 artikulua *in fineren* idazketari eutsiz gero, bereziki babestutako datu pertsonalak badira, eskabidearekin batera idazki bat aurkeztu behar dela, zeinean interesdunak berariaz onartzen baitu sarbidea.

Batzordearen ustez, eskabidearekin batera halako eskakizun bat bete beharrak mugatu egiten du sarbiderako eskubidea, eskatzaileak nahitaez bete behar baitu, eta ezin zaio eskatu zehatz-mehatz jakitea zer pertsonak jasan dezakeen eragina.

179/2023 ABJI, par.: 300-313

VIII. Erregistroak

Orain, arau-proposamen berriari dagokionez, aztergai dugun alderdiaren barruan, honako oinarrizko ildo hauek nabarmendu behar dira: **ABEEK**[Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa] bere administrazio-izaerari eusten dio, osasun-arloan eskumena duen sailari atxikita dago, eta osasun-aseguramendu eta -kontratazioaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren mende dago funtzionalki.

ABD bat [aurretiazko borondateen agiria] formalizatzeko, aldatzeko, ordeztzeko edo ezeztatzeko funtzioak hala nahi duten mediku eta erizainei dagozkie, betiere elkargokide badira eta osasun-arloan eskumenak dituen sailari edo Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari atxikitako funtzionario edo enplegatutako publiko badira. Horiei guztiei aitortzen zaie ABEEren arduradun-izaera.

Bestalde, aipatutako dokumentuak ABEEen inskribatzeko eginkizunak osasun-aseguramenduaren eta -kontratazioaren gaineko eskumena duen zuzendaritzaren titularrari dagozkie, zeinak, gainera, ABDa emateko legez ezarritako formalitateak betetzen direla egiaztatzen du —ABDa lekukoaren aurrean ematen bada—.

Hobetsitako aukerak badu bere mamia indarrean dagoen OABLri egokitzearen ikuspegitik [7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun arloko aurretiazko borondateena].

Batzordeak ez du zalantzan jartzen ABDA emateko eskaera kopuru handiari erantzun arina emateko premia eta betebeharra. Ziurrenik, baita ere, proiektuan eskaintzen eta jasotzen dena guztiz arrazoizkoa izan daiteke proposatutako helburuak lortzeko, nahiz eta, azaldu den bezala, aldez aurretik baloratu diren gainerako aukeren edukia ezezaguna izan.

Hala ere, kasu honetan bezala, herritarren eskubide jakin batzuk gauzatzeko irtenbiderik egokienak artikulatzeko lan horretan, **erregelamendu-ekimenaren sustatzaileak ezin du alde batera utzi aldez aurretik aritu zen legegileak zer borondate zehatz zuen ABDaren formalizazioari buruz**; izan ere, lege hori indarrean dagoenez, errespetatu egin behar da lege-mailako arauaren edozein garapenetan.

Borondate hori, gainera, **berretsizat jo behar da uztailaren 8ko 11/2016 Legean, Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoan.**

Lege horrek 16.1 artikuluan dioenez, profesional sanitarioek beren jarduera-eremuan eta gaixoari bizitzaren amaierako prozesuan laguntza eman dion medikuak aholku eman beharko dute arretaren aurretiazko plangintza baliatzearen abantailez, **aurretiazko borondateen adierazpena egiteko aukeraz bereziki.**

Hala ere, arau beraren 8. artikulua arabera, lan hori argi eta garbi bereizten da ABDA emateko prozedurak berezko dituen fede-ematezkoetatik, prozedura hori, xedapen horren 1. paragrafoaren arabera, OABLk ezarritako baldintzetan gauzatu behar baitzen.

Beste alde batetik, jatorrizko dekretuaren azalpen-zatiak zuzen baieztatu zuenez, **gauza bat da ABDA ematea, eta beste bat, desberdina, ABEEen inskribatzea** —borondatez—.

Erregistroaren oinarrizko funtzioa da ABDak inskribatzea eta, hala badagokio, egilesleak artatzen dituzten medikuei helaraztea ABDok. Dekretu-proiektuaren 2. artikulua ABEEri esleitutako funtzioen berri ematen du. Irakurtze hutsak erakusten du ABEEren arduradunak garatu behar dituenak.

Besterik da, ordea, OABLren arabera (3.2 artikulua), ABDA eman edo formalizatzeko kasuak aurreikusi direnean, ABEEren ardura duen funtzionarioa edo enplegatu publikoa sartzea notarioarekin edo hiru lekukoekin batera.

Esleipen berezia, erregistroaren berezko funtzioekiko bigarren mailakoa-edo, zeina ezin baita dekretu-proiektuak erakusten duen proposamenera lerratu, hots, ABEEren arduradun-izaera esleitzea, ABDA noren aurrean egiletsiko den —osasan-sare publikoko mediku edo erizain—, bada langile horri.

Ikus daitekeenez, kontu terminologikoez haragoko gaia da, eta proposamena, proiektuaren 4.

artikuluan ageri den hori, aldatu egin behar da.

Batzordeak, arau-ekimenaren arrazoiak aintzat hartuta, uste du **organo sustatzaileak beste bide batzuk aztertu beharko lituzkeela**, OABLrekin uztartzeko modukoak.

Eginkizunen nolabaiteko deskontzentrazio batean, bide horien artean egon liteke osasun-sare publikoko langileak —medikuak eta erizainak— gaitzea funtzio eskusibo bat garatzeko, zeina, legearen arabera, ABZAren ardura duen funtzionarioari edo enplegatu publikoari baitagokio: ABDA formalizatzeko lana.

Bigarren bide gisa, eta OABLren 3.2.c) artikulua babesean, honako hau ere azter daiteke: ABDA eman dakiekeen hiru lekukoen artean osasun-sare publikoko medikuak eta erizainak egon daitezkeela, legeak aurreikusitako baldintzak betez gero.

163/2023 ABJI, par.: 85-101

IX. Gizarte-zerbitzuak

A) Ekintza itunduaren araubidea

GZESk [Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema] GZLn [12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa] duen funtsezko ezaugarria honako hau da: **gizarte-zerbitzueta-rako sarbidea edo irispidea eskubide subjektibotzat deklaratzeari, herritarren eskubide gisa. Horrek esan nahi du bermatu egin behar dela erantzukizun publikoko arreta-sare antolatua eraikitzea, titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduz osatua.**

Batzorde honek ez du inolako zalantzarik ekimen pribatuaren zereginaz, oro har, gizarte-zerbitzuen gure sistemaren eraketan, eta, bereziki, gizarte-ekimeneko erakundeen garrantziaz, Administrazioarekin lankidetzan jarduten baitute gizarte-arazoak detektatzeko, giza sustapena eta garapena sustatzeko eta pertsonen premiei egunero erantzuteko, zentroak sortuz eta kudeatuz, bai eta behar diren zerbitzuak emanez ere. Esan daiteke egiten duten lan osagarri hori zerbitzuak emate hutsetik harago doala, eta gizarte-ehun osatzen laguntzen duen kohe-sio-elementu bat dela.

Horrela, GZLren V. tituluak tresna batzuk artikulatzen ditu, ekimen pribatuak gizarte-zerbitzuen eremuan izan behar duen esku-hartzea arautzen dutenak. Honako hauek definitzen ditu: GZESko prestazio eta zerbitzuen katalogoan sartzen diren gizarte-zerbitzuak ematen izan beharreko parte-hartzearen esparrua, alde batetik, eta aipatu katalogoan sartzen ez diren zerbitzuak ematen edo jarduerak gauzatzen izan beharreko lankidetzak-formulak, bestetik. Azken horiek, ordea, ez dira erregulazio honetan sartu.

Zerbitzu-hornidura hori ahalbidetzen duten zuzeneko kudeaketaz eta kontratuen bidezko zeharkako kudeaketaz gain, **legeak itunaren figura nabarmentzen du GZESren katalogoko zerbitzuen prestazioa antolatzeako aukeratutako formula arrunt gisa**. Erregela-mendu-proiektu honek, hein handi batean, tresna hori garatzeko lege-aginduari erantzuten dio.

Proiektuaren azalpen-zatia azertu besterik ez dago konturatzeko zer garrantzi handia duen ekimena sustatu duen organoarentzat ezagutzera ematea artikulatu duten ekintza itunduaren ereduaren garapen zehatzaren justifikazioa, kontratazio publikoaren arauditik kanpoko figurez baliatzen den neurrian —ituna eta hitzarmena—.

Justifikazio hori luzeegia eta zehatzegia da, eta hobeto egokitzen zaio txosten juridiko bati edo kontratazioan espezializatutako organo batenari zioen azalpen bati baino. Justifikazio horrek azalpen labur bat eman beharko luke hartutako arau-irtenbideari buruz eta haren erregulazioa osatzen duen egiturari eta edukiari buruz. Ildo horretatik, gomendagarria litzateke berrikustea, edukia murrizteko eta errazteko, helburura egokituta.

Nolanahi ere, ekimena sustatu duen organoari ezingo zaio gaitzetsi arau egiteko prozedurara eskuzabal ekarri izana zenbait dokumentu eta memoria, azkenean gauzatutako arau-diseinuari buruz luze eta zabal arrazoitzen dutenak. Era berean, nahikoa arrazoitu dituzte aldaketak, proiektuaren hainbat zirriborro ekarri dituztenak, jasotako alegazio ugariari erantzunez, askotariko erakunde eta organo askok parte hartu duelako. Lan horrek laguntza handia ematen du arauaren egokitasunari buruz erabaki edo irizpena eman behar duen edozein organoren zereginean.

Era berean, testuinguruan jarri behar da 2008. urtean —urte horretan onartu zen GZL— indarrean zegoen kontratazioaren arloko arau-esparrua bere indarreko arauak berrikusteko eta modernizatzeko premian zegoela (arau horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/17/EE Zuzentarauari eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/18/EE Zuzentarauari jarraiki onartu ziren), gastu publikoaren efizientzia handitzeko, enpresa txiki eta ertainek (ETE) kontratazio publikoan parte har dezaten errazteko eta kontratatzaileek kontratazio publikoa hobeto erabil dezaten ahalbidetzeko, helburu sozial komunen alde. Bilakaera horren ondorioz etorri ziren 2014ko zuzentarauak, laugarren belaunaldikoak zeritzenak, eta barne-ordenamendu juridikora ekarri ziren SPKLk eratutako oinarrizko araudiaren bidez. Besteak beste, GZLren 71. artikuluan aipatzen den zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua ezabatzea ere ekarri zuen.

97/2008 Irizpenean (202.etik 209.era bitarteko paragrafoak) GZLren aurreproiektuan aurreikusitako itun-ereduari buruz adierazitako zalantzak gorabehera —dagoeneko indargabetuta dauden zuzentarauak izan zituzten gogoan—, **artikuluak, azkenean, honako hau sortzea erabaki zuen: “...itun-araubide bat ezartzen da, herri-administrazioen kontratu-araudian arautzen diren kontratu-modalitateetatik bereizia; esparru horretan izango dute erakunde horiek ematen dituzten erantzukizun publikoko zerbitzuek diru publikoen sostengua”**. **Araubide hori baliagarria da GZESren prestazio eta zerbitzuen katalogoan sartutako zerbitzuak ematen dituzten eta horretarako beren titulartasuneko zentroak dituzten ekimen pribatuko erakundeek GZESn duten parte-hartzea antola dezaten.**

Gaur egun ekimena sustatzen duen organoak espedientean **erabilitako argudioek berretsi egiten dute itun-aukera hori, egungo zuzentaruak eta SPKLk ematen dituzten oinarriak baliatuta, bai eta gizarte-zerbitzuen berezitasuna ere, arretaren kalitatea eta haren izaera komunitarioa bermatzera bideratuta baitaude, Gizarte Zerbitzuetarako Kalitatearen Europako Borondatezko Esparruak (aurrerantzean, GZKEBE) jasotakoetan.**

Organo sustatzaileak, lehenik eta behin, **2014/24/EB Zuzentaruaren 114. kontuan hartuzkoa** aipatzen du, eta SPKLren 11.6 artikulura ere jotzen du. Manu horrek **ia hitzez hitz jasotzen du hautatzeko eta antolatzeaskatasun hori, gizarte-zerbitzuen hornidura kontratuzkoak ez diren formulen bidez gauzatzekoa** —114. kontuan hartuzkoaren azken paragrafoa—, eta, aldi berean, kontratuz kanpoko izaera horren ezaugarriak mugatzen ditu:

Lege honetatik kanpo geratzen da erakunde pribatuek zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzu-emate hori egiten bada kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bitartez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere adjudikatzzaileak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei lizentziak edo baimenak ematea, mugarik eta kuotarik ezarri gabe, baldin eta sistema horrek publikitate nahikoa bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokitzen bazaie.

Justifikazioarekin jarraitzen dute, eta diote esleitutako baliabide-askatasun hori behar bezala islatzen dela itun-araubide horretan, kontratazio publikoaren araudiak ezartzen dituen mugei ere egokitzen baitzaie, zioen azalpenean adierazten den bezala: “... gardentasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei, eta, beraz, hautaketarik egin gabe, nola gertatzen baita botere adjudikatzzaileak alde aurretik ezarritako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztien proposamenak onartzen direnean”.

Hala ere, araua prestatzeko prozeduran deskribatu dugunaren ildotik, Euskal Autonomia Erke- degoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eragozpenak adierazi ditu diseinatutako itun-eredua aipatu printzipioetara egokitzeari buruz, eta, bereziki, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipiora egokitzeari buruz, eta arrazoitu du plazak adjudikatzeko prozedura bat eratu dela, zeinak, egia esan, zerbitzu-hornitzailea hautatzeko irizpideak hartzen baititu —diskriminazio positiboa—.

KEBek ere antzeko ildoari jarraitu dio, baina beste parametro bat sartu du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 22/07/14ko Epaia, zeinak ahalbidetzen baitu kontratu publikoaren nozioa argiago mugatzea, eta, aldi berean, gizarte-zerbitzuen prestazioa bideratzen duten “kontratuz kanpoko” formulak osatzen dituzten elementuak konfiguratzeko.

Diogunez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2022ko uztailaren 14ko epaiak 2014/24/EB Zuzentarauarekiko alderatze-azterketa beharrezkoa egin du, prozedura prejudizial bat sortu baita azaroaren 17ko 181/2017 Dekretuari buruz (181/2017 Dekretua, azaroaren 17koa, Valentziako Consellarena, gizarte-ekimeneko erakundeek autonomia-erkidego horretan gizarte-zerbitzuak emateko ekintza itundua garatzen duena).

EBJAren epai horren 53.etik 71.era bitarteko apartatueta, kontratu publikoaren kontzeptua definitzen duten oharrak ezartzen dira, eta aztertutako Valentziako dekretuaren ekintza itundua —aztertzen ari garen proiektuaren oso antzeko ezaugarriak ditu, gizarte-ekimeneko enpresek soilik parte har dezaketelakoa kenduta— **kontratu publiko** gisa sailkatzen da, legedi autonomiko horrek emandako izendapena gorabehera.

Abiapuntu horri esker, EBJAk honako hau ondorioztatu du:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua kontratazio publikoari buruzkoa da eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen du. Bada, 2014ko zuzentarau horren 76. eta 77. artikulua honela interpretatu behar dira: ez diete kontra egiten araudi nazional bati, baldin eta araudi horrek irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei erreserbatzen badie, pertsonen laguntzeko gizarte-zerbitzuak emateko akordioak egiteko ahalmena —eskaintzen lehiatzeko azterketa egin ondoren—, zerbitzu horien balio zenbatetsia edozein dela ere, nahiz eta erakunde horiek ez bete 77. artikuluan ezarritako betekizunak; betiere, alde batetik, erakunde horien jardura garatzen den lege- eta hitzarmen-esparruak benetan laguntzen badu helburu sozialean eta araudi horren oinarri diren elkartasun- eta aurrekontu-efizientziaren helburuak lortzen, eta, bestetik, gardentasun-printzipioa errespetatzen bada, hala zehazten baitu, bereziki, aipatu zuzentarauaren 75. artikuluan.

Epai horretan adierazitakoa proiektuaren ekintza itundura ekartzea urrats egokia da proiektututako araudiak eskaintzen duen ereduaren benetako izaera kalifikatzeko.

Eta zedarritze-lan horretan ikusten da **proiektuan diseinatutako produktuak kontratu publikoen berezko oinarrizko eskakizunei erantzuten diela**: zerbitzu-prestazio bat da, jardura ekonomiko gisa ulertuta; kostu bidezkoa da, nahiz eta kostuak soilik estaltzen dituen ordainsari baten truke egin, eta aukera ematen du lehentasun-irizpideak ezartzeko plazen edo zerbitzuen adjudikazioan interesa agertu duten parte-hartzaileen artean.

Ekimen honi eusten dion sailak defendatzen du, hala ere, **prozedurak ez duela irizpiderik ezarri erakunde pribatu eskatzaileen artean lehentasunik ezartzeko**, eta horrek aukera

ematen diela SPKLren 11.6 artikulua xedatu duen eskusio-eremuan kokatzeko.

Batzordea ez dator bat horrekin; izan ere, alderdi hori oso agerian, argi ikusteko moduan, geratzen da III. kapituluaren ituntze-prozedura arautzen duten xedapenetan, eta, bereziki, 10. artikuluan, zeinak ez baitio eusten hainbestetan agertutako uko horri.

Ondorioz, **proiektuak gai horri buruz egiten duen artikulazio zehatzak**, aurrerago artikulua xehetasun handiagoz aztertzean ikusiko den bezala, **zerbitzuak ez baitira ematen** "...zerbitzu horien finantzatze soilaz edo botere adjudikatzailerak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanaz, mugarik edo kuotarik gabe...".

Esan genezake, beraz, **2014/24/EB Zuzentarauak oinarriko arauaren bitartez gertatzen diren planteamenduak berekin dakarrela 48. xedapen gehigarriaren kasuari heldzea —kontratuen erreserba —, 49. xedapen gehigarriaren gaikuntza egikaritzea 11.6 artikulua arabera —adjudikaziodunak ez hautatzea —, edo kontratu-modalitate tipikoetara jotzea, SPKLk aurreikusitako berezitasunekin.**

Azken aukera hori ez da batere baztertzekoa, baldin eta konturatu bagara esparru horretako zerbitzu-prestazioak aukera ematen duela behin betiko bermea emateko salbuesteko (SPKLren 107. artikulua), adjudikazio-irizpide espezifikoak ezartzeko (SPKLren 145. artikulua), ekuzio-baldintzak egokitzeko (SPKLren 202.2 artikulua), bai eta berdinketa hausteko irizpideak ere, irabazi-asmorik gabeko erakundearen alde (SPKLren 147. artikulua), lizitazio-prozedura negoziatua erabiltzeko (SPKLren 167. artikulua) edo prozeduraren fase guztietan honako hauek bermatzeko printzipioak aplikatzeko: zerbitzuen kalitatea, jarraitutasuna, irisgarritasuna, lortgarritasuna, eskuragarritasuna eta zehaztasuna, erabiltzaile-kategorien behar espezifikoak, talde ahul eta zaurgarriak barne, zerbitzuen erabiltzaileen inplikazioa eta zerbitzu-ematearen berrikuntza (SPKLren 47. xedapen gehigarria).

Tresna horiek proiektu honek aurreikusten dituen zerbitzuen esparruan erabiltzea, administrazio bakoitzak zentzuzkotzat jotzen dituen egokitzapenak egokitzapen, ez dago urrutiegi diseinatutako eredutik, zeinaren aukerak ibilian ibilian probatu beharko liritekeen.

Egin-eginean ere, GZLren 72. artikulua ildo horretatik doa, eta zenbait espezialitate taxutzen ditu —irizpide sozialak, diskriminazio positiboko neurriak, besteak beste— azaldu dugunaren ildotik, eta ez dago horren urruti itunaren araubideak egingarri bihurtu nahi dituen asmo eta printzipioetatik.

Azken batean, GZESren katalogoko zerbitzuak emateko aukeratutako formularen izena edozein dela ere, **ahalegina egin beharko litzateke proiektuaren eta GZLren xede den itunaren funtsezko araubidea bateratzeko 2014/24/EB Zuzentarauarekin eta Europako jurisprudentziarekin**, barne-ordenamendu juridikora eramanez diren bezala, esparru juridiko

horretarako trantsizio logiko bat arrazoizkoa bihurtuz.

Hala ere, irizpen hau ematerakoan, ezin dugu alde batera utzi, ezta ere, autonomia-erkidego batzuetako arauak —Galizia, Kanariak, Extremadura, besteak beste— erakusten duten errealitate juridikoa, aztertzen ari garenaren oinarri bera baitute. Bereziki aipagarria da Valentziako Erkidegoarena; izan ere, dagokion erabaki judizialaren zain dago, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2022ko uztailaren 14ko epai iruzkindu berrian ebatzi dira planteatutako arazo prejudizialak.

Inguruabar horrek gomendatzen du adi egotea erabaki horri, uste izatekoa baita ziurtasun-maila handiagoa ematen lagunduko duela gizarte-zerbitzuak emateko ekintza itunduaren ereduari eska dakizkiokeen jarraibide eta betekizunei dagokienez.

46/2023 ABJI, par.: 86-114

6. Kapituluua. PROZEDURA

I. Xedapen orokorrak egiteko prozedura

A) Aurretizko kontsulta

Bigarrenik, prozeduran horri buruzko ohartarazpena jaso ondoren —EUDELe nabarmendu du bere alegazioetan—, **organo sustatzaileak aitortzen du ez dela aurretizko kontsultaren izapidea egin.**

Sailak argudiatu du omisio hori nolabait zuzentzeko aukera dagoela; izan ere, “parte hartzeko prozesu bat egin zuten Etxebizitzaren Euskal Behatokiak komunikaziorako eta herritarrek parte hartzeko duen plataforman, “Etxebizitza” izenekoan, 2017ko irailaren 21etik urte bereko urriaren 25era bitartean”.

Prozesu hori aldeztatik aurretik onartzeko aginduaren ondoren garatu zen denboran, eta, beraz, ez zetorren bat Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APEL) 133.1 artikulua baldintzekin eta xedearekin —etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrienen iritzia jasotzea, testu artikuluduna aurkeztu aurretik, arauaren beharrari, helburuei, konpondu nahi diren arazoei eta halakoei buruz—.

Horregatik, komeni da ohartaraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 240/2022 Epaia, ekainaren 1ekoa (errek. 439/2021), orduan epaitu zen xedapenaren erabateko deuseztasun-arrazoitzat jo zuela aurretizko kontsultaren izapiderik ez egitea— “soilik xedapen orokorraren erabateko deuseztasun-zehapenak, aurretizko kontsulta publikorik gabeko prozedura baten ondoriozkoa bera, bermatu ahal izango du izapide horrek zor zaion pisua izatea, ondo nabarmenduta herritarrek parte hartzeko eskubidea, gure Konstituzioaren 105.a) artikuluan jasoa, gauzatzen duela”—.

Hala ere, nabarmendu behar da 2022ko abenduaren 14ko Epaian (1740/2021 errekurtsua) **Auzitegi Gorenak honako hau deklaratu duela: “prozedura-omisio horrek, irregularitasuna izan arren, ez du deuseztatze-irismenik, errekurtsogileak hori ondorioztatu nahi duen arren; izan ere, kontsulta publikoaren ardatza izango litzateke erregelamendu-ekimenaren helburuari buruzkoak entzutea ..., eta errekurtsogileak ez dio helburu horri aurka egin”.** Gogoeta hori kasuaren inguruabar prozesal zehatzei lotuta dago, **baina ez da oztopo, esku artean dugun araua egiteko fase honetan, egin den prozedura-irregularitasuna jasota uzteko.**

Ildo horretatik, ekainaren 30eko **6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, 11.4 artikuluan** —ez baita aplikatzekoa, XOEPLk arautzen baitu prozedura, esana dugu jada—, ildo beretik **onartzen du kontsulta egin ez izana zuzentzea, inguruabarren arabera betiere, eta behar bezala arrazoituta**, honako hau adierazi baitu: “artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldeztetik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada”.

114/2023 ABJI, par.: 102-106

Kontsulta publikoak, aitzitik, **ez ditu hauek barne hartu**: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 23ko **2019/1937 (EB) Zuzentarauari** —Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoari— **dagokion zatia, eta otsailaren 20ko 2/2023 Legea**, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzekoa, Batasuneko arau hori Estatuko ordenamendura ekarri duena (aurrerantzean, otsailaren 20ko 2/2023 Legea).

Eduki hori arau-inpaktuaren analisiaren memorian txertatzen zaio lehen aldiz pres-takuntza-prozedurari, eta, beraz, aurreproiektuaren alderdi horri buruzko kanpo-partai-detzaren irekiera ez da hezurramitu hasieran onetsitako testuari buruzko entzunaldia-ren eta informazio publikoaren izapidea egin arte. Inguruabar hori ulergarria da kontuan hartzen bada **otsailaren 20ko 2/2023 Legea kontsulta publikoaren ondoren** argitaratu eta indarrean jarri zela.

XOEPLren 11.4 artikuluan onartzen da herritarrek parte hartzeko eskakizuna, kontsul-ta publikoari erantzuten diona, **bete ahal izatea instrukzio-fasean aurreikusitako entzu-naldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidean**. Arau berezi hori gorabehera, arauak ezartzen du inguruabar hori memorietan jaso beharko dela.

179/2023 ABJI, par.: 66-68

B) Txostenak

Beste alde batetik, bidezko da baloratzea **Enplegu Publikoaren Euskal Kontseiluak** prozeduran parte hartu behar duen ala ez; izan ere, EEPLk (13. artikulua) honela taxutu baitu: euskal administrazio publikoen pertsonal-politika osatzen duten neurriak koordinatzeko, kontsultatzeko eta proposatzeko kide anitzeko goi-organoa da, bai eta euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileek parte hartzekoa ere. Besteak beste, **eginkizun hau esleitu zaio Kontseiluari: txostena egitea**, “**Gobernu Kontseiluak lege hau garatzeko onartu beharreko xedapen orokorren proiektuei buruz**”.

Egia da aztertzen ari garen proiektuak ez dakarrela EEPLren erregelamendu-garapen orokorrik, eta garapen hori, hasiera batean behintzat, kontseiluaren nahitaezko izapidearen mende legokeela, kontseiluaren ezaugarriak, osaera eta legeak esleitutako gainerako eginkizunak kontuan hartuta.

Hala ere, **lege-arauak berak ez duenez zehaztasun handiagoz zedarritu bere eskumena—alde batera utzita gai jakin baten erregelamendu-garapen partzialak baino egiten ez dituzten xedapen orokorrak, edota administrazio publikoetako bati bakarrik eragiten diotenak—**, zuhurtasun-arrazoiak direla eta, komeni da kontseilu horrek parte har dezala aztertzen ari garen prozeduran.

Beraz, Batzordeak uste du kontsultarako aurkeztu diguten dekretu-proiektua prestatzeko **prozedura osatu egin behar dela** Jaurlaritzari onar dezan helarazi baino lehen; izan ere, **Enplegu Publikoaren Euskal Kontseiluak txostena eman behar du, lege-mailako arau batek eskatzen baitu.**

55/2023 ABJI, par.: 67-70

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (KEB) txostenak honako hau baino ez du **egiaztatzen**: “**zuzeneko aurrekontu-eraginik eza** Administrazio honentzat, xedapen-proiektuaren ondorioz”.

Gure ustez, ziurtatze horretarako babestzat hartu nahi da **45. artikulua, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuarena** (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen), zeinak **aukera hau aipatzen baitu: arau-proiektu batzuei kontrol ekonomikorik ez, baizik eta aipatutako egiaztatpena egitea.**

Baina garrantzitsua da azpimarratzea **aukera horrek “eduki ekonomikorik ezari” egiten diola**

erreferentzia, hots, KEBi irizpenerako aurkeztu dioten arau-xedapenen proiektuarena-ri, eta ez “aurrekontu-edukirik” ez izateari.

Eta hori bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legean ageri den kontrol ekonomiko-normatiboaren kontzeptuarekin; izan ere, arau-xedapenen eragin ekonomikoa ebaluatzeko helburuarekin eratuta dago, eta 26. artikuluan berriaz eskatzen du ekimenaren alderdi garrantzitsuei buruzko iritzia ematea “jarduera ekonomikoari dagokionez” eta ez bakarrik “Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan”.

192/2023 ABJI, par.: 117-120

C) Hasiera ematea

Batzordeak askotan adierazi duenez, **arau bat egiteko prozedura hasteko erabakia ez da hartu behar** formalitate soiltzat, baizik eta **garrantzi juridiko handiko egintzatzat, arauaren beharrari eta bideragarritasunari buruzko gutxieneko gogoeta egin behar baita alde zurretik.**

Txostena egiten ari gatzaizkion proiektuan, bideragarritasun juridikoaren azterketa, ikusirik elikagaien segurtasunaren arloan emandako Europar Batasuneko eta Estatuko araudiaren esparru konplexua –eduki tekniko trinkoa eta xehetasun maila handia zituen, produktu-moten, ekoizpen-prozesuen eta antzekoen arabera–, **hasiera-hasieratik behar zen.**

Batzuetan, prozedurak aurrera egin ahala konpontzen dira hasierako faseen gabeziak, baina ez da halakorik gertatu oraingoan. Geroko azterketak agerian utzi duenez, **zaila da ekimenaren azterketa juridikoa egitea; izan ere, zaila da jakitea** –oso zaila– **zer eragin izan dezakeen benetan indarreko ordenamendu juridikoan, eta zer benetako ondorio izan ditzakeen** –baldin eta halakorik badu– **helburuko pertsonak gaur egun dituzten betebeharrak.**

79/2023 ABJI, par.: 22-24
Ikus 192/2023 ABJE, par.: 81-82

D) Organoek nahitaez esku hartu beharra

Era berean, **espedientean ez da ageri Osasun Sailak prozeduran parte hartu izanaren arrastorik**, lehen mailako agentea baita **elikagaiei betekizun higieniko eta sanitarioak ezarri nahi zaizkienean**.

Eskumen-azterketatik ateratzen denez, proiektuaren zati handi bat garatzen den eremuan hain zuzen ere, osasun-eskumenaren presentzia “nekazaritza eta abeltzaintzari” dagokionaren maila berean dago, gutxienez —edo maila horren gainetik—. Kontuan har bedi **proiektuak berak aldatzen duela maiatzaren 17ko 76/2016 Dekretua**, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzen dituena, **Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak eta Osasuneko sailburuak proposatuta onartua**.

Proiektuak baldintza higieniko-sanitarioak sartzen baditu orain arte eskatzen ez ziren eremuetan, edo beste batzuk malgutzen baditu —gai hori hipotesi gisa formulatu behar da, horri buruzko informaziorik ez dagoelako—, **Osasun Sailaren funtsezko eta erabateko inplikazioa beharko lukeen arau-ekimen baten aurrean egongo ginateke**. Kontua ez da soilik arlo sektorial baten iritzia biltzea erregulazioan txertatzeko, baizik eta osasunaren arloko eskumena zuzenean aktibatzen dituen proiektu bat.

Elikagaien betekizun higieniko-sanitarioak zehazten eta kontrolatzen espezializatutako sailaren irizpiderik ezak ekimenaren oinarri tekniko eta juridikoari eragiten dio.

79/2023 ABJI, par.: 44-47

E) Memoriak

Memoria ekonomikoa

Alderdi ekonomikoari dagokionez, gogora ekarri behar da XOEPLren 15.3.d) artikulua ezartzen duela arau-eraginaren azterketari buruzko memoriak atal batek hau hartu behar duela: “Ekonomian eta aurrekontuan duen eragina. Araua aplikatzeak ukitutako sektore, eragile eta taldeetan izango dituen ondorioak ebaluatuko ditu, baita lehian eta lehiakortasunean duen eragina ere. Gai horiei buruz unean-unean indarrean dauden legeekin bat datorren ere ebaluatuko da”.

Proiektuaren izapidetzeak agerian utzi du prozesuan parte hartu dutenen alegazio eta go-goeten xede izan diren gaiek bere eragina dutela jarduera ekonomikoan; hala gertatzen da prestazioak errenta moduan kobratzeari buruzko eztabaidarekin edo administrazio-gastuen mugarekin.

Ukaezina da, gainera, hizpide dugun **ekimenaren eduki ekonomikoa**; izan ere, azalpen-zatiaren edukien artean jasotzen du enpleguko lehentasunezko BGAEen garapena, eta honela justifikatzen du: “lehentasunezko BGAEei bultzada eman nahi zaielako, egokiak direnez enpleguaren eremuan borondatezko gizarte-aurreikuspena bideratzeko, hau da, gizarte-aurreikuspenaren bigarren zutabea deritzona bideratzeko”.

Espedienteak memoria ekonomiko bat du, eta, hasteko, esaten du proiektuak ez duela eraginik EAEko aurrekontuetan, ez gastuei dagokienez, ez diru-sarrerei dagokienez. Ondoren, aurrekarien deskribapena egiten du, eta datu ekonomiko orokorrak ematen ditu –2022ko abendukoak– BGAEen ezarpenari, kudeatzen duten ondareari, bazkide kopuruari, BGAEen inbertsioen ezaugarriari, jasaten dituzten administrazio-gastuei eta erakunde motaren arabera bereizitako magnitude nagusiei buruz –aurreikuspen-planak dituzten edo ez dituzten BGAEak–. Azken aldera dioenez, arauaren hartzailleengan izango duen eragin ekonomikoari dagokionez, administrazio-gastuei ezarritako murrizketak “bazkideen pentsioei eragingo die zuzenean, eta bazkideen prestazioak handituko dira”.

Batzorde honek behin eta berriz adierazi izan duenez, **memoria ekonomiko baten edukia mugatzen bada, Administrazioari berari gastuen eta diru-sarreraren ikuspegitik etorriko zaizkion ondorioak aztertzeraz, memoria hori ez da egokia xedapen bat egiteko prozeduraren ondorioetarako.**

Proiektuarekin batera doan memoriak, erregulazioaren xede den sektorearen munta eta gizar-tean duen garrantzia islatzen duten datuak biltzen dituen arren —baieztatu dute ezen EAEko 16 urteko eta hortik gorako biztanleriaren % 45 BGAE batek babestuta egongo litzatekeela—, ez du inola ere aztertzen BGAEen sektorean ezarri nahi diren berrikuntzen eragin ekonomikoak. Ez du aztertzen erakundeentzat beraientzat, bazkideentzat eta onuradunentzat izango lukeen eragin ekonomikoa.

Garrantzizko eragin ekonomikoa eta irismen sozial handia dituen ekimena denez, ezinbestekoa da ebaluazio ekonomiko bat izatea proiektatutako erregulazioak sektore ekonomiko garrantzitsu batean duen eraginari buruz, etorkizuneko arauaren bideragarritasuna ebaluatzeko, lortu nahi diren helburuak lortze aldera, eta partikularrengan eta gizar-tean oro har izango duen eragina baloratzeko.

F) Langileen ordezkarietiko negoziazioa edo kontsulta

Aztertzen ari garen proiektuan, hala ere, eta espedienteko dokumentazio gehiagorik ezean, negoziazioa “akordiorik gabe” amaituko zen, Funtzio Publikoko sailburuordeak dekretu-proiektuaren alde aurreko kontsultaren izapideari buruz emandako ebazpenak diotenaren arabera.

Adostasunik ezak, hala ere, ez du esan nahi Administrazioak ezin duenik bere kabuz finkatu langileen lan-baldintzak, EPOELTBren 38.7 artikulua eta EEPLren 191.1.c) artikulua horretarako gaikuntza ematen baitiote.

Horri dagokionez, argi mintzo da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren (EAEAN) 290/2020 Epaia, urriaren 9koa, 422/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emana, Administrazioak lan-baldintzak bere kabuz ezarri zituen kasu batean, negoziazioan akordiorik lortu ez zelako:

Aktorearen tesia onartzeak ekarriko luke gobernu-organoaren ahalmenak mugatuta geratzea EPOEren testu bateginaren 38.7 artikulua ondo etarako, organo horren erabakimenetik kanpoko gaiak egongo lirakeelako, gai horien jatorri itunduari lotuak, eta erabaki horren eduki materiala blokeatuta geratuko litzatekeelako, harik eta itun esplizitu berri batek gaitu arte. Horrek nolabaiteko erreserba formala ekarriko luke, ordezkari sindikalaren indargabetze-indarraren aldekoa, beste maila eta ezaugarritze bat emango liekeena klausula horiei, legeak aurrekusi gabekoa eta interpretazioaren aldetik onartezina, administrazio enplegatzaileari ematen baitio erregulazio-lehentasuna edo -nagusitasuna, negoziazioa arrakastarik gabe amaitzen bada.

Izan ere, asmo edo uzi hori onartu gero, negoziazio-prozesuak mutazioa jasango luke, eta nahitaez bideratu beharko litzateke alderdietako batek eskatzen dituen “emaitzeta-
ra”, eta ez litzateke izango legez ezarritako ariketa hutsa, emaitza horiek lortzera bideratutako jardura leiala.

EAEANren 2012ko martxoaren 12ko 199/2012 Epaia, 104/2011 apelazio-errekurtsoan emandakoak, gogoratzen duenez, Auzitegi Gorenaren aurrekariak aipatuta:

Nolanahi ere, negoziatu beharra ez da emaitza-betebehar bat, eta are gutxiago alderdietako bati —sindikatu edo funtzionarioei normalean— bere nahi edo aldarrikapen guztiak ase beharra, baizik eta prozedura-betebeharra eta gutxienez esperientzia- eta proposamen-truke dialogiko baten exijentzia, emaitza materialki transakzionala izan ala ez; informaziozkoa eta kortesiazkoa baino handiagoa izango da, alderdien arteko eztabaida benetako eta ez simulatu batekin irekitzeko, funtzionarioen ordezkarien ekarpenak administrazio enplegatzaileak arautu beharreko gaiaren alderdi zehatzetan eragiteko modukoak izan daitezten.

G) Izapideak errepikatzea funtsezko aldaketengatik

Hirugarrenik, nabarmendu egin behar da nola joan den prozeduraren instrukzioa: **2017an hasi zen, urte horretan bertan eten, eta zenbait urtez egon zen horrela** —espedienteak ez du beste izapiderik jaso 2022ko urtarrilera arte—, **eta orain eman zaio amaiera**.

Izapidetzearen lehen fase dei diezaiokegun horretan gauzatu ziren, besteak beste, hasierako aginduaren onarpena, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak, eta beste administrazio batzuen parte hartzea. Gainera, sailaren txosten juridikoa eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena egin ziren.

Instrukzioa geldiaraztea erabaki ondoren —“etxebizitza-prestazio ekonomikoaren kudeaketa bere gain hartzeko behar diren lanpostuen zuzkidura ziurtatuta ez izateagatik”—, **2022an ekin zioten berriro, inolako hausnarketa dokumentaturik eskaini gabe igarotako denbora-tarteari; egin-eginean ere, ez dago jasota, arrazoizkoa izango litzatekeen arren, egindako izapideen indarraldiaren baloraziorik, ezta prozedura berriz hasteko beharrik ez izatearen justifikaziorik ere**.

Egindako izapideen kontserbazioari dagokionez, esanguratsua da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostenaren adibidea. Zalantzan jar daiteke indarrean dagoen ala ez, dagoeneko indargabetuta dagoen legeria baten babesean egin zelako.

Balorazioa bereziki galdagarria da, baldin eta, sailaren azken memorian azaltzen den bezala, 2022an izapidetzeari berriro ekiteko bertsioa ez bada lehenengo izapideak egin zitzaizkiona. Testuak aldaketak izan ditu eta zabaldu egin da, halako moldez non testu berriak 43 artikulua dituen, hasierako testuaren 24 artikuluen aldean, eta 15 xedapen azken zatian, hasierako 9 xedapenen aldean.

Zioen azalpenak berak dioenez, “izapidetzea geldirik egon den bitartean, errealitate berriak sortu dira, eta, logikoa denez, arauaren azken idazkeran sartu dira, araua ordenamendu juridikoan ongi txertatzen dela bermatzen jarraitzeko”.

Sustatzaileak berak sartutako egokitzapenak egongo lirateke bertsio berriaren barruan, eta ez bakarrik egindako txostenetako ohar eta iradokizunetatik eratorritakoak; hala ere, sustatzaileak ez ditu haien irismena eta arrazoiak zehazten, eta jasota uzten duen bakarra da izapidearen azken fasean erabilitako bertsioak alderdi berriak dakartzala, hasierako planteamenduekin konparatuz gero, testua egokitu ahal izateko “araudiak izandako bilakaerara eta inguruabar berrietara”, gelditzearen ondorengoetara.

Memoriak adierazten duenez, “Alegazioen eta sailaren txosten juridikoaren azterketak, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretua onartzeak —kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erre-

gelamendu-xedapenak aldatzekoa (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.)—, Lanbiderekin egindako bilera ugariek, eta, zergatik ez esan, zenbait urte igaro izanak, aldaketa sakonak eragin dituzte aldez aurretik onartutako testuan”.

Jokamolde hori ohartarazita dago izapidetze-prozesuan emandako zenbait txostenetan —bai EUDELen txostenak, bai Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearenak, KEBen txostenaz gain—.

Horri dagokionez, azken memoriak, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen alegazioen azterketaren harira, onartu ondoren irizpenerako aurkeztu dioten testua “hasieran onartutakoaren oso bestelakoa” dela, hauxe baino ez du adierazten, gehiago zehaztu gabe: “desberdintasun edo alde gehienak txosten juridikoan eta entzunaldi-izapideetan, beste administrazio batzuekiko kontsultan eta jendaurreko informazioan jasotako alegazioetan egindako oharpenak onartzearen ondorio dira”.

Azalpen hori zabaldu egin beharko litzateke, izapideari berriro ekiteko bertsioak funtsezko edo oinarrizko aldaketarik ez dakarrela behar bezala justifikatzeko.

Ezin dugu ohartarazi gabe utzi zer deklaratu izan dugun edozein arau-proiekturi zor zaizkion prestaketa-izapide guztiak betetzeari buruz, hala badagokio, baldin eta xedapen orokor batean funtsezko elementu berriak sartzen badira hura izapidetu bitartean, berri-tasun bat dakarten alderdiei dagokienez behintzat (216/2011 Irizpena, 22. paragrafitik 27.era bitartekoak, 242/2008 Irizpena ere aipatzen baita).

Gogora ekarri behar da jurisprudenzia errepikatua —Auzitegi Gorenaren 2020ko urriaren 22ko Epaia (errek.: 358/2019)— honela laburbil dezakeguna: ez da beharrezkoa jendaurreko informazioaren izapidea errepikatzea aldaketak osagarriak edo bigarren mailakoak direnean, edo, hain zuzen ere, xedapena egiteko prozesuan bertan sortutako proposamenen edo iradokizunen ondorio direnean, batzuetan informazio publikoaren izapidean interesa dutenek beraiek egindakoak.

Aitzitik, izapidea errepikatu beharko da proiektua egiten duenaren ekimenez sartutako aldaketak funtsezkotzat jo daitezkeenean.

Horrenbestez, eta **esku hartu duen sailak egindako lana aitortzeari utzi gabe,** memoria luze batean jasota baitago, hasierako bertsioari lehen fase batean egindako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidean egindako alegazioak aztertu eta erantzunda, **Batzorde honek ezin du azpimarratu gabe utzi informazio publikoko bigarren aldi bat behar dela, geroko aldaketek xedapen-proiektua funtsean aldatzea ekarri baitute, adierazitako moduan.**

Laugarrenik eta azkenik, **proiektuaren eduki jakin batzuk berritasun gisa sartu dira Batzorde honi aurkeztutako bertsioan, eta, beraz, ez zaie aldez aurreko izapiderik egin.**

Adierazi dugunez, azken memoriak urgentzia-arrazoiak besterik ez ditu aipatzen, xehetasun gehiagorik gabe.

Horren adibide dira bigarren xedapen gehigarria –araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokien erabilerari buruzkoa–, azken xedapenetako lehena –abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua aldatzen duena, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa–; eta azken xedapenetako hirugarrena –abenduaren 23ko 466/2013 Dekretua aldatzen duena, “Bizigune” Etxebizitza Hutsen Programa arautzekoa–.

XOEPLren erabateko arau-haustea da, eta erabateko deuseztasuna dakarren arrazoian erortzen da (APELen 47.2 artikulua). Ondorioz, hala badagokio, izapidetze espezifiko bati jarraitu behar zaio, presa arrazoituta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoari egokituko zaiona.

114/2023 ABJI, par.: 108-125

II. Administrazio-egintzen administrazio-prozedura erkidea

A) Abiaraztea

Legitimazioa

Zehazkiago, **interesdunak**, TATBk [toki-araubidearen arloko indarreko lege-xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartua] 169.2 artikuluan xedatutakoa argudiatuz, **uste du EPEa akastuna dela, lau plazak barne-sustapenaren bidez betetzeko erreserbatzen direlako, bai eta deialdia eta oinarri espezifikoak ere, EPE hori gauzatzegatik eta legeak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten funtzionarioak bide horretatik sartu ahal izateko aukera emateagatik.**

TATBren 169.2 artikulua araber:

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 100.2 artikuluan aurreikusitako erregelamendu-arauak eman arte, aurreko zenbakian aipatzen diren funtzionarioen hautaketa arau hauen arabera egingo da:

a) Azpieskala teknikoan sartzeko, oposizio librea egin beharko da, eta titulu hauetako bat beharko da: Zuzenbidean, Zientzia Politikoetan, Ekonomia edo Enpresa Zientzietan lizentziaduna, merkataritza intendentea edo aktuarioa.

Hala ere, lanpostuen % 25 barne-sustapenerako gordeko dira aipatutako titulazioa duten korporazioko bertako administrariantzat, baldin eta jatorrizko azpieskalan gutxienez bost urteko zerbitzaldia badute eta dagozkien hautaprobak gainditzen badituzte.

b) Administrarien azpieskalan sartzeko, oposizio librea egin beharko da, eta titulu haue-tako bat beharko da: Batxilergoa, Lanbide Heziketako bigarren maila edo baliokidea.

Hala ere, dauden lanpostuen % 50 barne-sustapenerako gordeko dira Administrazio Orokorreko Laguntzaileen azpieskalakoentzat, baldin eta adierazitako titulazioa badute eta azpieskalan gutxienez bost urteko zerbitzaldia badute.

b) Laguntzaileen azpieskalan sartzeko, oposizio librea egin beharko da, eta titulu haue-tako bat beharko da: Eskola Graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.

d) Mendekoen Azpieskalan sartzeko lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa askea erabiliko da, korporazioaren erabakiaren arabera, eta eskola-ziurtagiria eskatuko da.

Kontraesan halako batez, barne-sustapeneko txandan parte hartzeko eskubidea aitortzea ez da nahi du, halaber, nahiz eta, alegatzen duenez, administrari plaza horiek eskuratzeko aplikagarri diren baldintzak betetzen ez dituen, Administrazio Orokorreko Laguntzaileen azpieskalakoa ez den eta azpieskalan bost urteko zerbitzaldirik ez duen —bitarteko funtzionario gisa eman dituzten zerbitzuak administrari lanpostu batean 2019ko maiatzaren 20az geroztik, uko egiteko idazkitik eta onarpen-egintzatik ondorioztatzen denaren arabera—.

Ez da desgaraikoa adieraztea ezen, administrarien plazak aldi baterako betetzen zituzten bitartekoei parte hartzeko baimena eman gero, aizundu egingo litzatekeela barne-sustapenaren zentzua bera, txanda murriztu gisa, zeinak eskatzen baitu izangaiak karrerako funtzionario izatea eta haiek administrazio-karreran aurrera egitea baitakar—Konstituzio Auzitegiaren 50/1986 epaia (KAE), apirilaren 23koa—. Interesdunaren kasuan, karrerako funtzionario izateko salbuespenezko sarbidea izango litzateke, ordaindutako zerbitzu profesional iraunkorrak egiteko, EPOETBren 61. artikuluan ezarritako arauaren aurkakoa. Horren arabera, hautaketa-prozesuek izaera irekia izango dute eta lehia askea bermatuko dute, hargatik eragotzi gabe barne-sustapenerako ezarritakoa eta estatutu horretan aurreikusitako diskriminazio positiboko neurriak.

Ez dugu jasota Auzitegi Gorenak iritzirik eman duenik bitarteko funtzionarioek barne-sustapeneko txandan parte hartzeko aukerari buruz, baina Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko ekainaren 22ko (JUR 2020/243151) eta 2021eko martxoaren 11ko (RJCA 2021/727) epaiak biribilak dira, argudiatzen dutenean barne-sustapeneko hautaketa-prozesu batean parte hartzeko karrerako funtzionario izateko eskakizuna “ez dela 1999/70/EE Zuzentzarauaren aurkakoa”.

Ofiziozko berrikuspenaren bidezko deuseztasun-akzioak bete behar duen bigarren baldintza da legitimazioa duen norbaitek eskatzea, hau da, interesa duen norbaitek, APELen 106.1 artikulua eskatzen baitu alderdi baten eskariz berrikusteko. Interes hori APELen 4.1.a) artikulua erreklamatzeko duena baino ez da; izan ere, “eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular” direnek bakarrik sustatu dezakete prozedura interesdun gisa.

Betekizun hori, gainera, zorroztasunez eskatu behar da baldin eta, behin hautaketa-prozesua abiarazita edo hura amaitzean, EPEa eta deialdia aurkaratu nahi badira, haiek onartuta eta irmo geratu ziren arren.

Egintza horiek erabat berrazter daitezke, balia daitezkeen legekontrakotasun-arrazoiei buruzko mugarik gabe, baldin eta dagokion errekursoaren bidez aurkaratzen badira bide arruntetik, eta ofiziozko berrikuspen-bidean ere azter daitezke, baina erabateko deuseztasun-kausa batean erortzen badira bakarrik.

Zabaltze hori honako ideia honekin justifikatu da: aplikazioaren bitartez ikusi ahal izango da interesdunari kaltea eragin diotenak izan ote diren, batez ere oinarrizko eskubide baten urraketa alegatzen denean, eta eskubide-urraketa konpontzea edo eskubidea bereonertzeko lortu nahi direnean.

Ofiziozko berrikuspenaren salbuespeneko bidean, beharrezkoa izango da, beste ezer baino lehen, hori eskatzen duenak frogatzea berrikusi nahi diren egintzek eragotzi diotela enplegu publikora iristea.

Nahiz eta ez den oztopo prozesala berrikuspena eskatu duenak EPEa eta deialdia garaiz eta behar bezala errekurritu ez izana, ezin da onartu, akatsaren konponezintasuna eta akzioaren preskribaezintasuna kontuan hartuta, berrikuspen-eskaerak edozein unetan balio dezakeenik, inolako murrizketarik gabe eta edozein interesdunen nahierara, ondorioak jada gauzatu zaizkion egintza bat arazteko. Kontuan hartu behar da, gainera, arau-hausterik ezean ere, ez lukeelako dena delako plaza eskuratzeko eskubiderik.

Hartzaile anitzeko eta ondorio bikoitzeko egintzei dagokienez —berrikuspen-eskaeraren xede den kasuan bezala—, segurtasun juridikoko arrazoiek babesten dute haien irmotasuna ahalik eta zorroztasun handienarekin zaintzea, salbu eta, zalantzarik gabe, berrikuspen-bidera jotzen duen interesdun bat bere eskubiderik gabe geratu bada arau-hausteagatik eta erabateko deuseztasun-kausa bat badago.

Kasu honetan, **baztertu egin behar da, oraindantik, EPEa eta lau administrari-lanpostu barne-sustapenaren bidez betetzeko prozedura arautzen duten deialdia eta oinarri espezifikoa berrikusi behar direnik, hutsik dauden lau administrari-plazak barne-sustapenaren bidez betetzeko gorde direlako, eta interesdunaren tesian % 50 izan beharko luketelako.**

Esan daiteke ezen, **deuseztasun-akzioa abiarazi zuenean (2022/7/28), jada ez zuela interes legitimorik**, ondoren aipatuko dugun **kasu zehatzaren inguruabarrak kontuan hartuta**.

Esan behar da APELen 4.1.a) artikulua formulazioa bat datorrela Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak (AAJL) 19.1.a) artikuluan adierazitakoarekin, eta, beraz, jurisdikzio-ordenako legitimazio aktiboari buruzko doktrina jurisdikzionala aplikatu behar dela, Auzitegi Gorenaren 2006ko maiatzaren 31ko Epaian jasoa, besteak beste:

Legitimazioa prozesuaren ezinbesteko oinarria da, eta administrazioarekiko auzien prozesuan esan nahi du, sala honen doktrinan adierazi dugun bezala (denen erakusgarri, 2003ko otsailaren 11ko epaia (RJ 2003, 3267), 53/2000 errekurtsua, 2004ko apirilaren 6ko epaia eta 2005eko apirilaren 23ko epaia (RJ 2005, 6382), 6154/2002 errekurtsua), lotura material unibokoa behar dela subjektuaren eta uziaren objektuaren artean, halako moldez non deuseztatzeak automatikoki ekarriko duen efektu positiboa (onura) edo negatiboa (kaltea), egungoa edo etorkizuneko, baina egiazkoa, argi eta nahiko eragin behar diona prozesura jotzen duenaren eremu juridikoari, eta konstituzio-jurisprudentziak berretsi egiten du irizpide hori (denen erakusgarri, KAEak: 197/88 (RTC 1988, 197), 99/89 (RTC 1989, 99), 91/95, 129/95 (RTC 1995, 129), 123/96 eta 129/2001 (RTC 2001, 129), besteak beste), eta jurisprudenzia-doktrinaren interpretazio-irizpide batzuk honako puntu hauetan zehaztu daitezke:

a) Interesaren garrantzia, administrazio-prozeduraren eta prozesu jurisdikzionalaren ikuspuntutik erreakzio-egoera baita, legez kanpoko balizko kalte kezkarri bat saihesteko; beraz, interesa existitzen dela ulertuko da, baldin eta uste bada lortu nahi den deklarazio juridikoak akziogilea legezko eta berezko baldintzetan jartzen duela onura material edo juridiko jakin bat lortzeko, edo administrazio-egintzak kalte bat eragitean sortu duen edo sor dezakeen egoera faktikoak irautea, emandako ebazpenaren berehalako emaitza gisa

b) Interes legitimo horrek barne hartzen du baliatutako uzia baiesteak onura ekar diezaiokeen interes oro, eta alde batera utz ditzake pertsonala eta zuzeneko izatea, eta zuzeneko interesa eta interes legitimoa bereiztean, legitimoa zuzeneko baino zabala goa izateaz gain, autosufizientea ere bada; izan ere, auresuposatzen du administrazio- edo jurisdikzio-ebazpenak pertsonatzen denaren esfera juridikoari eragin diola edo eragin diezaiokeela, zuzenean edo zeharka, baina modu eraginkor eta egiaztatuan, hots, ez era hipotetiko, potentzial eta etorkizuneko hutsean, hau da, aurkaratutako egintzak edo ebazpenak eragin diezaiokeela.

Fase honetan, eta aukeratutako legezko bidea ikusita (ofiziozko berrikuspena), non legezko baldintzen interpretazio zorrotza egin behar den, garrantzitsua da jada onartuta zeudela onartuen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda, epaimahai kalifikatzailearen izendapena eta azterketa-datak (2022/6/21eko GAO) eta onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda (2022ko uztailaren 13ko GAO).

Hau da, une hartan, onartutako izangaiak ikusita (bi izan ziren), gauza jakina zen administrari-plazetako bi soilik bete zitezkeela barne-sustapenaren bidez. Prozesuaren etendura kendu ondoren, gainera, bi plaza bakarrik adjudikatu dira behin betiko, txanda horretan, eta beste biak, gainerako % 50, hutsik geratu dira.

Berriro diogu: **berrikuspena bakarrik gauzatu behar da kasuaren inguruabarrek erakusten dutenean berrikuspena eskatzen duen pertsonak benetako interesa duela**, eta ez interes hori falta zaionean. **Kasu honetan**, erreklamaziogilearen itxaropenek bere horretan diraute, eta **berrikuspenak lortu nahi duen emaitza**, plazen % 50 baino ez deitzea barne-sustapenetik, **beste bide batzuetatik lortu da, eta ez da ikusten bere egungo egoerari zer neurritan eragingo dion onurarik edo kalterik EPEa eta deialdia adierazitako arrazoiarengatik berrikustekak.**

Batzordearen ustez, **III. jaunak ez du batere interesik jada daukana lortu nahi duenean; izan ere, lau administrari-plazetatik bi hutsik geratu dira etorkizunean betetzeko.**

Egoki da aipatzea Auzitegi Gorenaren 2011ko maiatzaren 30eko epaia (RJ 2011/4826). Auzitegi Gorenak egiaztatu duenez, nahiz eta AAJLk ez duen zuzenean aurreikusi legitimazioa galtzea legitimazioak oinarri duen interesa gerora galtzeagatik, Prozedura Zibilaren Legeak (PZL), 22. eta 413. artikuluetan —sistematikoki interpretatuz gero, aplikazio osagarrikoak baitira—, “prozesua” amaitzeko arrazoitzat babesten dute legitimazioa gerora galtzea, legitimazioak oinarrian zuen interes legitimoa galtzeagatik, uziak prozesutik kanpo asetzeagatik edo beste edozein arrazoiarengatik.

Egintzak eman zirenetik, aldaketak gertatu dira erreklamaziogilearen interesaren sorburu diren egintzetan, halako moldez non, hasieran lau plazetarako deialdirik ez egiteko interesa izan zezakeen arren, baizik eta bi plazetarako bakarrik, galdu egin baitu interes hori, bi plaza baino ez baitira bete.

Deuseztasun-akzioaren bidez kotasunari buruzko judizioa egin ondoren, laburbilduz, onartezintzat jo behar da, barne-sustapeneko plaza kopuruari dagokionez, **legitimazioaren euskarri zen interes legitimoa gerora galtzeagatik.**

30/2023 ABJI, par.: 68-89
Ikus 193/2023 ABJI, par.: 67-83

B) Instrukzioa

Interesdunei entzutea

APELen 82. artikuluan ezarritakoaren arabera, **entzunaldi-izapidea egiteko ahalegina egin da, baina arrakastarik gabe.**

Prozedura instrukzio-organoak emandako ebazpen-proposamenarekin amaitu da (APELen 91.2 artikulua). Ebazpen horretan, ezetsi egiten da erreklamazioa, honako hau argudiatuta: prozeduran instruitu denetik —Ikuskaritza Medikoaren txostenak adierazitakoak garrantzi berezia baitu— ateratzen dela osasun-zerbitzuaren funtzionamendu txarrik ez dagoela.

Ebazpen-proposamenaren seigarren aurrekarian hau jaso dute, entzunaldi-izapideari dago-kionez: **“jakinarazpenak egiteko hiru saiakera egin direnez eta emaitzarik lortu ez denez, 2023ko urriaren 25ean, erabakian azaldutako arrazoiengatik, prozeduraren izapidetzeari jarraipena ematea erabaki da, hargatik eragotzi gabe, helbide berri bat aurkeztuz gero, beste alegazio-aldi bat ematea”.**

Hala ere, kontuan hartu behar da prozedura, alde batetik, interes publikoaren zerbitzura dagoela, interes hori asebetetzeko egintzak sortzeko bitarteko gisa, eta, bestetik, herritarren zerbitzura dagoela, herritarren eskubide eta interes legitimoak defendatzeko tresna gisa. Hori dela eta, **prozedura bat baloratzen denean, erabakigarria ez da** instrukzio gutxi asko ordenatua egin dela egiaztatzea, irizpide logikoen edo esperientzia-irizpideen arabera, baizik eta instrukzio horrek aukera eman ote duen **interes publikoa asetzeko, herritarren defentsabermeak murriztu gabe.**

Zehazki, uste dugu horrelako espedienteetan badirela hiru izapide, zeinen formulazio egokia funtsezkoa baita helburu hori betetzeko. Horietako bat da kaltea ustez eragin duen administrazio-zerbitzuaren txostena. Bigarrena frogari buruzkoa da, eta, azkenik, APELen 82. artikulua aurreikusi entzunaldiari erreparatu behar zaio funtsezko izapidea delako, Konstituzioaren 105 c) artikuluan baitago jasota, herritarrek botere publikoen jardunean parte hartzea eta Administrazioaren aurrean beren eskubideak defendatzea ez ezik, prozeduren ebazpenetan ongi asmatzea ere bermatzen baitu.

Kontsultaren xede den espedientea aztertzean, egiaztatu da **ez direla erabili APELek aurreikusten dituen bitarteko guztiak** MMM jaunak **entzunaldi-izapidea bete ahal izateko**; izan ere, helburu horrekin hartutako erabakia jakinarazteko saiakerak alferrikakoak izan ondoren; kasu horretan, **lege horren 44. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu behar zuten.**

Ohartarazi behar da, gainera, **espedienteen jasota dagoela helbide elektroniko bat, erreklamaziogileak Administrazio sanitariora jotzeko erabili zuena**, eta MMM jaunarekin **komunikatzeko bide izan zitekeela**, aipatu jakinarazpena behar bezala egin ahal izateko.

Ikusitako gertaera horren irismena baloratzeko, kontuan hartu behar da **irregulartasun horri ezin zaiola automatikoki aplikatu erabateko deuseztasun-bizioen kalifikazioa** —salbuespenezko izaera du eta interpretazio murriztailea zor zaio—. Formazko bizioek deuseztagarritasuna dute printzipio orokor, eta deuseztagarritasuna dagoela esaten da, soilik izapide bat egin ez delako edo txarto egin delako egintza amaitu ezin bada edo interesdunen defentsa-gabezia gertatzen bada (APELren 48.2 artikulua). Beti begiratu behar da ea defentsa-gabeziarik gertatu ote den, jurisprudenziak erreklamatzeko duen zentzu material eta dinamikoarekin, kasuaren inguruabarrei arretaz begiratuta.

Kontsultarako aurkeztu diguten kasuan, entzunaldiaren izapidea behar bezala egin ez dutenez, **interesdunari, ondare-erantzukizunaren erreklamaziogileari, kendu egin zaio Administrazioak egindakoari alegazioak aurkezteko aukera**, prozeduran eztabaidatu diren gaiei dagokienez. Ebazpen-proposamenak, ordeak, badihardu gai horietaz, dokumentazio klinikoa, erreklamaziogilearen asistentzian zerikusia izan zuen zerbitzuaren txostena eta Ikuskaritzaren txosten osagarria aztertu ondoren.

Laburbilduz, ebazpen-proposamena idatzi dute, kontuan hartuta txostenek emandako datuak eta instrukzio-organoak espedientera ekarritako beste dokumentu batzuk, baina erreklamaziogileak ez du horiei buruzko iritzirik emateko aukerarik izan.

Horiek horrela, eta erreklamaziogilearen defentsa-gabezia saihesteko, Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du instrukzioari jarraipena ematea, APEL-en (hala badagokio, 44. artikulua) aurreikusitako izapideak amaitzeko, entzunaldiaren izapidea ireki dela jakinarazteko eta espedienteko dokumentazioa eskuragarri jartzeko, erreklamaziogileak alegazioak egiteko aukera izan dezan.

Izapidea bete eta aurkeztutako alegazioak —halakorik bada— baloratu ondoren, Batzordeari bidali beharko litzaioke espedientea, dagokion ebazpen-proposamenarekin batera, bere irizpena eman ahal izan dezan, prozedura erabakitzeko garrantzizko aurrekari guztiekin.

12/2023 ABJE, par.: 8-19

Txostenak

Illo horretatik, behin eta berriz esan dugu, gai horiei buruzko iritzia emateko, gure azterketaren eremuan pisu berezia hartzen duela Ikuskaritza Medikoaren txostenak, arlo medikoan espezializatutako organoa baita.

Jurisprudenziak sarri azpimarratu duenez, txosten hori ez da peritu-froga bat, administrazio-espedientean sartutako txosten tekniko bat baizik. Hala ere, txosten horren garrantziak eta

konbentzimendu-indarrak, motibazioarekin eta koherentziarekin batera, honako hau dute oinarri: txostena egiten duenak profesionaltasun-, objektibotasun-, inpartzialtasun- eta independentzia-irizpideekin egiten du, funtzio publikoetan jardunez —hala adierazten dute, adibidez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 330/2018 epaiak, maiatzaren 16koak (RJCA 2018\1010) eta 31/2016 epaiak, urtarrilaren 27koak—.

Aurrekoari gehitu behar zaio ikuskaritza medikoaren praktika, ondare-erantzukizun sanitarioari buruzko prozeduretako jarduketara medikoa baloratzekoa; izan ere, bere irizpide tekniko independentea osatzen du, kontuan hartuta paziente bakoitzaren historia klinikotik ateratako datuak, aztertutako asistentzia sanitarioan zerikusia duten zerbitzuen txostenak eta kontsultatutako bibliografia zientifikoak emandako informazioa, behar bezala jasota geratzen dena.

Kasu honetan, **peritu batek ere esku hartu du erreklamaziogilearen asmoaren alde, eta zera azpimarratu behar da: alderdi batek izendatu duela, eta, beraz, perituaren trebetasuna alde batera utzi gabe, a priori ez duela inpartzialtasun-berme handiagorik, Ikuskaritza Medikoaren txostenari egotz dakiokiena baino; izan ere, txosten horren konbentzigarritasuna dator mediku ikuskatzaileak funtzio publikoetan jardutetik, alderdien interesak edozein direla ere, eta ez dagoela arrazoirik haren objektibotasuna eta gaitasun profesionala zalantzan jartzeko.**

Gainera, **ikusten da ikuskaritza Medikoaren txosten teknikoan sakonago aztertzen direla eztabaidatutako gaiak, bibliografia mediko zabala aipatuta. Azterketa horretan, zientifikoki oinarritutako ondorio batzuk babesteko beharrezkoak diren gertakariak hartu dira kontuan.**

5/2023 ABJI, 65 - 69 par.

Froga

Hala ere, instrukzio-organoak adierazi duenez, ez zaio jaramonik egin datu horiek komunikatzeko eskaerari. Horri dagokionez, instrukzio-organoak eginbide bat eman zuen, “Jasota gera dadin 2020-03-27an Ertzaintza gurekin harremanetan jarri zela, eta adierazi zigula ezinezkoa zela eskatutako lekuko datuak ematea, datuen babesa zela eta”. Espedientearen instrukzioan ez da aipatzen datu horiek lortzeko beste jarduerarik egin denik.

Honaino helduta, bidezko da gogoratzea datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudia. Hartara, 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, 8. artikuluan, “Datuen tratamendua, legezko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen egikaritzea direla-eta” epigrafearen pean, jasotzen du datuak tratatzeko aukera, besteak beste, “interes publikoan oinarritzeko edo arduradunari (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua xedatutakoaren arabera esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizunean oinarritzeko, lege mailako arau batek esleitutako eskumenaren ondorio izan beharko du tratamenduak”. Hau da, halako kasuetan badagoela legezko gaikuntza bat, instrukzio-organoari eskatu zituen identifikazio-datuak komunikatzeko.

Ez dago inolako justifikaziorik lekukoak aurkitzea ahalbidetzen duten datuak ez emateko; izan ere, **lekukoek, borondatez, beren datuak eman dizkiote Ertzaintzari, eta polizia-atestatu batean jasota daude.** Ondare-erantzukizuneko prozedura bat da, pertsona partikular batek abiarazia eta organo eskudunak izapidetua, legez esleitutako ahalak edo bostereak baliatuta.

Kasu honetan, **lekukoen froga egin ez izana** baliogabetzailea ez den prozedura-akats hutsa baino harago doa, eta **erreklamatzaillearen defentsa-gabezia ekar dezake, ezin izan baitu frogatu**, urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak, Prozedura Zibilar buruzkoak, 217. artikuluan frogakargari buruz dakarren printzipio orokorrarekin bat etorrira, **kausazko lotura zegoela Administrazioaren jardueraren eta alegaturiko kaltearen artean, proposaturiko lekukoaren deklarazioaren bitartez frogatu ere.**

MMM andrearen lesioak benetakoak direla onartuta ere, ebazpen-proposamenak ez du egiaztatutzat jo erorikoaren mekanika, hau da, pasabideko alfonbraren tolesturekin estropezu egi-teagatik gertatu izana, erreklamaziogileak dioen bezala, eta Batzorde hau bat dator froga-defizit horrekin.

Hori dela eta, kasu honetako lekuko-frogak garrantzi handia hartzen du, batez ere dagoen akatsaren garrantzia egiaztatzeko elementu grafikorik ezean.

Ondorioz, **istripuaren mekanika eta kaltearen eta zerbitzu publikoaren funtzionamendua-
ren arteko kausalitate-harremana argitzeko garrantzizkoa den gai faktiko bati eragiten
dionez**, eta kontuan hartuta erorikoaren inguruabarrak ezagutzeak duen garrantzia, eta on-
dare-erantzukizunik ba ote den zehazteko, **Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du ins-
trukzioari jarraipena ematea Ertzaintzari eskatzeko lekukoaren datuak laga ditzala, propo-
satutako froga horren emaitza espedientean sartu ahal izateko.**

4/2023 ABJE, par.: 9-15

Lehenik eta behin, zalantzan jartzeko erreklamaziogileak eskatutako lekukoaren froga egin ez izana.

Horri buruz, honako hau hartzen dugu abiapuntutzat: auzi-jartzaileari dagokiola, hasiera batean behintzat, froga-karga egiteko alderdien gainean, antijuridikotasunik badela eta lesioaren no-
rainokoa eta balorazio ekonomikoa finkatzeko garaian; orobat, erantzukizuna Administrazioari
egozteko kausalitate-harremanaren oinarri faktikoen gainean, eta erreklamaziogileak —gure
192/2021 irizpenean esan genuenaren ildotik— “ezin die betebehari hori eskualdatu hirugarren batzuei
—prozedurarako deirik egin ez zaienei— ezta Administrazioari ere, zeinaren betebeharrak ez baitu barruan

hartzen erantzukizun-erreklamazioa aurkeztu duena ordezkatzeari frogatu beharri dagokionez”.

Baina, era berean, Auzitegi Gorenaren ustez, erregela hori areagotu edo aldatu egin daiteke, kasuen arabera, fede onaren printzipioa bere alderdi prozesalean aplikatuz, erraztasunaren irizpidearen bitartez, baldin eta alderdi batek erraz frogatu baditzake egiteko datu batzuk, eta besteak, aldiz, datuok egiaztatze zailtasuna badu [3. salaren epaiak: urtarrilaren 29koa (RJ 1990\357), otsailaren 5koa (RJ 1990\942) eta 1990eko otsailaren 19koa (RJ 1990\762) eta 1992ko azaroaren 2koa (RJ 1992\9071)].

Gogoeta horiek abiapuntutzat hartuta, **espedienteak erakusten du JJJ andrearen letradu ordezkariak 2021eko apirilaren 29an komunikatu ziola udalari gertakarien lekukoren bat egon zitekeela, eta lekuko horren datuak lortzen saiatzen ari zela; horrenbestez, berriaz esan ez arren, lekukoaren frogak egitea eskatzen ari zen.**

Ondoren, 2021eko ekainaren 24ko idazkian, lekukoaren datuak ezin izan dituela lortu adierazi zuen, egoitza judizialean eskatu zituen arren. Hori dela eta, Udalari eskatu zion Larrialdi Zerbitzuari dagokion eskaera egin ziezaiola. Eskari bera egin zuen 2021eko irailean, baita alegazio-izapidearen fasean ere.

Instrukzioak ez du horri buruzko izapiderik egin izanaren berri ematen, eta ebazpen-proposamenak honako hau dio: “adierazi behar da ez direla egiaztatu erorikoaren inguruabarrak, ez baitago lekukorik...”.

Horri buruz gogoratu behar da APELaren 77,3. artikulua ezarri duena: “...bakar-bakarrik bota daitezke atzera interesdunek proposatutako frogak, argi eta garbi desegokiak edo alferrekoak direnean eta, beti ere, arrazoitutako ebazpen bidez”.

Horrek esan nahi du **erreklamaziogilearen ordezkariak aurkeztutako eskaerari balorazio egokia egin behar zitzaiola prozesuaren une egokian, eta, hala egokituz gero, behar ziren kudeaketak egin behar zirela lekuko posiblea identifikatzeko, are gehiago alegatutako akatsetako baten frogak grafikoki eza kontuan hartuta.**

Egoera horretan, **Batzorde honek baloratu behar du ea prozedura-gabezia hori baliogabetzeko moduko irregulartasun baten mailara iristen den ala ez, kontsulta itzultzea justifikatuko lukeena prozedura osatzeko, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta egin behar baita balorazio hori.**

Eta horrek bagaramatza **froga-materialaren gabezia nabarmenaren aurrean gaudela** aitortzera.

Hasierako erreklamazio-idazkia 2021eko martxoan aurkeztu zuten –erorikoa gertatu eta 7 hi-

labetera—, eta ez zuen inolako dokumentaziorik jaso, eta, gainera, ez zuen zehatz-mehatz identifikatzen erorikoa non gertatu zen, ez eta erorikoaren mekanikari buruzko inolako deskribapenik egiten ere.

Erreklamaziogilearen letraduak 2021eko apirileko jakinarazpenari—gertakaritik 8 hilabete igarota— erantsi zizkion argazkiek ere ez dute biderik ematen erorikoaren toki zehatza identifikatzeko, bi kokapen desberdini dagozkiela ematen baitu, eta horietako bakar batean ere ez da ikusten estropezua eta geroko erorikoa eragin omen zituen hagaxka.

Udalaren jarduketa ere ez da lagungarri izan kasuak planteatzen dituen zalantzak argitzeko; izan ere, erorikoaren tokia oker identifikatuta, prozedurara deitu zion... (e) ko 1. egikaritze-unitateko B-1 fasea urbanizatzeko obren ardura zuen enpresari, eta egikaritze-unitate horretako ituntze-batzarrari bidali zion erreklamazioa.

Horrekin guztiarekin, ituntze-batzarrak udalari espedientea itzultzean, udal administrazioak egindako obrak izateagatik eskumenik ez zuela argudiatuta, zerbitzu arduradunaren txostena ez zen 2021eko abendura arte egin, erorikoa gertatu eta urtebete baino gehiago igarota.

Udalak, era berean, ez zuen informaziorik eskatu —eta komeniko zen— ... (e) tik... (e) ra bitarteko obra egin eta gero ireki zen oinezkoentzako tartean erorikorik edo istripurik gertatu ote zen.

Udal-txostenaren arabera, 2019ko maiatzean ireki zen oinezkoentzako sarbidea, eta, beraz, erorikoa 2020ko martxoan gertatu zenez, ia urtebete igaro izanak gorabeherarik gabe eta zoladuraren egoera txarrari buruzko erreklamaziorik gabe —hala izan balitz—, baliagarria izan zitekeen udalaren jarrera indartzeko.

Baina, gainera, udalak gehiegi atzeratu zuen espedientearen ebazpena, eta, udal aseguru-etxearen 2022ko abuztuaren 11ko txostenaren ondoren, ez zuen entzunaldi-izapidea egin 2023ko martxora arte.

Hori guztia dela eta, **gure buruari galdetzen diogu ea benetan egokia den espedientea itzultzea, udalak egin beharreko gestioak egin ditzan orain, duela hiru urte baino gehiago izandako gertakari batzuen lekukoak aurkitzeko.** Gainera, zalantzazkoa da kudeaketa horien erantzuna positiboa izatea; izan ere, horrek esan nahi du ziurtzat jotzen dela Larrialdi Zerbitzuak bere garaian bildu zituela 112 telefono-zenbakira deitu zuen pertsonaren datuak, eta gaur egun ere gordetzen dituela.

Gainera, erreklamaziogilearen letraduak erorikoaren mekanikaren eta inguruabarren deskribapen txikiarik egin ezean, litekeena da —Batzorde honek irizpena eman dien antzeko espediente askotan ohikoa den bezala— deia egin zuena ez izatea lekuko presentziala, JJJ andrearen erorikoa nola gertatu zen ikusi zuena, baizik eta gerora joan izana haren laguntzara, istripua izan zuen pertsona jada lurrean zegoela.

Kasuaren inguruabarrak aztertuta, **ezin dugu alde batera utzi erreklamaziogilearen abokatuaren arretarik eza**. Kontua ez da soilik, adierazi dugun bezala, alderdi auzi-jartzaileari dagokiola, hasiera batean, frogaren karga, baizik **eta formalki eskatu behar duela lekuko frogaren egiteko eta behar bezala argudiatu behar duela frogatu nahi eta ezin dituen egitateen arteko harremana, eta hartu beharreko ebazpena nola izango litzaiokeen aldekoa frogaren eztabaidatua eginez gero, eta ez du inolara ere egin halakorik.**

Gainera, litekeena da erorikoa non gertatu zen zehatz ez jakiteak ekarri izana, hein handi batean, udalak espedientea modu nahasian instruitzea.

Horregatik guztiagatik, **Batzordeak bere iritzia ematea erabaki du, espedienteari erantsitako dokumentazioan oinarrituta, prozedura luzea gehiago luzatu gabe, eta, horrela, alde batera uztea erreklamazioari buruzko administrazio-erabaki bat atzeratzeak erreklamaziogilearentzat une honetan izan ditzakeen ondorio negatiboak.**

131/2023 ABJI, 18 - 37 par.

Zioak edo arrazoiak

Lege horrek [APEL] 35.1.h) artikuluan ere jasotzen du **ondare-erantzukizuneko prozedurak ebazten dituzten egintzak arrazoitzeko betebeharra.**

Bada, ebazpen-proposamena irakurriz gero, gainera bada ere, agerian geratzen da ez daterrela bat transkribatutako legezko parametroekin.

Kontuan hartu behar da **zuzenbideko oinarri baten eskakizunaz** ari garela hemen, betekizun material eta substantibo bat, administrazio-jarduketa orori eskatzen zaiona —botere publikoaren egikaritze orori, egia esan—, zuzenbide-estatua ulertzeko funtsezkoak diren printzipioen arabera, hala nola legezketasuna eta arbitrariotasun-debekua.

Azpimarratzekoa da, era berean, **proiektaturiko ebazpenaren baiespen-izaerak ez duela ezertan kentzen oinarritzeko beharra**, zuzenbidearen eskakizun abstraktu eta orokorra baita, eta, funtsean, ez baita aldatzen dena delako jarduketa publikoaren motaren edo edukiaren arabera; besterik da, ordea, faktore horiek ñabardurak ekartzea oinarriek aipatu behar dituzten edo erabili behar dituzten alderdi edo parametro juridikoei dagokienez.

Bi alderdiri dagokienez ikusten da **oinarririk eza: erantzukizun-adierazpenaren kausa juridiko-faktikoari eta kaltearen zehaztapenari eta balorazioari dagokienez**. Aipatu behar da, azken horri dagokionez, erreklamaturako quantuma osorik onartu dela, aseguru-etxearen

oniritziarekin, baina erreklamaziogileak 2023ko otsailaren 10ean egindako idazkian jasotako egiaztapena baino ez dago —bidalitako espedientean ez dago jasota ezgaitzearen guztizko aldiei buruzko dokumentazio sanitarioa—.

10/2023 ABJE, par.: 25-28

III. Administrazio-prozeduraren berezitasunak

A) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioak

Abiaraztea

Hori horrela, Batzordeak uste du III jaunaren erreklamazioa APELen 67.1 artikulua on-dare-erantzukizuneko akzioa egikaritzeko ezarri duen epetik kanpo egin dela.

Manu horren arabera, erreklamazioa egiteko eskubidea preskribatuko da kalte-ordaina ekarri duen gertaera edo egintza izan zenetik edota kaltearen ondorioak agertu zirenetik urtebetera. Xedapen horrek beren-beregi aurreikusi duenez, pertsonen kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik hasiko da kon-tatzen epea.

Epe hori zenbatzeko, hasierako data (*dies a quo*) da ondorio kaltegarriak egonkortu, eta osasunaren kaltea behin betiko ezagutzen dena. Murrizte edo urritze hori iraunkorra izan daiteke, une jakin batean sortu eta aldaketarik gabe gelditzen dena, edo jarraitua, egu-nero-egunero agertzen dena. Lehenengo kasuan, kaltea gertatzen denean hasten da preskri-pzio-epea, une horretan bertan balioetsi daitezkeelako kalteak; bigarreanean, berriz, osasuna-rentzako ondorioak ezin direnez *ab initio* neurtu, haien nondik norakoaren berri izan arte itxaron behar da, edo, aipatu lege-xedapenak dioenez, “sekuelen norainokoa”ren berri izan arte —Auzitegi Gorenaren 2008ko irailaren 15eko epaiak, doktrina bateratzeko kasazio-errekurtso batean emana (RJ 2008\6156)—.

Kalte iraunkorren eta kalte jarraituen arteko bereizketa horri eta ondare-erantzukizuneko akzioa egikaritzeko epearen zenbaketari dagokienez, jurisprudentzia sendotua du Auzitegi Gorenak, eta haren erakusgarri dira 2012ko urriaren 8ko eta urriaren 30eko epaiak (RJ\2012\9630 eta RJ\2012\10333), 2015eko otsailaren 24ko AGEN laburbilduta (RJ 2015\1071) orain arteko

adierazitakoarekin bat etorrira: “Ordaina emateko akzioaren preskripzioari dagokionez, ezaguna da kalte iraunkorrak eta kalte jarraituak bereizten dituen jurisprudentzia. Iraunkorretan, kaltea eragin duen egitatea une jakin batean agortzen da; une horretan ondorio guztiak ditu, eta kaltearen norainokoa zein den ezagutzen da. Beraz, kaltearen bilakaera zein izango den aurreikus daiteke. Jarraituak une jakin batean agortzen ez direnak eta bilakaera dutenak dira; beraz, preskripzio-epea irekita dago, eta sekuelen irismena behin betiko zehaztuzat jotzen denean soilik hasiko da zenbatzen”.

Kontsultarako aurkeztu diguten kasuan, III. jaunak ondare-erantzukizuneko akzioa egikaritu zuen 2021eko ekainaren 18an erregistratutako idazkiaren bidez.

Erreklamazio-idazkian, honela oinarritzen du bere uzia: H1 Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan 2019ko abuztuaren 30ean sartu zutenean, abdomeneko minagatik, abdomeneko ekografia bat egingo ziotela esan zioten, baina ez zen egin, eta, haren ordeztan, abdomeneko eta pelbiseko OTA bat egin zioten, proba horren arriskuen berri eman gabe eta baimen informaturik gabe, proba inbaditzailea izan arren.

Jarraian dio OTA bi fasetan egin ziotela, lehenengoan ez zutelako behar bezala jokatu, eta bigarrenetan, benabarneko kontrastearekin, estrabasazioa gertatu zelako, eta horrek ezkerreko besoaren hantura eta tumefakzioa eragin zizkiolako. Horrenbestez, tratamendua jaso zuen.

Azkenik, uste du, kontrastearen estrabasazio horren ondorioz, arazoak izan zituela ezkerreko hankan, eta, beraz, 2021eko maiatzaren 31ra arte luzatu behar izan zuela laneko baja –2019ko abuztuaren 28an eman zioten ondorez orokor batengatik–, hankan izandako kalteek ezinezko egiten ziotelako lanean aritzea. Haren iritziz, estrabasazioaren ondorioz besoan izandako ondorio lokalak zuzentzeko ezarritako tratamenduak zeharka eragin zituen kalte horiek, “ordu asko eman behar izan zituelako besoekin hormaren kontra”.

Honako hau ohartarazi behar da: erreklamatzailerak ez duela inongo froga edo peritu-txostenik aurkeztu bere alegazioetan, eta, beraz, egintza mediko bat *lex artis ad hoc* delakora egokitzen den ala ez zehazteko, azterketa tekniko mediko bat behar dela, behar bezalako kualifikazioa duten pertsonen egitekoa.

Aurreratu dugunez, espedientearen instruktoarek uste du akzioa preskribatuta dagoela –eta hala jarri du ebazpen-proposamenean, erreklamatzaileri entzunaldia eskaini ondoren, gai horri buruzko iritzia eman dezan– honako arrazoi hauengatik:

Erreklamazioa eta espedientearen dagoen dokumentazioa aztertuta, ikusten da erreklamatzaileri alta eman ziotela 2019ko abuztuaren 30ean (administrazio-espedientearen 42., 47., 53., 64. eta 70. folioak).

Erreklamazioa 2021eko ekainaren 18an aurkeztu zuten (administrazio-espedientearen 1. folioa), eta, beraz, ulertzen da betetzen direla erreklamatzeko akzioa aurkeztu zen

unean preskribatuta zegoela ulertzeko baldintzak.

Administrazioari ondare-erantzukizuneko erreklamazioa egiteko akzioaren preskripzioa urtebetegarrenean izango da, hain zuzen, kalte-ordaina ekarri duen egitate edo egintza izan zenetik edota kaltearen ondorioak agertu zirenetik urtebetera. Pertsonen kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten direnetik hasiko da zenbatzen epea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 67. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Preskripzioari buruzko entzunaldi-izapidea betetzean, erreklamaziogileak alegatu du lesioak 2021eko maiatzaren 31n egonkortu zirela, egun horretan jaso baitzuen Gizarte Segurantzaren alta medikoa, 2019ko abuztuaren 30ean zalantzan jarritako OTA egin ziotenetik etengabe bajan egon zelako.

Honako hau ere argudiatu du, gainera: “hankaren kaltea kontrastearen estrabasazioak zuzenean eragin ez bazuen ere, zeharka eragin zuen, hormaren kontra ordu askoan zutik egon behar izan zuelako besoekin, eta inguruabar horrek kalteak eragin zituen hurrengo egunean, III. jaunaren etxean ambulanzia baten zerbitzuak behar izateraino. Beraz, azken buruan, eragindako kalte guztia OTAren ondoriozko konplikazioaren ondorio da”.

Ez gatoz bat erreklamatzailerak diosenarekin, erreklamatzeko akzioaren preskripzioari kontra egiten dionean; izan ere, nahastu egiten ditu lesioen egonkortzea eta GSINren 2021eko ekainaren 1eko erabakia —2021eko maiatzaren 31tik aurrerako ondorioekin—, III. jaunari ezintasun iraunkor kalifikazioa ukatzen diona, “lanerako gaitasuna murrizten edo deuseztatzen dion murrizketa anatomiko funtzionalik ez izateagatik”, eta 2019ko abuztuaren 28tik zegoen ABEren ondorio ekonomikoen luzapen-egoera azkentzen duena —bi egun lehenago, beraz, abdomeneko OTA egin baino; erreklamatzaileraren tesiaren arabera, OTA horretatik baitatortzeko kalteak, zeinen ordainketa eskatzen baitu —.

Kasuak dakarren eztabaida dela eta, gogoratzekoa da ezen, besteak beste Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 11ko epaiak (RJ 2012\7328) gogorarazten duenez, jarduera sanitarioaren ondoriozko ondare-erantzukizuneko kasuak aztertzean, Auzitegi Gorenak doktrina bat finkatu du, zeinaren arabera “gaixotasunaren izaera kronikoak edo jarraituak ez du eragozten bilakaeraren une jakin batean ezagutzea gaixotasunaren irismena eta behin betiko sekuelak edo, gutxienez, konpondu nahi diren sekuelak (epaiak: 2009ko abenduaren 12koa, 2010eko abenduaren 15koa eta 2011ko urtarrilaren 26koa) (...), ezta jada zehaztutako egoera gerora aitortu edo aldatu izanari dagokionez ere, lanaren eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, eta hori paradoxa hutsa baino ez da aurrez zehaztutako emaitza kaltegarri beraren ondoriozko administrazio- eta gizarte-prozeduren aldibereko izapidetzean, eta ezin da berriro ireki aurreko une batean behin betiko zehaztutako sekuelari buruzko erreklamazioa, nahiz eta tratamendua jaso behar izan oraindik, gerora egiteko tratamendua edo azterketa periodikoak”. Hala adierazi du Auzitegi Gorenak ere 2011ko maiatzaren 31ko epaian (RJ /2011/4848).

Auzitegi Gorenaren 2013ko apirilaren 29ko epaiak (RJ 2013\3799), aipatzen duen jurispru-

dentzian oinarrituta, eta adierazitako zentzuan, hau ondorioztatzen du: “Ezinezkoa da zenbatzea G SINren ebazpena ematen denetik ... izan ere, horrek ez du zerikusirik lesioen egonkortzearekin”.

Jurisprudenziaren doktrina horren arabera, horrela jokatu behar da; izan ere, aipatutako epaiek adierazten duten bezala, “erreklamazio-epaia ezin da mugarik gabe irekitzat jo, ondoko ondoko kontrol-bisiten ondorioz, baldin eta bisita horiek ez badagozkio bestelako pairamenak, aurrekoen norainokoa eta ondorioak ezartzean aurreikusitakoez bestelakoak, agertzeari edo larriagotzeari. Bestela, interesdunaren esku utziko litzateke erreklamaziorako epea ezartzea, eta hori ez dator bat legegilearen aurreikuspenekin, akzioa aldi baterako exijentzia horri lotzen baitzaio” [denen erakusgarri, Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 30eko epaia (RJ 2009\6860)].

Hala ere, eta ebazpen-proposamenak jasotzen duen bezala, Auzitegi Gorenaren azken jurisprudenzia, preskripzioari dagokionez, apirilaren 4ko 463/2019 Epaian jaso da (RJ 2019/1286), zeinaren helburua baita zehazki finkatzea ea laneko ezintasuna (administratiboa edo judiziala) deklaratzeko dakarren istripu baten edo osasun-prestazio baten ondoriozko sekuelengatiko ondare-erantzukizuneko erreklamazioetan, erreklamatzeko urtebeteko epearen *dies a quo* delakoa sekuelak behin betiko egonkortu ziren egunean kokatu behar den, edo ezintasun egoera hori deklaratzeko duen administrazio-ebazpenaren egunetik edo gizarte-arloko epai irmoaren egunetik, interesduna jakitun dela.

Epaia interpretazio-irizpide gisa ezarri du *dies a quo* delakoa, kalte fisiko edo psikikoen ondoriozko ondare-erantzukizuneko akzio bat egikaritzeko urtebeteko epea zenbatzeko, sendatzearen edo sekuelak egonkortzen diren egunean hasiko dela, alde batera utzita, ondorio horietan oinarrituta, lanerako ezintasunaren espediente jarraitzea, emaitza administratiboa edo judiziala edozein izanda ere.

Kasu honetan, erreklamazioaren oinarria da ezkerreko beheko gorputz-adarreko minak eragin zituen lesioa 2019ko abuztuaren 30ean egin zioten OTAn injektatutako kontrastearen estra-basazioaren ondorio izan zela. Baina espedienteak hankako lesio horri buruz ematen dituen datu bakarrak dira lunbalgia-koadro bat izan zuela, eta, horren ondorioz, III jaunari balorazioa egin ziotela Traumatologia Zerbitzuan 2020ko otsailaren 11n, lehen mailako arretako medikuak bideratu baitzuen 2019ko urrian, eta, mediku horrek txostena eman zuenean —2020ko martxoaren 9an —, EMN bat egiteko zain zegoen.

Gainera, G SINren Ebazpenean jasotako hondar-koadro klinikoaren identifikazioa ere badugu. Horren arabera, “L5 ez. sustraiko lesio kistiko” bat dago; baita ezintasun iraunkorra ukatzea ere, III. jaunaren lesio horiek “lanerako gaitasunaren gutxitze-maila nahikoa” ez izateagatik ezintasun-mota hori izateko, eta horrek, gainera, aldi baterako ezintasunaren ondorio ekonomikoen luzapena azkentzea dakar.

Pazienteak aldi baterako ezintasun-egoeran jarraitu izanak, bi patologia desberdinengatik, ez du biderik ematen, besterik gabe, alta horren data lesioa egonkortzeko datatzat hartzeko, eta ondare-erantzukizuneko akzioa egikaritzeko epearen zenbaketa irekitzat

jotzeko patologia horietako lehenengoari dagokionez.

Erreklamatzailleak ez du aurkeztu —hala dagokio eta, ondare-erantzukizunaren alorreko froga-zamaren arauen arabera— **inongo frogarik egiaztatzeko L5 ornoan duen lesioak** —ezkerreko hankarako proiektzio mingarria baitu— **lotura duenik OTAren kontrastearen estrabasazioarekin, 2019ko abuztuaren 30ean egin baitzen**, ezkerreko besoan agertu, eta ezarritako tratamenduarekin sendatu baitzioten. Beraz, ez dago jasota zerikusia izan zuten zerbitzuen laguntzarik jaso zuenik, arrazoi horregatik. Koadro lunbar bat dagoela baino ez dago dokumentatuta, eta Traumatologia Zerbitzuan tratatu zutela. Ez dugu haren bilakaerari buruzko beste daturik, GSINek ezindutzat jotzeari buruz egindako jarduketetatik harago, eta emaitza jada azalduta dago.

Prozeduran emandako txostenek agerian utzi dutenez, **ez dago inolako erlaziorik OTArako kontrastearen estrabasazioaren eta III. jaunak ezker hankan jasandako lesioaren artean.**

Lehenik eta behin, ... ESIko H1 Ospitaleko Erradiodiagnostikoko zerbitzuburuaren txostenak, III. jaunari eman zioten arreta kontatzen du, eta hark planteatutako alderdiak aztertzen ditu, bai eta ezeztatu ere. Estrabasazioari dagokionez, honako hau ondorioztatu du: “-Kontrastearen estrabasazioa konplikazio posiblea da; horretarako, jarduteko protokoloa dago erradiologia-zerbitzuan, eta zorrotz jarraitu zioten; pazienteari alta eman zioten, kalterik gabe, estrabasazioagatik. -Gure ustez, beso bateko kontraste-estrabasazioak ez du zerikusirik pazienteak ondoren hankan izandako minarekin”.

Bigarrenik, H1 Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuak ere OTAren kontrastearen estrabasazioari buruzko iritzia eman du, eta horri dagokionez, protokoloetan jasotako neurriak aplikatu ondoren berehala konpontzea azpimarratu du:

OT egiteko kontrastearen estrabasazioa ez da batere ohikoa (ziurrenik % 0,5 baino gutxiago), baina existitzen da.

Behin istripua gertatuta, hau gomendatzen da: hotzaren aplikazio lokala eta gorputz-adarriari geldia eta gorantz eustea, kirurgia plastikoko zerbitzuaren balorazioarekin batera (horrek baztertu egin zuen beste ebakuntza batzuk egiteko beharra). Neurri horiek kasu honetan hartu ziren, eta ondorengo eboluzioa egokia izan zen.

Laburbilduz, jarduketa medikoa egokia izan zen, pazientearen sintomak kontuan hartuta. Azkenik, baztertu egin zen abdomen-patologia akutua. Konplikazioari dagokionez —kontrataren estrabasazioa—, arina izan zen, eta tratamendu egokiarekin konpondu zen, ondorioz gabe.

Azkenik, Ikuskaritza Medikoak esku hartu du prozeduran, osasun-arloko organo espezializatua baita. Jurisprudentziak sarri azpimarratu duenez, txosten hori ez da peritu-froga bat, administrazio-espeditan sartutako txosten tekniko bat baizik. Hala ere, txosten horren garrant-

ziak eta konbentzimendu-indarrak, motibazioarekin eta koherentziarekin batera, honako hau dute oinarri: txostena egiten duenak profesionaltasun-, objektibotasun-, inpartzialtasun- eta independentzia-irizpideekin egiten du, funtzio publikoetan jardunez. Horri gehitu behar zaio Ikuskaritza Medikoaren praktika, jarduketa medikoa baloratzeko ondare-erantzukizun sanitarioari buruzko prozeduretan.

Ikuskaritza Medikoak egindako txostenean, gogoeta orokor batzuk jasotzen dira erreklamatazailleak zalantzan jarritako gaiei buruz, aipatzen duen bibliografia zientifikoan oinarrituta. Jarraian, literatura zientifiko horren arabera aztertzen du kasua, eta honako hau nabarmentzen dugu alegatutako lesioak eta erreklamaturako kaltearekin duten kausazko lotura haztatzeko: “Ezkerreko hankaren prozesua ezin zaio egotzi kontraste-bitartekoaren estrabasazioari; izan ere, zain barne-tik emandako kontraste-ihesa gertatzen denean, emateko gunearen inguruko ehunerantz joaten da, eta ez da lesiorik dokumentatu injekzio-gunetik urrun”.

Laburbilduz, **daukagun dokumentazioaren arabera, ez dago kausazko erlaziorik III. jauren lesio lunbarraren eta ezkerreko besoko zain-barneko kontrastearen estrabasazioaren artean. Beraz, estrabasazio horrek eragindako kalteengatiko erantzukizun-akzioa egikaritzeko epearen zenbaketa** —beste informaziorik ezean, 2019ko abuztuaren 30ean bertan ebatzi zen estrabasazioaren kontua— **2020ko abuztuaren 30ean amaitu zen.**

Horiek horrela, **Batzordeak uste du III jaunak 2018ko irailaren 4an egikaritu zuen akzioa preskribatuta dagoela**, APELen 67.1 artikuluan aurreikusitako epea gainditu duelako.

154/2023 ABJI, 21 - 49 par.

Aurreratu den bezala, UKPk **erreklamazioa ez onartzea proposatzen du** —hargatik eragotzi gabe izaera subsidiarioarekin formulatzen duen ondorio ezleslea—; **izan ere, uste du fidantzaren itzulketa gauzatzeak eragotzi egiten duela alderdien arteko edozein erreklamazio egitea gerora, kontratu-betebeharrak ez betetzeagatik.**

UKPren txosten juridikoak dioenez —Aholkularitza Juridikoaren eta Kontu-hartzaitzaren udal-txostenaren argudioak funtsean errepikatzen dituzten argudioekin—, SPKLren 111.1 artikulua aipatuta, “ondorioztatzen da ezen, behin betiko bermea eskatuta eta itzulita, kontratua kontratistaren inolako erreserbarik gabe likidatuta dagoela, eta, ondorioz, bi alderdien betebeharrak eta ez-betetze guztiak azkendutzat jo behar direla, eta ezin dela onartu aipatutako kontratuarekin lotutako erreklamaziorik”. Tesi hori, txostenaren arabera, aipatutako Auzitegi Nazionalaren 2016ko irailaren 21eko Epaian oinarritzen da (572/2013 errek.).

Aipatzeko modukoa da, adibide gisa, esandako epaiaren laugarren oinarri juridikoaren zati

bat, aipatu udal txostenetan ere ageri baita, *ratio decidendi* delakoa jasotzen duena:

Gure kasuan, kontratuaren likidazioa 2012ko uztailaren 3koa da, eta kontratista ados zegoen likidazioarekin, azaldu den bezala; erreklamazioa, berriz, 2012ko urriaren 10ean egin zuten. Beraz, alderdi errekurtsogilea ezin da bere egintzen aurka joan, likidazioa erabat onartu ondoren likidazioaren edukia osatzen duten kontzeptuak erreklamatu nahi baititu; izan ere, Auzitegi Gorenak 2000ko urriaren 10eko epaian adierazi zuenez, “egintza propioen doktrina deritzona edo *venire contra factum proprium* printzipioaren onartezintasuna aldarrikatzen duen araua zuzenbide pribatuan sortzen da, eta horrek esan nahi du borondate-adierazpen baten egilea haren zentzu objektiboari lotzen zaiola, eta ezin duela ondoren kontraesaneko portaera bat hartu, eta horren azken oinarria da inoren jokabidean jarri ahal izan den konfiantzak objektiboki eskatzen duen babesa, errekurritutako epaiaren seigarren oinarri juridikoak aitortzen duena”.

Horrela adierazitako **gogoeta ezin da egoki eraman aztertzen ari garen kasura; izan ere, Batzordeak ez du uste kontratistak**, erreklamazioa eginda, **bere egintzen aurkako portae-ra duenik; izan ere, ez da kontraesanik ikusten behin betiko bermea itzultzeko eskaria-rekin eta berme hori kontratistaren erreserbarik gabe gauzatzearekin.**

Bermea lotuta dago adjudikaziodunak bere gain hartutako betebeharrak betetzearekin (AKPA-ren 5. artikulua) eta SPKLren 110. artikuluan zehaztutako erantzukizunekin.

Behin betiko bermea itzultzeko agintzen duen administrazio-ebazpena dator berme-epea amaitu dela eta kontratistak betebeharrak ez duela berretsi ondoren. Premisa horiek bermatzen dute adjudikaziodunaren itzulketa-uzia, eta **ezin da ondorioztatu**, erreserbarik ezean, **erreklamazioari ustez uko egin zaionik eta erreklamazioa aurkezteko eskubidea azken-du denik.**

Antzeko ondorioa da Auzitegi Gorenaren apirilaren 5eko 621/2017 Epaian jasotakoa (830/2015 errekurtsua), bermeak itzultzeak kasu honetan duen esanahiari dagokionez:

Alderdien jarrerei buruz egin dugun laburpenean ikusi denez, eztabaida da ea ABEEaren jarduketak balizko erreklamazio orori uko egitea ekarri zuen ala ez, eta, horretarako, Administrazioak erreparatu dio kontratuaren likidazioa inolako erreserbarik adierazi gabe onartu zelakoari, hori baita errekurtsua jarri zaionarentzat eztabaidaezina. Hala ere, errekurtsogileak adierazi duen bezala, ez zen ondorio hori lotzeko moduko likidazio-egintza formalik izan. Administrazioak berak aitortu du, eta isilbidezko likidazio halako bat erakitzeke ahalegina egiten du, ABEEak onartu egingo zukeena.

Argi dagoenez kontratuaren likidazioaren garrantzia —demandaren erantzunak horren esanahiari buruz ematen duen azalpenak argi eta garbi erakusten du hori—, eta likidazioa gauzatzeko egintza formalik ez dagoenez, Administrazioak egin beharko zukeena, ez dirudi kontratistari ondorio negatiborik ekarri behar zaionik omisio horretatik. Horrek esan nahi du, kasu honetan, faltan dela premisa bat, hots, Administrazioak oinarritzat

hartu duena ABEEak kontratuaren amaiera erreparorik gabe onartu duela ondorioztatze-ko. Horregatik, bermeak kentzeari ezin zaio eman demandaren erantzunean eman nahi zaion esanahia.

Era berean, ondorioak nolabaiteko paralelismoa du, oraingoaz bestelako kasu bat bada ere, Auzitegi Gorenaren apirilaren 6ko 469/2021 Epaiak jasotzen duenarekin (5139/2019 errekurtsioa), zeinak bat egiten baitu, era berean, aipatzen diren beste batzuekin, guztiak ere kontratistaren jarreraren babesaren ikuspegitik hurbiltasuna duten gaietan emanak. Aipatu epaiak berretsi duenez, behin sektore publikoko kontratu baten likidazioa onartuta kontratistak erreserbarik egin gabe, ezin da ulertu uko egiten dionik aurreko obra-ziurtagiriak berandu ordaintzeagatiko berandutze-interesaren erreklamazioari. Kontratuaren likidazioak ez luke betebeharrak iraungitzea ekarriko —"kontratuaren behin betiko likidazioa salbuespenik adierazi gabe onartzeak ez du eragozten erreklamazioa obra-ziurtagiritan likidatutako zenbatekoaren prezioak berrikusteagatiko ordaintzaren berandutze-interesengatik zor diren zenbatekoak, Aurrekontuen Lege Orokorraren 25. artikulua aurreikusitako epearen barruan"—.

Laburbilduz, **ez da bidezkoa erreklamazioa onargarri ez dela deklaratzeko, ezta kontratutik erator daitekeen betebeharrak oro iraungitzat jotzea ere, harik eta, kasu honetan bezala, horrelako erreklamazioetan aplikatzeko legezko epea preskribatu arte.**

158/2023 ABJI, par.: 46-54

Erreklamatzeko epea

Batzordearen ustez, **preskribatuta dago lotura berezi baten existentziarengatik erreklamatzeko epea.**

Interesdunek 2023ko urtarrilaren 25ean aurkeztutako erreklamazioa, Eibarko... erregistro-finkari Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra ezarritako hirigintza-izaerako mugak direla-eta, APELen 67.1 artikuluan aurreikusitako urtebeteko epetik kanpokotzat jo behar da; **izan ere, Eibarko HAPO hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartu zuen 2007ko abenduaren 18ko bilkuran, eta 2008ko urtarrilaren 22ko GAOn argitaratu zen.**

Zalantzarik gabe, Auzitegi Gorenaren 2022ko martxoaren 31ko Epaiak (836/2020 erre.) gogoratzen duenez, 2000ko ekainaren 13koa aipatuta (567/1998 erre.), eta erreklamazioegileek berek ere hala adierazi dutenez, **Administrazioaren ondare-erantzukizuna erreklamatzeko epea zenbatzen hasiko da akzioa egikaritzea ahalbidetzen duten elementu faktiko eta juridikoak osatzen diren unetik aurrera, *actio nata* edo akzioaren sorreraren doktrinaren arabera.**

Aztertzen ari garen kasuan, **HAPoa argitaratu zen unean jarri behar da une hori; izan ere, orduz geroztik ezagutu zituzten erreklamatazaileek planak higiezinari ezarritako mugak, eta muga horiek**, erreklamazioetik eta espedientearen dauden txostenetatik ondorioztatzen direnez, **ez dira aldatu ordutik**.

Horregatik, preskripzio-eparearen *dies a quo* delakoa Eibarko HAPOaren behin betiko onarpena argitaratzean finkatu behar da.

Interpretazio horrek badu **Auzitegi Gorenaren 2006ko abenduaren 28ko epaiaren** bermea (errek. 4836/2003), **erreklamatazaileen lursailaren erabilera posibleak arautzen dituen HAPOaren hirigintza-arauaren zentzua argia zelako, eta ez zelako zalantzazkoa hirigintza-sailkapen horrek haien lursailari eragiten ziola:**

Beraz, hirigintza-arau hura argitaratu zenetik, aktoreek aukera osoa zuten haren irismena eta haren ondorio kaltegarri osoa ezagutzeko; edo, gauza bera dena, argitalpen horretatik aurrera, edo argitalpen horrekin bakarrik, aktoreentzat “gaitasun osoko egoera juridikoa” sortu zen, lehen aipatu ditugun akzio egokiak egikaritzeko. Hartara, HAPOaren sailkapen berri hori zuzenean aurkaratu ahal izango zuten, baldin eta legez kontratatzat jotzen bazuten; edo, bestela, beste iritzi bat bazuten, edo, edozein arrazoiengatik, zuzeneko aurkaratze hori baztertzen bazuten, kalte-ordainaren eskaera egikaritu ahalko zuten, argitalpen beretik, eta, ondoren, aztertzen ari garen ondare-erantzukizuneko akzioa baliatu ahalko zuten eskaera hari ezezkoa emango zion administrazio-egintzaren aurka; edo, bestela, eskaera hori eta ondorengo akzioa egikaritu ahalko zuten baliatu zuten zuzeneko aurkaratze hura ezetsi ondoren.

Nahitaezko desjabetzearen eskaerari dagokionez, erreklamatazaileen tesia, zeinaren arabera Administrazioak ezetsi arte ez baita behin betiko emaitza lesiboa gertatu, ezin baita onartu.

Lehenik eta behin, azaldu dugun bezala, **Administrazioaren ezezko ebazpenek ez dute eragozten legezko desjabetzera jotzea, eta, beraz, ez dute berez sortu guztiz sendotutako egoera, eta ez dute ekarri ondasuna kentzea kalte-ordainik gabe.**

Bigarrenik, **preskripzio-eparearen hasiera atzeratzea desjabetzea ukatzen duen administrazio-bideko ebazpen irmoa eman zen unera arte, pendentzia artifizialeko egoera bat sortzea bezala izango litzateke, erreklamatazaileen borondatearen arabera luzatuko litzatekeena**; izan ere, erreklamatazaileek erabakitzen dute noiz aurkeztu beren eskaera, “argi eta garbi murriztuta preskripzioaren institutuaren segurtasun juridikoa”.

Hirugarrenik, egia da jurisprudentziak etete-efektua ematen diela beste bide batetik eskubidea betetzea lortzera bideratutako akzioei, baldin eta ‘**argi eta garbi desegokia**’ ez badira, hau da, desegokitasun hori nabarmena, agerikoa edo begien bistakoa ez bada.

Kasu honetan, argi dago erreklamaziogileek egikaritutako akzioak oso emaitza desberdina zekarrela. Adierazi dugun bezala, ez da gauza bera lurzattia desjabetzea edo haren titulartasuna izaten jarraitzea eta berdintasun-printzipio konstituzionala hausteagatiko kalte-ordaina jasotzea, onurak eta kargak ekitatez banatzea ezinezkoa izaki, eta, jakina, desberdinak baitira bi erakundeetan baloratu beharreko premisak eta irizpideak. Are gehiago, argi eta garbi desegokitzat hartuko ez bagenu ere, ezin diogu etete-ondorio hori eman; egin-eginean ere, 2021eko abenduan baliatu zutenean, Administrazioaren erantzukizunaren bidez eskubidea baliatzeko epea amaituta zegoelako, eta ezin delako eten jada preskribatuta dagoen epe bat.

Akzioaren epez kanpokotasunari buruz jarraitzen dugun irizpidea —zeinaren arabera *dies a quo* delakoa, lotura berezien kasuan, HAPOa aldizkari ofizialean ofizialki argitaratzean jarri behar baita— beste kontsulta-organo batzuek hartutako irizpidea ere bada, hala nola Madrilgo Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoaren 2022ko maiatzaren 24ko 318/22 Irizpenean ageri dena.

Organo horrek, era berean, otsailaren 20ko 69/20 irizpena edo apirilaren 27ko 165/17 irizpena aipatzen ditu organo beraren aurrekari gisa.

Edo Kataluniako Generalitatearen Aholku Batzorde Juridikoarenak, hirigintza-plangintza aldatzearen edo berrikustearen ondoriozko kalteengatiko erreklamazioen kasuan, epea plana argitaratzen den unean hasten baita; izan ere, une horretan ezagutzen da antolamendu berria, eta hura aplikatzeko egintza bereziek erabaki behar dutena (243/09 eta 136/10 irizpenak).

Gauza bera ulertzen du Asturiasko Aholku Batzordeak urriaren 31ko 299/2012 Irizpenean: ondare-erantzukizuna erreklamatzeko kasu berezi batean, katalogatutako higiezin bati eragingo liokeen ustezko lotura berezi baten ondoriozkoan, *dies a quo* iritzi dio katalogoa aldizkari ofizialean argitaratu zen egunari.

Laburbilduta: erreklamaziogileek Administrazioaren ondare-erantzukizuna erreklamatu zezaketela HAPOa argitaratu zenetik, haien lursailaren erabilerak ezarri baitzituen, kalifikazio hark lursailari zekarzkion mugekin.

Horiek horrela, Madrilgo Aholku Batzorde Juridikoak aipatu dugun irizpenean erabilitako argudio-ildoari jarraituz, gure egiten baitugu, 2023an aurkeztutako erreklamazio bat, Eibarko HAPOa argitaratu eta hamabost urtera, nabarmen epez kanpokoa da, eta erreklamaziogileek bere gain hartu behar dituzte arreta faltaren ondorioak, plana argitaratu zenetik eska zitekeelako erantzukizun hori.

Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 25eko 147/1986 Epaiak gogoratzen duenez, preskripzioa segurtasun juridikoaren printzipioarekin lotzen da, eta aukera ematen du legearen aurkako egoerak finkatzeko, baldin eta uzi baten titularrak ez badu arrazoizko epe batean gauzatzen asmo hori fede onaren eskakizunen arabera.

Aztertzen ari garen kasuan, **erreklamazioa aurkezteko aukera ematen zuten elementuen berri izan eta 15 urtera aurkeztu zen ondare-erantzukizuneko erreklamazio batek nabarmen gaintzen du legezko epea, baita fede ona ere**, are gehiago ondare-erantzukizuneko akzio bat bideratzeko nabarmen desegokia zen beste bide batera jo zutenean, partzelaren desjabetze-eskaerara adibidez, funtsezko eta denborazko baldintza desberdinen mendekoa.

162/2023 ABJI, par.: 39-57

7. Kapitulua. ADMINISTRAZIOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNA

I. Antijuridikotasuna

A) Zama edo karga jasan beharra

Laburbilduta: Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, eta Estatu Kontseiluaren jarre-
rarekin guztiz bat etorrita, Batzordeak egiaztatu du **Administrazio autonomikoak aztertu
dugun aldian hartutako neurriak egoera epidemiologikoaren etengabeko ebalua-
zioaren eta jarraipenaren emaitza izan zirela**, eta aldian-aldian berregokitzera behart-
zen zutela. **Neurri horiek herritarrei, oro har, eta, aztertzen ari garen kasuan, ostala-
ritzako negozioren titularrei eragin zizkieten kalteek ez dute lesio-izaerarik** —zentzu
tekniko-juridikoan—, **ez dira kalte antijuridikotzat hartzen**.

Orain arte azaldutakoa alde batera utzi gabe, Batzordeak zehaztapen gehigarri bat
egin behar du jada aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia-
ren epaiei dagokionez —107/2022 Epaia, 2022ko martxoaren 9koa, eta 209/2022 Epaia,
2022ko maiatzaren 5koa—, epai horiek egintzei buruz adierazitakoak guztiz errespetatuta
dira erantzukizunaren azterketa honetan.

Lehenengo epaiak —107/2022 Epaia— hirugarren xedapena deuseztatu zion 16/2021
Dekretuari (martxoaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako
dekretu hau: 13/2021 Dekretua, martxoaren 6koa, zeinaren bidez prebentzio-neurri es-
pezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratzen diren, alar-
ma-egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz
eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko).

Bestalde, 2022ko maiatzaren 5eko 209/2022 Epaiak deuseztat jo zuen lehendakariaren
abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren eranskinaren 9.1 apartatuaren tarteki bat, irekit-
zeko araei buruzkoa.

Horri dagokionez, adierazi behar da, lehenik eta behin, SPAJLren 32. artikuluan xeda-
tutakoaren arabera, "Administrazio-egintzak edo xedapenak administrazio-bidean edo administra-
zioarekiko auzien jurisdikzioan deuseztatzeak ez dakar, berez, kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik".
Jurisprudentzia etengabearen arabera, **kasu horietan ondare-erantzukizuna aitortze-
ko, Administrazioaren ondare-erantzukizunaren institutuak eskatzen dituen beteki-
zunak bete behar dira**.

Betetze horri dagokionez, **erabaki judizialetan jasotako deuseztasun-deklarazioek ez dute eskatutako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sortzen; izan ere**, ondare-erantzukizunari dagokionez, **kasu horiei aplikatu beharreko doktrina jurisprudenzialaren argitan aztertu behar dira nahitaez erabaki judizial horiek**.

Batzorde honek aplikatutako doktrina horrek (denen erakusgarri, 20/2022 Irizpena) zera dakar: aztertea ea Administrazioak, bere ahalak egikaritzean (bereziki, diskrezionalak), iritzi-tarte arrazoitu eta arrazoizkoen barruan eutsi dion: hau da, deuseztapena gorabehera, ea aplikatu beharreko arauen arrazoizko interpretazio bat egin duen, erabilitako ahalak bete behar dituen helburuak betetzera bideratuta.

Eremu horretan, **badirudi zaila dela kasu argiago bat aurkitzea non Administrazioak**, panorama lauso eta zalantzarik baten aurrean, **iritzi-tarte benetan zabala zuen**. Ordura arte ezezaguna zen gaixotasun batek, COVID 19ak, eragindako pandemia zen, eta zientziak ez zuen erantzun argirik ematen –denbora-tarte zehatz hartan–.

Ikusirik birusari lotutako gaixotasun larrien eta heriotzen intzidentzia egiaztatua, kutsatzeko arrisku handia eta goranzko presio asistentziala, osasun-sistema kolapsatzeko arriskuarekin, saihetsezina zen –prebentzioaren edo zuzenbidearen printzipioa aplikatuz– neurri mugatzaileak hartzea ostalaritzaren sektorean, epaiek aitortu zuten bezala.

Beraz, **gauza bat da esatea neurri jakin batzuek justifikazio handiagoa izan behar zutela, eta oso bestelakoa, berriz, neurri horiek hartzean Administrazioak** –aurrean zuen egoeran– **arrazoirik gabe edo “arauen arloko arreta-falta nabarmenarekin” jardutea** (1986ko ekainaren 10eko AGE).

Laburbilduz, **azterketa-ikuspegi horrek ere berresten du alegaturiko kalteak antijuridikotasunik ez duela**, eta ez ditu ateratako konklusioak aldatzen benetako kalte, eraginkor eta indibidualizaturik ezaz –ondare-erantzukizuna aitortzeko behar den modu zehatz eta kategorikoan egiaztatua–, eta ez duela biderik ematen erreklamazioa aurkeztu duen enpresak sakrifizio berezi bat –apartekoa, astunegia eta desberdina– jasan duela jotzeko.

Alegatutako kalte horrek ez du gainditzen karga orokorraren atalasea, zama hori –ezin baita ukatu– **oso astuna izan arren gizarte osoarentzat eta ostalaritzako jardue-ra ekonomikoetan aritzen diren sektoreentzat, hala nola erreklamatzailerentzat, baina ez dago, dena den, eskatutako kalte-ordaina ordaintzea ekarriko lukeen bestelako tratamendua justifikatzen duen inguruabar berezirik**.

2/2023 ABJI, par.: 92-103

II. Kalte-ordaina

A) Lortu gabeko irabazia

Beste kontu bat da EU-19ri dagozkion epeak betetzeko atzerapenetik ondorioztatzen den EU-20ko jabetzatik lortu beharreko errendimendu ekonomikoaren itxaropenen frustrazioa —aldi baterakoa, gutxienez.

Dena den, eta aukera hori onartuta ere, frustrazio hori, argudiatutako terminoetan, hau da, zalantzazko irabazia edo irabazi hipotetikoa izaki, ezin da bideratu ordaintzeko moduko kaltera, SPAJLren aurreikuspenen eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia finkatuaren arabera —2011ko maiatzaren 31ko Epaia (944/2007 kasazioa) eta 2010eko azaroaren 5ekoa (1767/2006 kasazioa), eta epai horietan aipatzen direnak, besteak beste—. **Lortu gabeko irabaziengatik kalte-ordaina emateko, frogatu egin behar da berehala, modu esklusiboan eta zuzenean gertatu dela benetako kalte bat, ekonomikoki baloratzeko modukoa, diru-sarrerak (ez-kontingenteak) galtzearen ondoriozkoa.**

182/2023 ABJI, par.: 69-70

Ondorio horietarako, Erki enpresak **lortu gabeko irabaziaren kontzeptua erreklamatu du, honela kalkulatuta: kontratua gauzatu ezin izateagatik jaso gabeko mozkin industrialak, aurkeztu zuen eskaintza ekonomikoaren prezioaren (302.114,28 €) % 6** da, hau da, 18.126,85 €.

Onar daiteke, lehenik eta behin, juridikoki bideragarria dela erreklamazioa aurkeztu duen enpresak eragin zaion kaltearen determinazioa zehaztu eta indibidualizatzeko baliatu duen kalte-ordainaren kontzeptua —lortu gabeko irabazia—, jurisprudentziak oro har onartu duena.

Doktrina jurisprudentzial hori Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren urtarrilaren 31ko 40/2023 Epaiak (684/2020 PO) laburbildu eta aplikatu du. Epai horretan antzeko gaiak ebatzi zituzten, eta hau ondorioztatu 4. oinarri juridikoan:

Beste alde batetik, kontratua egikaritu ez zuen denboragatik jaso gabeko mozkin industrialari buruzko kalte-ordainaren eskariari dagokionez, Sala honen ustez, kalteen ordain hori lortu gabeko irabazia da, eta lortu gabeko irabazi hori mozkin industrial deiturikoan zehazten da, zeina, betidanik, egikaritzen materialaren aurrekontuaren % 6an jarri bai-

ta, horrela jasotzen baitzuen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 131.1.b artikulua eta Auzitegi Gorenaren 3. Salaren jurisprudentziak, bere 4. Atalaren epaietan: 2004ko uztailaren 2koa (3885/2000 zenbakidun errekurtsua), 2004ko azaroaren 15ekoa (6812/2001 zenbakidun errekurtsua), 2005eko uztailaren 19koa (6852/2001 zenbakidun errekurtsua) eta 2006ko urtarrilaren 26koa (4600/2001 zenbakidun errekurtsua).

Beraz, kalte-ordaina kalkulatzeko erreferentzia-parametroa mozkin industrialaren galera izango da, hau da, kontratuaren 33 hilabete eta erdiko egitaritze materialaren aurrekontuaren gaineko % 6 (2016ko irailaren 16tik 2019ko uztailaren 1era arte). Epe horretan ez dago desadostasunik, eta ez da onargarria Eusko Jaurlaritzaren tesia, hots, kalte-ordainaren partida hori Bilboko Udalarik eskatu behar zaiola; izan ere, gorago azaldu den bezala, udalaren jarduketa ez da zuzenbidearen aurkakotzat jo, guztiz kontrakoa baizik, eta baliozkoa dela berretsi du Sala honen azaroaren 27ko 109/2018 epaiak (678/2016 erre.).

Iritzi hori erreferentziatzen hartuta aztertzen ari garen azterketan, Batzordeak uste du lortu gabeko irabaziaren kontzeptua juridikoki egokia dela mozkin industrialaren galera berdintzeko, kontratua ez baita egitaritu, jasandako lesioaren antijuridikotasunak abiapuntu duen administrazio-ebazpena deuseztatu eta gero.

Aurrekoa adierazita, zenbait **ohar egin behar dira erreklamazioa aurkeztu duen enpresak mozkin industrialaren galera kalkulatzeko moduari buruz**, aztertzen ari garen obra-kontratuaren **lizitazioan aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren % 6arekin identifikatu baitu**.

Errekurtsogileak aipatzen duen jurisprudentziak, bai eta irizpen honetan erabilitako jurisprudentziak ere, honela zehazten du mozkin industrial deritzona: egitaritze materialaren aurrekontuaren % 6, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, 131.1.b) artikuluan jasotakoaren arabera ulertuta.

Illo horretatik, argi dago **erreklamatzailerak % 6a aplikatu dion zenbatekoa** —aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren balioa — **kualitatiboki desberdina izateaz gain, kuantitatiboki handiagoa dela obra-kontratuei aplikatu dakiekeen egitaritze materialeko aurrekontu deritzona baino**.

Gure ustez, hala ere, **aztertzen ari garen kasuari ondoen egokitzen zaion mozkin industrialaren kalkulua** —erreklamatzailerak uko egin baitio kalte-ordaina jasotzeko moduko beste kalte batzuk justifikatzeari— **aipatu jurisprudentziak eta 1098/2001 Errege Dekretuaren 131.1.b) artikulua defendatzen dutena da**.

Beraz, kalte-ordaina ondo zehazteko, aurreko apartatuetan adierazitakoaren arabera, **jarraipena eman behar zaio izapidetzeari, hau egiaztatzeko, etengabe aipatzen den lizitazioan aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren banakatzetik abiatuta: egitaritze mate-**

rialaren aurrekontua osatzen duen zatiaren balioa, hargatik eragotzi gabe horrela lortutako azken zenbatekoa eguneratu behar izatea SPAJLren 34.3 artikulua arabera.

184/2023 ABJI, par.: 79-87

III. Kausalitate-harremana

A) Biktimaren edo beste pertsona batzuen jokabidea

Obrak egiten ari ziren ingurua seinalerik gabe egoteari dagokionez, erreklamatzailerak berak ez du zalantzarik inguruabar horri buruz, ezta espaloia “berritu eta autobus elektrikoaren geralekurako egokitzen ari zirela” ere. Lekukoak eta udaltzainek ere ez dute zalantzarik. Ageriko eta begien bistako gertaera da eremura sartzen den edonorentzat, hala adierazten duen kartel edo idazkunen beharrik gabe.

Mugaketarik ezari dagokionez, aldiz, enpresa kontratistak adierazi du mugatuta zegoela, eta ez zitzaiola inori uzten bertatik ibiltzea, argazkietan ikusten den laranja koloreko sareak erakusten duen bezala.

Erreklamaziogilearen ustez, sare horrek ez zuen sarrera eragotzen; izan ere, “ibilgailuak aparkatuta zeuden lekutik hiru edo lau metrora zegoen jarrira, eta espaloia eremu horretara sartzeko aukera ematen zitzaien espaloitik zihoazen guztiei, baita ibilgailua aparkatu ondoren bertara sartzen zirenei ere”.

Printzipioz, Batzordeak ez du inongo akatsik ikusten sarea distantzia horretara egoteagatik; izan ere, geralekua jartzeko espaloia gainera esku-hartzeak, era berean, espazio zabalganga beharko luke txartelak saltzeko makinak eta informazio-euskarriak dauden markesina jasotzeko.

Beste alde batetik, argazkietan ikusten denez, sareak mugatzen duen espazioak libre uzten du, parterre baten ondoren, espaloieremu zabal bat, oinezkoak ibil daitezten, obra dagoen lekutik ibili gabe.

Ibilgailua aparkatu zezaketen pertsonen dagokienez, geralekuaren ondoko gunea izanik, BEIren erabilera eskusiboko erreian, busa gelditzeko eta busari itzaroteko tokia, bidaiariak igo eta jaitsi ahal izateko, ezin da zalantzan jarri garraio horretarako erreserbatuta zegoela. Horregatik, ibilgailuek erreia horretatik zirkulatu bazuten eta bertan aparkatzea onartuta bazegoen aldi baterako, arrazoia zen BEIren linea oraindik ez zegoela martxan, obretan baitzegoen kalea fisikoki egokitzeko lan osoa.

Nahiz eta, oro har, gomendagarria izan segurtasun-neurri gehiago jartzea obra publikoen eremuetan, ezin dugu ahaztu oinezkoek kontu handiz ibili behar dutela leku horietatik, eta, kasu honetan, **erreklamatzailerak bazekien inguru hori obratan zegoela, bai eta espazio hori non zegoen eta zertarako zen ere**, EIBren geltokia alegia, **eta ezin zela alde batera utzi**, ez autoa aparkatzean, ez eta gero bertara hurbiltzean ere, **espaloiak** diseinu berezia zuela, normala baino altuagoa, busaren plataformara sartzea errazteko —eta autoak gelditzea galarazteko—, eta ez zegoela bukatuta, jarri gabe zegoelako zintarriarekiko koska gainditzeko errematea.

Kaleko obren kasuan, jurisprudentziak jaso du oinezkoek arreta handiz ibili behar dutela, ez baita nahikoa espaloia normal erabiltzeko moduan dagoenean hartzen dena.

Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 50/2012 Epaiak, urtarrilaren 17koak (JUR 2012/115156) adierazten duen bezala, oinezkoek arreta bereziz ibili behar dute obrak egiten ari diren eremu batean; izan ere, “legearen arabera udal-administrazioari dagokio bide publikoen egoera zaindu eta artatzea, baina arriskuen sozializazioak ez du aukerarik ematen administrazioaren erantzukizun objektiboa aztergai dugunaren moduko gertakari batera hedatzeko, zeinean lekuaren egoerak *a priori* eskatzen duen arreta-maila bat, jada azaldutako baldintzetan, eta auzi-jartzaileak ez zuen halakorik egin. Auzi-jartzailearen distrakzioagatik gertatu zen estropezua, eta, beraz, ez dago kausalitate-harremanik udalaren jarduketaren eta eragindako kaltearen artean”.

Kasu honetan, bazeuden obra batzuk, biktimak bere ibilgailua aparkatu zuen inguruan zegoen espaloiarri eragiten ziotenak, eta, beraz, kontu handiz ibili behar zuen, eta, Batzordearen ustez, biktimaren jokabide arduragabearen ondorioz gertatu zen istripua, eta horrek kausazko lotura haustea ekarri zuen; izan ere, ageri-agerian zegoen biktimak igaro nahi zuen aldea birmoldaketa-obretan zegoela, eta, beraz, ez zuela bertatik igaro behar, edo arreta- eta zaintza-neurriak muturreraino eramane behar zituela.

7/2023 ABJI, par.: 48-57

Beraz, biktimak izan zezakeen zerikusia aztertu behar da, eta Batzordea bat dator instrukzio-organoaren iritziarekin.

Jurisprudentziaren arabera, **biktimak edo hirugarren batek kaltea sortzeko orduan esku hartzeak ez du berez baztertzen Administrazioaren ondare-erantzukizuna, baina erantzukizun hori zalantzan geratzen da esku-hartze horiek kaltea sortzeko orduan duten intentsitatea hainbestearainokoa den non, haien ezean, ez baitzen kalterik sortuko**. Halakoetan, proportzionalki banatu beharko litzateke kalte-ordainaren zenbatekoa kaltea gerta zedin esku hartu zuten eragileen artean, bai zenbateko hori apalduz —Auzitegi Gorenaren epaiak (AGE): 1984ko urtarrilaren 31koa eta 1984ko urriaren 11koa—, bai erruen konpentsa-

ADMINISTRAZIOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNA225

zioaren teoriari eutsiz, kalte-ordainaren zenbatekoa ekitatez banatzeko (AGE: 1982ko mar-
txoaren 17koa, 1982ko maiatzaren 12koa, eta 1984ko uztailaren 7koa).

Oraingo honetan, erreklamatzailleak azalpen gehiagorik eman ezean, **estropetua errekla-
matzaillearen portaerarekin lotu daiteke, arrazoiz eta sinesgarritasunez**, bai haren dis-
trakzioagatik, bai ibiltzeari zor zaion arretarik gabe ibiltzeagatik; izan ere, egun argiz eta ondo
ezagutzen den toki batean gertatu zen erorikoa, etxearen aurrean baitzegoen.

Aurrekoari gaineratu behar zaio erreklamatzailleak berak dioela bazekiela auzoko espaloiek
zer akats zituzten gertakariaren aurretik; izan ere, dirudienez, espaloien egoera txarra as-
palditik zegoen salatua, eta, beraz, horrek guztiak erakusten du erreklamatzailleak ezin zuela
oharkabea utzi errealitate hori.

Dena den, MMM andrearen portaerak kalte horretan izan duen zerikusia ez da kausalitate-ha-
rremana hausteko adinakoa; hala ere, aipatu jurisprudentziaren arabera, sortutako kalte-ord-
aina zehaztean modulazioa edo konpentsazioa aplikatu behar da.

Aurreko guztia horrela, **Batzordearen ustea da, kasu honetan, zuzeneko kausalitate-ha-
rremana dagoela, ez ordea eskusiboa. Egin-eginean ere, erreklamaziogilearen portae-
rak zerikusirik izan du gertakari kaltegarrian. Horrenbestez, moderatu egin beharko lit-
zateke udalaren erantzukizuna, % 50 gutxitu ere.** Halatan, bada, egiaztatutako kaltearen
balio guztiaren % 50 jaso beharko du interesdunak kalte-ordaintzat.

47/2023 ABJI, par.: 44-49

Aurrekoaz gain, eta erreklamaziogileak berak kaltea sortzean izan zuen erantzukizuna az-
tertze aldera, komeni da Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorren 124. artikuluan ezarritakoa
gogoraraztea; horren arabera, “oinezkoentzako pasaguneak dauden tokietan, galtzada zeharkatzera
doazenek pasagune horietatik zeharkatu beharko dute, eta ez inguruetatik” (1. apartatua). Artikulu berak
gaineratu duenez, “oinezkoentzako pasagunetik kanpo galtzada zeharkatzeko, ziur jakin behar da inolako
arisku edo oztoporik sortu gabe egin daitekeela hori”.

Aztertzen ari garen kasuan, bestalde, **jasota geratu da inguru horretan badirela oi-
nezkoentzako pasabide horiek**, Udaltzaingoko komisario-buruak emandako txostenak dioe-
naren ildotik, beren-beregi adierazi baitu “emakumearen erorikoa baimendutako pasabide baterako
sarbidearekin bat datorrela, ibilgailuak garaje edo gordelekuetara sartzeko eta bertatik irteteko erreserbatu-
tako espazioarekin alegia, eta inguruan bi oinezkoen pasabide daudela seinaleztatuta, bata 32,97 metrora
(... kalearekiko bidegurutzearen ondoan) eta bestea 78,01 metrora (... kalearekiko bidegurutzearen ondoan).
Ebazpen-proposamenean ere jasotzen da halakorik badela.

Hori dela eta, **egokitutako pasabideetan** (espaloiak eta oinezkoentzako pasaguneak) **ez bada, oinezkoak ziurtatu behar du arriskurik gabe pasa daitekeen ala ez; horretarako, toki horretan dagoen trafikoa zein galtzadaren egoera hartu beharko ditu kontuan.**

Inguruabar horiek nahikoak dira, Batzorde honen iritziz, **udala erantzukizunetik libre uzteko, erreklamaziogileak berak hartu baitzuen galtzada toki desegokian zeharkatzeko erabakia, behar bezala seinaleztatutako pasagunea erabili beharrean.**

71/2023 ABJI, par.: 50-53

Kasu honetan, **erreklamataileari eragindako erredurak, dena delako dutxan gertatu zirela jota, erreklamataileak berak ireki zuen txorrotaren ondorioz gertatuko ziren; izan ere, instalazioen ohiko erabiltzaile den aldetik, ulertu behar da ezagutzen duela instalazioen mekanika, tenperatura doitu beharra, alde batera utzita kolore gorriko eta urdineko seinaleak desagertu ote ziren. Inguruabar hori, beraz, gaizki uztartzen da sentsibilitaterik gabeko gorputz-adarra uraren eraginaren pean jartzearekin alde aurretik tenperatura detektatu eta doitu gabe, horrek dakarren arriskuarekin, kasu honetan jasandako erreduretan gauzatu zena.**

GGG jaunaren istripuaren sorburu izango litzatekeen egitate horren erantzukizuna, beraz, ezin izango litzaioke Administrazioari egotzi, baizik eta erreklamataileari berari, eta, horregatik, azken emaitza eragiteko ahalmen kausal hipotetikoa duten beste elementu batzuek, hala nola tenperatura handia une jakin batzuetan —legionellosiaren aurkako protokoloa betetzeko—, ez lukete nahikoa garrantzirik izango gertaera lesiborako, besteak beste, prebentzio-izaerako protokolo baten barruan egin beharreko jarduketak delako, eta arriskua alde batera utzi daitekeelako, arreta-neurri logikoak hartuta.

Beste alde batetik, txostenak hobekuntza-proposamenak egitea, hala nola tenperatura kontrolatzeko sistema berregokitzea, dutxetan haien erabilerari buruzko informazioa sartzeari, emandako zerbitzuak optimizatzeko ahalegintzat baino ezin dira hartu; baina horrek ezin du ezkutatu administrazio-jarduketari eska dakiokkeen estandarra bat datorrela haren funtzionamendu normaletik espero daitekeenarekin, kontuan hartuta Batzorde honek hori zehazteko ezarri dituen orientazio-jarraibideak —ezin da jasandako kalteetatik abiatuta ezarri, eta ezin da onenean oinarrituta eraiki, baizik eta arrazoizkoan—, zerbitzuaren izaera eta kasuaren inguruabarrak aintzat hartuta.

Instalazioen erabiltzaileak, kasu honetan, gainera, zailtasunak ditu tenperatura detektatzeko, gorputzaren zati batean sentsibilitaterik ez duelako, eta horregatik, bere onerako, kontu handiz ibili beharko luke, txorrotatik ateratzen den ura beroegi edo hotzegi egon daitekeelako, doitu beharrekin.

Batzordearen ustez, ez dago egiaztatuta GGG jaunak erreklamatzetik dituen kalte-galerak kiroldegiak emandako udal zerbitzuaren funtzionamendu okerraren ondorio direnik, hau da, kirol-instalazio horretako dutxen mantentze-lan eta kontserbazio-egoera txarraren ondorio; beraz, kalte horiek ezin dira antijuridikotzat jo erreklamatzailerak haiek ez horiek jasateko bete-behar juridikorik ez izateagatik.

93/2023 ABJI, par.: 54-58

Nolanahi ere den, Gorkizko kiroldegian **eskalada eginez erori zela** onartuta ere, Batzordeak adierazi behar du **kirol-instalazio batzuetan kaltea gertatze hutsa ez dela ondare-erantzukizuna beti sortzeko kausa edo arrazoi**.

Erantzukizun-erreklamazioa oinarritzen duen egozpen-titulua ez-egite bat bada, Batzordearen ustez, kaltea egozteko frogatu egin behar da badagoela eraginkortasunik ezaren bat, Administrazioaren funtzionamendu oker bat, kasu honetan, nola instalazioen egoerarengatik, hala kirolean aritzeari datzekion arriskua prebenitzeko neurririk ezarengatik; izan ere, zerbitzuaren gaineko arauen arabera eska daitezkeen betebeharrak betetzeaz harago, unean uneko inguruabarrak kontuan hartuta eska litekeen errendimenduaren balorazioa ere aintzat hartu behar da. Hori arrazoizko funtzionamendu-estandar gisa izendatu dugun horretan zehazten da.

Azkenik, **biktimaren portaera** ere hartu behar da kontuan, horrek ere izan dezakeelako zeri-rikusirik kaltearen sorreran; hain zuzen ere, portaera horren intentsitatearen arabera, erruen konkurrentzia hutsa ez ezik —kaltearen zenbatespen ekonomikoan ere eragin dezake, gutxituz—, erantzukizunik eza ere ekar dezake, ekintzaren subjektu pasibo huts ez den baten aurrean ez gaudenean, baizik eta protagonistaren aurrean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2016ko azaroaren 8ko epaiak adierazi duenez (JUR 2017/16235):

begien bistakoa da horrelako kirolean (eskalada) ari direnek arriskua hartzen dutela bere gain, baina, era berean, bereganatze hori zoriak edo norberaren zabarkeriak edo zuhurtziagabekeriak eragindako arriskura mugatzen dela, baina ez kirola egiten den azpiegituraren arduradunek eragindakoetara; arduradun horiek, hain zuzen ere, ahalegina egin behar dute instalazio horrek berak arriskurik sor ez dezan, hau da, azpiegiturak bere elementuen egoerarengatik arriskurik sor ez dezan.

Hasiera batean, udaleko kirol-arduradunak adierazi duenez, "Boulderraren erabilera-araudia pabiloiaren sorreran irakur daiteke. Hau dio araudiak: 8. Heldulekuak eta panelak bakarrik erabiliko dira eskalatzeko, eta ez egituraren edo instalazioaren beste zati bat. Debeztatuta dago heldulekuak lasaitzea edo mani-

pulatzea, baita ibilbideak aldatzea ere. Ibilbideak markatzeko, seinalerik uzten ez duten material itsasgarriak erabiliko dira (esparatrapua); pinturarik ezin da erabili. Edozein kalte edo istripu hori eragin duen pertsonaren erantzukizuna izango da. Debeekatuta dago norbaiten gainean edo azpian eskalatzea. Magnesio-hautsa erabiltzea erabat debeekatuta dago”.

Gaineratu behar da, baita ere, Boulderraren erabiltzaileak identifikatzean, hau dioela araudiak: erabiltzaileak gutxienez 14 urte izan behar dituela. 14 urtetik beherakoak pertsona heldu batekin edo kirol zerbitzuak haiek zaintzeko monitore bat jartzen duen orduetan sar daitezke.

Arau horiek udal-boulderrean eskaladaren praktika bermatzera bideratuta daude, onartuta kirol horrek arriskua nabaria dakarrela, eta, beraz, erabiltzaileek zenbait neurri hartu behar dituztela.

Bada, espedientetik ateratzen diren datuetatik ondoriozta daitekeenez, **erreklamatzailak ez zituen jarraibide horiek bete, eta bakarka eskalatu zuen boulder-gunetik kanpo, inongo babesik gabe.**

Aurkeztutako argazkietan ikusten denez boulder-eremua ondo mugatuta dago, hiru koloretan margotuta, kiroldegiko gainerako hormetatik bereizteko moduan, eta oinarrian koltxoneta bat dago, eremu osoa estaltzen duena.

Jakina denez, bloke-eskalada mugimendu gutxiko jarduera bat da, altuera ez oso goratuan garatzen dena. Bertan, indar-potentzia, oreka, malgutasuna, arintasuna eta halako osagaiak elkartzen dira, normalean horma okertuetan Horregatik, oso litekeena da lurrera erortzea, eta, horregatik, koltxoneta bat jarri behar da beti, erorketak babesteko eta leuntzeko.

Argi dago, era berean, erreklamatzailak aldameneko eremu batean eskalatzea erabaki zuela, koltxonetarik gabe, zeinean, hala ere, “helduleku moduko pieza batzuk” zeuden, Kulturako zuzendariaren txostenak erakusten duenez. Poliziaren txostenak azaltzen duenez, halaber, agenteek egiaztatu ahal izan zuten «koltxoneta zuen gunea bat eta koltxonetarik gabeko beste bat zeudela, eta, gertakarien arabera, koltxonetarik gabeko eremuan eskalatzea erabaki zuela».

Hala ere, helduleku horiek egoteak ez du gunea hori bloke-eskaladarako gunea bihurtzen, inolako babes artifizialik gabe, eta ez du biderik ematen helduen boulder-gunea zela pentsarazteko. Hori, bestalde, guztiz sinesgaitza da, jarduera hori egiteko funtsezko beste osagaia falta denean, koltxoneta, alegia; izan ere, zentzugabea baita eskalatzailaren trebetasunaz erabat fidatzea, eta erortzeko aukera guztiz baztertzea.

Hala ere, hori gertatu zen erreklamatzailaren kasuan; izan ere, alde batetik, boulder-gunea osoa zuen bere esku, bertan aritzeko, eta, adierazi duenez, instalazioetan ez zegoen beste inor. Eta, beste alde batetik, ondo baino hobeto ezagututa modalitate horretan koltxonetarik gabe aritzeak dituen arriskuak, kirol horren zale aritu eta aditu gisa, eta jakinda, berak dioen

bezala, koltxonetak ezinbesteko elementuak direla instalazioko zorurako, erorikoa “kirol mota horren ohiko edo berezko aukera” delako, proba egitea erabaki zuen, funtsezko zuhurtzia ahaztuz, eta hori izan zen jasandako istripu tamalgarriaren arrazoia.

Beste alde batetik, bloke-eskaladako diziplinan aritu bazen, gainera, kirol-jarduera gidatzeko monitore edo begiralerik gabe, ez da ulertzen, baldin eta uste bazuen ez zuela eskalada egiten saiatu behar espezialista baten jarraibide teknikorik jaso gabe, istripua gertatu ondoren bakarrik eskatzea espezialista hori.

Nolanahi ere, zerbitzuaren arrazoizko estandarraren doktrinak galarazi egiten du kontsideratzea eskalada-monitore batek etengabe egon behar duela rokodromoan kirol-instalazioa irekita dagoen denbora guztian.

Baldin eta zerbitzuaren errendimendu-maila jakin bat eskatu behar bada, estandarra zedarritzen duena, kudeaketarako benetako aukerak eta aukera ekonomikoak —ez utopikoak, ezta lorrezinak ere— kontuan hartuta egin behar da, eta arrazoizkotasun-irizpideari begiratuta beti —eta hori ez da bateragarria udalak kirol-instalazio guztietan eta une oro bertan egiten den kirol bakoitzeko monitore bat izateko duen betebeharra zabaltzearekin—. Horrenbestez, Batzordeak uste du begirale espezialistak eskatzeak, kirol-diziplinen irakaskuntzarako ikastaroak emateko bakarrik, ez dakarrela zerbitzuaren funtzionamendu normalerako eska daitezkeen kalitate-jarraibideen urraketarik.

Laburbilduz, **erreklamaziogileak esandakoaren arabera, gehiegizko konfiantzaz ekin zion eskaladari, bere gain hartutako arriskuak hauteman eta identifikatu gabe, nahiz eta arriskuez guztiz kontziente izan, lurra ez zegoelako koltxoneta batekin babestuta, eta hori ezin hobeto ikusten zelako igoerari ekin zionean.**

Kasu honetan, Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko martxoaren 28ko epaiak (JUR 2019/195924) aztertu zuen kasuan bezala, rokodromo batean izandako eroriko bati buruzkoa bera, zabarkeria nabarmena izango litzateke, eta instalazioa behar ez bezala erabiltzea eta arreta oro baztertzea izango litzateke ezbeharra gertatzeko arrazoi bakarra, istripua izan duenak berak kontzienteki eta askatasunez bere gain hartuko lukeena, orain zenbateko ekonomiko bat erreklamatzeko badu ere oin bien kalkaneoetan izandako kalteengatik.

Aurreko guztitik ateratzen denez, ez dago udalaren ondare-erantzukizuna oinarritzeko egozpen-titulurik; hala ere, Batzordearen ustez, ez litzateke heldulekurik jarri behar boulderrerako mugatutako eremutik kanpo, eta erabiltzaileei ere ez litzateke utzi behar heldulekurik jartzen eremu horretan. Kasu honetan, **erreklamatzaillearen zabarkeriak hautsi egingo luke kausazko lotura.**

Amaitzeko, **garrantzitsua da azpimarratzea kirol bat egiten duenak bere gain hartu behar dituela kirol horri datzekion ondorioak, eta, bereziki, kirol-instalazioen erabiltzaileei eska dakizkiekeen neurriak hartu behar dituela eta, betetzen ez baditu, gerta dakiokkeen aurreikusia.**

Eta Administrazioari imajina genezakeen erantzukizun-estandarrik handiena eskatuko bage-nio ere, argi dago kirolek, beren ezaugarriengatik, hainbat arrisku dakartzatela berekin oro har, eta zoritxarrez, arrisku horiek gauzatu egin daitezkeela kiroldegi bateko erabiltzaileek istripuak galarazteko neurri egokiak hartzen ez badituzte, eta kudeaketa egiten duen zerbitzua instalazioaren titularra izateak ez du esan nahi une oro zaindu behar duela gauzak behar bezala egiten direla.

105/2023 ABJI, par.: 38-57

B) Funtzionamendu-estandarrak

Gai hori, dena den, eta irizpen honen ondorioetarako, gai nagusiaren osagarri da, eta horren oinarria da **errepide-ertzeko erretena** —zintarriarekiko paralelo dagoen galtzada-sakonunea, kalean barrena doan euri-ura biltzeko diseinatua—, erreklamatzaila erori zen guneei zehatza, **oinezkoentzako pasagunea ez den bideko toki batean dagoela.**

Izan ere, **erorikoaren tokia mantentzeko betebeharra udalari argi eta garbi egozteko modukoa izango balitz**, kalteen neurriei buruz gorago deskribatu ditugun **arrazoibideak bakarrik aplikatuko litzaizkieke**, diogun bezala, **oinezkoak ibiltzeko guneei, eta ezin izango lirateke, besterik gabe, helburu hori ez duten beste guneei batzuetara eraman**. Erreklamatzailak berak zehaztu du, argi eta garbi —eta txosten teknikoei erantsitako argazkiek berretsi egiten dute—, non zegoen zuloa edo sakonunea: galtzadaren errepide-ertzeko erretenean, ibilgailuak ibiltzeko gunean, eta, zehatzago, ibilgailuak galtzadatik ... zenbakiko ibilgailu-ibira sartzeko pasabidearen zatian, ... kaleko... zenbakiko jabeakideen erkidegoarena baita, eta garaje komunitariora sartzeko aukera ematen baitu; alde hori, jakina, ez da oinezkoentzako pasabidea.

Horiek horrela, uste dugu ez litzatekeela logikoa izango udalari erreklamatzeari espaloiei edo oinezkoak ibiltzeko beste leku batzuei dagokien funtzionamendu-estandar bera; izan ere, horrek ekarriko luke maila optimora igotzea udal-lurzoru osoan eska daitekeen estandarra, nahiz eta, segur aski, jasanezina izan, zoruak irregulartasunik txikiena ere ez izatea eskatzea bezalakoa izango litzatekeelako.

71/2023 ABJI, par.: 46-48

Planteatutako hurrengo gaiari dagokionez, hau gogoratu behar da—125/2023 irizpenean azaldu genuen bezala—: **baimen bat, emakida-titulu bat eta, are gehiago, eremuaren titulartasun pribatuak ez duela errotik eragozten udalaren erantzukizuna; izan ere, hemen gertatzen den bezala, oinezkoak ibiltoki gisa erabili ohi da erorikoa gertatu den espazioa.**

Besterik da, ordea, lekuaren titulartasun pribatua edo baimenak edo emakida-tituluak xedatutako betebeharrak bete ez direla egiaztatuta, udala erantzule deklaratu gero, **titularraren aurkako itzulera-akzioa egikaritu ahal izatea.**

Horiek horrela, zuzentzat jotzen dugu erreklamatzailaren planteamendua, udal administrazioari zuzendu baitzaio eragindako kaltea ordain dezan; hala ere, garaje pribatu batera sartzeko pasabide bat denez, Ibilgailuen pasabiderako lizentziak emateko ordenantza erregulazionala aplikatu behar da, Vitoria-Gasteizko Udalaren osoko bilkurak 2003ko maiatzaren 22an onartu zuena, eta, zehazki, ibilgailuak espaloietatik edo oinezkoentzako guneetatik igarotzeko lizentziaren titularrari ezarritako betebeharrak eta dagozkien ibiak eratzekoak, ordenantzaren 18. artikuluan jasotakoak; besteak beste, pasabidea eta horren seinaleztapena egoki zaindu eta erabiltzeko moduan mantentzea (a letra), eta udalak agindutako ohiko edo ezohiko obra guztiak egitea ibian (e letra).

Laburbilduz, eta gero gai honetara beste ikuspegi batetik itzul gaitzkeela alde batera utzi gabe, **ezin da udalaren erantzukizuna baztertu** —ebazpen-proposamenak egin duen bezala— **erorikoa garaje pribatu batzuetara sartzeko ibi batean gertatu izanagatik.**

Kasuaren azterketari jarraipena emanez, lehenik eta behin, Batzordearen etengabeko doktrina gogoratu behar da: MMM andreak ibi batean —akatsak ere bazituena— egoera txarrean zegoen kuxteta bat zapaldu izanak ez du esan nahi Administrazioaren funtzionamendua denik, ezinbestean, erreklamaturako kaltearen kausa eragilea.

Batzordearen doktrina jarraituaren arabera, kaltearen sorburua Administrazioaren jarduketa pasibo bati egozten zaionean, Administrazioaren funtzionamendu txarra frogatu behar da kaltea egozteko, dela bide publikoa kontserbatu edo mantentzeko betebeharrak betetzean, dela

arrisku-iturri potentzial bat ezabatzeko eta oinezkoei eragin diezaiekeen kaltea saihesteko betebeharra betetzean.

Zerbitzu publikoaren funtzionamendu txar hori kasu bakoitzean zedarritzerakoan, kontuan hartu behar dira zerbitzua arautzen duten arauen arabera eska daitezkeen betebeharrak betetzea ez ezik, zerbitzuaren errendimenduaren balorazioa ere, inguruabarren arabera eska daitekeena. Horixe zehazten du doktrinak “arrazoizko funtzionamendu-estandar” izenekoan.

Funtzionamendu txar hori egiaztatutzat jotzeko, antzemandako akatsak pertsonen joan-etorrien segurtasunerako arrisku-egoera nabarmena objektibatzen duten ezaugarriak izan behar ditu.

Izan ere, kasu horretan bakarrik izango da antijuridikoa erorikoak eragindako kaltea, akatsak eta akatsaren kaltegarritasunak bateraezinak egiten baitituzte bide publikoak mantentzeko udal zerbitzuaren funtzionamendu normala definitzen duen errendimendu-estandarrekin.

Gai hori aztertze aldera, espedientean adierazitakoa hartu behar dugu kontuan.

Instruitu denetik, garrantzitsua da Azpiegitura eta Hiri Mantentze Lanen Zerbitzuaren udal-txostena, 2021eko azaroaren 10ean tokia bisitatu ondoren egina. Txosten horretan, “... ikusi zen zati batean beheragunearen eremuaren barruan dagoen kutxatila mugitu egiten zela zapaltzerakoan, 0,5 cm-ko koskarekin, gutxi gorabehera. Era berean, beheragunearen eremuko baldosa batzuk hondatuta edo askatuta daude, eta beheragunea ez dator bat Ibilgailuak Igarotzeko Lizentziak Ematea Arautzen duen Ordenantzarekin”.

Jada adierazita dago aztergaia ez dela ibiaren titularren jarduketa, baina garrantzitsua da azpimarratzea, **bai espedientean sartutako pasabidearen baimenei dagokienez, bai udalak jabeen erkidegoari egindako errekerimenduari dagokionez (2021-03-21) –gertakarietan partzialki transkribatua–, ibia zegoen eremuak mantentze-egoera desegokia zuela.**

Hala berresten du aipatutako udal-txostenak, inplizituki onartzen baitu lekua ez datorrela bat arrazoizko estandarrekin, ez baitu betetzen ibilgailuak igarotzeko lizentziak ematea arautzen duen ordenantza. Zehatzago, 13. artikulutik 16.era bitartekoek, zintarria beheratzeko, espaloia sendotzeko eta zoladura birjartzeko obren neurriei, baldintza teknikoari eta gauzatzeari dagokienez.

Beraz, gure azterketaren esparruan —auzokide batek udalari egindako eskaria baita—, espedienteak erakusten dituen inguruabarrak kontuan hartuta, zera ikusten da: **udalak ez ziela eskatu — denbora luzez — ibiaren titularrei euren betebeharrak bete zitzatela, lekuaren desegokitasunaren berri izan arren**; izan ere, 2005-11-15ean, ibiaren baimena berritzeko udal ebazpena eman zuen, eta ebazpen horren arabera, bost urteko epean —2003-06-26tik aurrera —, pasabideak ordenantzaren 16. artikulua xedatu duena bete zezan behar ziren

obrak egin behar ziren, eta hamar urteko epean, arau osoa betetzekoak. 2022ko martxoaren 11ra arte ez zitzairen ibiaren titularrei eskatu egoera zuzen zezaten.

Horrenbestez, **egiaztatuta geratzen da udalaren omisiozko portaera bat**, ibia baimentzeko baldintzak betetzen ote diren zaintzeko eginkizunak ez betetzeagatik, **erreklamatutako kaltearen kausa bihurtzen dena; izan ere, udalerriko eremu bati buruzkoa da omisio hori, eta eremu horren kokapenak —erdigunea— eta neurriek —espaloi estua— ageriago erakusten duten udalaren pasibotasuna eta oinezkoen pasabiderako arrisku-foku bat sortzeko ekarpen objektiboa**; egin-eginean ere, tokiaren morfologia ikusita, **oinezkoek ezin zituzten saihestu ibiaren elkargunea eta kutxatila ugariak.**

Laburbilduta: kasuaren inguruabarrak ikusita, Batzordearen ustea da **ez dela bete “arrazoizko funtzionamendu-estandarra” mantentze-zerbitzu publikoan, halako moldez non, pasabidea gaizki zegoenez, txarto kokatutako kutxeta bat , mugitu egiten zena, kaltearen kausa juridiko bihurtzen den.**

Amaitzeko esan behar da, adierazi dugun bezala, ebazpen-proposamenak ezesteko argudioetan sartu duela, baita ere, **Batzordeak kosken dimentsioari buruz emandako doktrina.** Adierazi dutenez, kutxetaren oszilazioa (0,5 cm) —lberdrolaren txostenean, 1 cm— ez litzateke izango kalte antijuridikoa eragiteko modukoa.

Baina, hasieran adierazi dugunaren ildotik, kasu bakoitzaren zer-nolakoari begiratu behar dio ondare-erantzukizunak, eta, kasu honetan, kutxetaren irregularitasun batu behar zaizkio deskribatu ditugun gainerako inguruabarrak, ezohiko arriskua sortzeko modukoak —udalerriko bide publikoetan ohikoa edo onargarria den arriskuaren gainetik—, oinezkoei kaltea eragiteko adinako potentzialarekin.

Egin-eginean ere, instruitu dutenetik ateratzen denez, erreklamazioaren gaia ez da oztopo finko bat —baldosa apurtu bat, asentuaren diferentzia, eta abar —, arreta handiz ibilita saihestu daitekeena; aitzitik, ordezko pasabiderik gabeko espaloi estu batean gertatu da ererikoa, non kutxeta bat dagoen, zapaltzean mugitzen dena, ibi baten beheargunearen barruan dagoelako, eta pasabide hori gaizki dago mantentze-egoera txarrean —ez dator bat aplikatu beharreko araudiarekin—, eta udalak egoera hori konpontzeko jardun behar zuen, gorabehera gertatu baino lehen bazuelako egoera horren berri.

Hori dela eta, **ez da bidezkoa Batzordeak beste kasu batzuetarako landu duen doktrina aplikatzea: irregularitasun txikiak espaloi zabal eta lauetan —maldarik gabekoetan —, mantentze-baldintza onargarrietan; izan ere, egoera horiek aukera ematen diete oinezkoei itzuri egiteko, arreta normalarekin, estoldak, kutxatilik edo finkatze-koskak dituzten hiri-altzarien beste elementu batzuk biltzen diren lekuei, edo baldosak, galtzadaha-harriak edo zoladuran bertan kalteak dituztenei.**

Hala ere, argi dago udal-administrazioaren betebeharra ezin dela eraman udalerriko bide publiko guztiak egoera onean mantendu behar dituela jotzeraino, eta galtzada-harri, baldosa, kutxatila edo hiri-bilbea osatzen duen beste edozein elementuk ezin duela izan inolako irregulartasunik, eta berehala ordeztu edo konpondu beharko dela, inolako atzerapenik gabe. Aztertzaren ari garen kasuan, **udalak, egoera irregular bat zegoela jakinda** —ibia ez baitzen behar bezala egokitu araudira—, **berandu jardun zuen** —espedienteak ez du biderik ematen egoera behin betiko konpondu ote den jakiteko—, **eta bide eman zuen ibiaren egoera bateraezina izan zedin bide publikoak mantendu eta zaintzeko zerbitzu publikoaren funtzionamendu normalarekin.**

Laburbilduta: egiaztatuta dagoenez udalak alde aurretik zekiela pasabidearen beheragunea ez zetorrela bat aplikatu beharreko araudiarekin, eta udal administrazioak jarduerarik ez zuela egin desegokitasun hori zuzendu, eta istripu-arriskua maila normaletara murrizteko, Batzordeak udalaren erantzukizuna dagoela iritzi dio, kalte antijuridikoa gertatu baita.

135/2023 ABJI, par.: 40-61

Nolanahi ere den, zentzugabea da pentsatzea udal administrazioak duen betebeharrak, udalerriko pasealeku guztiak egoera onean gordetzekoa alegia, barnean hartzen duela inongo galtzada-harrik, baldosak, kutxatilak edo hiri-bilbea osatzen duen beste edozein elementuk ez duela inongo irregulartasunik izan behar, eta berehala ordezkatu edo konpondu behar dela, luzamendurik gabe. **Kasu honetan, ordea, ez dugu akatsaren neurriak aztertzer mugatu behar, funtsezkoa baita azaldu dugun bigarren parametroa aztertzea, hots, erorikoaren aurretik udalaren erreakzioa eska zitekeen ala ez.**

Espedientean jasota dago, Udaltzaingoaren datu-basea kontsultatuta, 2019ko abuztuaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra bitartean hainbat esku-hartze egin zirela... kaleko... zenbakian eta inguruetan ustez gertaturiko istripuekin lotuta.

Alde batera utzita esku-hartzearen lekua zehatz-mehatz identifikatzen ez dutenak edo baztertu beharreko leku bat aipatzen dutenak, egia esan, erreklamatzailaren istripua gertatu baino gutxi lehenago, jasota dago MMM andrea erori zela ... Kaleko ... zenbakian eta ... zenbakiko ibiaren sarreran, 2019ko urriaren 21ean, eta handik gutxira, 2020ko maiatzaren 7an, BBB andrea.

Beste alde batetik, udaleko herritarren postontziaren datu-baseko fitxak aztertuta, ondorioztatzen da ezen, erreklamatzaila erori aurretik, pertsona batek 2019ko urriaren 16an eskatu zuela ... Kaleko... zenbakian zeuden baldosa hautsiak konpontzeko, eta, ustez, 2019ko urriaren 25ean konpondu zirela. Beste bi fitxak, dirudienez, interesdunari gertatutakoaren berri ematen dute; izan ere, aipatzen dutenez, hiru baldosa daude solte eta hautsita, eta komunikazioa egi-

ten duen senide bat erori da, femurra apurtuta. 2020ko otsailaren 7ko eta 2020ko martxoaren 5eko fitxak dira, eta eremua lehenbailehen konpontzeko eskatu zuten.

Azken fitxa horretan ageri da ezen, ibilgailuen pasabidea denez, ibilgailuak igarotzeko lizentziak ematea arautzen duen ordenantzaren 18. artikulua aplikatuz, kalteak konpontzeko eskatuko zaiela titularrei.

Aurrekoarekin bat etorrira, espedienteari erantsi zaio Mugikortasuneko eta Espazio Publikoko Saileko zinegotziaren Dekretu bat, 2020ko maiatzaren 19ko irteera-erregistroa duena, zeinaren bidez errekerimendua egiten baitzaio ... Kaleko ... zenbakiko garajeko jabeen erkidegoari hilabeteko epean konpon ditzan garajerako sarbidean hondoratu eta hondatutako baldosak.

Gertakarien kontakizun horretatik, behar bezala frogatuta, aipatu behar da eremu horren egoerari buruzko salaketa bat zegoela 2019ko urriaren 16an, bai eta polizia-txosten bat ere, 2019ko urriaren 21eko eroriko baten berri ematen zuena.

Lehenengo kasuan, fitxaren arabera konponketari ekin bazaio ere, **2020ko otsailaren 4an arrakalak eta hondoratzeak daude baldosetan oraindik ere**. Bigarren kasuan, ez da ezer zehazten 2019ko urriaren 21ean gertatutako erorikoaren ondorioz hasitako jarduketei buruz, ez baitzen halakorik izan, akatsek bere horretan jarraitzen zuten eta.

Gainera, erreklamatzailaren istripua gertatu ondoren egindako konponketa-eskariak konponketa-errekerimendu bat ekarri zuten, ... kaleko ... zenbakiko garajeko jabekideen erkidegoari zuzendua, udaleko irteera-erregistroa 2020ko maiatzaren 19koa zuela, eta ez dago jakiterik zer emaitza izan zuen, ea errekerimendu hori behar bezala jakinarazi zitzaion hartzaileari, eta, are garrantzitsuagoa dena, ea epearen barruan erantzun zioten edo exekuzio subsidiarioari ekin behar izan zitzaion, ez baita ezer alegatzen Hiriko Mantentze Lanen Unitateak emandako txostenean.

Inguruabarrak ikusita, honako hau ondoriozta daiteke: **udalak, oinezkoak ibiltzeko objektiboki arriskutsua den egoera baten jakitun, jardun egin duela, baina berandu, eta ez dakiela jarduketa hori eraginkorra izan ote den, ibiaren egoera zuzendu ote den, egoera hori bateraezina baita istripuak ekiditeko zaindu behar diren segurtasun-eskakizunekin.**

Beraz, egiaztatu den gauza bakarra da udalak berak iritzi diola ibia —bere egoeragatik— arrisku-gunea dela, eta garajearen jabekideei eskatu diela hori konpontzea; horrenbestez, erreklamatzailaren erorikoa gertatu zenean ere hala zela ondoriozta dezakegu —udalak bazekien, gainera, ibia arriskutsua zela, aldez aurretik beste eroriko bat gertatu zelako, eta bizilagunek konponketa eskatu ziotelako—.

Baldin eta, Batzordearen doktrinaren ildotik, estandarra zedarritzeko abiapuntu den zerbitzuaren errendimendu-maila jakin bat eskatzerakoan kontuan hartu behar badira benetako

kudeaketa- eta ekonomia-aukerak —ez utopikoak, ez eskuraezinak—, eta beti arrazoizkotasun-irizpidea kontuan hartuta — bateraezina baita udalaren betebeharra hedatzearekin herriko bide guztiak une oro eta udalerrri osoan izan egoera ezin hobean eduki behar izateraino—, **Batzordeak uste du**, kasu honetan, **udalak jarduerarik egin ez duenez, ibiaren egoeraren berri izan arren eta oinezkoak erortzeko benetako arriskua izan arren, zerbitzuaren funtzionamendu normalerako eska daitezkeen kalitate-jarraibideak urratu direla jo behar dela.**

Azaldutako guztiaren ondorioz, **Batzordeak uste du kasu honetan bete egiten dela kaltearen antijuridikotasunaren baldintza, egiaztatuta geratu baita zerbitzuaren funtzionamendu txarra, edo, gutxienez, eska daitekeen funtzionamenduaren arrazoizko estandarren azpitik zegoela.**

Horiek horrela, zera ondorioztatu behar da: aztertzen ari garen erreklamazioan agerian geratu direla aipatu kausalitate-harremana eta jasandako kalteen antijuridikotasuna, eta horrek EEE jaunak nahi duen ondare-erantzukizuna onartzea dakarrela.

136/2023 ABJI, par.: 54-58

Kasu honetan, udaleko Hondakinak Kudeatzeko Unitatearen txostenak erakusten du nola ematen den garbiketarako udal-zerbitzua puntu horretan, horretarako kontratatutako enpresa baten bitartez, halako moldez non, azaldu dutenaren arabera:

... Kalea ... industrialdearen barruan dago, eta, beraz, industrialde horietarako kontratatutako berariazko jardueren bidez garbitzen da, dagozkien maiztasunekin. 2020ko uztailaren 22an, ... kalean, ez zen inolako garbiketarik egin.

(...)

Garbiketa-kontratua eta hondakinak biltzeko kontratua arautzen duten baldintza tekniko-koen agirian, 20. artikuluan, "Brigadan ekortzea" izeneko jarduera deskribatzen da, hau da, hiriko industrialdeetan egin beharreko jarduera. Funtsean, azaleko garbiketa da; izan ere, oso eremu zabalak direnez, taldearen eginkizun nagusia da horien garbiketa globala egitea.

Jarduera hori 7 egunean behin egiten da.

Herri barruko bide publikoak garbitzeko zerbitzu publikoari eska dakiokkeen gutxiene-ko estandarra zehazteko, bidearen beraren kokapena eta inguruabarrak baloratu behar dira; izan ere, udalari eska dakiokkeen arreta handiagoa izango da, adibidez, jende asko ibiltzen den eremuetan, jende gutxi biltzen den eremuetan edo pertsonak igarotzeko ez direnetan baino.

Ildo horretatik, kontuan hartu behar da ezen **istripua gertatu zen lekua**, ebazpen-proposamenak dioenaren ildotik, **industrialde bateko espaloia** izan zela —... poligonoa— , eta AAA jaunak ere onartu zuela gorabehera hori bere erreklamazio-idazkian.

Zerbitzuaren errendimendu-maila jakin bat eskatzean, hortik abiatuta mugatzen baita estandarra, **kontuan hartu behar dira benetako kudeaketa- eta ekonomia-aukerak** —ez uto-pikoak, ez eskuraezinak—, **eta beti begiratu behar zaio arrazoizkotasun-irizpideari** —baterazina baita udalaren betebeharra zabaltzearekin hiriko bide guztiak une oro eta udal-mugarte osoan egoera ezin hobean eduki behar izateraino—.

Horiek horrela, Batzordeak uste du, kasu honetan, ez direla urratu zerbitzuaren funtzionamendu normalerako eska daitezkeen kalitate-jarraibideak.

Espaloietan berez eroritako zuhaitzen hondakinak pilatzea —hostoak eta erretxina dira erreklamatzailerak salatutako espaloiko hondakin bakarrak— **ezinbestean gertatzen da zuhaitzak hirietan landatzen direnean.**

Horiek horrela, ezinezkoa da espaloia halako elementurik gabe mantentzea, eta **ez da arrazoiz kanpoko**; aitzitik, **hiriko industria-guneen garbiketa** —oinezkoen joan-etorri txikiagoarekin— **beste eremu batzuetan aplikatzen direnak baino maiztasun txikiagoko parametro berezien mende jartzea**, eta Batzorde honek ezin du ondorioztatu kasu honetan aplikatzen direnak —udalak bermatzen duen 7 egunean behingo garbiketa maiztasuna— desegokiak direnik.

141/2023 ABJI, par.: 34-40

C) Egozpen-titulua

Espedientean instruitutakoa ikusita, badirudi bat datozela udalaren zanga egin zen tokia eta kableari matxura antzeman zitzaion lekua, baina ez ziurtasunez baieztatzeraino udal-brigadako langileek kalte egin ziotela goi-tentsioko kableari, ikusita, oro har, egoera txarrean zegoen.

la eta zer puntutan zegoen erreta, eta bi gertakarien arteko denbora-tartea, eta txosten tekniko batek ez du kontrakoari eusteko aukerarik ematen.

(...

Lehenik eta behin, **udalak ez zekien, ez zeukan jasota, goi-tentsioko kable bat zegoenik** ur-hornidurako hodiaren azpitik, **jabari publikoko eremu batean**.

Jurisprudentziak ezarri izan duenaren ildotik, “kausalitatea ulertzeko modu desberdinen artean, kaltea honela esplikatzen dutenak nagusitzen dira: objektiboki gertatzea faktore batzuk, zeinen ezean, hipotesi gisa, kaltea saihestuko litzatekeen; horrenbestez, ezin dira onartu beste ikuspegi batzuetatik datozen murrizketak, joera hau baitute: kausalitate-lotura elkartzekoa emaitza kaltegarria eragiteko faktore efiziente, nagusi, sozialki egoki edo eksklusiboarekin; izan ere, beste alor batzuetan baliozkoak izan arren, administrazio publikoen ondare-erantzukizunaren izaera objektiboaren aurka joango lirateke” (Auzitegi Gorenaren 2002ko ekainaren 4ko epaia, RJ 2002\6292).

Ildo jurisprudenzial horren beraren arabera, kausazko lotura haustea ekar dezaketen egintzat hartu behar dira, era berean, ezinbesteko kasuak dakartzatenak —legeak inguruabar hori baino ez du onartzen baztertze-ondorearekin—, eta horiei gehitu behar zaie biktimaren portaera kaltea gertatzean edo pairatzean, edo biktimaren zabarkeria larria, baldin eta inguruabar horiek erabakigarriak izan badira lesioa izateko, eta, ondorioz, kaltea osorik edo zati batean jasan behar izateko.

Bada, kasu honetan, **obren udal brigadak aurreko egiaztapenak eginda, INKOLAN, SA** enpresari kontsulta egin ondoren —ur-, gas-, elektrizitate- eta telekomunikazio-sareen planoak hornitzeaz arduratzen baita—, **eta kable horren existentziaren berririk gabe, enpresa erreklamatzaillearena jabetzakoa baitzen**, hark instalatuko zuen-eta, **ezin zaio emaitza kaltegarririk egotzi**, ustekabean zulatu izan balu ixteko giltza konpontzerakoan.

Udaleko zerbitzu teknikoaren txostenak dioenez, “goi-tentsioko linea elektriko hori ezin da igaro udal-lurzorutik inolako babesik edo seinaleztapenik gabe, eta lehendik dagoen zerbitzu gisa inbentariatuta egon gabe. Hori, lehenik eta behin, onartezina da bide publikoan egin daitezkeen lanetarako, eta, beste alde batetik, ezinezkoa da kalteak eragozteko neurriak hartzea”.

113/2023 ABJI, par.: 32-41

Erreklamazioak hartzen duen denbora-tartea zehaztuta, **egoki da hasierako gogoeta bat egitea kalteak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari egozteari buruz, bigarren**

alarma-egoeraren indarraldiari dagokion denbora-tartean —urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen, eta azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez luzatu —; tarte hori 2020ko urriaren 25etik 2021eko maiatzaren 9ra artekoa da.

Gogoeta hori Auzitegi Gorenaren erabaki batzuetan oinarritzen da, besteak beste, Hirugarren Salaren 2023ko apirilaren 12ko 3800/2023 Autoan (JUR 2023\168228) jasotakoetan. Auto hori Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salatik zetorren eskumen-arazo bati buruz eman zen, merkataritza-sozietate batek jarritako errekurtsio bat zela eta, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoeraren ondorioz sozietate horri eragindako kalte-galeren ordainaren erreklamazioaren ustezko ezespeneren aurkakoa —erreklamatzailleak erreklamazio bana aurkeztu zuen Estatuko Administrazioan eta Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko Administrazioan —.

Lehenik eta behin, **auto horrek deklaritzen du Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak eskumena duela merkataritza-sozietateak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aztertu eta ebazteko, alarma-egoera deklaratzeko errege-dekretuen eta haien luzapenen ondoriozko kalteei dagokienez.** Honela dio:

LEHENENGOA.- Sala honek behin eta berriz iritzi dio EKren 116.2 artikuluko alarma-egoeraren deklarazioak Ministro Kontseiluak erabakitako Dekretu baten forma duela, baina ez dela legeak betearazteko erregelamendu-ahalaren erabilera [Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 5 h) artikulua], baizik eta Gobernuaren eta Gorte Nagusien arteko harreman-egintza bat, Konstituzioaren V. tituluko, lege-balioa duena —Konstituzioaren 116.2 artikulua aipatu titulu horren barruan dago —, eta, duen izaeratik, Diputatuen Kongresuak berehala kontrolatu behar duena, “horretarako berehala bildua”, EKren 116.2 artikulua adierazten duen bezala.

Beraz, alarma-egoeraren deklarazio horrek Ministro Kontseiluaren Errege Dekretuaren forma badu ere, Diputatuen Kongresuaren esku-hartzea kontuan hartuta, arau-eduki ukaezina du, baita ondorio juridikoak ere, halako moldez non ulertu behar baita lege-leerruna edo -balioa duen erabaki edo xedapen bat dela, eta, ondorio horietarako, legeekin parekatzen da, legeen aplikazioa eten ere egin baitaiteke indarrean dagoen bitartean.

Horregatik, nahiz eta Ministro Kontseiluak onartutako Errege Dekretu bidez gauzatu, bereizi egiten da administrazioarekiko auzien ordena honetan kontrolatu ohi diren administrazio-jarduketetatik, AAJLren 1. eta 2. artikuluen arabera; izan ere, Gobernuak organo konstituzional gisa, eta ez Administrazioaren organo goren gisa, jarduten du.

Karakterizazio juridiko horretatik eratortzen da 39/2015 Legearen 92.1 artikulua jokoan sartzea, zeinak xedatzen baitu ezen, Estatuko Administrazio Orokorren esparruan, ondare-erantzukizuneko prozedurak “Ministroen Kontseiluak ebatziko dituela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32.3 artikuluko kasuetan edo lege batek hala xedatzen duenean”, eta 32.3 artikuluko hori, hain zuzen ere, Estatu legegilearen erantzukizunaz ari da.

Horrenbestez, 29/1998 Jurisdikzio Legearen 12.1 a) artikulua aplikatu behar da. Horren arabera, “Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Sala arduratuko da, auzialdi bakarrean, gai hauen inguruan aurkezten diren errekurtsuez: a) Ministro Kontseiluaren eta Gobernuaren batzorde eskuordetuen egintzak eta xedapenak”.

Bigarrenik, eta alarma-egoeraren deklarazioek egindako eskuordetzaren ondorioz autonomia-erkidegoek emandako egintza eta xedapenei dagokienez, Auzitegi Gorenak hau iritzi dio: “Interpretazioak barne hartzen baditu eskumen objektiboari buruzko arauak, Jurisdikzio Legeak aurreikusitakoak, zera ondoriozta daiteke: eskumen objektiboa, administrazio desberdinek ondare-erantzukizunari buruz hartutako erabakiak fiskalizatu behar diren kasuetan, baina eskatzeko arrazoi berean oinarrituta —kausa hori ulertuta erreklamazioa eragin duen datu faktikotzat—, lurralde-eremu handieneko Administrazioak emandako egintza fiskalizatzeko eskumena duen jurisdikzio-organoari dagokiola”.

Izan ere, auto horren bigarren arrazoibide juridikoan adierazten denez, **egintza eta xedapen horiek eskuordetzaren bidez eman dira, eta ez eskumen-transferentziaren bidez** —bestetik da eskuordetze horren funtsezko eta prozedurazko baldintzak betetzea edo ez betetzea— eta, beraz, ulertu behar da “eskuordetza ematen duen organoak, hau da, Ministroen Kontseiluak, eman dituela egintza eta xedapen horiek, eta horrek, beste behin ere, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Sala honen aurrera darama aztertzen ari garen aurkaratze jurisdikzionala”.

Autoa deklarazio honekin amaitzen da:

Errekurtsogilearen alegazioek —hau da, kalte-ordainen erreklamazioa ez dela formulatu Estatu legegilearen ondare-erantzukizun deritzonaren bidetik— ez dute hutsaltzen gure eskumenari buruz atera dugun konklusio hori.

Nolanahi ere, datu egiazkoa da errekurtsogileak argi eta garbi planteatzen duela bere erreklamazioa: kalte-ordaina eskatu du, kalteak jaso omen dituelako 463/2020 Errege Dekretuaren eta Ministro Kontseiluak edo Ministro Kontseiluaren agintari delegatuek hurrenez hurren emandako arauen ondorioz enpresa-jarduera ixtea dela eta. Beraz, kalte-ordaina administrazio-bidez jasotzeko uzi horri buruz ebazteko eskumena Ministro Kontseiluari dagokio, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Sala honen jurisdikzio-eskumen eratorriarekin.

Antzeko iritzia eman du duela gutxi Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko (EAEAN) Administrazioarekiko Auzien Salak, zenbait auto eman baititu bere eskumenik eza deklaratzeko COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren kudeaketa dela eta hartutako osasun-neurrien ondorioz eragindako kalteengatiko ondare-erantzukizuneko erreklamazioen ustezko ezespeneren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsuez arduratzeko, Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Salari baitagokio horietaz arduratzea.

Aztergai dugun erreklamazioari dagokionez, Sucesores de Urbistondo SLk 2023ko martxoaren 27an aurkeztutako errekurtsuan —Eusko Jaurilaritzan aurkeztutako erreklamazioaren ustezko

ezespenaren aurkakoa—, Salak, 2023ko ekainaren 30eko 48/2023 Autoaren bidez, erabaki du eskumenik ez duela deklaratzeko, eta jarduketak, administrazio-espediterekin batera, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salari bidaltzea.

Laburbilduz, **jurisprudentiaren irizpidea argia da, Estatuan kokatzen baitu dagokion eskumena, eta horrekin bat etorriz, ezin da jo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatzen den egozgarritasuna duenik alegatutako kalteekiko**, eta, esan bezala, Ministroen Kontseiluari dagokio kalte-ordainaren uzia administrazio-bidean ebazteko eskumena.

Horrenbestez, hauxe besterik ezin da ondorioztatu: **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ez duela eskumenik Lehendakariak 2020ko urriaren 25etik 2021eko maiatzaren 9ra Estatuko Gobernuaren ordezkoko agintari eskudun gisa hartutako murrizketen eta mugen ondoriozko kalteengatikiko ondare-erantzukizuneko prozeduraz arduratzeko**, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Sail kontsultagileak interesdunari ez ezik administrazio eskudunari ere helarazi beharko dio ebazpena, administrazio-espediterekin batera.

Etorkizunean aztertu beharreko erreklamazioetan, uzia denbora-tarte horretan gertatutako kalteei buruzkoa denean, sail jarduleak uzia ez onartzeko ebazpena eman ahal izango du, azaldutako doktrina jurisprudenzialean oinarrituta –doktrina horrek baztertu egiten du kalteak Autonomia Erkidegoko Administrazioari egozteko aukera— eta Batzordeak irizpen honetan adierazitakoaren arabera. Kasu horretan, jarduketak zuzenean igorri beharko zaizkio Estatuko Administrazioari, eta inguruabar horren berri eman beharko zaie interesdunei.

134/2023 ABJI, par.: 59-70

IV. Ondare-erantzukizuna sektoreka

A) Funtzio publikoa

Erreklamatzaillearen erreklamazioaren oinarria da borondatezko erretiroaren atzerapena zor zaiola Segurtasun Sailak kotizatu ez izanari 1988ko abuztuaren 1etik 1997ko ekainaren 1era bitartean.

Adierazi duenez, ordaindutako zerbitzuak eman ditu 1985eko uztailaren 8tik ertzainen lanbide-kategoriarekin. 2020ko abuztuaren 31n 59 urte bete zituen, eta **erretiro aurreratua hartu ahal izateko eskaera aurkeztu zuen**, 2021eko martxoaren 30etik aurrerako ondorioekin; izan

ere, Ertzaintzan zuen antzinatasunaren arabera, bete egiten zuen "Ertzaintzan 35 urte edo gehiagoko benetako jarduera eta kotizazioak" izateko baldintza.

Hala ere, **eskaera hori ezetsi egin zioten** GSINen 2021eko otsailaren 10eko Ebazpenaren bidez, **ez zuelako egiaztatu Ertzaintzan 35 urte edo gehiago kotizatu zuenik**.

Adierazi duenez, aurretiazko erreklamazioa jarri zuen ebazpen horren aurka, **ezekoaren arrazoa zerbitzutik bereizteko zehapen baten ondorioz Ertzaintzatik kanpo egon zen aldi bat izan zela** iritzita, **zehapen hori gerora baliogabetu bazuten ere** EAEANren 1997ko martxoaren 7ko **Epaia**ren bidez.

Haren esanetan, epai horrek, ezarritako zehapena deuseztatzeaz gain, eskubidea sortu zion erreklamaziogileari Ertzaintzatik kanpo behar ez bezala emandako denbora "benetan lan egindako denboratzat" hartzeko, hau da, 1988/07/29tik 1997/06/01erako tartea. Horrek ere berekin ekarri behar zuen Gizarte Segurantzaren alta eta dagokion kotizazioa egin beharra.

GSINK, 2021eko ekainaren 10eko Ebazpenaren bidez, hau adierazi zuen: "alegatutako eta epaiak aitortutako aldiari dagokionez (88/07/29tik 1997/06/01era artekoa), ez da ageri Eusko Jaurjaritzak Ertzaintzako langile gisa kotizatu zizkionik; beraz, enpresa-erantzukizuneko balizko kasu baten aurrean egongo ginateke, zeinaren irismena eta egozpena judizialki finkatu beharko ziren" (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 167. artikulua).

Erreklamaziogileak azaldu duenez, erreklamazioa aurkeztu zuen ebazpen horren aurka Bilboko Lan Arloko 2 zenbakiko Epaitegian. Prozedura horren barruan, Gizarte Segurantzak berak izapidetutako espedientea eskuratu zen. Espediente horrek zerbitzu juridikoen 2021eko ekainaren 4ko txosten bat jasotzen du, honako hau adierazten duena:

BOSGARRENA. - Epai bidez aitortutako aldia zenbatzen badugu erretiroaren ondorioak eskatzen diren egunera arte (2021-09-30eko), Ertzaintzan benetan lan egindako 35 urteak beteko litzuke, 59 urterekin erretiro aurreratuaren pentsiorako eskubidea sortzeko.

Hala ere, langilearen lan-bizitzara eta urte horietan (1988tik 1997ra) egindako kotizazioetara joz gero, ez da ageri Eusko Jaurjaritzak Ertzaintzako langile gisa kotizatu zizkionik aldi haiek. Hori dela eta, letradu honen ustez, ezetsi egin behar da aurretiazko erreklamazioa, dagokion prozesu judizialean dagokion ondare-erantzukizuna erabaki dadin.

Aurrekoarekin lotuta, erreklamaziogileak zehaztu du ezen, prozesu judizialean, 2022ko martxoaren 30ean egindako ikustaldian, GSINen abokatuak adierazi zuela langileak urte horretan lanean jarraitu zuenez, datak kontuan hartuta —urtea betetzear zegoen—, demandatzaileari onuragarriagoa zitzaiola prozeduran atzera egitea eta erretiroa hartzea gutxieneko urteak betetakoan, pentsioaren zenbatekoa handixeagoa izango zelako. Aurrekoaren ondorioz, ikustal-

dia eten egin zen, GSINren datuen zain, eta, azkenean, erreklamatzailleak atzera egin zuen, eta borondatez erretiratu zen 2022ko uztailaren 27an.

Bere aldetik, **Segurtasun Sailak adierazi du EAEANren 1993ko urtarrilaren 27ko eta 1997ko martxoaren 7ko epaiak bete dituela**, interesdunak berak aipatu baititu aurkeztutako erreklamazioan.

Horrela, Segurtasun sailburuordearen 1994ko abenduaren 20ko Ebazpenaren bidez, **kalte-ordain gisa 7.225.898 pezeta ordaintzeko baimena eman zen**.

Zehaztu dutenez, kalte-ordainak **zenbateko hauek hartu zituen barnean: 1988ko uztailaren 2tik praktikaldia amaitu arte, hau da, 1993ko apirilaren 22ra arte, jaso beharko lituzkeenak**: “Ateratzen den kopurua da hamabi milioi eta laurogeita hamaika mila ehun eta hogeita bederatzi pezeta gordin (12.091.129) da, eta kopuru horretatik 4.865.231 pezeta kentzen dira 1994ko azaroaren 23ko Probi-dentzia Judizialaren Aginduz. Beraz, 7.225.898 pezeta ordaintzen zaizkio, eta hori 1995eko otsaileko eta martxoko nominetan gauzatu da. Nominetan kalte-ordainaren ordainketa eta egin diren kotizazioen ordainketa jasotzen dira, espedientean dagoen dokumentazioak erakusten duen bezala”.

Beste alde batetik, Segurtasuneko sailburuordearen 1997ko maiatzaren 16ko Ebazpenaren bidez, EAEANren 1997ko martxoaren 7ko **Epaia bete zuten**, eta PPP jauna **praktiketako funtzionario gisa berriz onartu zuten, benetako zehapenaren egunetik** (1993ko apirilaren 23a) **berritoki onartu zuten arte** (1997ko ekainaren 1a) **jaso behar zituen zenbatekoak jasotzeko eskubidea aitortuz**.

Sailaren ebazpen-proposamenak honako hau zehazten du: “ebazpen hori gauzatzeari dagokionez, adierazi behar da **1998ko apirileko eta maiatzeko nominan ordaindu zitzaizkiola interesdunari lehen adierazitako zenbatekoak, Gizarte Segurantzako kotizazio eta guzti**, agindu honen ondoriozko espedienteari erantsitako nominetan egiazta daitekeen bezala”.

Aurreko guztiaren ondorioz, Segurtasun Sailak adierazi du ezen, Ertzaintzaren nominaren datu-basea kontsultatu ondoren, errekurtsogileari, 1995eko otsaileko eta martxoko nominetan, 7.225.898 pezeta ordaindu zitzaizkiola, Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak barne hartuta, aldi horri zegozkiona (1988-08-01etik 1993-04-22ra). Era berean, 1998ko apirileko eta maiatzeko nominetan 7.964.699 pezeta ordaindu zitzaizkion, 1993-04-23tik 1997-06-01era bitarteko kotizazioekin.

Aurrekari horiekin, kasu honetan, Batzordeak, PPP jaunak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari dagokionez, bat egiten du —ezin bestela izan— Segurtasun Sailak adierazitako ondorioekin, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik.

Alde batetik, **abiapuntutzat hartu behar dugu ezen, erretiro aurreratuaren hasierako eskaeraren aurrean, GSINek eta haren zerbitzu juridikoek iritzi diotela langilearen lan-bizitzan ez dagoela jasota Segurtasun Sailak ertzain gisa kotizatu zizkionik 1988tik 1997ra bitarteko aldiak.**

Bestalde, Segurtasun Sailak espedientean alegatu du 1995eko otsaileko eta martxoko nominetan 7.225.898 pezeta ordaindu direla, 1988ko abuztuaren 1etik 1993ko apirilaren 22ra bitarteko aldiari dagozkionak. Eta, gainera, 1998ko apirileko eta maiatzeko nominetan 7.964.699 pezeta ordaindu zituela, 1993ko apirilaren 23tik 1997ko ekainaren 1era bitarteko aldiari dagozkionak.

Kotizaziorik ezari buruz azaldu zen desadostasun horren aurrean, interesdunak erretiroaren arloko demanda jarri zuen Segurtasun Sailaren, GSINren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aurka, prestazioen arloko erantzukizuna zehazteko xedez. Hori guztia urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 167. artikuluan arautzen da. Testu horren arabera, afiliazioaren, alden eta bajearen arloko betebeharrak eta kotizazioaren arloko betebeharrak ez betetzeak berekin ekarriko du erantzukizuna eskatzea, prestazioen ordainketari dago-kionez, egozpen-kasuak eta haien irismena finkatu ondoren, judizialki finkatu beharko da eta.

Hala ere, demanda aurkeztu ondoren, Bilboko Lan Arloko 2. Epaitegiak 541/2022 Dekretuaren bidez ebatzi zuen auzi-jartzaileak bere borondatez atzera egitea. Horren ondorioz, prozesua alde aurretik amaitu zen, ez-betetzeagatiko erantzukizuna esleitzeari buruzko erabakirik hartu gabe, eta GSINek proposatutako egunean hartu zuen erretiroa, hau da, 2022ko ekainaren 8an, egoera horretan interesdunari onuragarriagoa zitzaiolako.

Hala ere, **prozedura judizialaren ebazpenik ezak,** gertatutakoak eta dauden erantzukizunak zedarritzea ahalbidetuko zuenak, **benetan gertatu zenari buruzko ziurgabetasunean uzten gaitu.** Eta, beraz, **kuotak benetan ordaindu bazituzten ere, baina hainbat arrazoi direla medio, ez dira behar bezala zenbatu edo,** arrazoi jakin batzuegatik, **ez ziren benetan ordaindu.**

Gauzak horrela, **ezin ditugu egiaztatutzat jo erreklamazioaren oinarri diren egintzak, haiei buruzko eztabaida ez baita bide egokietatik ebatzi.** Azken batean, ezin izan da zehaztu, halakorik balego, Herrizaingo Sailari egotz dakiokeen kotizazioen ordainketaren balizko ez-betetzearen norainokoa.

Hipotesi gisa, Gizarte Segurantzaren arloko enpresa-erantzukizuna sortzen duen ez-betetze bat gertatzen denean, zilegi da ondare-erantzukizuna gehitzea, sor litekeen kaltea osorik konpontzeko. Hala ere, horren oinarriari, beste edozein erreklamazioenari bezala, benetako errealitate faktiko batek eutsi behar dio, administrazioaren jardunean edo omisioan antijuridikotasunik ote dagoen aztertu ahal izateko, eta erreklamatzailerari dagokio hori egiaztatzea.

Kasu honetan, hala ere, ezin izan dira egiaztatu eragindako kaltea ekarri ahal izan duten egintzak, eta horrek galarazi egiten du Administrazioaren jarduketaren eta jasandako kaltearen arteko kausazko harremanik ote dagoen ikustea.

174/2023 ABJI, par.: 29-52

Administrazio-egintzak deuseztatzeagatiko ondare-erantzukizunari buruzko doktrina azalduta, ikusten da, adierazi den bezala, **ebazpen-proposamenak antijuridikotasuna lotzen duela**“hasierako ustezko ezespena deuseztatzearekin”, 2020ko irailean aurkeztutako erreklamazioaren aurrean izandako isiltasun negatiboari dagokionez, zeina baietsitako gora jotzeko errekursoaren xede izan baitzen. **Presuntziozko egintza bat**, zeina, halakotzat hartuta, **ez baita deuseztatzen** —aurrean duguna, jakina denez, **fikzio juridiko bat da**— eta nekez eraman daiteke jurisprudentziak defendatzen duen arrazoizkotasun-parametroaren juidiziora.

Egia esan, kasu honetan, **irakaslearen gaikuntza zalantzan jartzearena Ikuskaritzaren hasierako txostenean agertzen da. Gaikuntza hori aitortzeko prozedura arauturik ez dagoenez, txostenak, de facto, gaikuntza hori ukatzen duen administrazio-adierazpen baten pareko ondorioak eragin ditu.**

Ad hoc prozedurarik ezak —Hezkuntzako Ikuskaritzak eta saileko aholkularitza juridikoak egindako txostenek utzi dute agerian— egoera bat ekarri du, zeinean **Ikuskaritzaren txostenean adierazitako iritzi teknikoa ikastetxe pribatuak baliatzen baitu kaleratzearen kausa gisa, lan-harremana azkenduta horrela.** Hala ere, **txosten hori egiteko, III. jaunari entzungo zioten, baina txostengintza hori ez dator bat prozeduraren oinarritzko arauekin bat, eta eska daitezkeen bermeak ere ez ditu;** hala ere, ukaezina da interesdunari eragiten diola, baina interesdunak ez du txostenerako irizpiderik izan.

Nolanahi ere den, arrazoizkotasun-parametroetatik azter daiteke hezkuntza-administrazioaren lehen deklarazioa; izan ere, Ikuskaritzaren hasierako txostenak eman du bere iritzia IML jaunaren gaitasunik ezari buruz, eta IML jaunak alegatu duen kaltearen sorburua da.

Gaikuntzari buruzko eztabaidaren gakoia da ea erreklamatzailerak betetzen ote duen uztailearen 2ko 860/2010 Errege Dekretuaren 3.2.b) artikulua. Xedapen horren arabera, **irakasgaiaren curriculum emateko egokia den irakaskuntzako esperientzia edo goi-mailako hezkuntzako prestakuntza** egiaztatu ahal izango da, beste prozedura batzuen artean, **hauen bitartez:** “b) **Ziurtagiri akademiko pertsonala**, gutxienez prestakuntzako 24 kreditu edo ECTS kreditu gainditu izana jasotzen duena, edo, krediturik agertzen ez bada, egiaztatu nahi den prestakuntzarekin zerkusia duen edozein unibertsitate-ikasketa ofizialetan bi ikasturte egin izana. Ondorio horietarako, prestakuntza-kredituak hainbat gai emateko hasierako prestakuntza egiaztatzeko erabili ahal izango dira”.

Ikuskaritzaren hasierako txostenaren arabera —eta geroko txostenek berretsi egin dute— erreklamatzailerak ez du baldintza hori betetzen. Ez zen, ordea, ondorio hori oinarritzeko arrazoi gehiagorik eman; izan ere, eskatutako 24 kredituetatik 18 soilik egiaztatu zirela baino ez zuten adierazi.

Txostenean ez dago arrazoirik —ezta banakatzerik ere, erabakitako zenbaketaren jatorria identifikatzeko—, eta ez dugu zalantzarik egiten arrazoiak egon ahal zirela, ikusita aurkeztutako dokumentazioa erabili eta aztertu zutela, eta **Berritzeguneko aholkulari baten esku-hartzea eskatu**, horretan laguntzeko.

Ondoren, Ikuskaritzak 2022ko urtarrilaren 31n egindako txostenak ematen du zenbaketaren berri. Azterketa Demografikoa eta Ideia Politikoen Historia irakasgaiari dagozkien 18 kredituak onartuta, “Historia Politiko eta Sozial Garaikidea” irakasgaiari dagozkion 9 kredituen balorazioan zentratzen da kontua.

Txostena onarpenaren aldekoa da, baina adierazten du irakasgai horren programa aurkeztu behar dela eta edukiak DBHko curriculumarekin bat datozela egiaztatu behar dela. Argitzeko kontua dela uste dute, ikusita aldea dagoela kreditu-kopuruan, interesdunak aurkeztutako dokumentuak erkatuta —ziurtagiri akademikoa (9 kreditu) eta programa (6 kreditu)—.

Gora jotzeko errekursoaren ebazpenak III jaunaren tesia onartu du, eta gaitasuna aitortu dio, ulertu baitu zalantzan dauden 9 kredituak aintzat hartzea beharrezkoa dela aurkeztutako ziurtagiri akademiko pertsonalaren eta Soziologiako lizentziadunaren ikasketa-planaren arteko kontrastearen ondorioz. Plan hori Unibertsitate Kontseiluak homologatu zuen, Batzorde Akademikoaren 2002ko ekainaren 10eko Erabakiaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2002ko irailaren 12ko Ebazpenaren bidez argitaratua (azaroaren 5eko BOE). Gainera, dokumentuen arteko desadostasuna ez litzateke garrantzizkoa izango, 6 kreditu aski izango lirakeelako eskatutako gutxieneko kreditu-kopurua gainditzeko.

Bestela esanda, berretsi egiten du erreklamatzaileraren gaikuntza, Administrazioak bere esku-hartzearen hasieratik zituen juzgu-elementuekin, nahiz eta Administrazioak gaikuntza ukatu zuen hasiera hartan, arrazoizkotasun-parametroetatik ezin onartuzkoa den jokaera batekin.

Hasierako eragozpena —gutxienez Ikuskaritzaren 2022ko urtarrilaren 31ko txostenean jasotakoa— lotuago egongo litzateke interesdunak aurkeztutako “Historia Politiko eta Sozial Garaikidea” irakasgaiaren benetakotasunak sortzen dituen zalantzekin, eta ez hainbeste “Geografia eta Historia” irakasgaiarekin duen harremanarekin, onartu egiten baita azken hori.

Hala ere, Hezkuntza Administrazioak berak, azken ebazpenean, ez du beharrezkotzat jo beste edozein dokumentu aurkeztea, irakasleak eztabaidatutako gaikuntza duela ondorioztatzeko.

Adierazitakoarekin batera, azpimarratzekoa da Administrazioak zenbat denbora eman duen hasierako jarduketa berrikusteko eta, bereziki, interesdunak aurkeztutako erreklamazio-idazkiari erantzuteko. Eskaera 2020ko irailean aurkeztu zuen, eta ez zuen erantzunik jaso eskaeraren ustezko ezespenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtoa 2022ko otsailaren 14an baietsi zen arte.

2020ko irailaren 17ko erreklamazioari erantzun ez izana eta gora jotzeko errekurtoaren ebazpena luzatu izana egiaztatuta geratu dira, eta, horren ondorioz, orain erreklamataile denak errekurtoa aurkeztu du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bere uziari erantzuna eman diezaioten.

Berandutzeak arreta berezia merezi du, jokoan dauden interesak ikusita, Administrazioak bazuen eta horien berri, III jaunaren lanbide- eta lan-aukerei zuzenean eragiten zitzaielako.

Laburbilduta, inguruabar guztiak balioetsita, Batzordearen ustea da **erreklamataileak ez dituela jasan behar Administrazioaren jardueraren ondorioak; izan ere, hasiera batean ukatu egin zion gaikuntza, eta azkenean onartu, III jaunak, Administrazioaren erantzunik ezaren aurrean, elkarren segidako errekurtoak (administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean) abiarazi zituen bide baten ondoren.**

Kausazko loturaren existentziari dagokionez, ezinbestean jo behar da egiaztatutzat, aurreko apartatuetan argudiatu denaren ondoren. Kaltearen sorburua honako hau dela baieztatu daiteke: III jaunak “Geografia eta Historia” irakasgaia emateko gaitasunik ez izatearen hasierako balorazioa, horri buruz jarritako erreklamazioaren eta gora jotzeko errekurtoaren ebazpenean izandako atzerapenarekin batera.

Zuzeneko erlazioa dago egintza horien eta ondoriozko egoera juridikoaren artean—irakasgai hori irakatsi ezina—, eta horrek ondare-kalteak dakar—ordainsaririk eza— erreklamataileak jasan behar ez duena.

191/2023 ABJI, par.: 73-91

B) Osasun-zerbitzuak

Baimenik ez izateagatik

Behin erreklamatailearen jarrera azalduta —horrekin batera datorren peritu-txostenean oinarrituta—, orobat gai horretan espezializatuta dauden Osakidetzako zerbitzuek emandako azalpenak, Neuroftalmologiakoak —bere txostenean jasota dagoen literatura zientifikoan oi-

narrituta— eta Neurokirurgiakoak, Ikuskaritza Medikoak planteatu duten kasuari buruz adierazitakoarekin batera, honako hau ikusi dugu: **erreklamaziogilearen alegazio nagusiari dagokionez —baimen informaturik eza—, ebatzi behar den auzia dela erabakitzea ea JJJ jaunak jasandako atzeko neuropatia optiko iskemikoa “nerbio optikoaren lesioa edo kiasma (kausazkoa)”**, den, arrisku hori jasota baitago pazienteak sinatu zuen baimen informatuan.

Beraz, **gai erabat teknikoa da**, eta, horregatik, gogorarazi behar da, adierazi denaren arabera, egintza mediko bat *lex artis ad hoc* delakora egokitzen den ala ez erabakitzeke, azterketa tekniko mediko bat behar dela, behar bezala kualifikatutako pertsonak egin beharrekoa. Analisi tekniko horretan, espezializazio- eta gaitasun-arrazoi nabariak direla medio, garrantzi berezia dute zalantzan jarritako asistentzia eman zuten zerbitzuen txostenek eta Ikuskaritza Medikoaren txostenak.

Kasu honetan, **peritu batek ere esku hartu du erreklamaziogilearen asmoaren alde, eta zera azpimarratu behar da: alderdi batek izendatu duela, eta, beraz, perituaren trebetasuna alde batera utzi gabe, a priori, ez duela inpartzialtasun-berme handiagorik, Ikuskaritza Medikoaren txostenari egotz dakiokena baino**; izan ere, txosten horren konbentzigarritasuna dator mediku ikuskatzaileak funtzio publikoetan jardutetik, alderdien interesetatik independente, eta ez dagoela arrazoirik haren objektibotasuna eta gaitasun profesionala zalantzan jartzeko.

Zerikusia duten zerbitzu medikoen txostenak argiak dira, erreklamatzailleak jasandako atzeko neuropatia optiko iskemikoaren intzidentea nerbio optikoaren lesio bat dela uste baitute, eta, halakotzat hartuta, JJJ jaunak sinatu zuen baimen informatuan jasota dagoela. Ondorio hori **Ikuskaritza Medikoaren txostenak bermatzen du**, erreklamatzailleak jasotako asistentzia *lex artis* delakoarekin bat datorrela baieztatzen baitu.

Beste alde batetik, ezin da zalantzan jarri baimen informatuaren dokumentuak itsutasuna sartzen duela arrisku posibleen artean —kornearen hanturari edo ultzerari lotuta—, eta alderdi baten peritu-txostenak ukatu egiten du hori, oker badago ere.

Ez da ahaztu behar, ezta ere, Batzorde honek bere irizpenetan berretsi duenez (denen erakusgarri, 230/2016), pazienteari eman behar zaion informazioa nahikoa den ala ez baloratze aldera, hark bere baimena eman dezan hura indargabetzen edo baliogabetzen duen akatsik edo hutsik gabe, informazioaren ezaugarriak kontuan hartu behar direla: osoa, jarraitua, idatzizkoa eta, funtsean, ulergarria. Bestalde, lege-eskakizunak era arrazoituan interpretatu behar dira, zorrotzasunez aplikatzen baldin badira, oztopo handiegiak izango lirateke, medikuntza-jarduna egin ahal izateko, eta baliteke pazienteek protokolo luzeegi edo desegokiak bazterteza.

Neurooftalmologiako eta Neurokirurgiako zerbitzuek —ebakuntza kirurgikoaren eta ondorengo asistentzia medikoaren arduradunak— beren txostenetan egindako baieztapenak eta pazienteak sinatutako eta espedienteari erantsitako baimen informatuaren dokumentua batera balo-

ratuta, esan dezakegu **pazienteak sinatu zuen baimen informatuaren dokumentuan jasota zegoela nerbio optikoaren lesioa eta begi baten itsutasun itzulezina izateko arriskua.**

Arrisku horiek argi eta garbi jasota daude dokumentuan, ezagutza mediko espezializaturik ez duen edozein pertsonak ulertzeko moduko hizkera erabilia, eta, ebakuntzaren arrisku posibleak ezagutzearen ondorioetarako, ez da garrantzizkoa baimen informatuak identifikatzea kalte posible horiek eragin ditzaketen inguruabar mediko guztiak —erreklamazioak hala nahi duela ematen baitu—.

Ezin da ulertu, beraz, erreklamazioak dioen bezala, **osasun-administrazioak ez duela bete informatzeko betebeharra**, ez eta JJJ jaunak baimen informatua eman ez duela ere, Administrazioak kalte-ordaina eman behar dion osasun-zerbitzuaren funtzionamendu txarra eratzeko moduan.

172/2023 ABJI, par.: 51-59

Aukera galtzeagatik

Diagnostikoaren atzerapen horrek agerian uzten du osasun-zerbitzuaren funtzionamendu bat, tratamendu egokia berandu ezartzea ekarri duena, eta, kasu honetan, ez dakigu zer ondorio zehatz izan duen. Ikuskatzaileak hau adierazi zuen bere txostenean: “Azkarrago egin izan balitz, hilabete batzuk lehenago diagnostikatu zitekeen (4 hilabete lehenago, OTA premiaz eskatu izan balitz). Kasu horretan, tratamendu-prozesua bizkortuko zen, eta baliteke gaixotasunaren progresioa motelxeago joatea”.

Egia esan, espedientearen arabera, FFF jaunaren sintomatologia denbora luzez eta bronkodi-latadoreekin ezarritako tratamenduei erantzunik eman gabe agertu zen, eta 2018ko otsailaren 2an lehen mailako arretatik Arnasketa Zerbitzura deribatu zutenetik, agerpen kliniko berberekin —sintomak hilabete batzuk lehenago hasi ziren—, zerbitzu horrek OTAren proba diagnostiko eztabaiaezina eskatu zuen arte (2018ko urriaren 22a), bederatzi hilabete baino gehiago igaro ziren. Eta OTA eskaera hori egin zenetik —lehentasunezko izaerarik gabe, diagnostikorik gabe eta sintoma berberekin luzaro egon zen arren— OTA egin arte eta emaitzak kontsultan jakin arte (2019ko otsailaren 14a), ia lau hilabete gehiagoko atzerapena gehitu behar da.

Ez da zalantzan jarri, eskura ditugun datuekin, sintomatologia hori bat zetorrela azkenean diagnostikatutako gaitzarekin, eta, beraz, **zentzuzkoa da pentsatzea urtebete baino gehiagoko atzerapena egon zela diagnostikoa egin eta tratamendua ezarri orduko, biziraupen-indize handiak dituen gaixotasun bati aurre egiteko**: ikuskatzaileak dioenez, bibliografia zientifikoaren arabera, tumore mota horretan, biziraupena % 82koa da 5 urtera, erauzketa osoa egiten bada, kasu honetan egin zen bezala, diagnostikoa lortu ondoren.

Datu horiekin, nahitaez kontsideratu behar da —organo eskumendun den aldetik, egiten duen lanaren barruan, gure kontsultaren mende jarritako kasuen kategorizazio juridikoa egiteko—, **nahiz eta ikuskatzaileak *lex artis* delakoaren urraketari buruzko doktrina orokorrean sartzen duen kasua**, osasun-administrazioaren ondare-erantzukizuna eskatzeko erabakigarri gisa; **egia esan, planteatu den ondare-erantzukizun sanitarioaren uzia, jurisprudentziak landutako doktrina baten eremu espezifikoan ebazten da: “aukera-galtzea”.**

Aztertzen ari garen kasuan, doktrina hori aplikatzeko eskatzen diren elementu guztiak daude, eta, gainera, doktrina horren arabera planteatu zuen FFF jaunak erreklamazioa, nahiz eta ordaintzeko moduko zenbatekoa finkatzerakoan eragindako kalte materialari baino ez zitzaion lotu, zeina debekatuta baitago doktrina horren arabera.

Kasu honetan ordain daitekeen kaltea kuantifikatu aurretik, ibilbide laburra egingo dugu aukera galtzearen kategoria hori bereiziz joan diren erabaki judizialeetan zehar, baliagarri izango zaizkigu-eta **kalte moralaren antzekoa den hori kuantifikatzeko lan zailari aurre egiteko, kalte hori baita ordaintzeko modukoa kalte antijuridikoa gertatu den kasuetan, sendatzeko aukerak edo gaixotasunaren bilakaeran aldeko pronostikoa egiteko aukerak kentzearen edo murriztearen ondorioz.**

Aukera terapeutikoa galtzeak ezaugarri ditu, Auzitegi Gorenaren martxoaren 20ko 462/2018 epaiak —RJ 2018\1376— gogoratzen duenez, beste epai batzuk ere aipatuta, “*lex artis* delakoa urratzearen ordezkotako figura bat izatea, aukera ematen duena kalte-ordainarekin erantzuteko urratze hori gertatu ez eta, hala ere, zerbitzuaren funtzionamenduaren ondoriozko kalte antijuridikoa gertatzen den kasuetan. Hala ere, kasu horietan, kaltea ez da gertaerari dagokion kalte materiala, baizik eta ziurgabetasuna, hots, gertaerek zer segida izango zuten zerbitzuaren funtzionamenduan beste jarduketa-parametro batzuk jarraitu izan balituzte, hau da, inguruabarrak bestela gertatzeko aukera. Aukera galtzean, beraz, tratamendu-aukera baten halako galera dago, eta galera hori, nolabait, kalte moralaren antzekoa da, eta kalte-ordaina jaso dezakeen kontzeptua da. Laburbilduta: esan daiteke jarduketa medikoak sendatzeko espektatiba jakin batzuk kendu zizkiola pazienteari, eta kalte-ordaina eman behar zaiela, baina kalte-ordainaren zenbatekoa murriztuta, kaltea berdin gertatzeko probabilitatea zegoelako, nahiz eta arretaz jokatu” —hemendik hartua: Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2012ko abenduaren 3ko epaia (RJ 2013\582), doktrina bateratzeko kasazio-errekurtso batean emana, Auzitegi Gorenak beste epai batzuetan landutako doktrina aipatzen duena—.

Aukera galtzearen doktrinan datzan espektatiba-gabetze hori —Auzitegi Gorenaren 3. Salak 2008ko uztailaren 7ko epaian (RJ 2008\6872) baiesten duenez, 2005eko irailaren 7ko epaia (RJ 2005\8846) eta 2008ko ekainaren 26koa (RJ 2008\6525) aipatuta— kalte antijuridikoa da, eta, beraz, ordaintzeko modukoa; izan ere, “nahiz eta emaitzen ziurgabetasuna berezkoa zaion medikuntzaren praktikari (inguruabar horrek azaltzen du sendaketarako eskubiderik ez izatea), herritarrek berme bat izan behar dute beren osasun-zerbitzu publikoen aurrean, hots, gutxienez arretaz tratatuko dituztela, zientzia medikoak osasun-administrazioen esku jartzen dituen bitartekoak eta tresnak aplikatuta”.

Hala ere, aukera terapeutikoa galtzearen karakterizazio hori dela eta, **kasu horietan kontua ez da jasandako kalte guztiak ordaintzea, ez eta jasandako gastu, ondorio eta galera**

guztiak ere, baizik eta, bakarrik, hobetzeko, bizkortzeko edo eragindako kalteak saihesteko izango liratekeen aukerak, diagnostiko goiztiarra egin izan balitz —jarrera arduratsua goarekin iristeko modukoa, beharbada—.

Illo horretatik, Auzitegi Gorenaren martxoaren 15eko 418/2018 epaiak (RJ 2018\1507) gogoratzen duenez, aurreko beste batzuk aipatuta (hamaseigarren oinarri juridikoa), aukera galtzearen doktrinaren esparruan, ordaintzeko moduko kaltea “ez da gertaerari dagokion kalte materiala, baizik eta gertakariak hartuko luketen segidaren inguruko ziurgabetasuna, zerbitzuaren funtzionamenduan beste jarduketa-parametro batzuk bete izan balira”. Horretarako, gertatutako inguruabarrak haztatu behar dira.

Bestalde, Auzitegi Gorenaren 2012ko urtarrilaren 16ko eta 2011ko otsailaren 16ko Epaiak gogoratzen dutenez, Auzitegi Gorenaren 2010eko irailaren 23ko Epaiak aipatuta, “espektatibak kentzea, gure jurisprudentziak ‘aukera galtzea’ deitzen diona (...) honela zehazten da: nahikoa da nolabaiteko probabilitatea izatea jarduketa medikoak kalte saihesteko, nahiz eta ezin den ziurtasunez baieztatu, jasandako kalte osoa ordaindu behar izateraino, baina bai, ordea, zenbateko jakin batean aitortzeko, kontuan hartuta pazienteak sendatzeko aukerak galdu zituela bere gaixotasunaren diagnostiko berantiarraren ondorioz”.

Gainera, ohartarazi behar da, Auzitegi Gorenaren 2009ko otsailaren 23ko epaiak —RJ 2009\1147— erakusten duenaren arabera, Auzitegi Gorenak behin eta berriz adierazi duela hipotesi horietan, “behin egiaztatuta tratamendu bat ez dela behar bezala erabili, edo atzerapenez egin dela, ezin zaiola eskatu kaltetuari frogatzea, hots, zuzen jokatu gero, ez zela iritsiko bere erreklamazioa funtsatzen duen amaierara. Bestela, alde batera utziko lirateke erantzukizun publiko medikoaren espezialitateak, eta ukituari jasanaraziko litzaioke frogatu ezinezko egitate baten karga. Irregularitasuna frogatuta, Administrazioari dagokio justifikatzea eskatu zitzaion bezala jardun zuela benetan. Hala eskatzen du «frogatzeko erraztasunaren» printzipioak, Sala honek aplikatu baitu administrazio publikoen osasun-zerbitzuen erantzukizunaren eremuan” (besteak beste, 2007ko apirilaren 25eko AGE — 2007\3532 — eta 2007ko azaroaren 2koa — RJ 2008\463 —).

Azkenik, Auzitegi Gorenaren 2012ko maiatzaren 22ko, ekainaren 11ko eta abenduaren 21eko epaiak gogoratzen dutenez, “aukera galtzeak”, 2011ko urriaren 19ko AGEk adierazi duenez, “ez-augarritzat du ziurgabetasuna, hau da, alde batera utzitako jarduketa medikoak pazientearen osasun-egoera okerra saihestu edo hobetuko zuen ezin jakitea. Horrenbestez, eragindako kalte baloratzeko, bi elementu edo batugai hartu behar dira kontuan, zehazten zailak, hala nola jarduketa horrek eragin onuragarria izateko probabilitate-gradua, eta eragin onuragarriaren gradua, munta edo norainokoa”.

Auzitegi Gorenaren 2012ko azaroaren 27ko Epaiak, 2012ko ekainaren 19ko Epaiak aipatuta, sendatzeko benetako aukerei buruzko doktrina hori berresten du, “aukera galtzearen” doktrinaren funtsezko elementua baitira, eta, beraz, hala badagokio, kalte-ordainaren zenbatekoa haien existentziara egokitu behar da.

Ordaintzeko moduko kalte-ordaina zenbatetsi ahal izateko kontsultarako aurkeztu diguten ka-

suan, kontuan hartu behar ditugu jurisprudentziak ezarritako parametroak, eta arrazoizko ponderazioa egin aztertzen ari garen inguruabarrei buruz.

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da kontuan hartzea **azkenean izandako emaitzaren garrantzia**, FFF jaunaren asistentzia-prozesuaren ondoren, zoritxarrez **hil egin baitzen, sufrimendu handiaren ondoren**.

Baina, era berean, **OTAre irudi-proba azkarrago egin izan balitz izango litzatekeen emaitzari buruzko ziurgabetasuna baloratu behar dugu, diagnostiko goiztiarragoa erraztuko zuen eta**.

Horretarako, ikuskatzaile medikoaren iritzia baino ez dugu, ez baitu FFF jaunaren biziraupenaren edo sufrimendu txikiagoaren alde egiten ziurtasun osoz, gaixotasuna lehenago diagnostikatu izan baliote; izan ere, tratamendu-prozesua bizkortu egingo zela dio, eta, beraz, "litekeena dela gaixotasunaren progresioa geldoxeagoa izatea".

FFF jaunak zuen gaixotasunaren diagnostikoaren atzerapena eztabaidatu gabe, ezin dira alde batera utzi, ezta ere, espedientean aipatzen den bibliografia zientifikoan oinarritutako iritziak —berezi, Ikuskaritza Medikoaren txostenean, baina baita Pneumologia Zerbitzuaren txostenean ere—, **gaixotasun horren ezaugarriei, prebalentzia txikiari eta agertzeko modu isilari buruzkoak. Faktore horiek guztiek zaildu egiten dute**, oso kontuan hartzeko moduan —literatura zientifikoak erakusten duenez, eta Pneumologia Zerbitzuak azaldu duenez—,

diagnostikoa, eta horrekin batera, kontuan hartu behar da pazienteak ez zela inoiz geratu arretarik gabe —diagnostiko-lana beste espezialitate batzuen bitartez bideratu bazen ere—, **eta pazienteari egindako erradiografiak ez zutela datu anomalarik erakutsi. Horrenbestez, ematu egiten dira gaitzespenaren zorrotasuna eta erantzukizun-exijentzia erreklamatzeko den jarrera diagnostiko espezifiko eta zehatzarengatik: OTA garaiz egitea, behin betiko diagnostikora bideratu zuena**.

Aurreko inguruabarrak gogoan, eta kontuan hartuta agortu egin zirela FFF jaunaren erreperazioa lortzeko baliabideak, are Estatu mailako erreferentziako beste osasun-zentro batzuetako saiakuntza klinikoetan parte hartu ahal izateko ahalegin ugari egin zirela ere, honako hau ondorioztatu behar dugu: **arrazoizkotzat jotzen dugu kalte-ordaina ematea gaixotasunak polikiago eboluzionatzeko aukera galtzeagatik, hirurogeita hamabost mila euroko kopuru globalean (75.000 €)**.

Hirigintza

Alderdi erreklamatzailleak bere erreklamazioaren oinarritzat jarri du udalak 2016ko urrian onartutako hiri-berrikuntzako plan bereziarekin (HBPB) ezin dela gauzatu aurretik sinatutako kontratua.

Beraz, defendatzen du ezen, kontratua formalizatu ondoren eta udal-teknikarien txostena ikusita, non argudiatu baitzuten kontratuaren agiriek eta enpresak aurkeztutako aurreproiektuak ez zutela betetzen hiri antolamenduko plan orokorra betetzen ez zutela argudiatu zuten, udalak hiri berrikuntzako plan berezia egin eta onartu zuela.

Plan horrek, erreklamazioaren arabera, **“muga bat zuen (gehienez 40 m²) eta horrek argi eta garbi bihurtzen zuen kontratua gauzaezin, alderdi honi esleitu zitzaizkion baldintzetan”**. Merkataritza-sozietateak defendatzen duenez **“hiri berrikuntzako plan bereziaren aurreikuspen berri horrek berariaz urratzen du esleitutako kontratua; izan ere, alderdi honek aurkeztutako aurreproiektuaren eta proiektuaren luzera, adjudikazioduna izan zena, 43 m² izan zen”**.

Horregatik, honako hau ondorioztatu du:

Azken batean, administrazio-erabaki horien ondorioz, nire mandatugileari adjudikatutako kontratua gauzaezin bihurtu zen, besterik gabe, horrek alderdi honi eragin eta eragingo dizkion kalteekin; izan ere, nahiz eta alderdi horrekin kontratu bat formalizatu obra jakin bat egin eta ondoren negozio bat ustiatu ahal izateko, HBPBa onartu ondoren hori guztiz ezinezkoa izan zen.

Udal txostenak, ebazpen-proposamenaren oinarri baita, iritzi dio, bere aldetik, erreklamatzaren diren kalteak ez datozela HBPBaren onarpenetik, “baizik eta egindako kontratua ez betzetetik, erreklamatzaileri egotzi ahal zaion horretatik”.

Gaineratu duenez, **“ondare-erantzukizuneko prozedura honetan gauzatzen den uzia, funtsean, egoitza judizialean formalizatu zenaren berdina da, egintza berberetan oinarritzen da, eta, azken buruan, eskatzeko kausa berari dagokio. Horiek horrela, ezin da ondare-erantzukizunari dagokionez baietsi administrazioarekiko auzien jurisdikzioak epai irmo batean beren-beregi ezetsi duen eskari bat”**.

Honaino iritsita, **bidezko da gogoratzea gauza epaitu materialaren salbuespenaren bitartez, epai judizial irmoek lotetsi egiten dutela epai-erabaki horien edukia beste prozesu eta beste organo administratibo eta judizialek, segurtasun juridikoaren eta benetako babes judizialaren printzipioa oinarritzat hartuta.**

Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren Hirugarren Atalaren 360/2022 Epaiak, 2022ko martxoaren 22koak (2022/1819 JB), 1588/2020 kasazio-errekurtsoan emandakoak, gauza epaitutzat zer hartu behar den zehazten du, ondorio negatiboari zein positiboari dagokienez:

HIRUGARRENA. Gauza epaituaren salbuespena prozesuko zein unetan antzeman daitekeen. Lehenik eta behin, planteatzen da ea administrazioarekiko auzi-errekurtsua ez onartzea posible den, gauza epaituaren salbuespena aplikatuta, demanda formalizatu aurretik. Horretarako, Auzitegi Gorenaren jurisprudenziari jarraikiz, bereizi egin behar dira gauza epaituaren lotura negatiboa eta positiboa, biak ere PZLren 222 artikuluan arautuak (RCL 2000, 34, 962 eta RCL 2001, 1892). Hala, lotura negatiboak “jada epaituta dagoen objektu beraren gaineko beste prozesu bat eragozten du; aldiz, bigarrenaren arabera, lehen prozesu batean ebatzitakoa kontuan hartu behar da bigarrenean, bigarren horren objektuaren aurrekari logikoa denean (epaiak: 169/2014, apirilaren 8koa (JB 2014, 2309); 5/2020, urtarrilaren 8koa; 223/2021, apirilaren 22koa (JB 2021, 1889); 310/2021, maiatzaren 13koa (JB 2021, 2317); 411/2021, ekainaren 21ekoa (JB 2021, 2865) eta 21/2022, urtarrilaren 17koa (JB 2022, 51))”. Eta ondorio desberdin horiek eragina dute horiek hautemateko behar diren eskakizunetan; izan ere, “Gauza epaitu materialak, ondorio negatiboan edo baztertzailan, eskatzen du guztiz bat etortzea epai irmo bidez ebatzitako lehen prozesu baten objektuak eta haren eragin baztertzaila aldarrikatzen den geroagoko prozesu bat; hau da, subjektu berak izatea, *petitum* bera (eskatzen dena) eta *causa petendi* bera (eskatutakoaren oinarri faktiko eta juridikoa), hala adierazten dute, ezin bestela izan, honako epai hauek: 5/2020, urtarrilaren 8koa; 313/2020, ekainaren 17koa (JB 2020, 2184); 411/2021, ekainaren 21ekoa (JB 2021, 2865) eta 21/2022, urtarrilaren 17koa (JB 2022, 51). Berdintasun horiek izanez gero, *non bis in idem* printzipioaren indarrak (bi aldiz ez gauza beraren gainean) ondorengo prozesuaren baliogabetasuna eta eraginkortasunik eza ekarriko luke, eta lehen prozesuan ebatzitakoa nagusituko litzateke, hau da, jada erabakitakoa. Aitzitik, gauza epaituaren efektu positiboak edo prejudizialak ez du eskatzen prozesuen objektuen arteko erabateko berdintasuna, baizik eta haien arteko lotura, betiere subjektuak berberak badira, eta lehen epaiketean erabaki irmoz ebatzitakoa sustatutako bigarrenaren objektuaren zati bada, edo, PZLren 222.4 artikulua dioen bezala, objektuaren aurrekari logiko gisa agertzen bada. Beraz, esan daiteke gauza epaitu negatiboa berdintasunean oinarritzen dela, eta gauza epaitu positiboa loturan; lehenengoak ondorengo prozesu bat egotea galarazten du; bigarrenak, ordea, ez du eragozten, nahiz eta bigarren epaiketako auzitegia lotetsita dagoen aurreko prozesuan emandako epaiaren erabaki irmoa dela eta. Azken batean, beharrezkoa da beste baten mendeko edo hari lotutako harreman juridikoa egotea, epai irmo bidez jada ebatzitakoa; ez, ordea, berdin-berdina, orduan gauza epaituaren ondorio baztertzaila edo negatiboa sortuko litzatekeelako”. (AGE: 102/2022 zk., 2022ko otsailaren 7koa (JB 2022, 910) (2963/2019 erreka).

Batzorde honek, beraz, planteatutako erreklamazioa aztertzerakoan, kontuan hartu behar ditu enpresak hainbat udal-jarduketaren aurka irekitako prozesuetan eman diren erabaki judizialak.

Lehenik eta behin, EAEANren 364/2018 Epaia, uztailaren 27koa, ezetsi egin baitzuen merkataritza-sozietateak HBPBa behin betiko onartzeko erabakiaren aurka jarritako errekurtsua, Asti 18-kirol-eremuak jolas-eremuari zegokiona.

Errekurtsu horretan, orain erreklamatzeko duenak eskatu zuen deusezta zezatela onartutako plana, uste zuelako “auzi-jartzailea administrazio-kontratu baten adjudikaziodun gertatu zela, kontratu hori egikaritu zezakeelako esperantzan, baina, espero zenetik urrun, Administrazioaren gobernu-aldaketa batek eragindako jokabideak modu arbitrarioan eragotzi diola”.

Epaia, ordea, honako hau dio:

Aurkaratutako egintza HBPBa da, ..., eta errekurtsotik kanpo geratzen dira Astiko aisialdi-gunean taberna-jatetxea eta haren ustiapena egiteko kontratua, obrak hasteko hiri-gintza-lizentzia ukatua eta kontratua bere horretan ez egikaritzeko aukera.

HBPBa onartzearen helburua eta premia behar bezala justifikatuta daude, bai espedientean dauden administrazio-txostenetan, ..., bai plan berezian bertan, eta lege-oinarri berezia du HAPOaren 6.5.19 artikuluko 4. Paragrafoan. Izan ere, obra publikoaren emakida kontratatzeke lehiaketaren baldintza-agiriekin ahalbidetu zuten eraikigarritasuna handitu egin zen, eta, ondoren, polemika sortu zen enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako aurreproiektuaren eta egikaritze-proiektuaren parametroen eta baldintza-agirien artean.

Azken batean, plan bereziaren helburua zen merkataritza-sozietatearekin sinatutako kontratuari lege-estaldura ematea, Zarauzko HAPOra egokituz; horrek ez zuen esan nahi merkataritza-etxeak nahi zituen dimentsioekin eraikitzea ahalbidetzen zenik; beraz, bidezko konfiantzaren eta norberaren egintzen printzipioak ez dira urratzen, eta ez dago botere-desbideratzerik plana onartzean, helburua ikusita.

Nolanahi ere, Auzitegi Gorenaren doktrina gogoratu behar da, zeinak onartzen baitu *ius variandi* delakoa Administrazioari dagokiola lurzorua antolamenduan, eta arrazoiz eta arbitrariotasunik gabe egikaritzuz gero, eskuratutako eskubideak ez zaizkiola oztopo, ezta Administrazioak sinatu ahal izan dituen hitzarmenak ere –sinatutako kontratuetara ere heda daiteke–, hargatik eragotzi gabe Administrazioak hitzartutakotik aldentzeak beste eremu batean kalte-ordainen ondorioak ekar ditzakeela.

Eta, bigarrenik, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren epaia, EAEANK berretsia merkataritza-sozietateak aurkeztutako apelazio-errekurtsioan emandako epaian. Apelazio-errekurtsio horren xedea zen Zarauzko Udalaren osoko bilkuraren 2019ko urriaren 17ko erabakia, zeinaren bidez obra publikoaren emakida-kontratua suntsiarazi baitzen esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

Prozedura horretan, orain erreklamatzeko duenak, lehenik eta behin, erabat deuseztatzen jo zuen obra-emakidako kontratua adjudikatzeko erabakia, ezinezko edukia zuelako, HBPBak esleipenaren ondoren ezarritako mugak ikusita. Subsidiarioki, kontratua suntsiaraztea planteatu zuen, prestazioa gauzatzeko ezintasunagatik. Jasandako kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea ere erreklamatu zuen.

Erabateko deuseztasunari buruzko alegazioa alde batera utzita (epaian eman zaion balorazioak ez dio eragiten prozedura honi), kontratua suntsiarazteari dagokionez, administrazioarekiko auzien epaitegiaren **epaiak honako hau dio:**

Bada, kasu honetan, nire iritzia da **auzi-jartzaileak ez duela alegatu ez egiaztatu aipatutako aldaketa ezinezkoa zenik, hots, egindako kontratuaren preskripzioak HBPBan jasotako zehaztapen berrietara egokitzea** –HBPBa aipatutako kontratua adjudikatu ondoren onartu zen–.

(...)aztertutako kasu zehatzean, nire ustez, ez da bidezkoa egiaztatutzat jotzea adjudikatutako kontratuan oinarrituta egin beharreko eraikinaren gehieneko luzeraren mugak, HBPBa onartzearen ondorioz 40 m²-ra jaitsi zenak, kontratuaren lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatuko zituenik (...), ez baitzuten alegatu ez egiaztatu, adibidez, eraikinaren azken luzeraren muga horrek, HBPBan finkatutakoak, eragotzi egingo zuenik eraikinari kontratuan jarri zitzaion xedea betetzea eta, zalantzarik gabe, prestazioa hasieran hitzartutako moduan gauzatzeko aukerari eragingo zionik; era berean, auzi-jartzaileak ez zuen alegatu, ezta egiaztatu ere, HBPBa onartu ondoren ezarritako kontratu-aldaketa horrek kontratatutako prestazioaren eta prezioaren arteko harremana aldatzea ekarriko zuenik,...

Eskatutako kalte-ordainari dagokionez, honako hau gaineratu du:

Era berean, adierazi behar dugu **ez dela onartu** urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 c) artikuluan aurreikusitako deuseztasun-kausa aplikatzeagatik **erabateko deuseztasun-kasu bat dagoenik, ez eta** SPKLTBren 223 g) artikuluan aurreikusitako kontratua **suntsiarazteko kausa ere**; beraz, **ezin da onartu** demandatutako Administrazioaren konturako inolako **kalte-ordainerako uzirik**, demandan adierazitako moduan, kontuan hartuta ez dela gertatu auzi-jartzaileak kalte-ordainaren uzia ondorioztatzen dion egitatezko kasua.

EAEANren 2023ko urtarrilaren 10eko 9/2023 Epaiak, apelatutako epaia berresten duenak, honako hau gaineratu du:

Hala, udal demandatuak kontratua aldatzearen aldeko apustu argia egin bazuen ere, bere egintzek adierazten dutenaren arabera, (...) errekurtsogileak hasieratik hobetsi zuen, eta zalantzarik gabe, adjudikazioa ofizioz berrikustea edo kontratua suntsiaraztea, kontratatzailearen kontura, arrazoirik eman gabe edo egiaztatu gabe HBPBa bateraezina zela kontratua egikaritzearekin, are kontratua aldatuta ere adjudikatutako obran eragina duen plan horretako aurreikuspenetara egokitzeke.

SEIGARRENA.- Aipatu berri ditugun kontratistaren egintzek, HBPBari egokitutako obra-proiektua aurkezteko errekerimenduaren aurrekoak eta ondorengoak, argi eta garbi erakusten dute kontratu-lotura azkentzeko asmoa, hitzartutako prestazioak gauzatzeko ezintasuna aitzakiatzat hartuta (...)

Gauza epaituaren eragin positiboa kontuan hartuta, ukaezina da baliokidetza dagoela lehen aipatutako prozedura judizialean planteatutako oinarri faktikoaren eta auzigaien eta orain aztertzen ari garen prozeduraren artean.

Laburpen gisa, erabaki hauek ditugu partzialki transkribatutako epaietan, erreklamazioaren gure balorazioa baldintzatzen dutenak:

- a) HBPBa onartzeko helburua eta premia justifikatuta zeuden, eta, gainera, "lege-estaldura eman nahi zitzaion merkataritza-etxearekin sinatutako kontratuari, Zarauzko HAPOran egokituta".
- e) Enpresak ez du egiaztatu ez zela posible esleitutako kontratua egikaritzean aurkeztutako proiektua aldatzea HBPBan jasotako zehaztapen berrietara egokitzeko, ez eta egokitzapen horrek eragotzi zuenik etorkizuneko eraikuntza kontratuan lortu nahi zen helbururako erabiltzea edo horrek kontratatutako prestazioaren eta prezioaren arteko harremana aldatzea ekarri zuenik ere.
- f) Enpresak borondate argia zuen udalak adjudikatutako emakida-kontratua ez betetzeko, eta, horregatik, justifikatuta zegoen kontratua suntsiaraztea, SPKLTBren 212.6 artikuluan oinarrituta.

Aipatu epai judizialek frogatutzat jotako inguruabar horiekin, **Batzorde honek ezin du jo udal administrazioaren inongo jarduketa antijuridikorik eta kaltegarririk dagoenik, ondare-erantzukizuna dagoela ondorioztatzeko moduan.**

Administrazioaren jarduera juridikoa eztabaidatzen denean, eta ez haren jarduera materia, ondare-erantzukizuna aitortzeko, egintza edo xedapen administratiboaren zuzentasun juridikorik eza deklaratu behar da, eta hori gabe kaltea ezin izango da antijuridikotzat jo, eta baldintza hori ez da betetzen kasu honetan; izan ere, EAEANren uztailaren 27ko 364/2018 Epaiak ezetsi egin zuen merkataritza-sozietateak jarritako errekurtoa, Asti 18-kirol-eremuko jolas-eremuko HBPBa behin betiko onartzeko erabakiaren aurkakoa.

Hau ere ondorioztatu behar dugu: **enpresaren jarduera bera izan dela, hots, kontratua ez betetzeko borondate argia, erreklamatzeko duen emaitza kaltegarria sortzeko arrazoi erabakigarria eta eraginkorra, eta horrekin zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta ustez eragindako kaltearen arteko kausalitate-harremana hautsi dela.**

176/2023 ABJI, par.: 47-68

Alderdi Erreklamatzailerak Berrizko Udalari egotzi dio zerbitzu publikoaren funtzionamendu txarra, eta horren isla da behin eta berriz egindako jarduera-eskari batzuei jaramonik egin ez izana; zehazki, Forjas de Berriz SL merkataritza-sozietateak garatutako fabrikazio-jarduera eteteko eskariei, ituntze-sistemaren ordez kudeaketa-sistema publiko bat jartzeari eta EU-19ko Ituntze Batzarraren aurkako zehapen-espedita irekitzeari.

Eta funtzionamendu txar haren ondoriozko ondare-erantzukizunaren egozpena, funtsean, **diskurtso baten bitartez artikulatzen da, zeinak berretsi egiten baititu** Alkatetzaren 2023ko otsailaren 14ko 2023-302014 zenbakidun Dekretuaren **aurka jarritako berraztertze errekurtsoaren harira emandako argudioak**. Dekretu horrek **ezetsi egin zuen** 2022ko urriaren 27an egindako **eskaera**. Berraztertze errekurtso hori ezestera etorri zen 2023-305001 zenbakidun Dekretua, zeinaren aurka ez baita egiaztatu inolako jurisdikzio-aurkaratzerik.

Gauzak horrela, **bide jurisdikzionaletan udalaren jarreraren bideragarritasun juridikoa baztertu ez den bitartean —ez zen bide administratiboan baztertu—, erreklamazioak alegatutako kaltea ezin da antijuridikotzat jo, eta hori ezinbesteko baldintza da** aurkeztu duten **erreklamazioak aurrera egin ahal izateko**.

Alde batera utzita, beraz, adierazitako arrazoiengatik, Administrazioaren jardueraren antijuridikotasuna, hori nahikoa izango litzateke erreklamazioa ezesteko. Hala ere, Batzordeak bidezko deritzo gogoeta gehigarri batzuk egiteari, eta, aurreratuko dugu, atzera botako dute berriz ere kalte-ordaina eskatzen zaion kaltearen izaera antijuridikoa, era berean, CCC andreari ustez eragindako kaltearen egiaztapenaren azterketan sartuta.

Udalak irizpen honen eskaera dela eta bidali duen dokumentazioa aztertu ondoren, **ezin da ukatu atzerapena metatu dela EU-19aren hirigintza-garapenean , eta nolabaiteko luzamendua egon dela —hainbat arrazoi direla medio—** Forjas de Berriz SL merkataritza-sozietateak garatzen duen **fabrikazio-jarduera bertan behera uzteko eta desegiteko aginduen epeak betetzeari dagokionez**, Alkatetzaren 2014ko uztailaren 30eko 2014-307053 zenbakidun Dekretuaren ondorioz udalak ezarri baitzituen.

Alde batera utzita hirugarrenen jarduketak —EU-19ko Ituntze Batzordea eta Forjas de Berriz, SL merkataritza-sozietatea— zer eragin izan dezakeen erreklamazioak udalaren ustezko jarduerarik ezaren eta kalte-ordaina eskatu zaion kaltearen artean aipatu duen kausazko loturan, berriz ere aztertu behar dugu funtsezko gaia: zerbitzu publikoaren ustezko funtzionamendu txarrik ba ote den zehaztea, udal administrazioak konpondu beharreko galeraren sortzailea.

Bada, Batzordearen ustez, **lantegia bertan behera uzteak eta eraisteak, eta fabrika beste toki batera eramateak, ekoizpen-jarduera mantentzeko beharrekina batera, konplexutasun nabarmeneko prozesua zekarren, eta zailtasunaren erakusle dira epe-luzapenak**, Alkatetzaren 2014ko uztailaren 30eko 2014-307053 zenbakidun Dekretuaren arabera erabakitakoak. Dekretu horrek 2021. urtera arte atzeratu zuen geldiaraztearen eraginkortasuna, **gaur egungo alderdi erreklamazioak denaren adostasunarekin**, eta 2022. urtera arte atzeratu zuen instalazioen zati bat eraistea.

Ekoizpen-jarduera beste toki batera eramateak zekarren berezko zailtasunaz gain, **ekonomiaren dezelerazioari lotutako faktoreak ere bazeuden, higiezin merkatuari bereziki eraginez, eta pandemia bat iritsi zen**: alferrikakoa litzateke horren ondorioei buruz luzatzea.

Deskribatutako faktoreen ondorioz, jarduera ez zen eten 2023ko lehen hiruhilekora arte, edo, bestela esanda, 2014ko uztailaren 30eko 2014-307053 **Dekretuan aurreikusitako epea amaitu eta urtebete eta bost hilabete igaro arte**. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera, epe horren bukaera 2021eko urriaren 16an gertatu zen azkenean, eta **badirudi berandutze horrek ez duela urratzen** administrazio-jarduerari aplikatu beharreko **arrazoizko funtzionamendu-estandarra**.

182/2023 ABJI, par.: 51-59

V. Erantzukizunaren araubidea administrazio-kontratu eta -emakidetan

Aurrekoaren ondorioz, ebazpen-proposamenak egiaztatutzat jotzen du **kontratistaren erantzukizuna**. Baieztatzen duenez, zerbitzuak kontrata bidez ematen diren kasuetan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) 196. artikuluan ezartzen du kontratistaren betebeharra izango dela egikaritzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztien kalte-ordaina ematea, salbu eta kalte-galera horiek Administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzenez eta berehala sortutakoak badira, edo kalteak hirugarrenei eragiten bazaizkie Administrazioak berak obra-kontratuan edo fabrikazio-horniduran egindako proiektuaren akatsen ondorioz.

Horregatik, uste du zerbitzua bere kontu eta arriskura ematen duen enpresa adjudikaziodunak bere gain hartu behar dituela bere jardueratik erator daitezkeen ondorio kaltegarriak, hirugarrenen aurrean eta Administrazioaren beraren aurrean, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Gauzak horrela, **Batzordea bat dator udal-administrazioak garraio-zerbitzua ematen duten langileen betebeharrei eta funtzioei buruz egindako arazoibidearekin**. Horri dago-kionez, adierazitako dokumentaziotik ondorioztatzen da, **nolanahi ere, adinekoek, martxan jarri aurretik, behar bezala eserita egon behar dutela, eta segurtasun-uhalak lotuta edo beste sistema gehigarri edo espezifiko batzuk jarrita eduki behar dituztela, gurpil-aulkien kasuan**. Hala, ez dirudi arazoizkoa denik baldintza hori bete gabe abiatzea ibilgailua, eta segurtasun-neurriak hartzeko eskaera nahierara edo pertsonen eskariaren esku uztea. **Argi dago langileen eginkizunen artean dagoela gailu guztien erabilera egiaztatzea**. Hori, logika hutsez, nahiz eta berariaz adierazi ez, martxan hasi aurretik egin beharko da, bestela ez luke funtzionaltasunik edo helbururik izango segurtasun-elementu horiek autobusean jartzeak.

Izan ere, Batzorde honek behin baino gehiagotan adierazi izan duenez, zerbitzu publiko jakin baten funtzionamendua normala edo anormala (ona edo txarra) izan den zehazteko, zerbitzu hori arautzen duten era guztietako arau positiboek gain —legeak, Europar Batasuneko

zuzenbideko arauak, nazioarteko zuzenbidekoak, erregelamenduak, barne-zirkularrak, eta abar—, honako hauek ere hartu behar dira kontuan: zerbitzuaren gauzatze zehatz bakoitzaren inguruabarrek arrazoiz eskatzen duten arretaz jokatzeko betebeharra, eta horrek dakartzan arriskuen kopurua eta maila, zerbitzu horri buruz gizartean ezarritako gutxieneko segurtasun-estandarren argitan baloratuta. Horrenbestez, funtzionamendu anormaltzat jo beharko litzateke, arau horiek betetzen ez dituen funtzionamenduaz gain, arauen esparruan mugituta ere, arretaz jokatzeko betebeharrak zehatz horren eskakizunei erantzuten ez diena —jakina, hori ez litzateke hala izango salbuespenezko kasu batzuetan, baldin eta zerbitzuaren garapena erregulatzen duten arau positiboen zehaztasun- eta zorrotasun-maila hain bada handia, non eragotzi egingo bailitzateke kasu bakoitzaren indibidualtasunaren ondorioz eska daitekeen arretaren aldaketak aintzat hartzea—.

Adierazitakoaren arabera, **eska daitekeen arretaz jokatzeko betebeharrari buruzko juzguan, ez da aski zerbitzuaren prestazio-mailaren egokitzapen abstraktua egiaztatzea; aitzitik, kasuaren azterketa eskatzen du juzgu horrek, eta orain aztertzen ari garen honetan horrek zera dakar: aztertzea ea erreklamatazaileen senideari laguntza egokia eman zioten, bere inguruabarren arabera.**

Azterketa horrek kontuan hartu behar du, alde batetik, eska daitekeen prestazio-mailak posiblea izan behar duela juridikoki eta materialki, halako moldez non eskakizun horrek ahalbidetu behar duen zerbitzua termino material, juridiko eta ekonomiko posibleetan antolatzea, baina, aldi berean, **kontuan hartu behar du mugitzeko zailtasun nabarmenak dituen adineko pertsona bati eman beharreko arreta.** Horretarako, zerbitzuaren exijentzia aztertu behar da hauetan guztietan: bidaiariari autobuserako harrera egin, bertan kokatu, eserlekua ziurtatu eta busa berriz abiatzea, helmugarantz.

Horiek horrela, aipatu arrazoi guztiak eta espedientean dauden txostenak ikusita, **Batzorde honen ustea da badela zerbitzuaren funtzionamenduarengatiko ondare-erantzukizunik; izan ere, egiaztatuta geratu da ez zirela hartu martxan hasi aurretik behar ziren segurtasun- eta zaintza-neurriak, erabiltzailearen jarrera egokia egiaztatu eta ibilbidean erortzeko inongo arriskurik ez izateko.**

Kontratatuek eragindako kalteen erantzukizunari dagokionez, Batzordeak iritzia emateko aukera izan du sektore publikoko kontratuen legeetan aurreikusitako araubideari buruz, irizpen hauetan: 99/2005 eta 194/2016.

(...)

Premisa horiek abiapuntutzat hartuta, aztertzen ari garen kasu honetan, Administrazioak egoki onartu du ondare-erantzukizunaren existentzia, eta zehaztu du kontratistari dagokiola kalte-dunari kalte-ordaina ematea, bai eta kalte-ordainaren zenbatekoa ere.

Batzorde honek, iritzi horrekin bat etorruta, **kontratistaren ondare-erantzukizuna deklaratu**

behar dela uste du; izan ere, adierazi dugunez, eta aztertu dugun zerbitzuaren barruan, aurreikusteko modukoa zen gertakaria, **egiaztatuta geratu baita ez zirela berariazko prebentzio- eta arreta-neurri guztiak hartu, eta, beraz, honako hau ondoriozta daiteke: zerbitzuaren funtzionamendu txarraren ondorioz gertatu zela erreklamatzailaren erorkoa, eta, horrenbestez, eragindako zerbitzu publikoaren funtzionamenduari objektiboki egotz dakiokeela emaitza kaltegarria.**

140/2023 ABJI, par.: 38-58

Erreklamazioa aurkeztu duen enpresak ondare-erreklamazioaren bidea justifikatu du, gertatutakoak deskribatu ondoren; izan ere, 96/2022 epaiak deuseztat jo zuen obra-kontratu hori esleitzeko osoko bilkuraren erabakia “, eta kaltetunari atea irekitzen dio Kanpezuko Udalarari ondare-erreklamazioa eskatzeko”, hau ulertuta: “erreferentziako kontratua adjudikatzeko erabakiak, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 2. Epaitegiak gero deuseztatu zuenak, argi eta garbi eragin zion lesioa enpresa errekurtsogileari. **Galarazi egin zion dokumentazioa zuzentzea, eta, ondorioz, ezin izan zuen kontratuaren adjudikaziorako aukerarik eduki”.**

Apirilaren 6ko 96/2022 Epaia denez APAJLren 32. artikulua ondoz egindako erreklamazioaren legezko oinarria, epaitza oinarritzen duten arrazoibide nagusiak nabarmendu behar dira:

2. ZO - bi alderdiek –ados baitatoz– adierazi dute errekerimenduaren berri ez zitzaiola inoiz eman errekurtsogileari, Udal Idazkaritzaren akats baten ondorioz. Izan ere, Erki SLren helbide elektronikoa idatzi zuenean, errekerimendua jakinarazteko, modu desgokian azentu-marka bat jarri zuen lizitatzailaren dokumentazioan adierazitako helbide elektronikoa osatzen zuen “administración” hitzaren “o” letran. Horren ondorioz, errekerimendua administracion@erki.es helbidera bidali beharrean, administracion@erki.es helbidera (azentu-markarekin) bidali zuten. Aurrekotik abiatuta, errekurtsogilearen alegazioei harrera ona eman behar zaie; izan ere, **demandatuari egotz dakiokeen jardun akastun bat egon zen aipatutako jakinarazpenean**, eta horrek eragotzi egin zion errekurtsogileari administrazioaren errekerimendua ezagutzea eta, ondorioz, aintzat hartzea. **Hori dela eta, Kontratazio Mahaiak ezin izan zuen aipatutako apartatua baloratu, eta, hala egokituz gero, jakinarazpena behar bezala egin izan balitz errekurtsogileari legokiokeen puntuazioa eman.** Beraz, prozeduran benetako defentsa-gabezia materiala gertatu zen, eta arrazoi horrengatik deuseztatu behar zen errekurritutako administrazio-jarduketa, eta hori guztia, hautatutako bitarteko telematikoa baldintza-agiriekin bat zetorren ala ez baloratu gabe. Horri dagokionez, ezin dira onartu errekurtsogileak errekerimendu horren beharrik ezari buruz egiten dituen alegazioak; izan ere, **demandatzaileak dioten bezala, orain ezin ditu bere gain hartu kontratazio-mahaiak soilik dituen ahalmenak, horrek organo eskudunak hartutako erabakia ofizioz eta ezkutuaren berrikustea ekarriko lukeelako.**

Bestelako erantzuna zor zaio demandan jarritako kalte-ordainaren uziari, kontratua ez esleitzearen ondorioz lortu gabeko mozkin industrialarengatikoari; erreklamatazaileak ez du kontzeptu horri buruzko frogarik proposatu, eta kontratuaren % 6 dela esan du. Bidezkoa da 2013ko urtarrilaren 11ko epaia aipatzea, 5082/2010 errek., Auzitegi Gorenarena, administrazioarekiko auzien hirugarren sala, 7. atala, uzi hori ezesteko.

...

Aipatu epaian jasotako doktrina aplikatuta, ezetsi egin behar da kalte-ordainaren uzia, eta errekurtsogileari esaten zaio, hala badagokio, Administrazio Publikoaren ondare-erantzukizunari buruzko manuetara jo behar duela. Kontu hori ez dator bat auzi honekin; izan ere, ez da frogarik egin horri buruz, eta, gainera, ez dago alde aurreko administrazio-erabakirik, gure jurisdikzioaren izaera berrikuslea ere kontuan hartuta. Ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioan argitu beharko dira kontu horiek, eta jurisdikzio-kontrol osoaren mende jarri ahal izango dira gero.

(...)

Hala ere, aipatzen den ondare-erantzukizunaren azterketa espezifikoa eskatzen duen anti-juridikotasunaren azterketaren muinean dagoena da administrazio kontratatzailearen jarduketara, jakinda **2019ko martxoaren 12an egindako adjudikazio-proposamena osatu gabeko balorazio batean oinarritzen dela, eskaintza zuzentzeko edo argitzeko errekerimendua jakinaraztean egindako akatsaren ondoriozkoa, Erki enpresak ezin izan zion-eta erantzun errekerimenduari.**

Zalantzarik gabe, **edozein administrazio-egintza jakinaraztea funtsezko izapidea da edozein prozeduratan, eta bidalketa egin dela eta hartzaileak eskura izan duela egiaztatzeko aukera ematen du.** Administrazio-jakinazpenak zuzen egitea zuzenean lotuta dago, konstituzio-jurisprudenzia esaten duen bezala, defentsa-gabezia materialik ezaren printzipioarekin eta, kasu bakoitzean sartu beharreko ñabardurekin, benetako babes judizialarekin (EKren 24. artikulua).

Alor horretan, garrantzitsuena da jakinarazpena hartzaileengana iristea, gai honetan printzipio antiformalista eta administrazio onaren printzipioa nagusi direla.

Printzipio horiek ez dute eragozten administrazio-jarduketa bat jakinaraztera bideratutako jarduketa ahal arautua izatea; izan ere, Administrazioak ordenamendu juridikoaren erregelen mende egon behar du, arau horien bidez zehazten baita haren funtsezko xedea nola gauzatu eta lortu (APELen 40. eta 41. artikulua).

Testuinguru horretan, ezin da zalantzan jarri, ezta ere, azken buruan erabilitako jakinarazpen-metodoak —posta elektronikoa— nolabait baldintzatzen ote duen udalaren jardueraren arazoizkotasunaren azterketa.

Izan ere, espedientetik erraz ondorioztatzen da Erki enpresak behar bezala adierazi zuela udalarekiko komunikazioen helmugako helbide elektronikoa, eta Administrazioak inongo eragozpenik gabe onartu zuela bi enpresa lizitatzailleekin komunikatzeko bide hori, eta, gainera, uste dugu bateragarria dela AKAREN preskripzioekin (AKAREN 11. klausula).

Beste alde batetik, ezin da alde batera utzi, garrantzi handiko faktore gisa, **aurkeztu beharreko dokumentazioaren garrantzi berezia; izan ere, zuzenketa eginda, 10 puntu zeuden jokoan, balio-judizioaren mende zeuden adjudikazio-irizpide jakin batzuei lotuta, eta horien baturaren mende egon zitezkeen eskaintza onuragarriena zehaztea eta adjudikazioa.**

Era berean, lehen aipatu dugun udal-jarduketaren alderdirik garrantzitsuena azpimarratu behar da, haren esku hartzeak merezi duen gaitzespena sendotzen baitu.

Espedienteak bide ematen du egiaztatzeko **udalak nahiko goiz izan zuela, bide informalen bitartez, lehenik eta behin, eta, gero, bide formalen bitartez —berraztertze errekurtsoa, adjudikazio-erabakiaren kontra—, informazio-errekerimendu hori jakinarazteko erabili zen mezuaren helbidean egindako akatsaren eta horren ondorioen berri.**

Berraztertze errekurtso hori 2019ko apirilaren 17an aurkeztu zuten, kontratua 2019ko maiatzaren 19an formalizatu aurretik, eta jarduketak jakinarazpenaren unera atzeratzea eskatu zuten bertan.

Asmo hori, APELEN 119. artikulua aplikatuz, bateragarria da kontratazio publikoari aplikatu beharreko prozeduraren berezitasunekin, bereziki SPKLREN 152. artikuluekin; izan ere, errekurtsoa ebatziz gero, APELEN 21.1 artikulua behartzen duen bezala, Erki enpresari eragindako defentsa-gabezia konpontzeko bitartekoak jarri ahal izango ziren.

Bitarteko horiek aukera ematen zioten administrazio kontratatzaileari lizitazio-prozeduraren izapidetzea atzera eramateko, zentzuz eta neurritz, informazioa emateko errekerimendua jakinarazteko unera arte, Elecnor enpresari proposatutako adjudikazioarekin jarraitu eta, ondorioz, kontratua haren alde formalizatzen jarraitu beharrean.

Azkenik, egia esan, udalak ez zuen ezer egin jakinarazpen hori interesduna benetan jakinaren gainean egon zedin, horretara behartuta egon arren lege-arauen eta aplikatu beharreko konstituzio-jurisprudentiaren arabera (denen erakusgarri, Konstituzio Auzitegiaren 84/2022 epaia, ekainaren 27koa).

Laburbilduz, aztertutako kasuan, 2022ko apirilaren 6ko epaiaren 2. zuzenbide-oinarrian (FD) adierazitakoarekin bat etorritik, **administrazio-jarduketak gainezkatu egiten du** egin behar den **arrazoizkotasun-judizioa; izan ere, posta-helbidearen transkripzioan egindako akats tipografiko hutsa zela bide, zeinaren ondorengo zuzenketa justua, zentzuzkoa eta kon-**

tratazio publikoaren printzipioen arabera izango litzatekeen, jakinarazpenaren porrota etorri zen, eta, horrekin batera, informazioa bat eman ezina, zeinak, seguru asko, 10 puntu eta kontratuaren adjudikazioa emango zizkion.

Premisa hori —hau da, adjudikazioduna izateko aukera, jokoan zeuden 10 puntuak bereganatuta ziurrenik— utzi du agerian erreklamazioa aurkeztu duen enpresak, eta udalaren txostenek ez dute ezeztatu. Horrenbestez, azken balorazioan lortutako puntuazioa (90 puntu) ikusita, ondorio egingarria eta dagokigun azterketan kontuan hartzeko modukoa dela onartu behar dugu.

(...)

Beraz, kasu honetan, **erreklamazioa aurkeztu duen enpresak ez zuen betebeharr juridikorik** judzialki deuseztatutako adjudikazio-erabakiak eragin zizkion **ondorio kaltegarriak jasateko**; izan ere, erabaki hori hartu zuten jaramonik egin gabe eragindako lizitatzailari egin beharreko errekerimenduaren jakinarazpena behar bezala zuzentzeari, eskura zituzten konponbide juridikoen bitartez. Zuzendu izan balute, ez da zentzugabea ondorioztatzea enpresa erreklamatzailaren aldeko adjudikazioa aterako zela.

184/2023 ABJI, par.: 45-75

8. Kapituluia. OFIZIOZKO BERRIKUSPENA

I. Berrikusteko ahalaren eremua

Gatikako Udalak aurrekontu-aldaketa onartzeko erabakia berrikusteko eskatu du, eta haren deuseztasunari eutsi dio, APELen 47.1.e) artikulua ikusita. Artikulu horren arabera, erabat deusezak dira legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz emandako administrazio-egintzak.

Hala ere, gauza bat zehaztu behar da Auzitegi Gorenaren 2022ko irailaren 29ko Epaiak gogorarazi duen bezala (6376/2021 errek.): “udal-aurrekontuak izaera arauemailea du. Hala ulertu zuen, adibidez, lehengo Zazpigarren Atalaren 1996ko otsailaren 28ko Epaiak (4688 kasazio-errekurtsoa), eta oraintsuago ere gogorarazi dugu sala eta atal honen 2015eko ekainaren 22ko Epaian (3008/2013 kasazio-errekurtsoa); izaera arauemaile hori ez da ezerezean geratzen bere berezitasun markatuengatik, bai prestatzeko prozedurarengatik, bai konfiantza-arazo bati lotu daitekeelako, behin-behinekotasunagatik edo, funtsean, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen bat izateagatik”.

Gaiak badu bere garrantzia; izan ere, **izaera orokorreko xedapenen deuseztasun-kausa edo arrazoirik bat ote den argitzeko 47.2 artikuluari begiratu behar zaio**, hau dio eta: “Erabat deusezak izango dira honako administrazio-xedapen hauek ere: konstituzioa, legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak hausten dituztenak; legez arautu beharreko gaiak arautzen dituztenak; eta zehatze-xedapen kaltegarrien edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zehatze-xedapenen atzeragina ezartzen dutenak”.

Hau da, eskaeraren oinarriari erreparatuta, galdatutako benetako deuseztasun-arrazaioa bat etorriko litzateke aurrekontu-araudian kreditu gehigarrien bidez aurrekontua aldatzeko erabakia hartzeko aurreikusitako beharrezko izapideak ez betetzearekin.

Kontua izango litzateke **ikustea ea aurrekontu-erabakia onartzeko eta indarrean jartzeko prozeduran funtsezko izapideen omisiorik izan ote den, eta, izapideok bete ez badira, erabakia deuseza dela deklaratu beharko litzateke**.

Nolanahi ere, aipatutako deuseztasun-kausa gertatzen den aztertu baino lehen, aurretik adierazi dugun bezala, gogorarazi behar da **Batzorde honek joera murriztaileari eutsi diola erabateko deuseztasun-kausen interpretazioan**.

Gure azterketarako, lehenik eta behin, aurrekontu-urterokotasunaren printzipio jada aipatua hartu behar dugu kontuan. Horren arabera, aurrekontua dagokion ekitaldian sartuko da indarrean, eta, horretarako, foru-araudian eskatzen diren izapideak bete beharko dira.

Adierazi dugun bezala, aurrekontu-legezketasunaren eredu arauemaileak zehazten du ezen, aurrekontuak eta horien aldaketak indarrean sartzeko, argitaratzearen funtsezko betekizun formala bete behar dela, indarrean dagoela jo ahal izateko.

Gainera, aurrekontu-aldaketaren kasuan, betebeharra betearaziko den urte naturalean sartu behar da indarrean. Beraz, 2022ko aurrekontu-ekitaldirako aurreikusitako aldaketa bat, 2023an argitaratzen dena, ez da indarrean egon 2022ko ekitaldian. Izan ere, aurrekontu-arau-diak ez du atzeraeraginez aplikatzeko aukerarik ematen kreditu-aldaketak indarrean jartzeko.

Gai horri buruz, argi dago Auzitegi Gorenaren 2003ko urtarrilaren 23ko epaian aipatzen den jurisprudentzia-doktrina, honako hau zehazten baitu: “1999ko maiatzaren 7ko epaian bertan adierazi genuen ezinezkoa zela urte jakin baterako aurrekontu-berrikuspena onartzea zegokion ekitaldia amaitu ondoren. Ondorio horrek ez du ezeztatzen edo deuseztatzen hura berandu onartzeko aukera, baldin eta hori, gutxienez, dagokion ekitaldiaren barruan gertatzen bada, dagozkion ondorioekin; izan ere, udal baten urteko aurrekontuaren helburu bakarra da dagokion urterako baimendutako diru-sarreraren eta gastuen batura adieraztea, eta betebeharrak aukera eman badezake berandu egindako aurrekontuari dagokion urteko aldiaren hasiera atzera eramateko, horren arrazoia da oraindik ere esan daitekeela haren aurreikuspenen balizko indarraldiaz eta egikaritzeaz, dagokion ekitaldia abian dagoen bitartean. Aitzitik, ez dago justifikatzeko lege-oinarririk, ezta zentzu logikorik ere, jada amaituta dagoen ekitaldi ekonomiko baterako aurrekontu-aurreikuspena onartzeko, baldin eta aurreikusitako betebeharrak eta horretarako kalkulatu-tako diru-sarrerak ez badira etorkizuneko igurikimen bat, gertaera burutu bat baizik, eta beharrezkoak diren doikuntzak eta aldaketak aurreko urteko aurrekontu luzatuaren gainean egin behar izan badira”.

Aurrekoari jarraiki, kreditu gehigarrien bidezko aurrekontu-aldaketaren erabakia indarrean sartu zen behin betiko onarpena BAO n argitaratu zenean, baina, argitalpena egin zenez aldaketa aplikatu ondorengo ekitaldi batean, agerikoa da legez kontrakoa dela, epez kanpokoa delako. Hau da, **urte naturala igaro ondoren, ezin da aurreko urteko aurrekontu baten aurrekontu-aldaketarik onartu.**

Aurrekoa kontuan hartuta, aurrekontu-erabakia ordenamendu juridikotik kanporatzeko moduarekin du zerikusia auziak. Are gehiago, gure kasuan, zeinean efikaziarik gabeko arau bat deuseztatzeaz ari garen, ez baitu inolako ondoriorik izan.

Halako kasuetan, arau-xedapenak inolako betebeharririk sortu ez duenean, gehiegizkoa dirudi ofiziozko berrikuspena jotzea aurrekontuaren arau-ordena arazteko. **Egokiago izango litzateke**, ondoriorik izan ez duenez, aurrekontu-esparruan **eskumena duen organoak berak**, xedapenaren efikaziarik ezaz oharturik, **eraginik gabe uztea indargabetze formalaren bitartez.**

Adibide gisa, 10/2003 Foru Arauak berak dioenez, ordainketa-kredituak aurrekontu-ekitaldiko azken egunean ez badaude ekitaldian zehar sortutako betebeharreri afektatuta, zuzenbide osoz deuseztatuko dira, salbu eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuari eransten zaizkionean. Eta hori ezin da gure kasuan egin, luzatutako aurrekontu batean ezin izango litzatekeelako sartu

ondorengo ekitaldi batean onartutako aurrekontu-aldaketa bat.

Bada, kasu honetan formalizatu ere ez da egin ordainketa-kreditua aurrekontuan sartzea, horretarako eskatzen diren prozedura-baldintzak bete ez direlako. Beraz, hura deuseztatzeko, ez litzateke beharrezkoa izango beste helburu batzuetarako pentsatutako ofiziozko berrikuspena bezain bermatzailea den prozedura bat bideratzea.

Ofizioz berrikusteko prozeduraren xedea da ordenamendu juridikotik hastantzea indarreko legeria urratuko duten eskubideak edo betebeharrak sortzen dituzten edo sor ditzaketen arau-xedapenak. Nolanahi ere, **efikazia duten arauak dira, indarrean sartu direnak eta sartu diren ordenamendu juridikotik kendu behar direnak.**

Laburbilduz, **kasu honetan, aski litzateke udalaren osoko bilkurak**, bere erregelamendu-ahala egikaritzuz **eta idazkari kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, indarrik gabe uztea hartutako erabakia, hura formalki indargabetuz.** Halaber, **indargabetzeko erabakia BAO**n argitaratu beharko da, kreditu gehigarriaren behin betiko onarpena epez kanpo argitaratu delako.

35/2023 ABJI, par.: 33-49

Irungo Udalaren kontsulta-eskaera APELen 106. artikulua eta hurrengoek aurreikusten duten egintza deusezak ofizioz berrikusteko araubide orokor horretan oinarritzen da, eta aipatzen du **gertatzen den kausa botere adjudikatzailerik egindako kontratuen deuseztasunaren berriazko kausa dela, SPKLren 39. artikulua 2.e) paragrafoan aurreikusitakoaren arabera:**

e) 44. artikulua eta hurrengoek aipatzen dituzten kontratazio-arloko errekurso berezia aurkeztu den kasuetan, kontratua honako hauek errespetatu gabe formalizatu izana: errekursoa aurkeztu zaion egintzaren etendura automatikoa, hura bidezkoa den kasuetan, edo aurkeztutako kontratazio-arloko errekurso bereziaz arduratzeko asmoz organo eskudunak egintza eteteko hartutako kautelazko neurria.

Eztabaidaezina da Irungo Udalak argi eta garbi onartu duela, **aztergai dugun hornidura- eta instalazio-kontratua formalizatu aurretik, garaiz eta behar bezala aurkeztu zuela adjudikazio-egintzaren aurkako errekurso berezi bat** Kotobuki Seating España, S.L. enpresak, eskaintza aukeratu ez zioten enpresa lizitatzailerik.

Ukaezina da, halaber, **errekurtso berezi horrek** adjudikazio-egintzaren aurka egiten zuela, eta, SPKLren 53. artikulua araber, **horrek adjudikazioa automatikoki eten, eta lizitazioaren izapideei jarraipena ematea eragozten duela, bereziki ondorengo izapideari, hau da, kontratua formalizatzeari**. Gainera, ez dago jasota errekurtsio berezia aurkeztu zaion Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoak etete hori kendu duenik, ezta errekurtsioa ebatzi duenik ere.

Agerian utzi berri ditugun inguruabarrak argi eta garbi gertatzen direla kontuan hartuta, aurre-ratu behar da **ez dela zalantzan jartzekoa deuseztasun-kausa hori gertatzen denik, kausa horren ezaugarri diren elementuak automatikoki hauteman baitaitezke**.

Hala ere, bidezko da ohar batzuk egitea aipatzen den deuseztasun-kausu espezifikoak dakartzan berezitasunei buruz, eta planteatutako kontsultaren eta Batzordearen esku-hartzearen oinarri den erabateko egintza deusezen ofiziozko berrikuspenaren araubide orokorrean sartzeari buruz.

SPKLren 41. artikulua araber, gai zehatz horri lotutako ofiziozko berrikuspena arautzen baitu:

1. Kontratuak prestatzeko egintzak eta kontratuak adjudikatzeko egintzak ofizioz berrikusi behar direnean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen V. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren araber egingo da hori.

2. Soil-soilik lege honen ondorioetarako, administrazio publikoak ez diren sektore publikoko erakundeen kontratuak prestatzeko egintzak eta adjudikatzeko egintzak hartuko dira administrazio-egintzat, bai eta lege honen 23. artikulua aipatzen dituen kontratu diruz lagunduak prestatzeko egintzak eta adjudikatzeko egintzak ere. Egintza horiek, ofizioz, aurreko apartatuan xedatutakoaren araber berrikusiko dira.

Bestalde, APELen 106.1 artikulua, Irungo Udalaren kontsultan ekarri baitute SPKLren 41. artikulua igorpena aintzat hartuta, honako hau xedatzen du:

Administrazio publikoek, noiznahi, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, deuseztat deklaratu dituzte, ofizioz, administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 47.1 artikuluan jasotako kasuetan.

Berrikusitako egintzaren izaera kontuan hartuta, SPKLren 39.2.e) artikuluan konfiguraturako deuseztasun-kasuak zuzenean eragiten dio kontratuaren formalizazioari, eta horrek berekin dakar adjudikaziodunak eta botere adjudikatzailleak sinatutako administrazio-dokumentua, kontratua gauzatzea eragiten duena, baliogabetzea, SPKLren 36.1 eta 153.1 artikuluekin bat etorritik.

Zalantzarik gabe, **erabateko deuseztasunaren kasu oso berezia da kontratuen arloan**, ofiziozko berrikuspenaren ikuspegitik; **izan ere, hori aztertzeak ez du barnean hartzen SPKLren 41. artikuluko definizioan jasotzen diren ofizioz berrikus daitezkeen administrazio-egintzetako bakar bat ere, hala nola kontratuak prestatzeko egintzak eta adjudikatzekeo egintzak.**

Ofizioz berrikus daitezkeen administrazio-jarduketan kategoriatan hori zabaldu egin daiteke, eta Auzitegi Gorenaren urriaren 22ko 3997/2021 Epaiak (2130/2020 errek.) hala egiten du kontratua betetzen dela egiaztatzeko egintzekin, batez ere obra-kontratuetan, emaitza-kontratu gisa, hala nola obra-harreraren egintza, goi-auzitegiak beren-beregi jorratzen duena.

Gogoratu behar da, **gainera, debeku izango litzaikeela adjudikazio-prozedurari buruzko edozein azterketa sakon egitea; izan ere, kontratazio-arloko errekurtsio bereziaren eskumen material eta organikoaren eremuaren mende dago**, SPKLren 44. artikulua eta hurrengoek arautua eta legitimatutako lizitatzailleak garaiz eta behar bezala aurkeztua.

Teoria klasikoaren arabera, ikusten da SPKLren mendeko kontratu publikoak formalizatzeko eta burutzeko administrazio-dokumentuaren izaera —aldebikoa— ez zaiola erraz egokitzen APEL-en aurreikusitako ofiziozko berrikuspenaren araubideak eskatzen duen administrazio-egintzen kategoriatan erkideari.

Horrez gain, **SPKLk xedatu du kontratazio-arloko errekurtsio berezia izango dela kontratu publikoei dagozkien erabateko deuseztasun-kausak alegatzeko ezarritako mekanismo bakarra**; izan ere, jada ezin dira argudiatu deuseztasun-auzi independente baten bidez, indargabetutako SPKLTBk ahalbidetzen zuen bezala.

Era berean, errekurtsio bereziaren erregulazioak 15 egun balioduneko epe orokorra ez den beste bat arautzen du –SPKLren 50. artikulua 2. paragrafoan–, SPKLren 39.2 artikulua c), d), e) eta f) apartatuetako deuseztasun-kausak alegatzen diren kasurako. Honako hauek dira:

- a) Hogeita hamar egun kontratuaren formalizazioa legean ezarritako moduan argitaratzen denetik kontaktzen hasita, argitaratze horren barnean direla lizitazio-deialdia legezko moduan argitaratu ez izana justifikatzeko arrazoiak, edo ukitutako hautagai edo lizitatzaillei beren hautagaitza edo proposamena baztertzeko arrazoiak eta adjudikazioa egiteko adjudikaziodunaren proposamenean erabakigarriak izan diren ezaugarriak jakinarazten zaizkienetik kontaktzen hasita.

b) Gainerako kasuetan, kontratua egiten denetik sei hilabete iragan baino lehen.

Bide espezifiko hori ezin da baztertu SPKLk jasotzen duen errekurtsoen sistema bereziaren koherentziaren ikuspegitik, eta erraz egokitzen zaie APELen 106.1 artikulua eskakizunei, aurreikusten baitu berrikusi beharreko egintzek administrazio-bidea agortuta izatea edo epe barruan errekurritu ez izana, kasu honetan bezala.

Guztiarekin ere, kontua da **SPKLk** kontratu publikoei eragiten dieten deuseztasun-kausak arautzen dituenean –bai 39.1 artikulukoak, bai 39.2 artikulukoak–, **APELen 106. artikulua eta hurrengo araubidera igortzen du oro har, lotura horri salbuespenik ezarri gabe.**

Beraz, **kontratuen alorreko deuseztasun-araubidearen legezko konfigurazioak berak onartzen du kontratazio-organoek legitimazioa izatea egintza deusezak ofizioz berrikus- teko eskatzeko**, APELen 47.1 artikuluko kausak zein SPKLren 39.2 artikuluko kausa espezi- fikoak erabilita.

Ez da ahaztu behar, ezta ere, kontratua formalizatzearen legezko ondorioa kontratuaren burutzea dela, eta, horrekin batera, ondorio juridikoak izatea, bereziki kontratuaren objektua egikaritzea eta agiriek eta kontratuak berak alderdiei esleitzen dizkieten eskubide eta betebe- harren sorta.

Kontratuaren ondorio horiek neutralizatu beharrak, jarritako errekurtsu bereziaren era- ginkortasuna bermatzeko, eta, horrekin batera, argudiatutako SPKLren 39.2.e) artikulua kausak eragingo lukeen balorazio mekanikoak, **nahikoa legitimazio ematen diote Irungo Udalarari ahalik eta lasterren baliogabetzeko kontratuaren formalizazioa**, APELen 106. ar- tikuluak ematen dizkion ahalmenen bidez, SPKLren 39.1 eta 41.1 artikuluekin lotuta.

138/2023 ABJI, par.: 29-47

II. Deuseztasun-arrazoien azterketa

A) Erabateko deuseztasuna, Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askata- sunak urratzen dituzten egintzena

Bestalde, errekurtsogileek uste dute 2018ko azaroaren 15eko ebazpena erabat deuseza dela, APELen 47.1.a) eta e) artikuluan oinarrituta, konstituzio-babesa izan dezaketen eskubide eta

askatuen funtsezko edukia urratzen duen egintza bat delako, eta legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita eman delako.

Konstituzio-jurisprudentzia jakin batean oinarrituta, uste dute ohiko bizilekuan jakinarazpenik ez egiteak defentsa-gabezia eragin diela, eta haien aurkako prozeduraren berri izateko eta defentsa-eskubidea baliatzeko aukera ukatu zaiela. Administrazioari egotz dakiokkeen akatsa da, ezaguna baitzuen errekurtsogileen ohiko helbidea, bertan egina baitzuen zehapen-espedientea hasi aurreko jarduketan jakinarazpena.

Gauzak horrela, **agerikoa da**, behin eta berriz aipatzen ari garen epaiak aitortzen duen bezala, **errekurtsogileek ez zutela zehapen-espedientearen berri izan enbargoa premia-mendu-bidean jakinarazi zieten arte. Eta Administrazioak, alde aurretik haien ohiko helbidea ezagutzen bazuen ere** —hala erakusten du aurretiazko jarduketak bertan jakinarazi izanak—, **jakinarazpenak ez zituen ohiko helbide horretan egin, BPEan baizik** —hori, lehen adierazitakoaren arabera, egitatezko akats gisa kalifikatu da epaian—, eta horrek defentsa-gabezia argia eragin die.

Hori dela eta, gaiaren funtsa aztertu behar da: ea errekurtsogileek argudiatutako erabateko deuseztasun-kausarik dagoen.

APELen 47.1.a) artikuluan jasotakoari dagokionez —zehapen-prozeduran defentsa-eskubidea urratzeari dagokionez—, kontuan izan behar dugu ezen, jurisprudentzia-doktrina errepikatua- ren arabera, **kontuan har dadin, defentsa-eskubidearen urraketak hainbestearinokoa izan behar du non defentsa-gabezia materiala ekarri behar duen**. Halakoetan, **ez da nahikoa izapide batzuk ez egitea; aitzitik, honako hauek haztatu beharko dira: interesdunari jakinarazpenik ez egiteak eragindako ondorioak, benetan eragin duen defentsa-gabezia eta, batez ere, egin ez den izapidea betez gero jatorrizko administrazio-egintzak izan zezakeen aldaketa**.

Bereziki, defentsa-gabeziaren kontsiderazio espezifikoari dagokionez, administrazio-prozeduren esparruan Konstituzioaren 24. artikulua- ren balizko arau-hauste bati lotuta, Konstituzio Auzitegiak azaroaren 29ko 210/1999 epaian zehaztu duenez, “Konstituzioaren arabera garrantzitsua den defentsa-gabezia da alderdietako bati, oro har, arau prozesal bat urratu ondoren defentsarako eskubidea eragozten zaion egoera, haren ahala ezabatuz edo mugatuz, bai eskubideak eta interesak alegatuzkoa, bai kontraesan-printzipioa egikaritzean kontrako jarrerak dialektikoki errefusatzekoa (denen erakusgarri, 89/1986 KAE, 2. oinarri juridikoa, edo 145/1990 KAE, 3. oinarri juridikoa), eta defentsa-gabezia horrek izaera materiala izan behar du, ez formala soilik, eta horrek esan nahi du ez dela nahikoa prozesuko akats edo arau-hauste bat egotea, baizik eta defentsarako eskubidearen benetako urritze eraginkorra izan behar duela (...)”.

Illo beretik, zehapen-prozedurari dagokionez, martxoaren 24ko 54/2003 KAEk honako hau dio: “beraz, ondorioztatu behar da: Administrazioak babes-eskatzailea pertsonalki epatu ez duenez zehapen-prozedura administratiboan, nahiz eta demandatzailearen benetako helbidetik eskuratu zezakeela jakin

edo, behintzat, horretarako aukera izan, ez duela eskatu dakioken arretaz jokatu, eta, ondorioz, defentsa-eskubidea egikaritu ezin izan denez zehapen-prozedura administratiboan, Konstituzioaren arabera garrantzitsua den defentsa-gabeziako egoera eragin diola errekurtsogileari”.

Edo irailaren 13ko 175/2007 KAEn deklaratu zuenez, kasu horietan “zehapena ezarri da kontrako prozedurarik errespetatu gabe, eta, beraz, defentsa-aukera oroz gabetu da demandatzailea administrazio-prozedura zehatzailea izapidetu bitartean (KAE: 291/2000, azaroaren 30ekoa, 12. OJ eta 54/2003, martxoaren 24koa, 4. OJ), eta auzitegi honek behin eta berriz emaniko doktrina da, ekainaren 8ko 18/1981 KAEz geroztik, EKren 24.2 artikulua oinarrian dauden funtsezko balioak ‘ez lirateke babestuta geratuko onartuko balitz Administrazioak herritarren eremu juridikoari eragin ahal izatea, zehapen bat ezarri inolako prozedurarik bete gabe eta, beraz, erabakia hartu aurretik defendatzeko aukerarik gabe’; izan ere, ordena konstituzionalaren bermeak eskatzen du akordioa prozedura baten bidez hartzea, non ustezko inkulpatuak aukera izango baitu egokitzat jotzen dituen frogak aurkezteko eta proposatzeko, bai eta eskubidez dagokiona alegatzeko ere” (3. OJ). Beraz, ondorioztatu behar da Administrazioak, babes-eskatzailea pertsonalki epatu ez duenez zehapen-prozedura administratiboan, nahiz eta haren helbidea jakin, eta kontraesaneko prozedurarik gabeko zehapen bat ezarri dionez, EKren 24.2 artikulua urratu duela”.

Hala, **kasu honetan ondoriozta daiteke Administrazioak ez zuela zehapen-prozeduraren jakinarazpenak egitean eska zitekeen arreta guztia baliatu**, jakinarazpenetako bat ere ez zelako saiatu errekurtsogileen ohiko helbidean, non ikuskapen-jarduketei zegozkien aurretiazko jarduketak egin baitziren.

Hau baieztatzera garamatza horrek: **inguruabar horrek defentsa-gabezia materiala eta eraginkorra eragin du, eta errekurtsogileak defentsa-eskubideaz gabetu zituen**. Errekurtsogileen aurka bideratzen ari zen zehapen-prozedura ez ezagutzea defentsa-gabezia materiala da, eta defentsa-eskubidea egikaritzea eragotzi zuen (EKren 24.2 artikulua arabera).

Azaldutakoagatik, indarrrik gabe utzi behar da 2018ko azaroaren 15eko Ebazpena, zehapen-espedita ebazten duena, APELen 47.1.a) artikuluan aurreikusitako erabateko deuseztasun-kausa gertatzen delako. **Horrek berekin dakar horren ondoren egin diren zehapen-jarduketan deuseztasuna**, premiamendu-bideari dagozkionak barne, ez baitute horiek emateko oinarri nahikorik, egintza deusez bat betearazi nahi baitute. Ildo horretatik, premiamendu-exekuziotik eratorritako zenbateko oro itzuli beharko zaie errekurtsogileei; bestela, bigarreneko diru-sarrera izango litzateke.

11/2023 ABJI, par.: 42-52

Egoki ematen du azpimarratzea legearen aurreko berdintasun-printzipioak biltzen duen berdintasunezko tratamenduaren exigentzia, uztailaren 12ko 144/1988 KAEk goiz adierazia:

Gure Konstituzioaren 14. artikulua aldarrikatzen duen legearen aurreko berdintasunak hau eskatzen du, esan bezala: guztiei berdin aplikatzea, eta inor ezin da inola ere salbuetsi arau hori betetzetik, baldintza pertsonalak kontuan hartuta, ez eta zorrotasun handiagoz tratatu ere, nortzuk diren kontuan hartuta. Baieztapen hori baliozkoa da, Legea aplikatzen duen organoa edozein dela ere (administratiboa edo judiziala), eta, beraz, zalantzarik gabe, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluko agindua urratuko luke organo judizial batek, baldin eta, lege-manu jakin bat zorrotasun handiagoz edo txikiagoz aplikatzeko, prozesuan alderdi direnen inguruabar pertsonal edo sozialak kontuan hartuko balitu, betiere, jakina, inguruabar horiek berez garrantzitsuak ez badira, epaileak aplikatu beharreko arauen arabera.

Tratamendu desberdinak funtzio publikoak betetzeari eragin diezaiokeen neurrian, arriskuan egon liteke funtzio publikora sartzeko berdintasun-printzipio espezifikoa, EKren 23.2 artikulua aitortua. Printzipio hori, denen erakusgarri 30/2008 KAE, 2008ko otsailaren 25ekoa: “funtzio publikora sartzeko unean ez ezik, funtzionario-harremanaren indarraldian ere jarduten du, eta, beraz, lanpostuak betetzeari buruzko egintzei aplikatzen zaie (KAE: 75/1983, 15/1988 eta 47/1989)”. Lanpostuen hornidurarekin nolabaiteko lotura duen kasu baten aurrean egongo ginateke; izan ere, konparazioaren terminoa lanpostu batzuk lanaldi osoz beteko dituzten irakasleen eta lanaldi murriztuan beteko dituzten beste batzuen artean planteatzen da, eta, azken buruan, lanpostu horiek benetan beteko dituzten artean.

Espedientean ez dute eztabaidatu LLL andrea lanaldi murriztua zuten eta abuztuaren 31 baino lehen lanaldi osora itzultzea eskatu zuten beste irakasle batzuen egoera berean dagoela, egun horretan amaitu baitzen ikasturtea. Hala eta guztiz ere, haiek baino tratu zorrotzagoa jaso zuen, ezin izan baitzuen eskatutako datan itzuli.

Beraz, **badago berrikusi nahi den ebazpenaren eta kontraste-kasuen arteko berdintasun bat, bai eta emaitza kaltegarri bat ere, beste irakasle batzuei aitortzen zaien eskaera bat ukatu zaiolako.**

Hala ere, egia da, halaber, **Administrazioan irizpidea aldatu delako gertatu dela hori, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko ekainaren 30eko Jarraibidea aplikaezintzat jo baita.** Hau da, deuseztatu edo indargabetu ez badute ere, ezin da jo zuzenbidearen iturritzat, horretarako gutxieneko baldintzak ez betetzeagatik —eskumenik ez duen organo batek emana delako, eta legez ezarritako prozedurari jarraitu ez zaiolako—.

Jakina, **erregelamendu-arau gisa aplikatzen jarraitu izan balitz, lanera itzultzeko eskubidea abuztuaren 31 baino lehen aitortu duten ondorengo egintzek erregelamenduen ba-**

nakako indargabetze-ezintasunaren printzipioa urratuko zuten.

Honaino iritsita, esan daiteke **tarte labur batez, ia aldi berean, aplikagarritzat eta aplikaezintzat jo dela jarraibide hori. egitezko oinarri bera zuten kasuak zirela eta, eta emaitzak guztiz desberdinak izan direla.**

Hasiera batean, **Administrazioak zuzen jokatu du, ez baitzuen zertan konponbide bera hartu konponbide hori akastuna dela uste badu.** Hain zuzen ere, **aurrekaria ez da loteslea**, baina arrazoitu egin behar dira, APELen 35.1.c) artikulua araber, aurreko jarduketan erabilitako irizpidearekin bat ez datozen egintzak, hala gertatu baita.

Hala ere, behin interpretazio-ildoak zuzenduta eta funtsean berdina den kasu bati buruzko ebazpenak emanda beste irtenbide batekin, hurrengo kasuei aplikatzen zaien aldaketa finkatu bat dela eta, **litekeena da berdintasun-printzipioa urratzea.**

Ebazpen-proposamenak argudiatzen du ez direla egoera berdinarik; izan ere, “hauek izan ziren zuzendaritza honek atzeraeraginezko izaerarekin onartu zituen murrizketa amaitzeko eta lanaldi osora itzultzeko uziak: interesdunek behar zen gora jotzeko errekurtsioa garaiz eta behar bezala jarri zietenak”.

Egia izanda ere berrikuspena, hasiera batean behintzat, gora jotzeko errekurtsio bat edo batzuk onetsita gertatu zela —ebazpen bakarra baino ez da aurkeztu—, eta administrazio-errekurtsio arrunt bat jartzea edo ez jartzea, printzipioz, baliagarria izan daitekeela kalte-tuak egoera juridiko berean ez daudela ondorioztatzeko; kasu honetan, **inguruabarrak kontuan hartuta, Batzorde honek ez dio behar besteko garrantzirik ematen tratu bereziaren baliozko justifikazio gisa.**

Egin-eginean ere, 2022ko ekainaren 8an bertan **jakinarazi zenez ukapen-ebazpena, eta LLL andreak gora jotzeko errekurtsioa jartzeko hilabeteko epea zuenez** (beraz, 2022ko uztailearen 8an amaitzen zen), uste izatekoa da **amaitu aurretik ere gertatu zela irizpide-aldaketa, eta horrek ondorio juridikoak izan zituela beste irakasle batzuen egoeran** —hala adierazten du, bederen, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2022ko ekainaren 22ko Ebazpenak—.

Erregelamenduen aurkako zeharkako errekurtsio halako bat baietsi zenez (APELen 112.3 artikulua), **jarraibidea ez aplikatzeaz gain, formalki baliogabetu behar zen, erga omnes ondorioekin, eta, era berean, deuseztatze horri beharrezko publikitatea eman behar zitzaion, zituen ondorioengatik.** Ez dago jasota hori gertatu zenik —interesdunaren araber, webgunetik desagertu zen, besterik gabe—.

Administrazioari jokabide aski zuhurra eskatu behar zitzaion alderdi horretan, berdintasun-printzipioaren aurkako jarduerak finkatuta gera ez zitezen.

Jakina, ez dirudi oso probable interesdunak kasu horietan ebatzi zutenaren berri izango zuekin, ez baitzen alderdi eta ez baitzitzazkion ebazpenak jakinarazi.

Publizitaterik ezak balioa kentzen dio amore emateari; izan ere, horrek eragotzi egin zion jakitea, errekurtsio arrunta jartzeko epearen barruan oraindik, jarraibidea baliogabetu ondoren, egintza inolako motibaziorik gabe geratzen zela, nahiz eta kargak ezartzen zituen egintza izan [APELen 35.1.a) artikulua].

Behin Administrazioak berak jarraibidea ordenamendu juridikotik kanporatuta, gainera, haren izaerari buruzko eztabaida oro ezabatuta geratzen zen, eta, beraz, ez zuen izango zertan sartu gai zinez konplexu bat aztertzeraz, lehen azaldu dugun bezala.

Berdin dio nola izendatu zuten, edukiak zuen axola, doktrina jurisprudenzial sendo batetik ondorioztatzen denez: aukera bat edo bestea —zerbitzu-agindua edo xedapen orokorra— hobesteko zailtasunak praktikan sortzen dira konponbidea “jarraibidearen” eduki zehatzaren mende dagoelako.

Espedientean jasota dagoen Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko uztailaren 20ko Komunikazioak erakusten duen bezala, **beste irakasle batzuen kasuan, eskubidea aitortzea ez zaio lotzen gora jotzeko errekurtsioa baiesteari**, dagokion ebazpena emanda, APELen 119. artikulua araberaz; **aitzitik**, interesdunaren eskariz berrikusteko mekanismo horri jarraitu gabe, “**ofizioz ematen da eskatutako lanaldi-murrizketaren amaiera**”, halako errebokazio batez, zeina APELen 109. artikuluan oinarritu zitekeen.

Baldin eta ofiziozko errebokazio hori bideragarria bazen gora jotzeko errekurtsioaren bide zorrotzetik kanpo, dagozkion formalitateak alde batera uzteko, **ez dugu ikusten zer eragozpen zegoen bide horretatik ondoriorik gabe uzteko** —bide hori aktibatzeke ez baita eskatzen interesdunak egintza errekurritzea— **berrikustea eskatu zaion ebazpena, eta interesdunari aitortzea lanaldi osora itzuliko zela eskatu zuenean, eta horrekin lortuko zen funtsean berdinak ziren kasuei zor zitzairen berdintasuna berrezartzea.**

Laburbilduta: Batzordearen ustez, kasuaren inguruabar bereziak kontuan hartuta, **muturreraino formalista da** —eta gehiegizko zama— **gora jotzeko errekurtsioa jarri beharra ezezko ebazpenaren aurka, errekurtsio hori ezinbesteko elementutzat jota beste irakasle batzuek zuten eskubidea emateko.**

Hori oinarri hartuta, bidezkoa da ofiziozko berrikuspenaren eskaera baiestea, urratu egin delako legearen aurreko berdintasun-printzipioa, EKren 14. artikulua aitortua, konstituzio-babesa izan dezakeena —EKren 161.1.b) artikulua, EKren 53.2 artikuluekin lotuta—, eta egintza APELen 47.1.a) artikuluan ezarritako erabateko deuseztasunaren kausan sartuta dagoelako.

159/2023 ABJI, par.: 80-101

B) Erabateko deuseztasuna, lege ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik emandako egintzena

Deuseztasun-deklarazioaren uzia formulatu da, adierazi den bezala, ulerturik APELen 47.1 artikulua e) letran aipatzen den arrazoia duela oinarri —lehen, 30/1992 Legearen 62.1.e) artikuluan—. Xedapen horren exegesia Batzordeak egin du, beste askoren artean, 71/2005, 83/2005, 26/2011 eta 139/2011 irizpenetan.

Batzordeak, denen erakusgarri, 116/2014 Irizpena eman du, eta auzi horretan sartu ditu prozedura oro alde batera utzita emandako egintzak —besterik gabe emandako egintza—, okerreko prozedura bati jarraituz eman direnak —Administrazioak, hain zuzen ere, lege ezarritako prozeduraren bidez jardun behar du—, bai eta prozeduraren funtsezko izapideak egin ez diren egintzak ere.

Azken kasuari dagokionez, doktrina jurisprudenzial batek baliatutako irizpidearen ildotik, Batzordeak deklaratu du **prozedura guztiz eta erabat alde batera uztea ezin dela identifikatu izapide ooren faltarekin**, deuseztasun-kausa hori *flatus vocis* bihurtzea ekarriko lukeelako. Adierazi behar dena da **prozedura halakotzat ezagutu ahal izateko ezinbestekoak diren izapideak egin ez direla** (Auzitegi Gorenaren epaiak: 1988ko otsailaren 15ekoa-Ar. 1142 eta 1990eko maiatzaren 23koa-Ar. 4729).

Halakotzat jo daitezke **ebazpena prestatu eta emateko nahitaez egin behar direnak, eta organo administratiboaren borondatea zuzen eta egoki eratzeko erabakigarriak direnak**.

Estatu Kontseiluak bere 840/2008 Irizpenean (aurreko irizpen batean ere aipatua) azaldu zituen azterketa hori egiteko parametroak:

30/1992 Legearen 62.1.e) artikuluko deuseztasun-arrazoi hori aplikatzeko behar diren

akats formalek funtsezko behar dute izan, hots, prozedura hainbestearino urratu izana non izapidetzean gertaturiko anomaliak bereziki larriak izan diren (irizpenak: 542/96, 1996ko martxoaren 7koa; 926/97, 1997ko apirilaren 3koa; 4.894/97, 1997ko urriaren 23koa, eta 6.175/97, 1998ko otsailaren 19koa). Beste irizpen batzuetan diotenez (ikus 2.301/98 zenbakikoa, 1998ko irailaren 10ekoa), horretarako “beharrezkoa da zorrotz ikustea prozedura argi eta garbi urratu dela (...), eta behar bezala justifikatu behar da funtsezko anomaliaren bat gertatu dela haren tramitazioan”. Antzeko zerbait diote Auzitegi Gorenaren 1993ko uztailaren 12ko epaiak (RJ 1993/5657) eta beste irizpen batzuek ere, hau exijitzen baitute: “funtsezko omisioak, garrantzizkoak, prozeduraren funtza osatzen duten prozedura-betekizunik ezaren parekoak” (906/96 zenbakiko irizpena, 1996ko martxoaren 28koa), edo prozeduraren “funtsezko mugarren” omisioan (1.532/92 zenbakiko irizpena, 1993ko martxoaren 4koa; ikusi, orobat, 45.853 zenbakikoa, 1983ko azaroaren 17koa).

Irizpen horiek aipatzen duten larritasuna edo funtsezkotasuna kalifikatzeko, **hau eskatzen du Estatu Kontseiluak: “iter administratiboan behar den lotura formalik ez izatea** eman nahi den egintza burutzeko, eta prozedurako gabedia edo huts horiek errotiko akatsa besarkatzea, **azken egintza administratiboari konponbiderik gabeko ondorioa ekarriko liokeena**” (2.756/96 zenbakiko irizpena, 1996ko uztailaren 25ekoa). Halako “lotura formalak” honetara mugatzen dira: “ebazpen bat aztertu, prestatu eta hartzeko garatu behar diren prozedura-izapideen gutxieneko muin zatiezina” (520/92 Irizpena, 1992ko ekainaren 4koa), haiek saihestuz gero, “onarpen-egintza horren sustrai materiala osatzen duen borondate administratiboaren eraketa irregularra, behar ez bezalakoa”, gertatuko litzatekeelako (43.816 Irizpena, 1981eko azaroaren 19koa).

Doktrina hori dagokigun kasura ekarrita, **hainbat akats ikusten ditu eskatzaileak 2016ko urtarrilaren 12ko Tokiko Gobernu Batzarraren Erabakian (2016ko LPZ aldatzekoa)**: arrazoituta ez egotea, negoziazio kolektiborik ez izatea, lanpostuak ez baloratzea, APELen 82. artikuluan xedatutako entzunaldi-izapidea ez egitea, eta, azkenik, idazkariak nahitaezko txostenik ez egitea. Haien ordenari jarraituz aztertuko ditugu, baina amaierarako utziko dugu bigarrenaren gaineko analisia, hura baita kasurik arazotsuena.

Arrazoitzeari dagokionez, nahiz eta eskakizun hori APELen 35.1.i) artikularen kasuan sar daitekeen, diskrezio-ahalak erabiliz ematen diren egintzak —eta, zalantzarik gabe, **LPZ bat Administrazioaren autoantolamendu-ahal diskrezionalaren adierazpena da**— deuseztasuna justifika lezakeenik baztertzeko nahikoa da egiaztatzea **ez garela ari prozeduraren izapide batez, egintzaren eduki beharrezkoaz baizik**.

Nolanahi ere, **jurisprudentziak in aliunde motibazioa onetsi du**, denen erakusgarri, Auzitegi Gorenaren 2012ko martxoaren 5eko Epaiak (kas.: 6515/2010): “Jakina denez, **litekeena da arrazoiketa ez etortzea** administrazio-egintzan bertan, baizik eta **aurreko txosten edo irizpenetan**, eta argudio-oinarri gisa balio dute; izan ere, ‘...jurisprudentziak, administrazio-egintzen motibazioa aztertzean, ez

ditu bakartu, ezpada harremanetan jarri espedienteak osatzen dituen multzoarekin, horiek unitate organikotzat jo baititu, batez ere txostenak edo irizpenak onartzen diren kasuetan (motibazioa: 'in aliunde'). (Auzitegi Gorenaren 78ko martxoaren 11ko, 88ko otsailaren 16ko eta 91ko uztailaren 2ko epaiak).

Kasu honetan, mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko lanpostuei eragiten dien **aldaketa-
ren arrazoiak zerbitzu-arduradunak eta ustiapen-arduradunak emandako txostenetan
azaltzen dira**, eta Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programan zehatz-mehatz jasotzen,
zeinean deskribatzen baitira lanpostu bakoitzari dagozkion eginkizunak.

Lanpostuak ez balioestea 861/1986 Errege Dekretuan xedatutakoarekin lotu behar da
(861/1986 Errege Dekretua, apirilaren 25ekoa, Toki Administrazioako funtzionarioen ordainsa-
rien araubidea ezartzen duena).

861/1986 Errege Dekretuaren 4. artikulua berriazko osagarriari buruzkoa da, eta hauxe adie-
razten du lehen hiru apartatuetan:

1. **Berriazko osagarriaren helburua lanpostu batzuen baldintza bereziak ordaint-
zea da, zailtasun tekniko, dedikazio, bateraezintasun, erantzukizun, arriskuga-
rritasun edo nekagarritasun berezia kontuan hartuta.** Ezin izango zaio, inola ere,
berriazko osagarri bat baino gehiago esleitu lanpostu bakoitzari, baina, osagarri hori
finkatzerakoan, aipatutako baldintza partikular horietako bi edo gehiago hartu ahal izan-
go dira kontuan, lanposturen batean batera gertatzen badira.

2. Berriazko osagarria ezarri edo aldatu aurretik, **Udalbatzak lanpostuaren balora-
zioa egin beharko du**, artikulua honetako 1. apartatuan adierazitako inguruabarrak aint-
zat hartuta.

3. Balorazioa egin ondoren, Udalbatzak, lanpostu-zerrenda onestean, berriazko osa-
garria dagokien lanpostuak zehaztuko ditu, eta osagarrien zenbatekoa adieraziko du.

Zalantzarik gabe, lanpostuaren balorazioa beharrezkoa da, 1. apartatuan zerrendatutako fak-
toreak kontuan hartuta, berriazko osagarria ezartzeko edo aldatzeko.

Espedientea aztertu ondoren, **ez dago jasota balorazio hori egin denik**, Ingurumen Zerbit-
zuko arduradunaren eta Ingurumen Zerbitzuko ustiapen-arduradunaren lanpostuetako bera-
riazko **osagarria finkatzeko eskuliburu bat edo beste tresna bat aplikatuta.**

Hala ere, ohartarazi behar da **LPZ onesten duen Gobernu Batzarraren erabakiak ez duela
ezartzen ex novo berriazko osagarria; pentsatu behar da lanpostuak iraganean balo-**

ratu zirela, eta ez du aldatzen inplikaturako faktoreen balorazio berri baten ondorioz. **Beraz, ezin da eskatu balorazio hori.**

Interesdunen parte-hartzeari dagokionez, LPZ hartzaile askotarikoak edo zehaztuga-beak dituen administrazio-egintza bat denez, ez da beharrezkoa entzunaldi-izapiderik ematea.

Hala ere, **aldatutako lanpostuen titularren kasurako eska daiteke.**

Oro har prozeduraren funtsezko izapidea bada ere, hura ez egiteak ez dakar, “beti eta automatikoki”, kausa horren ondoriozko deuseztasuna. Hala jurisprudentziak (Auzitegi Gorenaren 1991ko urriaren 17ko Epaia, edo 2004ko urtarrilaren 27koa) nola Estatu Kontseiluak diote **kasu bakoitzean aztertu behar dela omisio horrek zer ondorio ekarri dion interesdunari,** benetako defentsa-gabeziarik eragin ote dion, arreta berezia eginda alde batera utzitako izapidea gauzatu izanez gero hasierako administrazio-egintzak izan zezakeen aldaketari (irizpen hauek, besteak beste: 6.175/97, 1998ko otsailaren 19koa; 1/98, 1998ko maiatzaren 21ekoa; 1.949/2000, 2.132/2000 eta 612/2001). Inguruabar jakin batzuetan, **espedientea ondo aztertuta ondorioztatzen bada entzunaldiaren izapidea jan izanak ez diela defentsa-gabeziarik ekarri interesdunari, litekeena da omisio horrek erabateko deuseztasunik ez ekartzea** (ikus Estatu Kontseiluaren 612/2001 zenbakiko irizpena).

Kasu honetan, argi dago titular horiek ez dutela eragozpenik jarri balizko gabezia horri buruz, eta horren arrazoia izan daiteke, hain zuzen ere, haiek bultzatu zutela aldaketa txostenekin, eta garbi dago, orobat, APELen 82.4 artikulua zer adierazten duen, alegia, entzunaldiaren izapidea alde batera utzi ahal izango dela prozeduran beste egitate edo alegazio eta froga batzuk agertzen ez direnean eta ebazpenean kontuan hartzen ez direnean, interesdunak argudiatutakoak izan ezik.

Beste alde batetik, **LPZk mankomunitateko langile guztiengan izan zezakeen eragina kontuan hartuta, ikusi genuen langile horiei aukera eman zitzaiela agertzeko eta alegazioak aurkezteko, jendaurrean jartzeko epea irekitzea erabaki baitzen.**

Mankomunitateko presidenteak adierazi bezala (2016ko otsailaren 8ko GAO, 24. zk.), 2016ko LPZ ez da behin betiko onetsi, “harik eta jendaurreko informazioaren epea inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu gabe amaitu arte, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Hala, Debagoieneko Mankomunitateko 2016. urteko lanpostu-zerrenda argitaratu da, zeina Gobernu Batzarrak onetsi baitzuen 2016ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran”.

Finean, ezin dugu ondorioztatu prozedura nabarmen urratu denik arrazoi horregatik.

Idazkariak txostenik egin ez izanak ordenamendu juridikoa urratzen duela egiaztatzeko, Es-

taturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko **128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.6 artikuluan** xedatutakoa aipatzen da.

Manu horren arabera, nahitaezko lege-aholkularitzan datzan Idazkaritzaren funtzio publikoak barnean hartzen du alde zurreko txostena ematea “lanpostuen zerrendak eta langileen katalogoak onesten eta aldatzen direnean”.

Hala ere, proposamen-txostenean zuzen azaldu den bezala, **errege-dekretu hura artean indarrean ez zegoenean onetsi zen 2016ko LPZ —garai hartan, irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretua zegoen indarrean**, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena—, eta berriak indargabetu egiten du aurrekoa, xedapen indargabetzaile bakarraren bidez.

1174/1987 Errege Dekretuak ez du xedatzen, lanpostu-zerrenden kasuan, idazkariak alde zurretik txostena egin behar duenik.

Bestalde, toki-erakundeen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoaren erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak haxe xedatzen du 173.1 artikuluan:

1. Idazkariak eta, kasuak hala eskatzen duenean, kontu-hartzaileak edo horien legezko ordezkoez txostena egin beharko dute alde zurretik, erabaki hauek hartzeko:

a) Korporazioko presidenteak agintzen duenean, nahiz gaia eztabaidatzeko bilkura egin baino nahiko lehenago bertako kideen heren batek hala eskatzen duenean.

b) Eztabaidatutako puntuak gehiengo berezia eskatzen duten gaiei buruzkoak direnean.

2. Ematen diren txosten horietan, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria azaldu, eta proiektatutako erabakiak harekin bat datozen zehaztu behar da”.

LPZ onartzeko ez denez behar gehiengo berezirik, soila baizik, salbu eta Gobernu Bazarreko presidenteak hala erabakitzen badu edo kideen heren batek hala eskatzen badu, ez da nahitaezkoa idazkariaren alde zurreko txostena.

Azkenerako utzi dugu gai hau: **2016ko LPZ aldaketari** salatu dioten **negoziaziorik ezari buruzkoa**.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren** (EPOE) 37.1 artikulua ezartzen du zer gai negoziatu behar diren

“Administrazio publikoetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik”.

Bestalde, EPOEren 37.2.a) artikulua negoziazioaren nahitaezkotasunetik kanpo uzten ditu administrazio publikoen erabakiak, beren antolaketa-ahalei eragiten dietenak, baina salbuespenaren aurkako bat gehitzen du; izan ere, administrazio publikoek beren antolamendu-ahalei eragiten dieten erabakien ondorioek aurreko apartatuan aipatutako funtzionario publikoen lan-baldintzetan eragina dutenean, estatutu hartan aipatzen diren erakunde sindikalekin negoziatuko dira baldintza horiek.

Era berean, EPOEren 39. artikulua negoziazio hori gauzatzeko bide instituzionala ezartzen du, eta bereizi egiten ditu Administrazio Publikoetako Negoziazio Mahai Orokorra (1. apartatua) eta Administrazio Publiko bakoitzeko Mahai Orokorra (3. apartatua), bertako funtzionario, estatutupeko eta langile lan-kontratudunen gai eta lan-baldintza komun guztiak negoziatzeko.

EPOEren 39.3 artikuluan gaineratzen duenez, administrazio publikoetako negoziazio-mahai orokorrean erakunde sindikalek izan beharreko ordezkaritza dela-eta goragoko zenbakian ezarritako irizpideak aplikatu behar dira mahai orokor horietan, betiere funtzionarioak eta langile lan-kontratudunak ordezkatzeko organoetan parte hartzeko hauteskundeetan kasuan-kasuan izandako emaitzak aintzakotzat hartuta, dagokion ordezkaritza-eremuan.

Horretaz gainera, mahai orokor horietan partaide izango dira administrazio publikoetako negoziazio-mahai orokorrean parte hartzen duten erakunde sindikalak ere, baldin eta, gutxienez, dena delako mahai horri dagokion eremuan funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak ordezkatzeko kideen ehuneko 10 lortu badute.

Gaur egun negoziazio kolektiboari buruz indarrean dagoen araubideari dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2010eko abenduaren 2ko Epaiak (kas.: 4778/2009) ordurako adierazi zuen: “(...) erregulazio berriak **eskatzen du**, 9/87 Legean xedatutakoaren kontrara, **beren antolaketa-ahalei eragiten dieten administrazioen erabakiak —besteak beste, lanpostu-zerrendak onestea langileen antolamendua gauzatzeko legez ezarritako tresna tekniko gisa— sindikatuarekin negoziatu behar direla, funtzionarioen lan-baldintzetan eragiten duten heinean**”. Eta hauxe ondorioztatu zuen: “Hura ez egotea 30/92 Legearen 62.1.e) artikuluan sar daitekeen funtsezko prozedura-izapide bat ez egitearen baliokidetzat hartu behar da” —orain APELen 47.1.e) artikulua—.

Beraz, **guztiz finkatuta dago LPZren aldaketaren aurreko negoziazio kolektiboa egin behar dela dioen doktrina, LPZk sindikatuarekin dituen ondorioak aztertu ahal izateko eta administrazio-antolamendu berrian planteatzen diren aukerak azaldu ahal izateko.**

Aztertzen ari garen kasuan, Debagoieneko Mankomunitateko Negoziazio Mahai Orokorrean negoziatu behar zen 2016. urteko LPZren aldaketa, Ingurumen Zerbitzuko arduradunaren eta Ingurumen Zerbitzuko ustiapen-arduradunaren lanpostuen titulazioa eguneratzea zekarrena,

bai eta azken horren hizkuntza-eskakizuna ere, eta, beraz, lanpostu horietarako sarbideari eragiten ziona.

Premisa horrekin, lehenik eta behin, **ezin dugu ahaztu sindikatuak parte hartu zutela, Langileen Batzordeak 2015eko abenduaren 10ean onetsi baitzuen. Batzorde horretan mankomunitateko Gobernu Batzarra eta negoziatzeko legitimazioa duten sindikatuetako ordezkariak daude ordezkaturik**, mankomunitateko funtzionarioen eta langile lan-kontratadunen ordezkari-organotarako hauteskundeetan lortutako emaitzak kontuan hartuta.

Bigarrenik, **partaidetza hori mankomunitateko Gobernu Batzarrak LPZ onetsi baino lehen egin zen**, eta, beraz, egoki iritzitako gogoetak adierazi eta azaldu ahal izan zituzten, eta horrek gardentasunak eta administrazio onak ezaugarritzen duten erabakia bihurtzen du.

Hirugarrenik, aldaketaren xedea mugatua zen benetan, eta, beraz, negoziazioa ez zen gehiegi luzatu behar, batez ere gai teknikoei eragiten zuelako, hala nola titulazio akademikoa —profesional horien prestakuntza-beharrei erantzun behar die—, edo alde aurretik aplikatutako esleipen-irizpideei jarraitzea eskatzen zuelako, —hizkuntza-eskakizunaren kasuan, lanpostuaren funtzioak eta udalerrri mankomunitatuen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta—.

Eta are erabakigarriagoa dena, **sindikatu batek ere ez zuen inolako eragozpenik jarri eta ez zuen planteatu bestelako aukerarik**; horiek aurkeztutako proposamena onartzera mugatu ziren, eta, jakina, ez dute LPZren aurka egin, beste eduki batekin adosteko aukera zapuztu zaielako.

Laburbilduz, ezin da irmotasunez baieztatu erabateko deuseztasun-akatsa dagoenik, ez baita inolako urraketarik sortu negoziazio kolektiboaren bidez lan-baldintzak zehazteko solaskide gisa parte hartzeko legitimazioa duten erakunde sindikalei aitortutako eskubidearen funtsezko edukian, eta erakunde sindikalak dira eskubide horren titularrak.

193/2023 ABJI, par.: 91-132

C) Erabateko deuseztasuna, ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adierazi nahiz presuntziozkoena, baldin eta egintza horiek ahalmen edo eskubideak eskuratzeko bide ematen badiete horretarako funtsezko betekizunak ez dituztenei

Are zailagoa da argitzea ea posible ote zen barne-sustapen horizontala egitea (azpitalde profesional bereko kidego edo eskaletara sartzea), baina gurutzatua, Administra-

zio Bereziko Eskalako Zerbitzu Berezien Azpieskalatik, hor sartzen baita Udaltzaingoa (TATB, 172.2 artikulua), Administrazio Orokorreko Eskalako Administrazioen Azpieskalara [TATB, 1769.1.c) artikulua], biak baitaude sailkatuta C taldean, C1 azpitaldean, Batxilergo edo Teknikari tituluekin.

Azterketa horri ekingo diogu, interesdunaren alegazioak ikusita, baina aurretik ohartarazi behar dugu ofiziozko berrikuspen-espedito honen xedea ez dela GGG jauna barne-sustapeneko txandako izangai onartzen duen egintza, ezta ondorengo izendapen-egintza ere, hautatze-prozesua gainditu ondorengoa.

Udaltzainen sailkapena Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean (EAEPL) ezartzen da, 118. artikuluan, beste idazketa bat eman baitio Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketaren ekainaren 27ko 7/2019 Legeak, artikulua bakarrean (hirurogeita lau), bai eta azken lege horren bosgarren xedapen iragankorrean ere. Gaur egun, hemen dago aurreikusita: uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bateginean (EAEPLTB), 35. artikuluan eta laugarren xedapen iragankorrean.

Zalantzarik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legeak Udaltzaingoareneko eskaltetako hautaketari eta sarrerari aplikatu beharreko arauak jasotzen ditu, eta, zehazki, barne-sustapenaren bidezkoak.

Eztabaidatzen ari garena da ea polizia-kidegoen barruan bakarrik egin daitekeen barne-sustapena, eta, kasu horretan, Tolosako biztanle-kopurua kontuan hartuta, agenteek agente lehena, ofiziala eta ofizialordea kategorietara soilik jo lezakete, halakorik balego, C taldean, C1 azpitaldean sailkatuta.

Agente horiei lanbidean aurrera egiteko aukerak emate aldera, **udal-organoak kontuan hartu du barne-sustapen bertikala edo horizontala ere egin daitekeela Administrazio Orokorreko Eskalako Azpieskaletan sartzeko.**

TAOLen azken xedapenetako hirugarrenak aurreikusi duenez, udaltzain eta suhiltzaileen kidegoetako langileek berriazko estatutua izango dute, erregelamendu bidez onartua, eta lehenengoei dagokienez, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen Legea hartuko da kontuan. TATBren laugarren eta bosgarren xedapenek arau iragankorrak ezarri dituzte, estatutu horiek onartu artekoak. EFPLren 11. xedapen gehigarriak eta bosgarren xedapen iragankorrak hona jo dute: Eusko Legebiltzarraren lege bidez barne-sustapenari buruz ezarriko diren arauetara, funtzio polizialaren egiturarekin eta beharrekin bat etorritik.

FPBNLk langile horiei buruz ezer esan ez bazuen ere, abenduaren 30eko 66/1997 Legearen 50.2 artikulua gehitutako 24. xedapen gehigarriak honako hau baino ez du adierazten: udaltzaingoko, suteak itzaltzeko zerbitzuetako eta landa-agentetako langileak, autonomia-erkide-

goetakoak eta toki-korporazioetakoak, salbuetsita daudela lege honen 33. artikuluan aurreikusitako zerbitzu aktiboko egoeran borondatez egoteko aukeratik.

Ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuak, Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarriko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituenak, seigarren xedapen gehigarrian dakar Udaltzaingoaren eta Suhiltzaileen kidegoetako funtzionarioen hautaketa errege-dekretu horretan ezarritakoaren arabera egingo dela, haien arau espezifikoaren aurka ez doan heinean.

Berrikitan, EPOETBren 3.2 artikulua xedatu duenez, Udaltzaingoko arautzerakoan ere estatutu hori eta autonomia-erkidegoetako legeria dira oinarri, salbuespen izanik Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoan (martxoaren 13ko 2/1986) haien zati ezarritakoa. Dirudienez, bestelako ikuspegia ematen du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 4.2 artikulua, lege hori udaltzainei ere aplikatuko zaie "Euskal Autonomia Erkidegoko polizia buruzko legeriak hala ezartzen duenean", hargatik eragotzi gabe lege horren izaera ordeztaila, hala egokitzen denean.

Laburbilduz, zenbait elementu bide ematen dute Udaltzaingoko kidegoen berezitasunari eusteko, haien barne-sustapena haien estatutu espezifikoaren arauetan baitago erregulatuta. Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoko funtzionarioen kasuan, EAEPLTBn sartuta dago estatutu hori.

Baina ezin dugu esan erabat debekatuta dagoenik tokiko korporazioen eremuko barne-sustapen gurutzatua. Azken batean, toki-funtzionarioen barne-sustapen horizontala, azpitalde bereko beste kidego edo eskala batera sartzeko, zabal definituta dago funtzionario horiei aplikatu beharreko arau komunetan, eta funtzionario horien parte dira Zerbitzu Berezien azpieskalan sartutako toki-poliziako funtzionarioak.

Batzordearen ustez, kasu bakoitzaren berezitasunak gorabehera, Auzitegi Gorenaren 2015eko uztailaren 6ko Epaia (RJ 2015/4114) aipa daiteke, kontrako kasua baitzegoen; izan ere, barne-sustapenaren bitartez parte hartu zuten Administrazio Laguntzaileen Kidegoko funtzionarioek, garraio sanitarioko laguntzaileen eskalakoek, suhiltzaile espezialisten plazetarako bidean:

Egin-eginean ere, 1/2006 Legegintzako Dekretuaren 17.1 artikulua ez du barne-sustapena aurreikusi Madrilgo Erkidegoko suhiltzaileen kidegoan suhiltzaile espezialistaren kategoriatik sartzeko bide gisa, salbu eta lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitako kasuan, eta txanda horretan izendatutako izangaiak ez dira hor sartzen. Lege-indarra duten manu horiek barne-sustapena mugatzen dute, suhiltzaile espezialistaren kategoriarako sartzeko modu gisa, iraungitzearen ondoren suhiltzaile kategorian duten funtzionarioetara. Kasu horretatik kanpo, hauentzat bakarrik aurreikusten da barne-sustapena: Madrilgo Erkidegoko Suhiltzaileen Kidegokoak izan eta bide horretatik Eskala Teknikora edo Aginte Eskalara edo Eskala Betearazle edo Operatiboko beste kategorian batzuetara sartu nahi dutenentzat. Suhiltzaile espezialistaren kidegoan sartzeko, ordea, lehiaketa- oposizioa da prozedura, deialdi librean. Beraz, ez datoz

bat 2010eko uztailaren 30eko Aginduaren 2.2 oinarria (C2 taldeko kidego edo eskaletako funtzionarioei barne-sustapenaren bidez irekitzen die suhiltzaile espezialisten kidego horretarako sarbidea) eta Madrilgo Erkidegoak berak legez ezarritako mugaketa.

Hala eta guztiz ere, inguruabar hori ez da nahikoa kasu honetan 30/1992 Legearen 62. artikuluan jasotako erabateko deuseztasun-kasuren bat dagoela erabakitzeke. Izan ere, ez dira gertatzen manu horren 1. apartatuan jasotako inguruabarrak, eta erregulazio autonomiko horrek ez du berariaz debekatzen barne-sustapenaren bidea 2010eko uztailaren 30eko Aginduak xedatutako ildotik erabiltzea, eta, beraz, 2. apartatua ere ezin da argudiatu, alde batera utzita, printzipioz, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatututik haren justifikazioa arrazoitu daiteke-elakoa. Gogoeta horiek alde batera uzten dute, beraz, honelako kasu baten aurrean izatea: deialdiaren oinarriak garaiz aurkaratu ez izanak ez eragozteko oinarri horiei aurka egitea haien aplikazio-egintzak direla eta.

Ezesteko konklusio berera eraman behar gaitu kasazio-arrazoiaren bigarren zatiak; izan ere, planteatuta dagoen modua irakurtze hutsak erakusten duenez, eskatzen digutena ez da erabateko deuseztasunerako kausa bat dagoela egiaztatzea, baizik eta kidego eta eskala desberdinen funtzioen egokitasunari buruzko judizio bat, konbinatuta, alde batetik, errekurtsogileak azpimarratzen duen homogeneotasun funtzionalaren berariazko exijentziarik jasotzen ez duten lege- eta erregelamendu-xedapenen alegazioa, eta, bestetik, Enplegu Publikoaren Eskaintza eta 364/1995 Errege Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarria, zeinak ez baitu zehazki jasotzen hemen gertatu zena, eta ez baitu eskatzen homogeneotasunik, baizik eta jarduera-arloaren edo eremu funtzionalaren kointzidentzia soilik, halakorik dagoenean.

Suhiltzaileen Kidegoaren estatutua arautzen duten xedapen espezifikoak aplikatu behar dira, baina barne-sustapen gurutzatua irekiz gero deialdian, ez baitago berariaz debekatuta erregulazio autonomikoan, eta EPOETBren aurkakoa ere ez baita, inguruabar hori ez da nahikoa erabateko deuseztasun-kasu bat dagoela jotzeko.

Funtsezko betekizunen oinarritik, **gainera, ez da ikusten GGG jauna onartzeko eta ondoren izendatzeko egintzak iraun izanak urratze larririk dakarkionik interes publikoari, zeina kontuan hartu behar baita Administrazioaren beharrak asetzeko; izan ere, pertsona hori hautatuta, eskatutako titulazioa egiaztatuta eta oposizio-faseko nahitaezko proba baztertzailea gaindituta, ez dira arretarik gabe geratuko nagusiki burokratikoak diren eta bete ditzakeen lanpostuak, eta ez dugu eragozpenik ikusten administrazio-lanak egin ditzan, normalean izapide eta lankidetzakoak, administrarientzat gordetzen direnak.**

Aski izan bedi, azkenik, hau gaineratzea: **polizia- eta administrazio-zereginen arteko interkonexioak esplikatzen duela polizia-funtzionarioen bigarren jardueraren egoera.**

Azken finean, inguruabar guztiak aztertuta, Batzordeak uste du **ez dela bidezkoa egintzak berrikustea.**

Kasu honetan, argi dago funtzionario publiko ororen jokabideak inpartzialtasun objektiboa izan behar duela gidari, eta horrek interes pertsonala duten gaietan esku hartzea eragozten diola. Eta halako egoerak gertatzen direnean, pertsonak ez du esku hartuko, eta berehala eta behin betiko aldentuko da gaiaren arduraz.

Hala ere, kasu honetan bezala, **abstentzio-betebeharra bete ez den kasuetan**, ez-betetzeak, balizko diziplina-erantzukizunaz gain, jarduketaren ondoriozko egintzaren baliogabetasuna ekar dezake. Hala ere, SPAJLren 23.4 artikulua dioenez, "Administrazio publikoetako agintari edo langileek abstenitzeko arrazoiren bat izanik jarduteak ez du nahitaez ekarriko, kasu guztietan, parte hartu duten egintzak baliogabeak izatea".

Halako kasuetan, Auzitegi Gorenaren arabera, esku-hartzearen garrantziak gidatuko gaitu egintzaren balizko deuseztagarritasunaren aferan. Auzitegi Gorenaren 2016ko irailaren 28ko Epaiak (AGE) dioenez:

bidegabeko esku-hartzeak eragin erabakigarriak izan ez badu, administrazio-egintzak kontserbatzeko printzipioa aplikatuko da, bai eta 30/1992 Legearen 57.1 artikulua haiei ematen dien baliozkotasun-ustea ere. Egin-eginean ere, jurisprudentziak modu baketsuan eta errepikatuan adierazi du abstentzio-betebeharra urratzeak ez duela esan nahi ezinbestean prozedura deuseza edo deuseztagarria denik, funtsezko garrantzia izan ez badu (AGE: 1985eko abenduaren 6koa, 1990eko maiatzaren 4koa, 1992ko urtarrilaren 31koa eta 1994ko maiatzaren 18koa, besteak beste).

Hau da, **funtzionarioak espedientean izandako parte-hartzea erabakigarria izan bada egintzaren emaitzan, deusezetasun-akats bat dagoela ondorioztatu beharko dugu. Hala ere, parte-hartzeak emaitza aldatzen ez badu, ez litzateke akats baliogabetzailea izango, eta, beraz, egintzei eutsi beharko litzaieke.**

Kasu honetan, izapidegilea bera aritu zen instruktore aukeratu zuten hautaketa-prozeduran, eta, beraz, zuzeneko interes pertsonala zuen emaitzan; hortaz, badirudi izapide guztiak deusez deklaratzera behartuko gintuzkeela horrek, 41.1.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta espedientea hasierara itzularaztea.

Hala ere, ezin da baztertu, **prozedura berriz izapidetuta, JJJ jauna izatea lanposturako hautagai egokia; izan ere**, espedientean dauden txostenek **ez dute behar bezala argitzen, lan-poltsak egon arren, zer prozedura jarraitu behar zen kasu honetan bitarteko langileak izendatzeko**, ez eta emaitza ere.

Era berean, ez dago argi JJJ jauna ordezkapen-zerrendetan edo beste batzuetan zegoen, edo lanpostua jarduneko bitarteko funtzionarioei eskaini behar zitzaion. **Begien bistakoa den gauza bakarra da izendatzeko moduan zegoela nolabait, eta hori gertatu zen, eta horrek erabat ezabatuko luke egintzaren erabateko deusezetasuna**, 47.1.f) artikulua bidetik. Hala egokituz gero, APELen 48. artikuluan aurreikusitako deuseztagarritasun-kausaren baten

mende egon zitekeen.

Aurrekoa gorabehera, kasu honetan, deuseztasun-arrazoi bat edo bestea dagoen ala ez kontuan hartzeaz harago, **planteatzen den benetako gaia da ea ofiziozko berrikuspen-espediente bat izapidetu behar den indarrean ez dagoen izendapen-egintza bat deuseztatze-ko. Egintza hori ondorerik gabe geratu zen indarrean sartu eta gutxira, eta denbora-tarte labur batean lanpostuan jarduteari lotutako ondoreak baino ez ditu sortu.**

Hau da, kontua ez da lanpostua benetan betetzen ari den bitarteko funtzionario bat izendatzeko egintza bat errebokatzea, ez eta hari egindako aitorten bat, ondorerik gabe utzi behar dena, kasu horietan ofiziozko berrikuspenaren institutua beharrezko tresna baita indarrean dauden eta ondore juridikoak dituzten egintzak ondorerik gabe uzteko. Baizik eta indarrean ez dagoen egintza bat ondorerik gabe uztea.

Hartara, **Batzorde honek uste du ez dela berrikuspenaren mende jarri behar hemen planteatu dugunaren moduko izendapen-egintza bat, baldin eta interesduna jada ez badago izendatu zuten postuan.** Egintza hori ez dago indarrean, indarra galdu du, eta une honetan ez du ondorio ekonomiko edo administratiborik. **Beraz, ez da ikusten errebokatze beharrik.**

Badirudi **berrikuspen honen helburua dela deuseztasun-egintza akastunak izan dituen ondoreak ezabatzea.** Ildo horretatik, idazkaritzako teknikariaren txostenak adierazten duen bezala, “erabateko deuseztasunak *ex tunc* ondorioak dituenez”, berrikusi egin beharko litzateke **langileari** 2023ko apirilaren 13tik hil bereko 20ra arte (borondatezko ukoa onartu zioten egun horretan) **ordaindutako zenbatekoak erreklamatzeko** akzioa, zenbatekook bidegabeki ordaindutat jo daitezkeelako.

Hala ere, baieztapen horiek alde batera uzten dute arlo horretako jurisprudentzia errepikatua, legez kanpoko izendapenetan edo, are, izendapenik gabekoetan erreklamaturako zenbatekoak itzultzea eskatzearen aurkakoa. **Jasotako zenbatekoak itzultzeko erreklamazioa, egintza propioen printzipioaren kontra ez ezik, bidegabeko aberastea debekatzen duen printzipioaren aurka ere badoa; izan ere, udalak zerbitzu batzuk emateari etekina atera diola esan nahiko luke, ordaintzeari utziko liokeen aldi batean.**

Alor honetan, gogoratzekoa da “emandako zerbitzua, ordaindutako zerbitzua” erregela, Estatu Kontseiluaren 5339/1989 Irizpenean aipatua, zeinaren arabera “onartutako printzipioa da, oro har, benetan emandako zerbitzua ordaindu behar izatea, alde batera utzita zerbitzu-emailea eta Administrazioa lotzen dituen harremanaren izaera juridiko zehatza”. Erregela edo arau hori berrestera etorri da Auzitegi Gorena, Administrazioa bidegabe aberasteko debekua argudiatuta eta Administrazioa benetan egindako prestazioak ordaintzera kondenatuta, nahiz eta izendapenik ez egon edo legez

kanpokoa izan, are lehenagotik deuseztatua ere (AGE: 1986ko azaroaren 19koa eta 1994ko uztailearen 12koa).

33/2023 ABJI, par.: 48-60

Kasu honetan, **deuseztasun-eskaeraren oinarria da deitutako lanpostua betetzeko beharrezkoa den Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaren Espezialitatearen betekizuna ez egiaztatzea.**

11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoarenak (EEPL), 94.7 artikuluan jaso duenez, lanpostu bat hornitzeko, nahitaez bete beharko dira lanpostuen zerrendan edo, hala badagokio, kudeaketa-tresna osagarrietan ezarritako betekizunak eta gainerako exijentzia guztiak, salbu eta lanpostua aldi baterako betetzeko kasuetan administrazio publiko bakoitzak ezarritako salbuespenetan edo enplegu publikoa antolatzeko planetan hura aurreikusten denean.

Lege-testu beraren 45.1. artikulua, bere aldetik, hau dio: “lanpostu-zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketa-arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera”.

Eta 46.2 artikulua, lanpostu-zerrenden edukiari dagokionez, hau dio: lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak, hala badagokio.

Ildo horretatik, 7/2021 Legeak, azaroaren 11koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio-ko kidegoei eta eskalei buruzkoak (aurrerantzean, EAEKEL), 4. artikuluan xedatu duenez (kidegoetako eta eskaletako espezialitateak), “espezialitateak sortu ahal izango dira, baldin lanpostu jakin batzuen eduki teknikoa eta berezia dela-eta haietan jarduteko baldintza gisa kidegoetako eta eskaletako funtzioen indibidualizazio-maila handiagoa beharrezkoa bada”.

Aurreko legea garatzera etorri zen **57/2022 Dekretua, maiatzaren 3koa**, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren **kidego berezien eskalen funtzioak ezarri**, espezialitateak arautu eta **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea sortzen duena**.

8. artikuluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatearen sorrera eta funtzioak arautzen dira. Eta 10. artikulua arabera, espezialitate hori eskatzen duten lanpostuak betetzeko exijituko da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea, baldin eta lanpostu-zerrendetan hala jasota badago.

Gerora, 61/2022 Dekretuak, maiatzaren 17koak, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda (LPZ), ... Saileko Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren arloko teknikariaren lanposturako (kodea: 510730; dotazioa: 20) Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren espezialitatea ezartzen du berriazko betekizun gisa.

Espezialitatea lortzeko moduari dagokionez, 57/2022 Dekretuaren 9. artikulua hau dio: Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren **Espezialitatea lortzeko, berdintasunaren arloko ezagutzak egiaztatzea bideratutako hautaketa-prozedura gainditu beharko da. Bertan parte hartzeko, berdintasunaren arloan esperientzia edo prestakuntza egiaztatzeko eskatu ahal izango da.**

Aurrekoari gehituta, aipatutako dekretuaren xedapen gehigarriak Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren Espezialitatea ezohiko izaerarekin lortzea arautzen du. Hor agerienez, **“Ezohiko izaerarekin, karrerako eta bitarteko funtzionarioei ofizioz aitortuko zaie Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren Espezialitatea, baldin eta, dekretu hau indarrean jarri aurretik, espezialitate horri atxikitako lanpostuak bost urteko epean gutxienez bete badituzte”**.

Egoera horretan **egin zen zerbitzu-eginkizunerako deialdia, eta bost pertsona aurkeztu ziren. Horietatik, printzipioz, batek ere ez zuen betetzen aipatutako espezialitatearen baldintza.**

Izendapen-proposamena ekarri zuten arrazoiei dagokienez, ... Sailaren txostenak dio aipatu 57/2022 Dekretuan oinarritzen direla. Haien ustez, “xedapen gehigarriak ez du adierazten espezialitateari atxikitako lanpostuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekoak izan behar dutenik. **Gure ustez, dekretua hitzez hitz hartuta, zilegi da esperientzia izatea beste administrazio batzuetako lanpostuetan”**.

Gainera, argudiatu dutenez, “Egia da Dekretuaren 9. artikulua arabera, espezialitatea Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren Agindu bidez egiaztatuko dela, eta 2022ko urriaren 7ko Aginduak ez ziola OOO andeari Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren espezialitatea aitortu. Baina ez da jo behar agindu hori administrazio-egintza bakarra denik espezialitate hori dutenen berdintasun-espezialitate guztiak egiaztatzeko. Ildo horretatik, ez dute EHAA-n argitaratu, eta pertsonalki jakinarazi zaie aginduan ageri ziren pertsonen”.

Diotenez, 2022ko irailaren 8ko Aginduak, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarenak, zeinaren bidez iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegu publikoa finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak, hau xedatu du I. eranskinaren 6. apartatuan:

6.— Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren Espezialitatea egiaztatzea.

6.1.— Espezialitate hori ofizios aitortuta dute espezialitateari atxikitako lanpostuak guxtienez bost urtez bete dituzten karrerako funtzionarioek edo bitartekoek, betiere urte horiek 2022ko maiatzaren 3ko 57/2022 Dekretua indarrean jarri aurretikoak badira (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren kidego berezien eskalen funtzioak ezarri, espezialitateak arautu eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren Espezialitatea sortzen duen 57/2022 Dekretuaren xedapen gehigarria).

6.2.— Era berean, proba espezifikoko bat gaindituz egiaztatu ahal izango dute hautagaiek espezialitate hori, lehen aipatutako dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Proba horren ezaugarriak hurrengo apartatuetan zehaztuko dira.

Ondorioz, argudiatzen du 2022ko irailaren 8ko Aginduan ikus daitekeela egiaztatzeko aukerarako bat xedapen gehigarrian aurreikusitakoa dela, ofizios eta baldintza gehiagorik gabe, eta bestea dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitakoa dela, zeinak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindua eskatuko bailuke.

Eta honako hau baieztatzen du: "... Sailak egindako interpretazioaren arabera, aipatutako xedapen gehigarriaren baldintza betez gero, eskuratu egiten da, eta, beraz, egiaztatuta geratzen da espezialitate hori".

Horregatik, **uste du zerbitzu-eginkizunetarako deialdia OOO andreari esleitzeko proposamena behar bezala egin zela, aurkeztutako ziurtagirietan oinarrituta. Ziurtagiri horiek egiaztatzen dute 5 urtetik gorako esperientzia duela izangaiak** berdintasun-teknikariaren lanpostuetan. Eusko Jaurlaritzan egindako **lanaz gain**, Toki Administrazioan esperientzia duela egiaztatu du.

Bestalde, **Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren** ustez, 57/2022 Dekretuak argi eta garbi arautzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea lortzeko modua. Hala, xedapen gehigarriaren ezohiko aitortpenari dagokionez, adierazi du ezen, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren eskumena izanik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea ezohiko izaeraz aitortzen duen agindu bidez izapidetu dela.

Hala ere, agerian utzi du ezen, **dagokion egiaztapena egin ondoren, ikusi dutela hautagaiak ez duela espezialitate hori aitortuta, ez baitu bete berdintasunaren espezialitateari atxikitako lanposturik 57/2022 Dekretua indarrean jarri aurreko bost urteetan, nahiz eta 2023ko martxoaren 28an egin zen proba egiteko izena emanda egon.**

Argudiatu dutenez, **espezialitateari atxikitako lanpostuetan aritzea Administrazio honetako lanpostuei dagokie, horiek baitira espezialitatea izan dezaketen bakarrak, EAE-KELren arabera.** Eta hau adierazi dute:

Horri dagokionez, adierazi da behar lehenago b) apartatuan adierazitakoa izan dela aipatutako espezialitatea ofizios egiaztatutzat jotzeko irizpidea, zuzendaritza honek har-

tu eta jarraitu duena, eta, gainera, karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesura eraman dena, , hargatik eragotzi gabe berrikusten ari den funtzionarioaren izendapena eragin duen zerbitzu-eginkizunen prozeduran lanpostua esleitu izana egiaztatzean egingdako akatsa.

Ondorioz, OOO bitarteko izendatzea ordenamendu juridikoaren aurkakoa da, lanpostu batean LPZn eskatutako baldintza bete gabe aritzeko aukera ematen diolako. Espezialitatea administrazio honetako lanpostuetan aritzeagatik bakarrik eskura daiteke, lanpostu horiek baitira LPZren bidez espezialitate horri atxikita dauden bakarrak.

Bestalde, OOO andreak, horri buruzko jurisprudenzia aipatu ondoren, APELen 110. artikuluan berrikuspenaren mugei buruz ezarritakoa kontuan har dezaten eskatu du. Adierazi duenez, une oro fede onez jokatu du eta lanpostua betetzeko baldintzak bete ditu eta betetzen ditu.

Nolanahi ere, uste du ez zaiola kalterik eragin behar zerbitzu-eginkizunetako izendapen-egintza deuseztatzeagatik. Eta izendapena deuseztatzen bazaio, enplegu-harremanek irautea eta jarraitzea eskatzen du, hari datxezkion eskubide profesional eta ekonomikoekin, deuseztasuna berretsi zaion legez kanpoko kargu-uzteak/izendapenak ondorioak dituen egunetik. Kasu honetan, *ex tunc* ondorioek aurreko egoera juridikoari eusten diote, hau da, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren arloko teknikariaren lanpostuko izendapenari, zeinak, interesdunak formalizatu zuenean, ez baitzuen eskatzen espezialitatearen betekizuna, baizik eta prestakuntza-baldintza bat, funtzionarioak ordurako bazuena.

Aurrekari horiekin aztertu behar dugu ea Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaren Espezialitatea egiaztatu ez izana koka daitekeen APELen 47.1.f) artikulua aurreikusitako deuseztasun-arrazoi edo -kausaren barruan.

Deskribatutako aurrekariak ikusita, lehen hurbilketa batean baieztatu daiteke lanpostu-zerrendan jasotako baldintzetako bat, lanpostuan jarduteko beharrezkoa, ez izatea harreman juridikoaren funtsezko elementua dela; beraz, baldintza hori betetzen ez duen pertsona bat izendatzea behar bezala egokitzen zaio APELen 47.1.f) artikulua kasuari.

Hala ere, **arau sektorialak eskatutako betekizunaren izaerak APELen 47.1.f) artikulua onduko ondorioetarako funtsezko maila duen interpretatzean, doktrinaren aldetik egoki iritzi zaio “garrantzi-judizio” bat egiteari, “eskakizuna ez betetzearen garrantzia haztatuta eskakizunarekin lortu nahi den helburu publikoarekin”.**

Kasu honetan, espezialitatearen betekizuna funtsezko baldintzat hartzen da lanpostu jakin batzuk betetzeko ezagutza edo betekizun espezifikoa behar direlako, eta espezialitateak horiek egiaztatzen ditu, eta horrek erraztu egiten du funtzionarioek lanpostuen funtzioak egoikiago betetzea.

Iragarri dugun bezala, EAEKELren 4. artikulua [7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoei eta eskalei buruzkoa] testuinguruan jartzen du espezializazio handiagoaren existentzia, eta edukiak objektibatzen ditu, espezialitatea sortuz. Kontua da ziurtatzea lanpostuetan ez direla ariko lanpostuen eginkizunak betetzeko behar diren ezagutzak, trebetasunak edo esperientzia ez dituzten pertsonak. Hala, berdintasuneko goi-mailako teknikari lanpostuen kasuan, unibertsitate edo administrazio publiko batek emandako emakumeen eta gizonen berdintasunari edo emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza-ikastaro bat (gutxienez 150 ordukoa) egin izanaren eskakizunaren ordean jarri dute esperientziatik ondorioztatutako egiaztapena edo lanpostua betetzeko eskatzen diren ezagutzak modu egokiagoan egiaztatzen dituen proba bat gainditzea.

Oro har, Estatu Kontseiluak eta gainerako organo aholku-emaileek funtsezko betekizun irizten diote enplegu publikora iristeko legez eskatzen diren titulu edo baldintzak izateari, eta, horren ezean, eskubideak aitortzen dituen aldeko egintza erabat deuseza dela (besteak beste, Estatu Kontseiluaren 1201/2001 eta 402/2010 irizpenak).

Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren ekainaren 14ko 5896/20160 Epaiak zehazten duenez (14/2016 errek.), “funtzionario bat izendatzeko eskatzen den titulazioa ez izatea, titulazioa Administrazioan sartzeko funtsezko baldintza denez, ordenamendu juridikoaren aurkako egintza bat da, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1.f) artikuluan xedatutakoari egokitzen zaio”.

Gogoeta horrek, dirudenez, honako ondorio honetara eramango gintuzke ezinbestean: dagoen akatsa zuzentzeko, ofiziozko berrikuspen-prozedura bat egin beharko litzatekeela, eskubideak deklaratzeko aldeko egintza bat ondorioz gabe uzteko.

Planteatutako kasuaren salbuespen-izaera

Hala ere, aurreko tesia onartuta ere, premisa horrek ez du konponbide juridiko gisa ezartzen espedientearen xede den egintza berrikustea, jarraian azaltzen diren arrazoiengatik.

Lehen azaldu den bezala, **eztabaida dago, ez betekizunari berari buruz, baizik eta interesdunak baldintza hori betetzen duela egiaztatzeari buruz.**

Kasu honetan, **desadostasuna sortzen da Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko espezialitatea sortzeko dekretuaren xedapen gehigarriaren bidez araututako ofiziozko salbuespenezko egiaztapenari dagokionez.**

Funtzio Publikoko Zuzendaritzak interpretazio hau proposatu du: eskatutako esperientzia Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Administrazio Orokorreko lanpostuetara mugatzen da, toki-administrazioan eskuratutakoa kontuan hartu gabe.

Hala ere, **gure ustez, xedapen gehigarria ez da erabatekoa espezialitatea egiaztatzeko**

esperientzia baliiodun bakarra EAEko Administrazio Orokorreko lanpostuetan jarduteagatik lortutakoa izateari buruz, eta ezin da alde batera utzi, hasieratik, esperientzia hori antzeko edukiak dituzten beste administrazio publiko batzuetako lanpostuetan ere eskuratu daitekeelakoa.

A sensu contrario, asmoa hori bazen, bazegoen arauan argi eta garbi adieraztea espezialitatea salbuespenez aitortuko zitzaiela EAEko Administrazio Orokorreko lanpostu-zerrendan espezialitate hori esleitu zaien lanpostuak bete dituzten pertsoneri.

Desadostasuna dago, halaber, espezialitatea aitortzeko egintza espresu baten beharrari buruz, eta lanpostua esleitzerakoan, ... Sailaren proposamenak, esperientzia izatearekin nahikoa zela ulertu baitzuen, aitorten horren beharrik gabe, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren bermea izan zuen.

Testuinguru horretan, gogoratu behar da espezialitateen gaian aldi iragankor batean gaudela, eta aldi horretan bi espezialitate soilik eratu direla eta bitarteko funtzionarioek espezialitate horiek egiaztatzeko moduak ezarri direla. Horrek, egia esan, gaiari buruzko interpretazio desberdinak eragin ditzake, kasu honetan gertatu den bezala.

Era berean, adierazi behar da orain espezialitatearen betekizuna eskatzen zaien lanpostuetan zeuden pertsonak berdintasunaren alorreko prestakuntza jakin bat egiaztatuta sartu zirela lanpostu horietara, adierazi dugun bezala, eta proba bat egin zutela ordezkapenen poltsan sartzeko. Baldintza berberak eskatzen ziren EAEko administrazio publikoetan berdintasunaren arloan dauden lanpostuetara iristeko.

Gainera, egia da, halaber, **egun batzuk geroago, martxoaren 28an egindako proban, OOO andreak espezialitatea egiaztatu duela azterketaren bidez.**

Eta hautaketa-prozesuan parte hartu zuen inork ez zuela OOO andrearen izendapena aurkaratu, eta alegazioak aurkezteko epean ez zela horri buruzko inolako alegaziorik aurkeztu.

Inguruabar horiek guztiak kontuan hartuta, gogorarazi behar dugu APELen 47. artikuluan jasotako deuseztasun-kasuak aplikatzeari interpretazio zorrotza zor zaiola, hedadurazko interpretazioetatik urrun, eta baztertu egiten dela zalantzazko kasuetan aplikatzea.

Eta horren aplikazioa mugatu egin behar dela zuzenbidearen urratze-kasu larri-larrietara, zeinetan segurtasun juridikoak amore eman behar duen, guztiz onartezina baita horiek ordenamenduan irautea.

Gauzak horrela, kasuko inguruabar guztiak aztertuta, **Batzordeak uste du ez dela bidezkoa egintza berrikustea erabakitzea.**

170/2023 ABJI, par.: 34-79

III. Hirigintza-tresnak

Ez da lehen aldia Batzordeak deuseztasunaren ikuspegitik aztertzen duela udal bateko osoko bilkuraren erabaki bat, hirigintza-hitzarmen bat onartzen duena (adibidez, 89/2007, 141/2013 eta 66/2015 irizpenak aipa daitezke).

Jurisprudentziak figura horretara egin hurbilketan –denen erakusgarri, 102/2019 AGE, urtarrilaren 29koa (694/2018 errek.)— aipatzen da, orain interesatzen zaigunari dagokionez, “aztertzen ari garen **hirigintza-hitzarmenek Administrazio Publikoak hirigintza-arloan duen negoziazio-gaitasunari erantzuten diotela** eta herritarrek arlo horretan parte hartuko dutela bermatzeko direla. Zalantzarik gabe, administrazio publikoen eta hirigintzako eskubide edo interesen titular diren pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuen arteko borondate-akordio batean oinarritzen dira”.

Jurisprudentziak emana du iritzia hirigintza-hitzarmenen kontratu-izaerari buruz, Aurriaren 31ko 1649/2017 AGEN laburbildu eta errepikatzen den zentzuan:

Auzitegi Gorenaren 2011ko ekainaren 13ko Epaiak adierazi duenez (3722/2009 errek.), hirigintza-hitzarmenek **kontratu-izaera dute**, sala honek orain baino lehen baietsi bezala. Izaera hori dela eta, beren gain hartu behar dituzte, elkarrekikotasunagatik, hirigintza-jarduketa horiei dagozkien betebeharrak, batez ere hirigintza-hitzarmen baten ondorio badira, eta hitzarmen hori egin bada Kode Zibilaren 1255 artikulua eta 9/2001 Legearen 243 artikulua araberako, administrazio publikoek, administrazio onaren printzipioak beteta, itunak egiteko askatasuna aitortzen baitute.

Ikuspegi horretatik, **arrazoi honengatik bakarrik eskatu ahal izango litzateke sinatutako hitzarmenaren deuseztasuna: akatsen bat adostasuna ematean (KZren 1265. artikulua).**

Egia esan, hitzarmena, sinatu ondoren, borondate-akordio gisa sortzen da mundu juridikora, adostasun hutsarekin perfektionatzen baita, betiere baliozkotasun-baldintzak betetzen badira, Kode Zibilaren 1258. eta 1261. artikuluen araberako, eta, harrezkero, alderdiak lotzeko indarra du (ikus 2005eko urriaren 26ko AGE, 3. sala, 6. atala, 2.188/2001 errek.).

Kasu honetan, txosten juridikoak dio —ebazpen-proposamenak bere egiten baitu— lagatzai-leen sinadurarik ez dagoela, eta, bereziki, ez dagoela jasota MMM andrearen neba-arrebek berretsi dutenik; izan ere, MMM andrea ahozko mandatari gisa ordezkaturako lituzke, hitzarmenaren testuak hitzez hitz dioenaren arabera.

Egiazki, mandatugileak berretsi egin behar du mandatariak hirugarrenekin egin duena, Kode Zibilaren 1259 eta 1727. artikulua aplikatuz, eta, horrez gain, laugarren klausulan berariaz jasota dago.

Hain zuzen ere, **udalaren berrikuspen-proposamenaren oinarria da ezin dela ulertu adostasuna baliozkotasunez eman denik**, eta, funtsezko elementua den aldetik, baliogabetasunera jo behar dela, Kode Zibilaren 1261. artikulua arabera.

Kontua da horrela formulatutako baliogabetze-kausak edo -kariak ezin duela barruan hartu hitzarmena onartzen duen udal-erabakia.

Udalaren administrazio-egintza, hitzarmena prestatzeko egintza, ezin da akastuna izan gerora hitzarmena formalizatu ez izanagatik.

Aurreko batzuetan, Batzorde honek hirigintza-hitzarmenaren eremuan izan duen esku-hartzea honako honen ondorio izan da: hitzarmen hori onartzeko erabakia akastun bihurtzen zuten kausak edo kariak ikusi izana, eta, hortik, era berean, hitzarmenaren deuseztasuna.

66/2015 Irizpenean, adibidez, 30/1992 Legearen 62.1.e) artikulua aplikazioa baiesten da —udal-erabakiak hirigintza-hitzarmen bat onartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (LHL) 7. xedapen gehigarriaren 7. apartatuak eskatzen duen jendaurreko informazioaren nahitaetzko izapidea bete gabe, zeina ez baita indarrean hizpide dugun hitzarmena onartzeko unean— eta 30/1992 Legearen 62.1.b) artikuluan aurreikusitako kausa edo arrazoia —erabakia hartu duen organoaren eskumenik eza—. Irizpen horretan gogorarazi genuen, halaber, LHLren 7. xedapen gehigarrian aurreikusitako erabateko deuseztasunaren kasua, 30/1992 Legearen 62.1.g) artikulua egiten zuen igorpenarekin bat datorrena —“lege-mailako xedapen batean berariaz ezartzen den beste edozein” —. Horren arabera: “Erabat deusezak izango dira hirigintza-hitzarmenen klausulak, baldin eta legeen edo erregelamenduen aginduzko arauak, lurraldearen edo hirigintzaren plangintzari buruzkoak barne, era batera edo bestera objektiboki hausten badituzte, haien kontrakoak badira edo haiei iruzur egiten badiete”.

Kasu honetan, ordea, **alegatutako deuseztasun-arrazoia ezin dio 1999ko ekainaren 11n hartutako osoko bilkurari eragin. Udalaren proposamenean argudiatzen dena da ez dela baliozko adostasunik izan akordio hura gauzatzeko. Akordioaren betearazpenaren edo aplikazioaren esparruan garatzen den gai bat da, baina ezin da argudiatu edo ekarri akordioaren beraren akats gisa.**

Bestela esanda, kasu horretan **ez da berez berrikusten egintza deusez bat, APELen 106. artikuluan ezarritakoa aplikatzea eskatzen duena —edo egintzaren deuseztagarritasun-deklarazioa, kaltegarritasun-deklarazioa eskatzen duena, APELen 107. artikulua arabera—; aitzitik, akordioa bat dator ordenamendu juridikoarekin, hau da, emandako arrazoiak ez dio eragiten onarpenaren baliozkotasunari.**

Beraz, ez da bidezkoa aintzat hartzea Munitibarko Udalaren Osoko Bilkuraren 1999ko ekainaren 11ko Erabakiaren ofiziozko berrikuspena baiesteko oinarri gisa alegaturiko zuzenbide-deuseztasunaren kausa, eta, ondorioz, ezetsi egin behar da planteatutako berrikuspena.

Gaineratu behar da **udalaren planteamendua berezia dela eta nolabaiteko artifizialtasuna duela**; izan ere, aldarrikatutako administrazio-jarduketa —osoko bilkuraren erabakia— ofizioz berrikusiz, **inoiz existitu ez zen hirigintza-hitzarmen baten deuseztasun-deklarazioa lortu nahi da**, ez baitzen inoiz eremu juridikora jaio.

Eraginpeko lurzatieen jabe zirenek adostasunik eman ez izanak eragotzi egin zuen hitzarmena burutzea, eta, ondorioz, mundu juridikora sartzea.

20 urte baino gehiago igaro ondoren, finken jabeek nahi dute hitzarmena “errebokatzea eta baliogabetzea”. Udalak, eskaera horren bidez, ofiziozko berrikuspenaren mekanismoa baliatu nahi du, baina Batzorde honek ez du egokitzat jotzen kasu honetarako.

Ofizioz berrikusteko ahalmena salbuespen gisa sortu da, baliogabetasun-maila larrienak eragindako egoera bat denboran zehar betikitzea eta ondorio juridikoak sortzea saihesteko. Ahalmen horrek ez du zentzurik honen moduko kasu berezi batean, berrikuspenaren xedea hitzarmen bat baita, zeina hutsaltzat jo daitekeen, ez baita jaio eta ez baitu ondorio juridikorik izan.

Jabeek eta udalak bat egiten duten bertsioaren arabera, ez zen sinatu, eta ez zen egon nahi-taezko aldebiko borondate-adostasunik, eta ez ziren gauzatu hitzarmena sinatetik, bete izan balitz, ondorioztatu beharko lirartekeen betebeharrak.

Lurzatieen gaur egungo xedea eta lurzatieen jabetza erregistroan jasota egotea hitzarmenaren ondorio juridikorik ezaren froga dira; izan ere, alderdiek, epe luze batean, ez dute ezer egin horri buruz, eta hitzarmenik ez dagoela baieztatu dute horrela, eta alderdiek gai horri buruz ustez elkar ulertzen zutela erakutsi.

IV. Ofiziozko berrikuspenaren mugak

Azaldu den bezala, berrikuspen-prozedura Udaleko Osoko Bilkuraren 2022ko uztailaren 14ko Erabakiaren bidez hasi zen, baina, azaroaren 10eko 358/2022 Alkatetza Dekretuan —zeinaren bidez ordenantza ofizioz berrikusteko espedientea 20 egunez jendaurrean jartzeko izapidearen mende jartzen baita— prozedura etetea iragartzen bada ere, etendura hori irizpen-eskaera Batzorde honi bidali zitzean egunari lotzen zaio, eta eskaera hori ez zen bide elektronikoz egin 2023ko urtarrilaren 18ra arte; beraz, data horretarako sei hilabeteko epea gaindituta zegoen (6 hilabete eta 5 egun).

Ondorioz, **prozedura iraungita dago**, eta Batzordeak ez du uste kasu honetan APELen 95.4 artikuluan aurreikusitako kasuak, iraungitzea ez aplikatzekoak, gertatzen direnik —sortutako arazoa interes orokorrekoa izatea edo bideratzea komenigarri izatea arazoa mugatzeko eta argitzeko—.

Tramitazioari ekin ahal izango litzaioke, baldin eta horren emaitzatik ondorioztatuko balitz ordenantzak erabateko deuseztasuneko akats bat izango lukeela, horrek saihestuko lukeelako herritarrengan eragin orokorra duen arau juridiko baten eraginkortasunak irautea; kontua da, ordea, kalifikazio hori ez dela behar bezain argi agertzen Administrazioak bere ofiziozko berrikuspen-ahala egikaritu, eta gaia —udalaren titulartasun publikoko kale, landa-bide, baso-pista, lursail eta mendien aprobetxamendu berezia— erregulaziorik gabe uzteko.

Kontuan hartu behar da **badela administrazioarekiko auzien prozesu bat udal-ordenantzaren aurka**, zeinean elkarte errekurtsogileak, udalak ofizioz berrikustea eragin duen prozedura-akatsa alegatzeaz gain, subsidiarioki ordenantzaren zenbait artikuluko deuseztatu nahi baititu.

Batzordearen doktrina da (63/2000, 52/2005 eta 169/2011 irizpenak) administrazioarekiko auzien prozesu bat ebazkizun egotea ez dela oinarri juridiko nahikoa Administrazioak bere egintzak eta xedapenak ofizioz berrikusteko duen ahala egikaritzea eragozteko, baina horrek ez du bazterten ebazkizun judizial hori kontuan hartu ahal izatea, egokitasunaren ikuspegitik justifikatzeko berrikuspenaren administrazio-bidea hasi ez izana edo utzi izana. Behin eta berriz adierazi du, baita ere, neurriz eta tentuz erabili behar dela berrikuspen-ahalmena.

Kasu honetan, erabakigarria da doktrina eztabaidatzen ari den gaia dela **toki-ordenantzak egiteko prozeduran aldez aurreko kontsultaren izapidea nahitaezkoa izatea** eta izapide hori ez betetzearen ondorioak, eta Batzorde honek oraindik ez duela horren gaineko iritzia adierazi.

Gainera, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia araututako gaiaren arabera ari da erabakitzen. Hala, tokiko ordenantza fiskalei buruzko iritzia eman du Auzitegi Gorenaren urtarrilaren 31ko 227/2023 Epaiak, eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeari buruz, berriz, Auzitegi Go-

renaren otsailaren 6ko 290/2023 Epaiak —bi kasuetan, deklaratu du ezin dela exijitu APELen 133.1 artikulua aurreikusitako kontsulta publikoaren izapidea—.

Kasu honetan, garrantzi handiagoa izango du Auzitegi Gorenak udal batek jarritako 7629/2021 kasazio-errekurtsoan finkatuko duen doktrinak. Errekurtso horretan, jurisprudenzia eratzeko kasazio-interes objektiboa honako hau da: “ea tributuz kanpoko ondare-prestazio publikoak arautzen dituzten toki-ordenantzak egitean 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitako izapidea bete behar den, ordenantzen hasierako onarpena eman aurretik, edo, aitzitik, nahikoa den, horrelako xedapenak egitean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitako prozedura kontuan hartzea, 133. artikuluan izapidea betetzen ez bada, erabakitzeko ea zuzendu ezin den akats formal bat gertatzen den ala ez, erabateko deuseztasuna dakarrena”; izan ere, uztailaren 6ko 10575/2022 Autoak, errekurtso hori aztertzeke onartzekoak, interpretazioaren xede izango diren arautzat hartzen ditu, hasiera batean, TAOLen 49. artikulua eta APELen 133. artikulua.

Azken finean, Batzordearen ustez, aipatu inguruabarrek aholkatzen dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioak erabaki dezala, elkarte demandatzaileak egikaritutako uzia kontuan hartuta, ea, kasu honetan, parte hartzeke eskubidea urratu den, ordenantza deuseztatzeko behar besteko indarrarekin.

Baliogabetzen ez duen irregularitasuna dela irizten badio, horrek aukera emango du, halaber, ordenantzaren aurka aipatzen diren arau-hauste materialak epaitzeko, prozesu-ekonomia nabariarekin eta bidegabeko atzerapenik gabe.

45/2023 ABJI, par.: 28-37

Aurreko gogoetek salbuetsi egiten dute Batzorde hau aztertzeke ea, kausa dagoela ikusi ondoren —LPZ legeaz ezarritako prozedura erabat alde batera utzita onetsi da—, ofiziozko berrikuspenaren mugak betetzen diren, beren burua kaltetuntzat jotzen duten Ingurumen Zerbitzuko lanpostuen titularrek argudiatu baitituzte, Administrazioak emandako egintza irmo horren ondorioek aurrera egingo dutelako esperantzan.

Dakigunez, APELen 110. artikulua adierazten duenez, kapitulu honetan xedatutako berrikuspen-ahalmenak baliatzerik ez dago baldin eta, akzioak preskribatu direlako, denbora igaro delako bestelako gorabeherengatik, ahalmen horiek baliatzea ekitatearen, fede onaren, partikularren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.

Nahikoa da aipatzea, **hala ere, denboran erabat finkatutako egoera baten aurrean gaudela, zazpi urte inguru igaro baitira. Izan ere, eskatzailearen interes lausoaren aldean (pro actione printzipioaren arabera aitortu baitiogu legitimazioa, esandakoaren arabere-**

ra), zalantzarik gabe, **mankomunitatearen antolamendu-egonkortasuna da nagusi.**

Mankomunitateko kontu-hartzaile gisa, LPZren onespeneren inguruko gorabeherak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen, eta ez zuen inolako eragozpenik jarri, eta baiezkoa eman zion, sinadura eta guzti, Gobernu Batzarraren 2016ko urtarrilaren 12ko bilkurako aktari (espedientearen 204. folioa).

Batzordearen iritziz, Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 1eko Epaiak argudiatzen duen bezala (2191/2005 kas.), **“fede onaren aurkakoa da**, eta, beraz, ez du merezi onartzea beti eskura izan zituen erreakzio-aukerak jakinaren gainean eta bere borondatez hain modu esajeratuan geroratzen dituenen jarrera; izan ere, aurreikusita dago 106. artikulua hori (orduan 30/1992 Legearena, eta orain Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 110. artikulua) aplikatzeko aukera, hain zuzen ere, deuseztasuna eskatzeko eperik eza ez dadin erabili modu maltzurtean fede onaren aurkako jokabidean».

193/2023 ABJI, par.: 133-137

9. Kapitulua. APARTEKO BERRIKUSPEN-ERREKURTSOA

I. Egintzak ematerakoan egitatezko errakuntzaren bat izan, eta espedienteari erantsitako agiriak ikusita jabetzea.

Berezitasun horiek kontuan hartuta, “akats materialak edo egitatezkoak zuzentzeko prozedura-mekanismoa aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira, funtsean: 1) Akats huts elementalak izen, data, eragiketa aritmetiko edo dokumentu-transkripzioetan, 2) akatsa administrazio-espedienteko datuak soilik kontuan hartuta ikustea, 3) akatsa agerikoa eta argia izatea, aplikatzekoak diren arau juridikoen interpretazioetara jo beharrik gabe, 4) egintza irmo eta onartuak ofizioz ez berrikustea, 5) egintzaren zentzuan funtsezko aldaketarik ez gertatzea (ez baitago akats materialik hori hautemateak balorazio-judizio bat dakarrenean edo kalifikazio juridikoko eragiketa bat eskatzen duenean), 6) administrazio-egintzaren iraupea zalantzan ez jartzea, hau da, egintza ez deuseztatzea edo errebokatzea, eskubide subjektiboen sortzaile den aldetik, eta beste egintza bat ez sortzea, oinarri desberdinekin eta ukituarentzat behar bezalako bermerik gabe; izan ere, administrazio-egintza zuzentzaileak egintza zuzenduaren eduki bera izan behar du (eduki xedatzaile, substantibo eta ebazle bera), Administrazioak ezin baitu, bere esku duen ofiziozko zuzenketa-ahala baliatuta, benetako berrikuspen bat ezkatu; eta 7) irizpide guztiz murriztailearekin aplikatzea” (denen erakusgarri, 2014ko irailaren 17ko AGE, 839/2013 errekurtsua).

Ezaugarri gisa, **azpimarratzeko modukoa da doktrinak adierazi duela akatsa gertatzen dela borondate akastuna eratu denean errealitatearen ezagutza ez zuzenean oinarrituta, edota sinesmen edo irudikapen mental oker batean oinarrituta**, eta errealitatearekin inkongruentea den egintza bat sorrarazten duen egintzaren kausaren akats gisa eratzten dela. Hala ere, akatsak administrazio-egintzaren inkongruentzia benetan eragin dezan, **ezinbestekoa da akatsak egintzaren funtsezko betekizunei eragitea, hau da, akats larri eta funtsezkoa izan behar da, egitateen eta horientzat sortutako ondorio juridikoen arteko erlazio logikoa hausten duena**.

Kasu honetan, gertakarien azalpenean adierazi dugun bezala, **akatsa hemendik dator: Balorazio Batzordearen erabakiaren aurka gora jotzeko errekurtsua jartzeko hilabeteko epea noiztik aurrera hasi behar den zenbatzen**.

Txosten teknikoaren arabera, azken kalifikazioaren eta izendapen-proposamenaren iragarria 2023ko ekainaren 6an argitaratu zenez, 2023ko uztailaren 13an **jarritako gora jotzeko errekurtsua epez kanpo dago**, APELen 30.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, espedientean zehaztu den bezala, **iragarki horren ondoren, Balorazio Batzordeak**, 2023ko ekainaren 14ko Ebazpenaren bidez, **prozesuari egindako alegazioei emandako erantzunaren berri eman zion AAA andreari**. Komunikazioan, alegazio bakoitzari buruz egindako gogoetak zehaztu, eta, amaitzeko, ebazpena jaso eta hilabeteko epean errekurritu daitekeela adierazten da (2023ko ekainaren 14an bertan jaso zuten).

Hala ere, 2023ko uztailaren 13an aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua ez dute onartu, azken jakinarazpen hori kontuan hartu gabe. Horren ondorioz, ez dira aztertu errekurtsogileak lehiaketa espezifikoan egindako alegazioak. Egoera horren aurrean, ebazpenaren deuseztasuna planteatu du, planteatutako alegazioak azter daitezen, APELen 125.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldez aurretik ohartarazi dugun bezala, ebazpen-proposamena, espedienteko dokumentazioa egiaztatu ondoren, errekurtsogilearen eskaeraren aldekoa da.

Eztabaidagaia horrela zentratuta, kontua da baloratzea ea posible den errekurritutako administrazio-ebazpenean ikustea errealitate faktikoarekiko disonantzia bat, errekurritutako administrazio-egintzaren oinarri izan zena. Eta horrek garrantzirik aski bat ote duen **egitezko errakuntzat jotzeko, edo, aitzitik, zuzenbideko errakuntzaren barruan sartzen den gai baten aurrean gauden, hala izan balitz administrazioarekiko auzibidean planteatu beharko zen eta.** Horrenbestez, berrikuspen horren bidea erabiltzeak segurtasun juridikoaren aurkako atentatua ekarriko luke.

Lehen adierazi dugun bezala, jurisprudentziaren iritziz argi dago, sarritan deklaratu du-eta, APELen 125. artikulua aukera ematen diola interesdunari administrazio-egintza irmoak berrikustea eskatzeko, inguruabar jakin batzuk gertatzen direnean, eta, besteak beste, egintza horiek ematerakoan egitezko errakuntzaren bat izan denean. Aparteko berrikuspen-errekurtsua “salbuespenezko errekurtsua da, eta, alegatutako arrazoien interpretazio zorrotzaz gain —aipatu artikuluan adierazitako arrazoiak baino ez—, ez du biderik ematen administrazio-bidea amaitu zuen egintzaren aurkako errekurtsu arruntetan edo jurisdikzio-errekurtsuan agertu edo alegatu behar ziren gaiak aztertzeko; bestela, segurtasun juridikoari egingo litzaioke eraso, *sine die* etenda utzita administrazio-egintzen irmotasuna, errekurtsu arrunten bideari itzuri egiteaz gain...”, denen erakusgarri, 2012ko maiatzaren 31ko AGE, 2012\7144 JB.

Hau da, albuespenezko ezaugarriek idiosinkrasia markatzen dioten errekurtsua dugu. Administrazio-egintza irmo bati irmotasuna kentzeaz ari gara, eta, beraz, horretarako aukera ematen duten kasuak oso modu murriztailean haztatu behar dira, segurtasun juridikoa baitago jokoan. Nolanahi ere, **egitezko akats edo errakuntzaren ezaugarriei dagokienez, lehen adierazi dugun bezala, iritzi, irizpide partikular edo kalifikazio juridiko orotatik independentea den errealitate bat osatzen duen gertaera, gauza edo datu batean oinarritu beharko da, eta, beraz, haren eremutik kanpo geratuko da balorazio edo interpretazio juridikoari edo xedapen arauemaileenei buruzko gai oro.**

Alegatutako APELen 125.1.a) artikuluko kasu zehatzari dagokionez, adierazgarria da Estatu Kontseiluaren irizpidea islatzea, hau adierazten baitu: “manuak ezartzen du **dokumentu horiek funtsezko balioa izan behar dutela gaia ebazteko**, errekurritutako ebazpenean akats bat dagoela agerian utzita. Horrek esan nahi du ezen, Administrazioak aldez aurretik jakin izan balu, azkenean hartu zuenaz beselako ebazpen bat eman beharko zukeela” (778/2002 Irizpena, 2002ko apirilaren 18koa).

Eta, beste alde batetik, **espedientera ekarritako dokumentuetatik ondorioztatu behar da**, eta, beraz, ezin da arrazoi hori gertatu denik ikusi, baldin eta aurkaratutako ebazpenaren ondorengo dokumentuetara jo behar bada azterketa egiteko.

Eta espedientetzat jo behar dira, jurisprudentziak adierazi bezala, **prozeduran sartzen diren dokumentu guztiak, barnean hartuta administrazio-egintzaren aurka jarri ziren errekurtsio arruntei dagozkienak, bai eta haren parte izan beharko luketen dokumentuak ere, nahiz eta fisikoki hala ez izan, hala nola administrazio-erregistroetan jasotako datuak, espedienteen alde batera utzi direnak.**

Kasu honetan, argi dago, espedienteen dagoen dokumentazioaren arabera, AAA andreak 2023ko ekainaren 14an jakinarazi ziotela Balorazio Batzordearen Erabakia, eta jakinarazitako dokumentuan jasota dagoela hartu-agiria, datarekin eta erreklamazioaren sinadurarekin. Gainera, jakinarazitako erabakiaren oinean ageri zen ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsioa jar zitekeela hilabeteko epean.

Geroago, 2023ko uztailaren 13an, AAA andreak **gora jotzeko errekurtsioa** jarri zuen aipatutako erabakiaren aurka, baina **ez zuten onartu epez kanpo aurkezteagatik, ez baitzuen kontuan hartu egintzaren jakinarazpen pertsonalizatuaren data.**

Hau da, kasu honetan, errekurtsioa baiestea ahalbidetzen duten elementuak daude. **Egitezko akats baten aurrean gaude, hau da, Balorazio Batzordearen iragarkia argitaratu zen data kontuan hartu izana errekurtsioa ez onartzeko, kontuan hartu gabe erabaki hori errekurtsioari banaka jakinarazi zitzaioela geroago.**

Beraz, **akats nabarmena eta agerikoa da**, eta ez dago zertan egin balorazio juridikorik. Gainera, egintza administratibo horrek, bere edukian adierazten den bezala, amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horrenbestez, errekurtsio-jartzaileari eragotzi egiten dio bertan jarraitzea, eta, beraz, galarazi egiten dio Administrazioari hautaketa-prozesuari egindako alegazioak aztertzea.

Eta espedienteari erantsitako dokumentuei begiratze hutsetik ondorioztatzen da hori. Hori guztia dela eta, ondoriozta dezakegu kasu honetan bete egiten direla Administrazioaren borondatearen adierazpenak egitezko akats nabarmen bat izan duela jotzeko arrazoiak.

Azaldutakoa ikusita, ondorioztatu behar da **errekurtsioak alegatutako egoera gertatu dela**, APELen 125.1.a) artikuluan jasotakoa, eta, beraz, baietsi egin behar da aurkeztutako errekurtsio berezia.

II. Gaia ebazteko funtsezko balioa duten dokumentuak agertzea, ebazpen errekurrituaren okerra agerian uzten dutenak, geroago bada ere.

Errekurtsua APELen 125.1 artikulua b) letran xedatutakoaren arabera planteatzen da, zeinak aukera ematen baitu berrikusteko, hau betetzen bada: “gaia ebazteko funtsezko balioa duten dokumentuak agertzea, ebazpen errekurrituaren okerra agerian uzten dutenak, geroago bada ere”.

Estatu Kontseiluaren doktrina errepikatuaren arabera –guztien erakusle, 142/2020 Irizpena–, APELen 125.1.b) artikuluan jasotako inguruabarra baloratzeko orduan, kontuan hartu behar da haren balioa honela zehazten dela: I) aurka egin zaion ebazpena emateko unean agertu edo jaso izan balitz, ebazpena funtsean aldatuko zatekeen; eta II) dokumentuek agerian utzi behar dute errekurritutako ebazpenaren akatsa, eta, horiek aurkezte hutsarekin, behin betiko frogatu behar da akatsa, modu eztaba daezinean.

Azken batean, doktrina horren arabera, **funtsezko dokumentua da bere izate hutsagatik administrazio-egintza baten irmotasuna suntsitzea eragiten duena**. Horrela, dokumentu bati hain garrantzi handia emanda, dokumentu horren edukiaren eraginpean dagoen oro iraultzen da.

Errekurtsogileak, Administrazioaren akatsa agerian utziko lukeen **funtsezko dokumentu gisa**, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko maiatzaren 19ko **Ebazpena** erabiltzen du, **langile mugagabe ez-finkoaren izaera aitortzeko bere erreklamazioa ezestea ebazten duena**.

Haren tesian, ebazpen honen funtsezko izaera ez dago lotuta haren eduki erabakitzaileari –hau da, lan-harremanaren izaera mugagabearen erreklamazioa ezeste –; **aitzitik, ebazpen horren aurrekarietan berariaz jasota egongo litzateke “Lanbide Heziketako Irakasle Tekniko Espezialista” dela. Baldintza horren ondorio izan beharko litzateke**, errekurtsogilearen arabera, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3.2 artikulua aplikatzea, eta, hortaz, **zerrendan sartzea, lehenago kanpoan utzi bazuten ere**.

2023ko maiatzaren 19ko Ebazpenak, KKK jauna aipatzean, honela dio: “Hezkuntza Saileko aldi baterako langile lan-kontratuduna, Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kategorian” (aurrekari bakarra). Eta, deskribatu duenez, “Lanbide Heziketako Irakasle Tekniko Espezialistaren kategoriarekin” egiten du lan (zuzenbideko lehen oinarria), eta kategoria hori lotzen zaio ekainaren 12ko 91/2018 Dekretuaren aplikazioari (dekretu horrek arautzen baitu irakasle espezialista eta adi-tuak kontratatze erregimena Eusko Jaurilaritzan hezkuntza arloko eskumena duen sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetarako).

Kontua da “Lanbide Heziketako Irakasle Tekniko Espezialistaren” izaeraren onarpen hipotetikoa, errekurtsogileak argudiatu eta 2023ko maiatzaren 19ko Ebazpenak babestuko zukeena, **ez dela garrantzizkoa lortu nahi dituen ondorioetarako**.

Hau da, izaera hori onartuko bagenu ere —terminologia eztabaidagarria baita, eta ez guztiz zorrotza, ebazpen-proposamenak dioen bezala—, **prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza betetzen den ala ez jakiteko, zer zerrendatan sartu nahi den, zerrenda horretara iristeko finkatu den eskakizun zehatzari begiratu behar zaio**. Jarraian zehatzago azaltzen den bezala, **Bigarren Hezkuntzako espezialitate bati dagokion zerrendan sartu nahi bada, zerrenda horretarako ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta ezin izango da salbuespenik egin aurretiko zerbitzuen izaeragatik edo zerbitzu horiek eman ahal izateko oinarria izan zen lanbide-kategoriagatik**.

Hori dela eta, ez da gauza gehiago zehaztu behar KKK jaunari aitortzen zaion izaera edo kategoriari buruz; izan ere, errekurtsogilearen eskaria 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3 artikuluan jasotako egitatezko kasuetatik zeinetan sartu behar den erabakitzeko elementu erabakigarria ez dator alderdi faktiko horretatik, baizik eta sartu nahi duen zerrendaren definiziotik edo izaeratik, eta hori baketsua da kasu honetan.

Horiek horrela, **berrikuspen-errekurtsio bereziaren oinarri den dokumentuak ez du funtsezko baliorik gaia ebazteko**, eta, ondorioz, aurreratu daitekeen bezala, ezetsi egin behar da errekurtsioa.

Honetan datza desadostasuna: 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3 artikulua aplikazioan. Jarraian jarriko dugu artikulua hori, **lan-politsetan sartzeko eskaera egin zen unean indarrean zegoen bertsioan** (geroago, 2023ko azaroaren 7ko Aginduaren bidez aldatu zen)¹:

8. artikulua. □ Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoak

(...)

3.- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan aipatzen den **prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa izatea**, irakaskuntza bakoitzetarako dagokion araudiaren arabera, prestakuntza hori ziurtatzeko.

3.1.- Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakaskuntzetan prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna betetzeko,

nahitaez izan behar da hauetako titulazio, ziurtagiri edo lan-esperientziaren bat:

¹ 2023ko azaroaren 7ko Aginduak, beste manu batzuen artean, 8.3.2 artikulua aldatzen du, eta, hala, lehen tartekia-
ren hasieran, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoari buruzko aipamena ezabatzen da, eta, beraz, indarrean dagoen idazketak honako hau aipatzen du: “Lanbide Heziketako espezialitateetan, zeinen zerrendetan sartzeko aski baita irakaskuntza-ondorioetarako baliokide aitortu diren unibertsitatez kanpoko titulazioak izatea”.

Agindu horrek Lanbide Heziketako irakaskuntzen erregulazioan onartutako lege-aldaketei erantzuten die, eta aldaketa horiek, besteak beste, irakaskuntzako funtzio publikoaren antolamendua osatzen duten kidegoei eragiten diete.

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasle-lanbide arautuetan aritzeko gaikuntza ematen duen unibertsitate-masterraren titulu ofiziala, edozein espezialitatekoa.

b) Honako titulu edo ziurtagiri hauetako edozein, 2009ko urriaren 1a baino lehenago eskuratua:

- Espezializazio didaktikoko lanbide-titulua, irakaskuntzarako trebakuntza-agiria edo irakaskuntzarako gaitasun-agiria.

- Maisu-maistraren titulua, oinarrizko hezkuntza orokorreko irakaskuntzako diplomaduna, lehen hezkuntzako maisu-maistra, bai eta pedagogia edo psikopedagogiako lizentziadun-titulua eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa barnean hartzen duen lizentzia edo titulazio baliokidearena ere.

c) 2008-2009 ikasturtea amaitu aurretik irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatu baimenduetan bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez, jarraian edo etenekin, irakasle gisa aritzea, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuak arautzen dituen mailetako eta irakaskuntzetako irakasle-espezialitateetan.

3.2.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko espezialitateetan, zeinen zerrendetan sartzeko aski baita irakaskuntza-ondorioetarako baliokide aitortu diren unibertsitatez kanpoko titulazioak izatea, hautagaiak halako titulazio baliokide bat badauka, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna betetzat joko da, lehen aipatutako kasuez gain, egoera hauek aldi berean gertatzen badira:

- Egiaztagiri ofiziala izatea, frogatzen duena Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 100.2 artikuluan eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokide den prestakuntza baduela –irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduak ezarria–.

- 2014ko irailaren 1a baino lehen irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatu baimenduetan bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez, jarraian edo etenekin, irakasle gisa aritzea, dagozkion maila eta irakaskuntzetan.

(...)

Xedapen horren arabera, **Administrazioak egokitzen jo zuen KKK jauna espezialitatearen zerrendan ez sartzea, ez baitzuen maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzakoak (LOE), 100.2 artikuluan aipatzen duen prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik, irakaskuntza bakoitzari dagokion erregulazioaren arabera. Zehazki, prestakuntza hori egiaztatzen ez zuelako, 8.3.1 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan.**

Erabaki hori gora jotzeko errekurtsoren erantzunean berretsi zuten, honako hau argudiatuta:

...(r)i dagokionez, errekurtsogileak zerrenda horretan sartzeko eskaria egin baitu, izen bereko espezialitateari esleitutako ikasgaia da, eta, aldi berean, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoari esleituta dago, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuak, Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta araubide bereziko irakaskuntzetan irakaskuntzan jarduteko prestakuntza-baldintzak definitzen dituenak eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoen espezialitateak ezartzen dituenak, ezartzen duen bezala. Errege-dekretu horrek oinarritzko izaera du. Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren egiaztapena, kasu horretan, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3.1 artikuluan aurreikusitako moduan baino ezin da egin.

8.3.2 artikulua, errekurtsogileak aipatzen baitu, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoari esleitutako irakaskuntza-espezialitateei aplikatu behar zaie —kidego hori, gaur egun, desagertzeaz dago—, zeinetara, gainera, irakaskuntza-ondorioetarako baliokidetzat jotzen diren unibertsitatez kanpoko titulazioekin sartzea baimentzen da. Hau da, ezin zaie aplikatu aipatutako irakasle-kidegoko espezialitate guztiei.

Zalantzarik gabekoa da KKK jaunaren eskaria ... espezialitatearen zerrendari buruzkoa dela, eta espezialitate hori, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren II. eranskinean —“Espezialitateak eta irakasgaiak” izenburuarekin— hemen sartuta dagoela: “Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa” apartatuan, “Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa” azpiatalean, zehazki. Kontu hori bat dator, bestalde, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin, transkribatutako administrazio-ebazpenak adierazten duen bezala.

Komeni da gogoratzea 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak bere xedeen barruan dituela aldi baterako zerbitzuak emateko hautagaien zerrendak egitea eta kudeatzea, eta zerrenda horiek espezialitateen arabera eratzea aurreikusi duela (3. artikulua), mailatan multzokatuta, aipatutako II. eranskinean jasotzen baitira.

Hautagaiak kualifikazioa duten espezialitateetan parte hartu ahal izango dute (6. artikulua), eta hori III. eranskinean jasotako titulazio espezifikoak edukiz egiaztatzen da (10. artikulua).

Hala, eranskin horretan —“Titulazio eta espezialitateen taula”— ... espezialitateari honako titulazio hauek dagozkie, guztiak ere unibertsitate-izaerakoak: Maisu-maistraren titulua, ... Espezialitatea (1440/1991 ED); Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko maisu/maistraren edo irakaslearen titulua + ... Lizentzia edo diploma ... edo Gradua ...; Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea ...; Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentzia edo Diploma ... edo Gradua ...

Zerrendetan sartzeko, araudiak oro har ezartzen dituen baldintzak bete behar dira (7. artikulua), bai eta 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8. artikulua jasotzen dituen baldintza espezifikoak ere, hautagaiak nahi duen zerrendarekin bat etorritz.

Hartara, arrazoizkoa denez, desberdina da eskatutako titulazioaren izaera, irakatsi nahi diren hezkuntza-mailen arabera (8.1 artikulua). Desberdina den bezala dagokion espezialitaterako eskatzen den kualifikazio zehatza (8.2 artikulua, 10. artikuluekin eta II. eranskinarekin lotuta).

Azkenik, betekizun espezifikoaren artean, 8.3 artikulua honako hau ezartzen du: “maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2. artikuluan aipatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa izatea”. Eskakizun hori ere modulatu egiten da sartu nahi den zerrendaren arabera.

8.3.1 apartatua **arautzen da nola egiaztatu behar den prestakuntza, zerrendetan sartu nahi izanez gero espezialitate hauetan**: Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Hizkuntza Eskola Ofizialak. **Bereziki**, irakaskuntzako lanbideetan jarduteko gaitzen duen **unibertsitate-masterraren tituluaren bidez**, ezertan galarazi gabe beste akreditazio-bide batzuk aitortzea.

8.3.2 apartatua arautzen du nola egiaztatzen den prestakuntza hori “Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko espezialitateetan, zeinen zerrendetan sartzeko aski baita irakaskuntza-ondorioetarako baliokide aitortu diren unibertsitatez kanpoko titulazioak izatea, hautagaiak halako titulazio baliokide bat badauka”.

Kasu berezia da, eta ez zaio aplikatzen unibertsitate-masterreko titulu ofizialaren eskakizuna, 3.1 artikulua a) letrakoa, ez eta 8.3.1 artikulua berak aurreikusten dituen salbuespenak ere, **halako moldez non egiaztatena gerta baitaiteke ziurtagiri ofiziala edukitzearen ondorioz**, irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduan aurreikusitakoaren arabera, **edo, bestela, irakaskuntzan 2014ko irailaren 1a baino lehen jardun izanaren ondorioz**, definitutako baldintzetan. **Azken aurreikuspen hori bere kasura aplikatzea nahiko luke KKK jaunak.**

Manuak hitzez hitz dioenak zalantza gutxi sortzen ditu kasu honetan ez aplikatzeari buruz; izan ere, **unibertsitate-titulua eskatzen duen Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegari dagokion espezialitate baten zerrendan sartzeaz ari gara. Zalantza izpirik gabe**, espezialitate hori ez dago “Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko espezialitate hauen barruan: unibert-

sitateaz kanpoko tituluak dituztenen zerrendetan sartzeko aukera ematen dutenak.”

Irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduak —ekainaren 7ko ECD/1058/2013 Aginduak aldatua—, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3.2 artikuluan aipatua, hau ezarri du: irakaskuntzarako baliokidetzat jotako titulazio bat izanik master-ikasketarik egin ezin duten pertsonen zer prestakuntza eskatzen zaien prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokidetzat.

Azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak aipatzen duen irakasleen egoeraz ari gara, zera aurreikusi baitu xedapen horrek: titulazioa dela eta, errege-dekretuak berak aipatzen dituen masterreko ikasketak egin ezin dituzten irakasleen prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa LOEren 100. artikuluan eskatzen duenaren pareko prestakuntzaren bitartez egiaztatuko dela, ezarritako baldintzen arabera.

Araubide hori LOEren barruan sar daiteke, irakaskuntzan unibertsitatez kanpoko tituluak izanda jarduteko kasuen erregulazioari dagokionez —adibidez, 95. artikuluan aurreikusitako kasuak (lanbide-heziketako irakasleak) eta 98. artikuluan (kirol-irakaskuntzetako irakasleak)—.

8.3.2 artikuluan dioena bat dator arau-testuinguru horrekin, halako moldez non prestakuntza pedagogikoaren akreditazioaren berezitasuna bat datorren lanbide-heziketako espezialitateen zerrendetan sartzearekin, horietan sartzeko ez baita unibertsitate-titulurik eskatzen. Hori ez da, esan bezala, errekurtsogileak eskatzen duen espezialitatearen kasua.

Adierazitakoak agerian uzten du zuzenbidearen araberakoa dela KKK jauna zerrendan sartu ez izana, eta 2023ko maiatzaren 19ko Ebazpenak ez du horretarako inolako garrantzirik, aurreratu den bezala, aldi baterako zerbitzuak eman dituen lanpostuak edo kategoriak ez baitu garrantzirik.

Errekurtsogileak aipatu den ebazpenetik ondorioztatzen duen “Lanbide Heziketako irakasle tekniko espezialista” izateak ezin ditu inola ere aldatu eska daitezkeen baldintzak, eta horiek dira, nahitaez, bere eskaerari dagokion espezialitatearen zerrendatik eratortzen direnak.

Hori da KKK jauna espezialitate horretako zerrendan ez sartzeko erabakiaren arrazoia...

196/2023 ABJI, par.: 33-63

10. Kapitula. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN KONTRATUAK

I. Kontratua azkentzea

A) Kontratua suntsiarazteko arrazoiak

Kontratuko gainerako funtsezko obligazioak ez betetzea

Zuinketaren kontzeptuaren abiapuntua kontratazio-espeditentea prestatzeko fasean dago, eta SPKLren 236. artikuluan definitzen da. Honela dio 1. apartatuak: “Proiektua onartu ondoren, eta obraren kontratazio-espeditentea onetsi aurretik, haren zuinketa egingo da; obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko da zuinketa, eta obra hori arazorik gabe egiteko behar diren lurrak erabilgarri daudela ziurtatzeko. Era berean, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrizkoak diren kasu guztiak egiaztatu behar dira”.

Hari lotuta, zuinketa egiaztatzeko unea kontratua adjudikatu ondorengoa da, SPKLren 237. artikuluan eta Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren (KEO) 139. artikuluan eta hurrengoetan arautua.

SPKLren 237. artikulua aurreikusi duenez, “obra-kontratua zuinketa egiaztatzeko aktarekin hasiko da egikaritzen. Horretarako, obren ardura daukan administrazioako zerbitzuak, kontratista aurrean dela, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du kontratuan jasotako epearen barruan –justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik, epea, kontratua formalizatzen den egunetik kontatuta, ezingo da hilabetetik gorakoa izan–; emaitzak akta batean jasoko dira, eta, interesatuta dauden bi alderdiek izenpetu ondoren, kontratua egin zuen organoari bidali beharko zaio aktaren ale bat”.

Bestalde, AKPAren 6. klausulak honako hau dio: “Kontratua egikaritzeko epea zuinketa egiaztatzeko akta izenpetzen den egunaren biharamunean hasiko da, akta horretan beste data bat ezartzen ez bada behintzat”.

Zuinketa egiaztatzea, beraz, funtsezko elementutzat hartzen da gure ordenamendu juridikoan obra-kontratuaren barruan, kontratuaren garapenean beharrezko eta ukaezinezko fasetzat jotzen baita, eta kontratua egikaritzeko lehen egintzat, hura gabe ezin baita kontratua gauzatu.

Aldez aurretik zehaztutako edukia duen egintza formal bat da, eta funtsezko helburutzat du obra egin nahi den lurren edukitza eta benetako eskuragarritasuna egiaztatzea eta ziurtatzea,

bai eta obra lizitatu den proiektuaren egokitasuna eta bideragarritasuna ere, kontratistari bermatuz ez dagoela obra hasteko oztopo material eta teknikorik.

Zuinketa egiaztatzeko, zuinketa egin dela ziurtatzen duen akta bat egiten da, eremu material eta teknikoko egintza bat, aipatutako egiaztapenetara mugatua, eta haren barruan ez dago izapide horren alderdi zehatz eta espezifikoek kanpikorik.

Hala, zuinketa egiaztatzeko aktan adierazi beharko da ea proiektuko kontratu-agiriekin bat etorri egin den ala ez, eta bereziki eta espresuki adieraziko dira obraren ezaugarri geometrikoak, beharrezko lurra okupatzeko baimena eta kontratua betetzeari eragin diezaiokeen beste edozein puntu (KEO, 140.1 artikulua).

Aurreratu bezala, **egiaztapen-egintza horrek epea bete behar du**; SPKLren 237. artikulua xedatzen duenez, ezingo da hilabetetik gorakoa izan formalizatzen denetik, justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

Kontratu-harremanaren bidez lotutako alderdiak dira egiaztapen horren akta sinatu eta jaso behar dutenak, eta akta horren ale bat igorri behar diote kontratazio-organoari.

Emaitzak ikusita, kontratuaren egikaritzari ekingo zaio, edo –lurra erabilgarri ez badaude edo obra-zuzendariak proiektatutako obrak aldatzea beharrezkotzat jotzen badu – obraren hasiera eten egingo da, eta aktan jasoko da, harik eta kontratazio-organoak dagokion ebazpena eman arte (KEO, 139.4 eta 140.2 artikulua).

Era berean, ezaugarri duen alde bikotasunaren ondorioz, **kontratista ez bada ekitaldira joaten eta arrazoi justifikaturik ez badu, kontratuaren ez betetzat joko da, legean aurreikusitako ondorio eta efektuekin, hau da, administrazio-kontratuaren suntsiarazpenarako espedientea irekitzeko aukera emango luke** (KEOren 139.1 artikulua).

Hala ere, **kontratistak zuinketa egiaztatzeari buruzko oharra aurkezten baditu, KEOren 139. artikuluko 4. eta 5. apartatuetako aurreikuspenak aplikatuko dira, eta aktan behar bezala jaso beharko da hori.**

Kontratazio-organoak, administrazio publikoen kontratuei buruzko legeriak esleitzen dizkion ahalmenen barruan, dagokion ebazpena ematen ez duen bitartean, eten egingo da obraren hasiera, akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, obrak hastea eragotzi zuten arrazoiak gaindituz gero, obrak hasteko baimena emateko erabakia hartu ahal izango da, kontratistari jakinarazita, eta egikaritzeko epea jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Kontratazio-organoaren iritziz kontratistaren eragozpenak oinarririk gabekoak badira, obren hasiera ez da etengo, eta, ondorioz, ez da beharrezkoa izango beste erabaki bat hartzea obrei ekin eta obrak egiteko epearen zenbaketa aldatzeko (KEOren 139.5 artikulua).

Era berean, jasota utzi behar da ezen, **kontratua formalizatuta badago eta ezin bada egikaritu zuinketa ez egiaztatzeagatik, kontratua suntsiarazteko arrazoi espezifiko bat ere badela, SPKLren 245.a) artikulua araber, Administrazio kontratugileak irizita falta hori kontratistaren ezezkoaren ondorio dela, eta horrek, arrazoi justifikaturik ezean, kontratua ez betetzea dakar**, SPKLn aurreikusitako ondorio eta efektuekin, KEOren 139.1 artikulua araber.

132/2023 ABJI, par.: 40-55